

REFRANES Y SENTENCIAS (1596)
IKERKETAK ETA EDIZIOA

19

Edizio kritikoa
Joseba Lakarra Andrinua

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINdia
BILBAO 1996

REFRANES Y SENTENCIAS (1596)
IKERKETAK ETA EDIZIOA

Colección EUSKARAREN LEKUKOAK-19



Bizkaiko Foru
Aldundia

Kultura Sailea

Diputación Foral
de Bizkaia

Departamento de Cultura

© REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA
Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO

I.S.B.N.: 84-85479-83-1
Legezko Gordailua BI: 158-97

Fotokonposaketa: Ikur, S.A.
Cuevas de Ekain, 3, 1º - 48005 Bilbo

Moldiztegia: A.G. Rontegui, S.A.L.
Avda. Ribera de Erandio, 4 - 48950 Erandio (Bizkaia)

Gregorio Lakarra Lakarta
(1908-1996)

In memoriam

REFRANES Y SENTENCIAS (1596)

IKERKETAK ETA EDIZIOA

AGURRA	XIII
SARRERA	XV
I. REFRANES Y SENTENCIAS (1596). IKERKETAK	1
GARIBAIREN BILDUMAK ETA <i>REFRANES Y SENTENCIAS</i>	
1. Aitzinekoak	3
2. Sarrera Garibairen errefrauez	7
3. Urquijoren hipotesia	8
4. Hipotesi berri bat	12
5. Laburbilduaz	26
6. Eranskina. A eta B-ren ekoizpen ordenaz	27
REFRANES Y SENTENCIAS ETA HERNAN NUNEZEN BILDUMA	
1. Urquijoren baieztapenak	30
2. Urquijoren emaitzen sailkapena	34
3. HN-tik hartutakotzat Urquijok aurkeztu RS-ekoen azterketa orokorra: datuak eta metodoak	42
4. Metodo berri bat RS eta HN-ren arteko erlazioen azterketa-rako	60
4.1. Urquijoren benetako emaitzak	60
4.2. Bikote eta segida luzeagoez	62
4.3. Metodoaren ezarketa eta emaitzen azterketa: RS-ek erabili HN-en berreraiketaz	65
5. Ondorio orokorrak: RS-en HN-ekiko zorraz	74
REFRANES Y SENTENCIAS-EN TAMAINA ZEHAZTUAZ	
0. Laburpena	77
1. RS osatuaz: Vinson	78
2. Urquijo Oihenartek ezagutu RS-ez	79

REFRANES Y SENTENCIAS (1596)

3. Mitxelena Oihenarten RS-ez	79
4. Mitxelena RS-en tamainaz	80
5. Larramendiren «kuaderno zaharra»	81
6. Hiztegi Hirukoitzaren Eranskinak Mitxelenak aztertuta: Darmstadt-eko alekoak	83
7. Eranskineko RS galduetakoak	85
8. Azterketa berri baterantz	86
9. Eranskinaren iturrien berrazterketaren eragina gure helbu- ruetarako	87
10. Saioak RS osaren tamainaz: Darmstadt-ekoaren hurrenke- iaz	90
11. E-ko RS-en erabilera orokorraz	91
12. Lehen eta laugarren kuadernotxoak ezagutzen ote?	93
13. Azterketa: Larramendik lehen eta laugarren kuaderno- txoetarik hartu omen zuenaren benetako jatorriaz	96
14. Darmstadt-eko alean ez diren zatiez eta behin-behineko on- dorioak RS osoaren tamainaz	103
15. Excursusa. RS Hiztegi Hirukoitzaren gorputzean?	106
16. Ondorioak	110
17. Eranskina: <i>Refranes y Sentencias</i> Hiztegi Hirukoitzaren Eranskinean	111

REFRANES Y SENTENCIAS-EN JATORRIAIZ

0. Sarrera	117
1. <i>Refranes y Sentencias</i> -en jatorriazko hipotesiak	118
1.1. Urquijo eta Guerra RS-ez	118
1.2. Azkue RS-ez	119
1.3. RS Azkueren Hiztegian	124
1.4. Bittor Kapanaga	126
2. Hipotesi berri baterako	130
2.1. Orozkori aitzi	130
2.2. Zenbait gogoeta generoaren soziologiaz	133
2.3. Bilbo aldeko literatura zaharraz	136
2.4. <i>Realia</i>	140
2.5. Hizkuntzaz	142

REFRANES Y SENTENCIAS-EN HIZKERAZ ETA BIZKAIERA ZAHARRAZ

0. Laburpena	147
I. Sarrera	147
I. Bizkaiera euskara ote?	149

AURKIDIDEA

2. Bizkaiera zaharra eta euskalki banaketaz	151
3. Iruzkina eta azterketa berrien beharra	153
II. <i>Refranes y Sentencias</i> -en hizkeraz	157
1. Morfoloziako ezaugarri zenbait	158
1.1. Ablatiboaz	158
1.2. Prosekutiboaz	161
1.3. Soziatiboaz	163
1.4. -a / -e- oposaketa aditzean	165
1.5. -de iragankorretan	166
1.6. -n > -ø erorketaz	166
1.7. Futuro zaharraz	169
1.8. Futurozko imperatiboa	171
1.9. -zu «zuck»	173
2. Oharrak sintaxiaz	177
2.1. Aoristoaz	177
2.2. <i>Eroan</i> eta <i>joan</i> laguntzaile gisa	179
2.3. *ezan / egin	181
2.4. -ø / -tu	185
2.5. Komunztadura falta	188
2.6. bai(s)t-	191
2.7. Objeto zuzena genitiboan / nominatiboan	191
2.8. Genitiboa gonbarazioan	192
2.9. Koordinazio zahar bat	193
III. Zenbait ondorio RS-en kokaguneaz BZ-aren barnean	194
HIZTEGIA	199
Adizkitegia	223
BIBLIOGRAFIA	229
II. <i>REFRANES Y SENTENCIAS</i> (1596). EDIZIOA	245
III. FAKSIMILA	383

AGURRA

«Refranes y Sentencias» bildumak garrantzi handia izan du euskarazko argitalpenen artean eta, agian, honelako gaien argitalpenek orohar izan dutena baino handiagoa. Euskaraz ez da garai horretako hainbeste testu idatzi euskara beraren izatea eta historia azterzea, eta horrelako lana bere garaira lotzen den arren ezinbestez, errefrauak, testu fosilizatuak izan ohi diren neurriari —esaldi bat ezpaita errefrau bihurtzen era bileraren eta, horrekin batera, denboraren eraginaren eraginez baizik—, hizkuntzaren historia azterzea askoz ere epe luzeagoa hartzen dute, mendeetan gora joan behar izaten baita errefrauak loturak, harremanak eta iturburua somatu abal izateko.

Ospakizun garrantzitsua da, beraz, bilduma honen lehen inprimaketaren laugarren mendeurrenarenan. Euskaltzaindiak ezin utz zezakean hori ospatu gabe, eta behin eta gehiagotan aztertuak izan diren arten honako hauak, zatika eta ikuspegi mugatuz baizik ez dira izan, helburu konkretutarako, puntu zehatzak argitzeko edo irakurleek bere esanahai soilean uler abal ditzaten.

Joseba Lakarra-k osoki aztertzen ditu lan bonetan eta, bilduma horren aberastasuna erabat abitzerik ez badago ere, oso pozgarri gertatu zitzaidan lan hau ia prestatua zuela jakitera eman zidanean, Euskaltzaindiak antolaturiko ospakizunerako argitaratzeko asmotan.

Beraz, Euskaltzaindiarekin batera, ongi etorría ematen diogu lan honi, esan bezala eta besteak beste, euskararen historiarako —bizkaiera tarteko dela hain zuzen— ekarri handiko testua delako.

Tomas Uribeetxebarria Maiztegi,
Bizkaiko Foru Aldundiko kulturako diputatua.

SARRERA

Ezagun denez, humanista espanyiar anitz Hernán Núñez-engandik (1555) Correas-ganaino (1627) Pedro Vallés (1549) edo Juan de Mal Lara (1568) barne tarroenak baino ez aipatzearren, esaera¹ eta errefrauak biltzen eta iruzkintzen aritu ziren.² Jakintsuen idazlanekiko begirune eta zaletasunaz landa, herritar txiroen filosofia sakonarekiko eta herri-artearen sorkuntza «natural» eta «berezko»ekiko jaiera eridecen ahal da bereiengana (Chevalier 1979: 105). Dirudienez, Espanian sentimendu hau beste inon baino hedatuagoa zen: ez Frantziako, ez Italiako eta beste Europako lurraldetakoa pareka ahal liteke bere zabaltasun eta sakontasunean espanyiarrek xv. mendearen akabuaz geroztik herri lirika, balada (romancero) eta errefrauaz³ erakutsi interesarekin.

Egoera lehentxeago oso bestelakoa zen Combetek erakutsi bezala: «(...) nous avons vu qu'il en allait autrement avant cette date et qu'en particulier la parémiologie populaire française recueillie au XIII^e siècle et au siècle suivant est incomparablement plus riche que la parémiologie espagnole de la même époque» (1971: 134) eta, oharrean «Après le XVII^e

¹ Combet (1971: 58) jarraituaz errefrauak «une phrase indépendant anonyme et notoire qui, sous une forme elliptique, directe ou de préférence figurée, exprime poétiquement un enseignement ou un avis d'ordre moral ou pratique» gisa ulertuko ditut; marka bedi gaztelariar tradizioan idazleek 16. menderako *refrán* eta *proverbio* ez zituztela dagoeneko bereizten. *Sentencia, adagio, máxima*, eta besterekin izan dezaketen erlazio eta bereizkuntzez ikus Combet-en liburuaren lehen zatia, non tentuz aztertzan baita aurreko bibliografia. Euskaran *errefrau* k dituen aldaerez ikus Mirxelena 1985.

² Pedro Vallés 4.500 bat errefrau, glosagabeak gehienbat, bildu zituen; Hernán Núñez-ek 8.331 errefrau, hauek ere glosagabeak (RS-ekoak bezalakoak, bidenabar); Mal Larak 1.001 errefrau glosadun eta Correasek 18.000 errefrau inguru eta beste 7.000 esaera eta esapide. Azken honetan, iturri ugari erabili arren, 8.000 errefrau edo originalak omen (Combet 1971: 170).

³ Iku Lakarra 1996d eta hango erreferentziak, bereziki Frenk Alatorre 1961 eta Combet 1971, errefrauuen eta tradizioko kantu arteko loturez; dakigunez, Garibaren (B6, A25) *Mila urte igarota ura bere bidean* Beotibarko kantuaren lehen lerroa da, edota *Haltzak ez du bibotzik, ez gaztanberak bezurrik* errefrau izateaz landa *Bereterretxe* eta *Apez Beltzaren* distikoa cre bai (cf. Lakarra et alii 1983a, b); azkenik, RS 517 *Eder claea goxean cátazaran, enearé cátac jona biozean* edo Gar B61 *Dardoac eguin arren vere aldia, Olaso iñango da ene aulquia* edota beste zenbait errefrau iraun ez duen bertsoren baten zati dirudi; bidebatez, *Al cabo de mil años...* gazteleraez ere kantatzen zen, v. Frenk Alatorre (1961: 158, n.12). Hor bertan, 160. or. Barrutiak ere (euskaraz) gogoratzan zuen *Por dinero baila el perro-ten* kasua aipatzen da.

siècle les proverbes ne disparaissent pas de l'usage courant. La situation est différente suivant les couches sociales et surtout suivant les pays. Ceux que le classicisme à la française a le plus marqués ont vu peu à peu s'éteindre leurs proverbes, sauf dans certaines régions excentriques ou rurales. En revanche, les nations les plus réfractaires à la rationalisation d'essence française —Espagne, Russie— ont conservé très tard ce mode d'expression».

Bestalde, Erasmoren *Adagia-k* bere jarraitzaileei bihotz eman bazien ere paremiologi lanetarako, maisuarekiko ezberdintasunak argi ziren Valdés-ek berak erakutsi legez: «...la diferencia es que Erasmo cogiólos en latín, de autores doctísimos, griegos y latinos, y declaró el origen de ellos. Yo helos copilado en romance, tomando de acá y de acullá» (*apud* Chevalier 1979: 106-107).

Orpustanen (1996) arabera Euskal Herriko alderdi guztietan gizarteko elite laiko landuenen aldetik emandako errefrau bilketak Oihenartek batu eta bere 1657ko poesi eta errefrau liburuan argitaratu 706 errefrauako bilduma 1665ean emendatuan (cf. Urkizu 1994)⁴ lukeen bere gailurrera iritsi aurretik, ondoko euskal errefrau bildumez dugu nolabaiteko berrirrik: 1) Juán de Idiáquez Felipe II.aren Kontseilari eta bere herkideari Garibaik «hitzez hitzeko lerroarteko itzulpenarekin»⁵ 1592an bidalitako 63 eta 64 errefrauako bi; 2) *Refranes y Sentencias en Bascuence, declaradas en Romance, etab.* Iruñan, Amberesko Pedro Porralisen etxeen 1596an argitaratu eta haren ale ezagun bakarra van Eys-ek Darmstadt-eko biblioteka batean bi mende beranduago aurkitu eta argitaratua, zeinetarik 560 errefrau ezagutzen ditugun; 3) Bertrand Zalgizeren bilduma (16.aren amaia-17.aren hasiera); 4) Isastiren errefrauak (c. 1625); 5) Belaren *Tablettes-etakoak*.⁶

Eskuizkribatu zein inprimatu, izengabe edo idazle ezagunek bildurik, errefrauak 16. mendearen akabuko eta 17. mendearen hasierako literatur molde nagusienetako ditugu. Mendebaleko Garibai eta 1596ko izengaberen bildumetarik Zalgize, Bela eta Oihenart ekialdekoenetara, Isastiren etik

⁴ Bere bizian Mitxelenak (1967) atera 186 (707-892) argitaragabe gelditu ziren; horietarik 20 (808-827) RS-en zati galdukoak ziren Mitxelenak frogatu bezala, beste 18 (800-807 eta 828-837) Darmstadt-eko alearen bitartez ezagutzen zelarik Urquijo dagoeneko ohartu zen legez.

⁵ Gertakari honek 1596ko bilduma izengabea gogoratzan dio Orpustan; alabaina, behereago erakusten diren bestelako ezagarririk ezberdinez eta ukitu ez arren nabarmenki oso berezia duten prosodiaz landa ere, RS-en erabat falta dira Garibaik bereei jarri glosa eta azalpenak.

⁶ Bilduma txikiago hauetaz aritu naiz zabalago Lakarra 1996d-n; Oihenarten errefrauuez ikus Kortazar 1996 eta, luzeago, Orpustan 1992 eta 1996.

barrena,⁷ euskal lurrardearen zati handi bat ukitzen eta islatzen dute mende-erdi batez.⁸ Bilduma hauei Madariagak eta beste zenbait autorek aipatutakoak, bereziki Axularren «erran komunak»,⁹ gehitu beharko litzaizkieke: *Fin gaitez eginen duk, xoria, baldin gaztedanik ezpadagik kasia* (120), *Erran komuna da gezurrak zañak labur dituela* (331), *Zeren erran komuna den bezala, otharte bat egiten duenak egir ditzake ehun ere* (178), *Hura da, burtan burtan erran komuna den bezala: usoak ioan, sareak hedea* (158), *Zeren erran komuna den bezala, ikhusten eztuen begiak ezu minik* (193), *Erran komuna da ezpatak ezpata sar arazitzen duela maginan* (366); ez dira beti, noski, formula horrekin hasten eta badira hainbat Gero dioenak bego dio (6) bezain ezagun bihurtu ez direnak ere. Deitoragarria da Gero-ko errefrau eta esacerek sakonki ez aztertua, Urquijok eta Villasantek fray Luis de Granada-rekin lotu arren; izan ere, liburuaren ckoizpena bera argitu ahalko luke —errefrau zenbait lekutzeaz landa— haren iturriak ere genero horretaz zuen zaletasuna ezaguturik.

Pouvreuren hiztegietako errefrau ugariak haren iturri Oudin-engandik dato (cf. Kerejeta 1991b); Voltaire-k haren *Tresor de trois langages* —frantsesa, gaztelera eta euskara, c. 1620, geroztiko hainbat edizio data-dun eta datagaberekin— delakoan, ez zuen euskal errefrau herrikoirik bildu, beste hizkuntzetatik itzuli baizik (cf. Vinson 1891-7: 12.i):

Je viens de faire remarquer qu'il n'y a point là, en réalité, des proverbes basques recueillis dans le pays. Ce sont, au contraire, des proverbes, des adages, des sentences, qui faisaient partie du texte français ou espagnol dont s'est servi Voltaire et qu'il a traduit en basque; l'intérêt en est donc des plus médiocres.¹⁰

⁷ Orpustanek (1996: 59) gipuzkeratzat du Isastiren hizkera baina gogoratu beharko litzateke Bonaparteren (xix. mendeko !) kartan ere euskalki horren gunetik urrutia dela Lezo; Oihenartena, «baxnafarrera zubererazko ukitu batzukin» (*ibid.*) —Bela eta Zalgizeren zuberera garbiaren aurka— omen, eta hala izan liteke estadistikoki, baina Mitxelenak inoiz baino gehiagotan erakutsi duenez, mendebalagoko estrato horrek —argitaratueta argitaragabeetan baino areago— egilearen beraren eta bildutakoaren zubererazko ezaugarriak estalizca lortzen ez duelarik.

⁸ Combet-ek (1971: 135 hh.) «gaztelarazko errefrauategien urrezko aroa» deritzo 1549 (Vallés) eta 1627 (Correas) bitartekoari, nahiz eta bigarrenak dagoeneko aski berankor dirudien eta areago haren ondokock; gure kasuan, Orpustanek euskal *Summa Paremiologica* zat duen Oihenartenaz landa, guziak letozke bat kronologia horrekin.

⁹ Zenbakiek Villasanteren (Oñati 1976) ediziokoa dira. Bidenabar, ez dakit zehazki zer duen gogoan Orpustanek «les formules sonores du proverbe basque ont constitué (...) toute une école de la vie qui véhicule quelque chose de la mentalité profonde d'un peuple. Ils ont aussi pour cette raison abondamment fourni, en citations ou paraphrases, à la littérature basque des siècles suivants» (1996: 64) diocnean; nolanahi ere, ez du adibiderik ematen.

¹⁰ *Anciens proverbes basques et gascons recueillis par Voltaire et remis au jour par M. Gustave Brunet*, Bayona 1872 du mintzagai. Aurreko orrialdeetan Vinsonek 13. kapitulua aipatzen du, bertan F. Obeada gueldiriq egoitea gasqu eguytea bagnou, G. Onguy pauzatu nahidouena hagnys trabailatu behardu, C. Hastenduenaq eguyta, estu acabatu edo D. Onguy haridena erdy eguynda edo acabatua bezalakoak azaltzen direlarik; bida orain bitxi horren edizio bat Lakarra 1995b eta 1996b-n.

1596an argitara zen Iruñan Amberesko Pedro Porralisen etxearen honako izena zeraman bilduma: *Refranes y Sentencias comunes en Bascuence, declarados en Romance con números sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas*. Vinsonek bere Bibliografian dioenez (6-7-zba.), liburuak ez du inongo zenbaki, *exlibris*, signatura ez jabe izenik. Ez da bertan sarrera, aitzinsolas ez abisurik; ez da erideiten baimenik ez zerga agiririk. Ohartzekoa da, orobat, ez dela titulurik eta azken orriaren itxurak balirudike liburua bukatzeke dela, argitalpena inprimatzean moztu izan balitz bezala. Ezagutzen zen ale bakarra Hesse-ko Arkiduke Han-dien bibliotekan (Darmstadt-en) gordea genuen azken Mundu Gerlan ondatu eta galdu artean; han aurkitu zuen 1894ean van Eys-ek eta argitara eman bi urte beranduago, liburuaren 300ak egiten zirenean. Ale honek 539 errefrau zituen, 64 orrialdetan. Suntsitu baino lehen Urquijok ere izan zuen parada haren argazkiak lortzeko eta haien baliaturik eman zuen bere argitalpen iruzkinduna 1911-33 urteetan RIEV-en.

Liburua, ezagun da, euskal testu-tradizioan aipatuenetarik dugu (horrenbestez harako Mitxelenaren teoremaren arabera klasikotzat jo hehar dudan ez jakin arren) eta garrantzitsuenik euskararen historia eta euskal filologiaren bilakabideaz zaletuen eta bercziki trebatuen artean behin baino gehiagotan aldarrika eta erakutsi izan zaigun legez. Egjatan, czer gutxi diosku liburuskak bere buruaz eta bai, aldiz, zalantza eta galdera asko sortzen: nor zen bere egilea?, zein bere tamaina?, ze eratako zabalkundea izan ote zuen eta nork ezagutu ote?, nondikakoak ote dira errefrauok?, etab., eta hori soilik hemen aztergai nagusi izan ditugun filologiazko oinarri-oinarritzkoen artean. Horiei eteneinezko loturaz estekatuak hizkuntzarcikikoak oro, behin baino gehiagotan esaeren ulerpen zehatza bera barne. Azkue eta Urquijorekin hasi eta arestian itzali zaigun Irigoyen, Lafon eta Mitxelena bitarte, mende honetako filologo nagusiak arazo hauek edo horiei lotuak argitzen saiatu dira. Beraien eta sona gutxiagoko beste anitz izan ditut solaskide azken hamabi-hamabost urteotan RS-en inguruaren egindako ikerketetan, zeinetarik batzu orain liburu honetan, edizioaren aitzinean eman azterketan, biltzen diren.¹¹

Lehen kapituluan A —zehazkiago W, honen orijinala— eta B errefrau bildumak Garibairenak direla frogatu nucla uste dut. Ene arrazoibideak bildumen tamaina, kopiagilearen egilcakozko lekukotasuna, errefrauaren ordena, hizkuntz azterketaren ondorioak, A-ren ekoizpena ulertzeko B ez den iturriren baten beharra eta bi bildumen arteko grafiazko lotura izan

¹¹ Kapitulu hakoitzaren hasieran bada lehen argitaratuuen (1.a, 2.a, 3.a, 5.a) berrirrik, nabit eta oraingo hau prestatzean aldaketak eta gehiketak hain ugari izan diren non zenbaitean (bigarrenean bereziki baina baita hostigarrenan ere) itxuraldaketa ia erabateko geritzen den.

ziren. Bestalde *RS* ez dela Garibairena egile ezezagun bat(zur)ena baino ere erakutsi nuelakoan nago. Honetarako grafiazko eta hizkuntzazko argudioak badira, eta horretan lagundi ere zuen aurretiaz Urquijok *RS*-ei buruz eraikitako teoriaren ahulezia nabarmenduak eta baita *RS*-etan, batetik, eta A-B bildumetan, bestetik, errepikatzen ziren zenbait errefrauren ezberdintasunak pisatuak ere.

Azterketaren bi atalak gertatu ziren elkarren osagarri, bateko gogoeta eta ondorioek bestekoak laguntzen eta indartzen zituztelarik, ene ustez, bata zein bestea aski litzatekeen arren Urquijoren teoria deuseztatzeko. Alabaina, biak ukitu nahi izan nituen haren ordezko baten oinarriak sendotzeko eta, bidebatez, ondorio berriak (W eta B-ren arteko kronologia zehazteko edukinezko eta grafiazko arrazoia) emendatuaz.

Arrazoizkoa iruditu zitzaidan bide horretatik abiatzea 16. mendeko bizkaierazko errefrau bildumen testukritikazko arazo ugarietan argiren bat egiteko. *RS*-ek bere aldetik ere frango buruhauste eta galdera sortzen zituztelarik testukritikari zegokionez, beste atal batzuetarako utzi nuen (agortzeko asmorik gahe, bidenabar) *RS*-en azterketa monografikoa, soilik Garibairen sorteza egin zezakeen argiagatik nerabileclarik bilduma hori.

Bigarren eta hirugarren kapituluetaako azterketan testukritika ez-stemmatikoaren alderdi batzu ukitzen dira, bereziki iturri bilaketa eta berreraiketa formalari legozkiekeen zenbait (cf. Lakarra 1988a, 1991a). Bigarrenean *Refranes y Sentencias* eta Hernán Núñez-en bildumaren arteko harremana aztertu dugu. Urquijok *RS*-en etorkiari buruz aurkeztu zuen teoria nagusia, hots, bilduma hori gehienbat Hernán Núñez-enetik itzulia zela azalduko dugu eta iruzkinduko, lehenik, eta, haren ikerbideak miatu ondoren, bi bildumen arteko erlazioak ikertzeko bestelakorik den bilatuko. Urquijoren ondorioak *RS*-en iturriez ez zaizkidala zuzenak iruditzen erakutsi dut: hobet esan, ene usteko, ez zuen frogatu Hernán Núñezena dela *RS*-en iturri nagusia, ezta bilduma hau ere —hipotesi ahulagoaren aurka— «zati larri batean» gaztelar errefrautegietarik itzulia. Hala balitz ere, bidenabar, ez zatekeen sendotuko *RS*-en etorkici buruzko Urquijoren beste hipotesia, hots, bilduma hau zela Garibairen bietarik bata. Izan ere, ez da ezer hark bere lanaz damaizkigun berriean HN-tik deus harta zuenik suposatzeko eta Urquijo ez zen saiatu ere egin bide hau urratzen.

Filologik eta horren barnean testukritika ez-mekanikoak eta iturribilaketak beharrezko duten metodologia qhalik eta hertsiena lantzeko saitzat jo behar da bertan aurkeztua, ordea, inondik ere ez Urquijoren usteketa —seguruenik susmo zuhurretan oinarrituaren— jipoitze eta masiaketa lantzat. Ez da *egia* baizik eta hura frogatzeko edo deuseztatzeko bidea (egianzta neurtzeko edo areagotzko, hobe) helburu nagusi.

Hirugarrenean hizkuntzalaritzako ohiko usadioen eredura, oraingo honetan iturriaren erabilera iturria neurri batean berreraikitzen lagun

gaitzakeela erakutsi nahi izan dut kasu-adibide saihestezin batez. Iturriaren eraginaren azterketa bana banakoaren aurrean testu edo hiztegi emai-learen egituratik abiatuaz haren isla testu (hiztegi) hartzailean ikertzen da, ondoren horretatik iturriaren egitura eta —inoiz— tamaina erdiesteko asmoz. Lehen hiztegien artean (ñabardura zenbaitekin, cf. Lakarra 1991a) landutako azterbide hau *RS* eta *Hiztegi Hirukoitz*-aren *Eranskin*-aren arteko erlazioei ezartzen zaie. Orain arte *RS E*-ren zenbait puntu, sarrera zenbaiten etorkia funtsean, azaltzeko erabili arren (cf. Mitxelena 1961, 1964, 1967 eta, bereziki 1970), nago *E* baliatuaz —eta Oihenarten lagun-tza poxi batez— ez soilik Larramendik egin haren erabilera, baizik eta *RS*-i berari buruz ere (orobat transmisioaz) zerbait jakin dezakegun.

Laugarren kapituluan *RS*-en etorkiari lotuko natzaio. Larramendiren *Eranskin*-eko iturri garrantzitsu dela ikusi dugu dagoeneko eta haren lekukotasunaren harat-honatak zehazteak interes berezia du, bizkaieraren historiarako duenaz landa, L-ren hiztegiaren osaketaren irudi garbia-goa izan dezagun; euskal paremiologiaren historia eta geografiak ere asko irabaziko luke jatorri hori ezagutuaz.

Gorago (hasierako kapituluan) lehen hurbilketa bat egin dugu *RS* eta Garibairen errefrauak erkatzean hizkuntzazko datuak ere erabili ditugularik; datu horiek dagoeneko ez dute zalantzak uzten, Garibai eta *RS* bizkaieraren (B) azpieuskalki ezberdinetarik direla salatzean: zehatzago, erkaketa horren arabera Garibai ekiadoko enparaduko lekukotasunekin (Barrutia, adibidez) dihoakigun bitartean, *RS*-ek B-mendebalekoetan lituzke bere kideak; bostgarren kapituluko hizkuntz azterketa zabalagoak ere bermatu egingo du zuzenbide hau.

Ondorio horiek abiapuntutzat harturik, kapitulu honetan aitzinamendu zenbait eimendatuko dira. *Refranes y Sentencias*-en jatorriaz egin izan diren baieztapen eta hipotesi batzu (Urquijo-Guerrarena, Azkueren ize-nean dabilena, Kapanagarena) miatuko dira eta, halaber, haien alde zain kontra diren argudioak eta argudio horien pisua. Atalaren bigarren zatian hipotesi berri bai plazaratuko dut, bai bildumaren hizkeran, bai *realia* delakoetan, eta baita literatur soziologian oinarrituaz. Orain ere erabiliko diren arrazoiketa sendoenak halabeharrez hizkuntzazkoak badiratzeke ere —eta hortik Orozkoren aldeko iritzia bereziki aztertua—, literatur soziologiaren, eta *realia*-en aldetik datozenak ere miatu nahi izan ditut, Bilbo-ko literatur ekoizpen eta giroaz —ja erabat ezezagun gertatu arren orain— garai hartarako diren aztarrenak aipatuaz, norabide berean doazlarik batak bestea indartzen duela uste baitut. Esan behar dut, ordea, kapitulu honetako gaia ere ez dudala ahortutzat jotzen, lehen ziren ele-mentuei berririk gehitzen ahalegindu arren, eta etorkizun diren azterke-tek zehaztuko bide dutela hernengo enea.

Euskal hizkuntzalaritza historikorako lekukotasun garrantzitsutzat jo izan da arrazoi osoz. *Refranes y Sentencias*. Segidako bostgarren kapitulu-

ko orrialdeetan eta hiztegiarekin (adizki guztiak barne) eman seigarrenarekin bere pisu hori zein den antzeman ahalko dela uste dugu. Orobata, bizkaiera zaharraren barruan ze argitasun egiten digun bere lekukotasunak ere miatuko da, hizkuntz ezaugarri larri batzuen azterketa gonbaratuaren bitartez; bidenabar, kapitulu honek errefrauak eurak irakurtzean norbaitek izan ditzakeen zenbait zailtasun arintzeko ere balio bide lezake. BZ-ak euskalkien artean duen kokaguneaz eta ustezko urruntasunaren lehenagoko eztabaidea baten iruzkina (cf. Lakarra 1986b) eta corpusaren aurkezpen llaburraren ondoren, *Refranes y Sentencias*-en hizkeraz aritu gara, zenbait ezaugarri morfosintaktiko larriren azterketaren bitartez; gero ondorioak atereaz RS-en kokaguneaz BZ-aren barnean, aurreko azterketaren eta abian diren beste zenbaiten (fonetikazkoa batez ere) laguntzarekin. RS bazter hizkera bat(zu)en isla legez azaltzen zaigu, arkaismu ugari eta berrikuntza csanguratsu zenbaitekin, Mikoleta bilbotarraren hizkeratik gertuen BZ-ko testuen artean. Gure ustez, agerian gelditzen da aurreko iruzkinak BZ-ak (eta inoiz bizkaiera osoak) diakronikoki eta alderdi batzuetarik bestera izandako bilakaera diferenteen azterketarako ematen duen laguntza.

Liburu honen egilea adina gutxi ohartzen bide da bertako akats, huts eta eskasiez, noizbait osatu nahi lukeen formazko eta berariaz metrikazko azterketaren beharraz, demagun. Bestelakoak aztertzeko, RS-en islatuko litzatekeen euskal gizartearen egitura, ohitura eta arimarekikoak eta, badira eta badiratke xume hau baino prestatuagoak.

Testuaren laugarren mendeurrenarekin burutu den liburu hau, bereziki, haren edizio arazoz eta zalantzaz betetako edizioa, *Refranes y Sentencias*-en ezagutzan lagungarri izan ledin nahi genuke.

Azken orduan eta aurreko urteotan egileak zor anitz hartu du testu hau dela eta: Gidor Bilbao, Ricardo Gómez, Iñigo Ruiz Arzalluz, Blanca Urgell eta Koldo Zuazo EHUKO lankideek kapitulu hauetariko zenbait idaztaldi eta itxura differentetan irakurri eta zuzenketa eta ohar garrantzitsuak egin izan dizkidate, testuaren honako edo harako pasarte zailez argitasunak eta ideiak emanaz inoiz eta nireak kiroltasunez pairatuaz, beste askoran. Antonio Cid (UCM) adiskideak 16. mendeko gazteleraezko literaturaz eta bestez duen ezagutzaz eta eskuzabal luzatu zidan garaiko errefrauategi argitaragabe aberatsaz oso neurri laburrean baliatu ahal izan naiz oraingoan. Xabier Kintanak liburu hau argitara zedin agertutako borondatea eta faksimila ahalik eta hobekienik eman zedin izan dituen lanak ere ez ditut ahaztu nahi, ezta Josu Oregi zenaren familiak hura gauzatzeko Darmstadt-en zenaren fotografiekin eman dizkigun erraztasunak ere. Euskaltzaindiak bilduma honetan egindako abegia eta Bizkaiko Diputazioko Kultura Sailaren lagunza ezagutzea benetan atsegin zaizkit.

REFRANES Y SENTENCIAS (1596)
IKERKETAK

GARIBAIREN BILDUMAK ETA REFRANES Y SENTENCIAS

1. Aitzinekoak¹

1.1. Garai beretsuko lapurterarenaren tamainara iristen ez bada ere, corpus aski zabala aurkezten digu bizkaiera zaharrak;¹ aldameneko euskalkiak baino naroago delarik, alde honetatik, testuek damaiguten informazioa haietatikoa baino jori eta ñabarrago ere bada sail gehiagotatik ilkia izanik.²

¹ 16. mendeko errestrau bildumen gaia zegokion Donostian EHUaren 1985eko Udako Ikastaroan (irailaren 7an) bizkaiera zaharra zaharriz irakurri nuen txostenaren 2. zatiari (cf. Lakarra 1986a zeinen bertsio, ustez hobetua, den atal hau). Bertan BZ-ak filologiarren aldetik dituen arazoetarik bat erakutsi nahi nuen, adibide praktiko gisa, txostenaren 1.koan hizkuntzaz mintzatzu ondoren. Zati hau uste baino gehiago lutzaturik, ez nuen filologiaz hitzegitarik izan eta pentsatutik —agian oker— norbaitek zerbaitek interesgaririk eriden zezakeela arazo zahar hauetan, zehaztasun batzu erantsirik argitara ematera deliberatu nintzen errestrautegi zaharrei buruzkoa. «Zehaztasun» horiek, ordea, nik uste baino bide eta bidexka gehiagotan barrena eraman ninduten eta orduan ez nuen izan ematerik gai honi buruzko ikerketa zaba-lago baten lehen hasikina baizik.

«Bizkaiera zaharra gainerako euskalkien artean» izenarekin ilki zen (Lakarra 1986b, hemen aldaketa anitzekin 5. kapitulu bezala emana) aipatu txostenaren 1.ko zatia eta han idoro daiteke nahi izan ezkerro bibliografia aski xcheca hizkera horretaz eta baita segidan aipatuko ditudan testuez ere; ikus halaber, Lakarra 1990b.

² Hots, lehendabiziko testuetan hasi eta Larramendirekin amaitzen den B-ren historiaren garaiak. Aurreko oharrean aipatu laneko 1.ko atalcan laburtu ditut Larramendi mugarriztat hartzeko arazoia.

³ Araberaren materialetarako ik. bedi N. Landuchio. *Dictionarium linguae cantabricae* (1562)-ren M. Agud eta K. Mitxelenaren argitalpena (Donostia 1958), Gamizen poesiak —azken argitalpena J. Goikoetxea Maiza zenaren Juan Bautista Gamiz Ruiz de Oteo. *Un poeta bilingüe alavés del siglo XVIII*, Gasteiz, 1984— eta, agian, TAV-en ematen diren 1610eko bertsoak (cf. M. J. Kerejetaren iruzkina *Memoriae-n*). Testua laburra bada ere, ezin interesgarriagoa F. Altunak aurkitu duen 18. mendearren akabuko Ataia aldekoak aurki argitaratuko da hari buruz atondu lan bikainarekin batean. Azterketarako ik. K. Mitxelenak Landucciri egin sarrera, bere «Sobre la lengua vasca en Alava» (in *Vitoria en la Edad Media*, Gasteiz 1982, 298-306), E. Knörren «Gamizen hizkeraz zertxobait», *Euskera* 19 (1974), 218-230. or. eta, bereziki Zuazo 1989, 1996a (Betolatzaz) eta 1996b (orokorra), aipatu Altunaren lanaz at. Gipuzkera zaharrari buruz ez dazagut lan orokorrak; testu garrantzisuenen erreferentziak aurki daitezke ASJU 19 / 1 (1985), 235. or. eta hh. Gainerakoetarako ik. TAV eta I. Sarasolaren «Contribución...»; prestatzen ari naiz (Fidel Altunarekin) guztioin argitalpena.

Prosan, halabcharrez, dotrinak eta antzekoak dira nagusi, abondo baititugu (nahiz eta, beharbada, ekoiztuak oro ez ezagutu)³ oraintsu arte bzikaitartzat jo ohi zen (ik. 4. kap.) Betolatzaren 1596koan hasita:⁴ Kapanaga mañariarraren 1656koa, 17. mendeko baina setxagabe dugun *Viva Jesus* deitu ohi dena, 1678ko Amiletaren Antzuola aldekoa, 1691-99ko Zubia-Lezamiz durangarrena. Hau 1700 artekoari dagokionaz; 18. mendean, eta mugatzat hartuko dudan Larramendi heldu arte, beste bi durangarrenak: Arzadunen 1731koa eta Urkizuren 1737koa. Guzti honez gainera baditugu 16. mendearen hasierako San Frantziskoaren ordenako erregelako formula bat eta 17. mendearen bukaerako bulda labur batzu ere.

Prosa ez-erlijiozkoan, frai Juan de Zumarraga durangarrak bere arrebari 1537an egindako gutun bat, Ibarguen-Cachopín kronikan datozen Andramendiko apokrifoa, Mikolearen *Modo breve de aprender la lengua vizcaína-n* (1653) itzuli elkarritzeta atseginak, eta Mendietaren kaudruko zati laburra gordetzen ditugu.

Bertsotan era askotako poesia dugu: 1) ahozko tradiziotik Garibaik eta bestek bildu herri kantak (Olaso eta Milia Lasturkoarena bezalako eresiak, Arrasate, Sandalia eta Beotibar legezko baladak); 2) poesia liriko landua (Oihenart eta Mikoletaren bitartez ezagutua, adibidez) eta 3) poesia historikoa («Egiaren gorazarrea», «Bertso bizkaitarrak» eta Iturberen laukoak, guztiak 17. mendekoak). Bertsotan idatzia da Pedro Ignacio Barriutiaren *Acto para la Nochebuena* antzerkia ere.

Corpusaren aurkezpen honen amaierarako utzi dut beren hizkuntza eta egituragatik aurreko bi sailen tarteko dugun errefrauena. Haatik, bere garrantzia berebizikoa da oso hizkuntz credu zaharkituak baititu, 16. mendearen bukaerako bildumak izan arren aurreragoko denboretako ezaugarriak gordeaz. Horri, bidenabar, herri kantekin batera duten tasuna da, biek mantentzen baititzte —edota horretan saiatzen baitira, bederen— hitzez-hitz etorkizko testuaren perpausak.⁵ Aurrerago aipamen zabalagoa egiteko asmoa dudanez gero, bego oraingoz beren erreferentzia soila: 1592 baino lehenagoko edo, eta 1592ko Garibairen 63 eta 64 errefraunako bi sorta, eta 1596an Iruñean argitaratutako egile izengabea; da-

³ Cf. J. Urquijo «Cosas de antaño. Las Sinodales de Calahorra», *RIEV* 14, 1923, 335-52. or., batez ere 335-9. or., eta Mitxelena 1960, 60-62. or., bibliografiarekin.

⁴ Honi buruzko orain arteko azken berriak E. Knörrek *ASJU* 1986koan argitaratu ohaitean ziren; ba omen gehiago bera eta K. Zuazo Arabako euskaraz prestatzen ari diren liburuan.

⁵ Lakarra 1986b-ko atal batean erakutsi nuen egungo zenbait herri kantatan aintzinagoako hizkuntzaren ezaugarriak gordetzen direla; aurreko lan batean (Lakarra 1983c) bada froga haboro.

kigunez, azken hau da handiena, dagoeneko 560 errefrau ezagutzen baitzio gu eta oraindik beste asko ere bazi tuen, seguru asko.⁶

1.2. Orain arte ikusi dugunaren arabera, iturri ezberdinak eta aski ugariak ditugu bizkaiera zaharra ezagutzeko; haatik, ezin esan daiteke ezagunegi denik, eta ezta ere, gehituko nuke, honen ondorio gaiztoak saileko ikerlari urrien eremu txikian pairatzen direla soilik. Benetako dokumentuak miatu gabe beren burutik bizkaiera (eta orobat gainerako euskalkiak) zer den eta zer izan den asmatzen eta erabakitzan saindu direnak albo batera utziaz,⁷ ez dirudi bizkaieraren historia (ez eta gainerako euskalkien ere, seguru enik) aski ikertu denik, nahiz eta agian horretarako materialik gehien aurkeztu.⁸ Materialak, ordea, ez dira dena: bildu, landu, txukundu eta behar bezala argitara beharra dago. Hots, filologiazko aurrelan hori premiazko da gero hizkuntzalariak (eta halaber literatur ikerlariak) arrisku gutxiagorekin baliatuko badira beren azterketetan. Lehenago ere aipatu izan dut inoiz Mcilleteen hurrengo pasarte hau, baina ez deritzot gehiegi berriz hemen emateari, ongi baitzekien hark zertain ari zen:

Pour les langues anciennes, le linguiste doit recourir à une philologie de précision: on s'est parfois imaginé que le linguiste peut se contenter d'à peu près philologiques; il a besoin tout au contraire de tout ce que les méthodes philologiques les plus exactes permettent de précision et de rigueur (*La méthode comparative en linguistique historique*, 110).

1.3. Corpusa bezain aberats eta zabal bide da filologi arazoen sailkapena ere:⁹ testu batzu zatika baino ez ditugu ezagutzen (Betolatzaren eta Zubiaaren dotrinak, Garibaik bildutako kantuak, *Refranes y Sentencias*, Egiaren gorazarrea); beste batzu beranduagoko idazleen aipamenez edota kopia cdo edizio berriagoetan (*RS-en zati batzu*, Zumarragaren gutuna, Garibairen errefrau bilduma bata, *Viva Jesus*, Zubia eta Arzadunen dotrinak, «Bertso bizkaitarrak», Foruko Marijesi bilduma); behin baino gehiago.

⁶ Iku 3. kapitulua, eta gogora bedi, bestalde, Urquijok (1919: 508, ob.) galdutzat eman zituen *Algunos refranes castellanos con su correspondencia en vasquense*.

⁷ Lakarra 1986b-ren atal batean mintzatu nintzen —K. Mitxelenaren bidetik— «hiperbizkaiera»z (eta baita «hiper-» edo «semi-» gipuzkeraz ere). Geroztik, eta hamar urte igaro dira!, hiperbizkaierari buruzko lan orokor bakarra I. Lakaren tesina dugu (cf. Laka 1986-1987); ezinbesteko gertatzen dira, orobat, I. Pagola eta K. Zuazoren lanak; noizbait, Jaintxo lagun, aterako ahal da Pagolaren tesia ere.

⁸ Ohar interesgarriak dira Azkue 1923-25 eta 1935-n eta, lehendabizikoari Altubek jarri zizkion eraskinetan; Lafon (1943) eta, batez ere, Mitxelenaren lanak (1954a, 1961, 1967, 1977, 1978, 1979a, 1979b) ere aurrerapen handiak dira baina oraindik monografia zein sintesi falta nabarmena da.

⁹ Hemen zerrendatu baino ezin baditut ere, aspaldian prestatzen ari naizen BZ-ren edizioan aztertu gogo ditut xeheki.

gotan ez dugu beren datarik ezagutzen (aipatu *Viva Jesu*, Barrutiaren Actoa), usu testuak ez daude oraindik ongi ezarririk edota azalpen-zain ditugu; badira, azkenik, gure eskuetara iritsi ere ez direnak (18. mendeko anizerki bat esaterako)¹⁰ edota oraindik —hala nahi genuke, behintzat— eriden ez ditugunak...¹¹ Badute, beraz, aski lan filologoek nahiz eta garrantzizko urratsak dagoeneko emanak izan (cf. Mitxelena 1964a, Sarasola 1983).

Hizkuntzaren historiaz arduratzen direnak ere testuotaz artatuko bide dira zeren eta, Mitxelenak esan izan duen bezala, historia horrek (orok legez) dokumentuetan oinarritu behar baitu:

La idea de que la historia de una lengua, de la vasca como de cualquier otra, sólo puede edificarse sólidamente sobre documentos fechados y localizados con la mayor precisión posible, no ofrece ninguna novedad. A lo sumo, acaso no esté difundida entre nosotros cuanto fuera necesario... lo demás —gehitu zuen— no es más que extrapolación, que sólo vale si tiene el firme punto de apoyo de datos seguros y sirve para explicarlos diacrónicamente (Mitxelena 1971: 149).

Beharrezko ditugu, beraz, bizkaiera zaharreko testuak euskalki horren historia egin ahal izateko, bere eboluzioaz jabetzeko, aldatuaz joan baita hizkuntza eta hizkera guztiak bezala. Gainera, ahalik eta testurik zaharrenak ditugu beharrezko, soilik haien eraman baikaitzakete urrutienik denboraren katean barrena. Bakarrik testuak ongi miatu ondoren murgil gaitezke ur sakonagoetan, haietan ikasiaren arabera aitzinagoko garaietan zer zitekeen ikertzen / asmatzen saiatuaz:

Para dedicarnos con tranquilidad a la prehistoria, habremos pues de esforzarnos en adquirir el conocimiento más exhaustivo posible de los datos disponibles, sin dejar ninguno de lado y sin ahorrarnos molestias en buscarlos y comprobarlos (Mitxelena 1963: 14-15).

1.4. Mitxelenaren kontseiluari jarraiki nahi natzaio lan honetan 16. mendeko B-ko bi errefrau bildumaren egile eta etorkiaz aritzean. Baliteke irakurleak erabat berririk edota ezkutuegirik ez eridetea; cz bide da, segurki, beste munduko gauza ondorio gisa «Garibairen errefrau bildumak Garibairenak dira» eta «ez dakigu 1596ko bilduma izengabearren egilearen izena» esanaz amaitzea. Alabaina, itxadoten dut zertxobait aurreratzea, alde batetik ez baitute guztiek beti hori onartu eta, bidebatez, besterik ere ikusiko delakoan bainago; orobat, begibistakoa dirudienaz mesfidatzean

¹⁰ Cf. Azpiazu J. «Euskera zarraren apurtxoak» in *Bigarren Euskalegunearen itzaldia Donezteben*, Bermeo 1926.

¹¹ Cf., esateko, Iñaki Mozosek aurkeztu 17. mendeko testu laburra in *Ihauteria euskal literaturan* (= *Hizkuntza eta literatura 7*, Eusko Ikaskuntza), Zaratza 1986.

datzala deritzot segurtasunen bat lortzeko lehen baldintza, nahiz eta iker-tu ondoren aitzinekora bihurtu. Orduan ere ez litzaignuke alferra iruditu behar: oinarriak sendoagoak liratke, behintzat, eta hori ez da gutxi.

2. Sarrera Garibairen errefrauaz

Esteban de Garibay, erregearen kronista famatuak, bere oroitzapenetan dioskunez¹² bi errefrau sorta osatu zituen Juan de Idiáquez Felipe II.aren kortisauaren eskariz:

El señor don Juan de Idiáquez, del Consejo de Estado de su Magestad, deseó otros refranes en su lengua vascongada sobre los que le di antes en un quaderno, y en 18 de julio de este año de [15]92 le envió otro de ellos a Valladolid con su interpretación interlinear, palabra por palabra, y en el sentido de ellos para su mejor declaración. Recibiólos en Valladolid, yendo en compañía de su Magestad al viaje que se dirá abajo en suma y respondiéme con mucho gusto de su recibo (*apud* Urquijo 1919: 505).

Urquijok erakutsi duen bezala, bi bilduma horiek ez dira guganaino eskuizkribaturik heldu, baina bai, aldiz, 17. mendeko *Refranes en Bascuence compuestos por Esteban de Garibay y Camalloa bat*, Madrilgo Biblioteca Nacionalean G 139 zenbakia daramana (Urquijo 1919: 505-9); bestalde, Benito Maestrek Francisque Micheli 16. mendeko kuadernotxo bat erregalatzion euskal errefrauekin eta hilen eta egunen izenekin gehi zenbait aditzekin Michel Madrilen zenean 1846an, eta kuaderno horretaz baliatu zen hau bere Oihenarti buruzko liburuan errefrauak eraskin gisa emateko:

Pag. iv de l'introduction, nous avons parlé d'un recueil de proverbes basques conservé parmi les manuscrits de la Bibliothèque nationale, à Madrid; quelque diligence que nous ayons faite, nous n'avons pu réussir à retrouver le volume qu'on nous avait signalé comme contenant ces témoignages de la sagesse euskarienne; mais un savant espagnol, Don Benito Maestre, dans la compagnie duquel nous avons passé quelques moments agréables pendant notre séjour à Madrid en septembre 1846, nous a fait don d'un cahier in-folio, qui pourrait bien être le recueil tant cherché. C'est un manuscrit sur papier, d'une écriture du 16e. siècle contenant, outre *algunos refranes de la lengua bascongada*, 1. *Nombres de los meses en la misma lengua*; 2. *Los de los días de la semana en ella*; 3. *Algunos verbos masculinos y femeninos en la misma*. Il se compose

¹² *Memorias de Garibay in Memorial histórico español VII*, Real Academia de la Historia, Madrila 1854, *apud* Julio Urquijo *El refranero vasco I: Los refranes de Garibay*, 497 hb; ikusia dut Garibairen liburua ere baina orain axola zaigun guztia badator Urquijoren lane-tan, eta handik aipatuko dut behar dudanean.

Il se compose de quatorze feuillets, et sur le premier il porte pour n° d'ordre Cc. 79. Nous n'avons pas de meilleure occasion pour donner les proverbes qu'il renferme.¹³

Urquijok jakin zuenez (1919: 508) Cc 79 zen, hain zuzen, Madrilgo BNtik aspaldi falta ziren *Refranes del Vascuence* batzuen zenbakia eta, nahiz eta honetaz ez dioen ezer Francisque Michelek (agian ez komeni), handik ilkiak errefrauak.

Dakidanez, orain arte gai hau ukitu duten guztiak ados dira bigarren bilduma Garibairena dela esatean,¹⁴ 16. mendeko bosteko biltzaileren izenik ez ezagutzeaz at, Garibaik bere bigarrenaz zioenari ongi baitagokio. Alabaina, eta lehendabizikoa, hori ere Garibairena ote?

3. Urquijoren hipotesia

3.0. Julio Urquijo ezezkotan zegoen. Bi sortak —hemendik aurrera Zubiaur eta Arzamendirekin (1976) A eta B deituko ditugunak—¹⁵ gongoratu ondoren 37 crrefrau errepikaturik aurkitzen dira bietan (cf. Urquijo 1919: 509):

A	B	A	B	A	B	A	B
1	29	17	50	33	58	49	ø
2	1	18	ø	34	57	50	ø
3	7	19	8	35	22	51	ø
4	17	20	39	36	30	52	ø
5	2	21	28	37	45	53	31
6	51	22	ø	38	ø	54	ø
7	41	23	ø	39	ø	55	ø
8	ø	24	25	40	ø	56	10
9	33	25	6	41	40	57	34
10	21	26	ø	42	ø	58	9
11	ø	27	ø	43	ø	59	ø
12	18	28	5	44	47	60	ø
13	32	29	ø	45	29	61	ø
14	46	30	44	46	11	62	53
15	ø	31	ø	47	ø	63	ø
16	52	32	56	48	27		

¹³ Lortu ahal izan dut azkenik ere liburu hori eta baiezta dezaket Urquijok ez zuela ez errata ez aldaketarik egin.

¹⁴ Cf. adibidez Mitxelena eta Villasunteren literatur historiak eta Lafonen liburu famatua.

¹⁵ Nahiz eta, §6ean ikusi ahalko diren arrazoienengatik, hobea zukeen justu alderantzik deitza, nahiago izan dugu aurrekoenean mantentzea nahaspilarik ez sortzeko; beraz, Cc 79 = B, G 139 = A.

Hara Urquijoren iruzkina:

Hay, por lo tanto, en las dos colecciones un fondo común de 37 refranes, y si, como es probable, la del siglo 16, es decir la Cc 79, es la de Garibay, no parece poder admitirse que la G 139 sea copia exacta de ninguna de las dos enviadas por Garibay a Idiáquez, y mucho menos copia y compilación de las dos. A mi juicio la colección G 139 podría ser de algún vascófilo muy posterior, el ms. es del siglo 17, que la compuso teniendo a la vista la de Garibay, pues no parece probable que este enviara a Idiáquez por segunda vez 26 refranes [sic, 37ren ordez], que ya le había enviado antes.

Esta razón y las que expuse en mi Preámbulo a Los refranes vascos de Sauguis, me indujeron a proponer, aunque con gran desconfianza, la hipótesis, de que una de las colecciones de Garibay fuera la anónima de 1596, hipótesis acerca de la cual no me extiendo aquí, pues es más natural vuelva a tratar de ella en mi introducción al comentario del unicum de Darmstadt (Urquijo 1919: 510).

3.1. Damurik, ez zuen inoiz atera RS-en ondoren eman nahi zuen «sarrera» hori; bilduma horren argitalpena RIEV-en 1933ko alean bukatu zen eta —Urquijo lana prestatzen ari bazen ere— ez zuen argitaratzerik izan, ez segurki gogo eta datu faltaz (cf. Lafon 1943: 68-69).

Lan horren peitu, hara zer zioen RS-en egileaz Zalgizeren errefrauengarritan jarri zion hitzaurrean:

No se tiene la más remota idea de quién fuera el autor o colecionador de Refranes y Sentencias, ni me consta que nadie haya mostrado vehemente deseo de averiguarlo. La fecha de la impresión, juntamente con algunas otras coincidencias, ha despertado en mí la sospecha (observe bien el lector que no digo el convencimiento), de que tal vez no fueran ajenos a dicha publicación D. Esteban de Garibay y Camalhoa o su amigo Don Juan de Idiáquez (Urquijo 1908-9: 682).

Uste honen atzetik goian ikusi Urquijoren Garibairen errefrau bildumei buruzko teoria dago, hots, Garibairen bi bildumetarik soilik bat ezagutzen dugula (B), bere izenean dabilen bestea (A) ez bailitzateke berea baina norbaitek haren materialez baliaturik osatua. Beraz, 1596koa izan daiteke —Urquijok oso zuhurki gaztigatzen du ez duela azken hitza esan nahi— faltatuko litzaiguken Garibairen bigarrena:

Conocidos son, por haberlos publicado la Real Academia de la Historia, según he indicado antes, los *Refranes Vascongados recogidos y ordenados por Esteban de Garibay y Camalhoa, Cronista de S.M.* Claro es que éstos son distintos de los contenidos en *Refranes y Sentencias*: pero ¿no envió anteriormente Garibay a Idiáquez otros refranes vascongados, cuyo paradero se ignora? Y si esto es cierto, ¿no serían éstos los publicados en 1596?

Confieso ingenuamente que carezco de datos suficientes para contestar afirmativamente a semejante pregunta; mas previa esta aclaración, no creo haya inconveniente en exponer algunas consideraciones que la lectura de *Refranes y Sentencias* y de las *Memorias* de Garibay me ha sugerido; tanto más, cuanto que quizás con esto se anime alguno de mis lectores a poner en claro este asunto (Urquijo 1908: 683).

3.2. Bost arrazoi ematen ditu RS Garibaik egindakotzat edukitzearen alde (1908: 684-6):

- 1) Garibaik 1592an eta urte horren aurretik edo bidali zizkion bere errefrau sortak Idiáquezzi eta 1596an argitaratu zen RS; ez da ezinik, beraz, alde honetatik.
- 2) 1596ko bilduman Bizkaiko eta Gipuzkoako handi-mandici buruzko errefrauak dira eta ez zen garai hartan Garibai baino genealogista hoberik horrelakoak ezagutzeko; bere gainerako lanetan ere ezarriz zuen, halaber, hiei buruzko zenbait bertso eta esaera.
- 3) Delako handi-mandiok (Butroe, Muxika, Ibarguen, Olaso) Idiáquezzen familiaoak ziren eta, baita, agian, Garibairenak ere; ez litzateke harritzekoak horiekiko esaerak bai Garibaik eta baita Idiáquezek ere ezagutzea eta are biltzea.
- 4) Idiáquez, dakigunetz bederen, ez zen Iruñean bizi; bai, ostera, harren semea eta honek hiru liburuxka argitaratu ere zituen; hortaz, agian, RS ere horrela iritsi bide zen inprimategira hiri hartan.
- 5) Azken arrazoia RS-en hizkerari dagokio. Aurreko ikerlarien iritziak batzen ditu Urquijok berea eman baino lehen; van Eysek bere 1896ko argitalpenaren hitzaurrean bilduma gipuzkeraz dela dio, nahiz eta bizkaieraren eragin nimiñoa ere izan; Vinsonentzat errefrau gehienak gipuzkeraz dira baina badira bizkaierazko hainbat eta baita hegoaldeko eta iparreko goinafarrerazko batzu ere. Larramendirentzat RS-etako hizkera gipuzkera eta bizkaieraren nahaste bat litzateke, baina bigarrena nagusi delarik eta Azkuek, azkenik bizkaiera hutsean direla dio, nahiz eta egun zenbait hitz Bizkaian ez erabili eta bai Lapurdin. Urquijoren aburuz RS Arrasaten 16. mendearen hitzegiten zen legez idatzia izan daiteke:

Ahora bien: dada esta mezcla de ambos [bizk. eta gip., Larramendik esan bezala] dialectos en el texto en cuestión y teniendo en cuenta que aun cuando el pueblo en que nació Garibay forma parte de Guipúzcoa, pertenece por su habla al dialecto vizcaíno, ¿sería temerario suponer que los *Refranes y Sentencias* estuvieran redactados en su mayoría en el vascuence que se hablaba en Mondragón en el siglo 16? Suposición es ésta que a mi entender no debe ser echada en olvido (Urquijo 1908: 683).

Eta, berak hori ezin segurtaturik, honela amaitzen zuen:

Nadie está quizás en mejor situación para averiguar lo que en ella pueda haber de cierto, que el genealogista mondragonés y colaborador de esta *Revista sr. de Guerra* (*ibid.*).

3.3. Gnerrak *RIEV*-en hurrengo alean argitaratu zuen gutun batez ihardetsi zion Urquijori, haren hipotesi guztiak goitik behera onartuaz. *RS*-etako errefrauak irakurri ondoren gehienak Oñati, Arrasate, Aramaio, Otxandio, Legutio eta Arratiako ingurueta bilduak lirateke haren ustez, bere bullegora zetozten baserritarren hizkeraren antza baitzuten:


Considero muy plausibles las suposiciones de V. al atribuir a Garibay la colección de *Refranes y Sentencias* impresa en Pamplona en 1596 [...] he formado el juicio de que fueron en su mayor parte recogidos en Oñate, Mondragón, Aramayona, Ochandiano y sus comarcas límitrofes de Arratia y Villarreal, sobre todo en estas dos últimas. El lenguaje no difiere en su general sabor, del que oigo todos los días en mi bufete a los caseros de las comarcas apuntadas (Urquijo 1909: 144-5).

Halaber, Guerraren ustez Idiáquez en eskariari hobeki erantzuteko Garibaik alde hartako herkideei eskatuko, eta haien bidali datuez osatuko omen zuen bere sorta (*RS*):

V. que conoce las *Memorias* de nuestro insigne cronista, sabe las muchas relaciones de amistad y parentesco que el buen D. Esteban contaba en este régimen, y la continua correspondencia que con ellas mantenía, como su solícito y eficaz agente en Corte cerca del gobierno de Felipe II. Comprenderá, por lo tanto, que lo sucedido, en cuanto a este particular, fué, sin duda alguna, que D. Juan de Idiáquez pidió los refranes a Garibay, quien a su vez, para complacerle mejor, los solicitó a sus paisanos, y con los datos que éstos le remitieron, ordenó su colección; en la que es de notar, que apenas hay dos que se repitan de los *Refranes Vascongados* insertos por la Real Academia en el tomo VII del *Memorial Histórico*. Si las dos colecciones no fuesen de un solo autor, las repeticiones abundarían seguramente (Urquijo 1908-9: 145).

Azkue ere ez zegoen *RS* Garibairi leporatzearen aurka Urquijori beste gutun batean ziotzonez (*ibid.*); alabaina, honentzat, geroago Mitxelena-rentzat (1961: 21) bezala, Arrasateko hizkeraren baino Orozkokoarenaren antza handiagoa zuen *RS*-etakoak; dena den, Urquijok zioenez, zailtasun hori gainditzen omen da alde hartako laguntzaileak erabili zituela suposatuaz (1908-9: 145). Bestalde, *RS*-etan ba omen da Orozkon ez baina Leintz aldean erabiltzen den formaren bat, 521.eko *beranquetan* edo *emaiten* bezala (*ibid.*).

3.4. Aurreko gogoeta guztion arabera honako hau genuke, Urquijoren ustez, *RS*, *A* eta *B* bildumak lotzen dituen stemma:¹⁶



4. Hipotesi berri bat

4.0. Lehenbiziko buruan (§§ 4.1.-4.6.) *A* —zehazkiago *W*, honen orijinala— eta *B* Garibairenak direla frogatzen saiatuko naiz. Sei arlotan banatuko ditutene arrazoibideak: bildumen tamaina (§ 4.1.), *A*-ko kopialgilearen egileazko lekukotasuna (§ 4.2.), *A* eta *B*-ko errefrauen ordena (§ 4.3.), hizkuntza (§ 4.4.), *A* osatzeko *B* ez den beste orijinal baten beharra (§ 4.5.) eta *A* eta *B*-ren grafiazko loturak (§ 4.6.).

Bigarren buruan (§§ 4.7.-4.9.) *RS* ez dela Garibairena baina egile czezagun bat(zur)ena erakutsi gogo dut. Honetarako bi eratako argudioak erabiliko ditut, grafiazkoak (§ 4.8.) eta hizkuntzazkoak (§ 4.9.), aurretxiaz Urqujok *RS*-ei buruz eraikitako teoriaren ahuleziak agertu ondoren (§ 4.7.). Esan gabe doa, *RS*-ek bere aldetik ere frango buruhauste eta galdera sortzen dutela testukritikari dagokionez; haistik, beste kapitulu batzuera- rako utxiaz *RS*-en azterketa monografikoa, oraingoan soilik Garibairen sorteze egin dezakeen argiagatik dakart hona bilduma hori.

Bi atalak dira elkarren osagarri, bateko gogoeta eta ondorioek beste- koak laguntzen eta indartzen dituztelarik; ene ustez, bata zein bestea aski

¹⁶ Neuk eraikia; uler bedi baj Ω eta bai Φ Garibairenak direlarik. A. Blecuaři jarraikiz (1983: 61-2 eta 70) letra greziarrek orijinal idealak adierazten dituzte /---/ ikurrak kutsadura. Ω eta 1596ko bildumaren artean eta Ψ eta *A*-ren artean testu bat edo gehiago izan zitekeen guk czagutu ez arren; Φ eta *B*-ren artean, aldiz, ez dirudi horrelakorik gerta zitekeenik *B* Garibairen eskutikoa izanik.

litzateke Urquijoren teoria deuseztatzeko. Alabaina, biak ukitu nahi izan ditut —irakurlea areago nekatzeo arriskua pairatuaz— haren ordezko baten oinarriak sendotzeko.

Segidan azaltzen ditut enc arrazoia.

4.1. *Cuaderno* hitzak ez du egun esanahi bakarra, edota hobe, «orri bilduma ez handiegitzat» ulertu ohi bada ere beti, bilduma horren tamaina eta baita orriena ere aski ezberdina izan ohi da batetik bestera. Garibaiak osatu zituenak, aldiz, tamaina berekoak edo beretsukoak bide ziren «un quaderno» eta «otro dellos» bidali zituela esateko, bigarren sorta handiago edo txikiago zen markatu gabe, lerroz-lerroko itzulpena eman zuela markatzen duen bezala. Ez bide zuen horrelako zehaztasunik egiteko beharrik, ordea, hitzak berak aski baitzioen garai hartan tamainaz; hots, orain baino askozaz tamaina mugatuagoa zedukan kuaderno batek. Hara, bestela, nola azaltzen zuen *Diccionario de Autoridades*-ek hori oraindik 18. mendearen hirugarren hamarkadan:

Quaderno. sim. El conjunto o agregado de algunos pliegos de papel doblados y cosidos en forma de libro... Llaman también el libro pequeño o conjunto de papel en que se lleva la cuenta y razón, o en que se escriben algunas noticias, ordenanzas o instrucciones, como el *Quaderno de Millones*, de la *Mesta*, &c... Llaman en la imprenta al compuesto de cuatro pliegos metidos uno dentro del otro.

Ez dirudi bigarren adiera dagokionik Garibairen erabilera, ez dago kion bezala hemen kopiatu ez ditugun «karta sorta» eta «ikasle zigor»; lehendabizikoaren eta hirugarrenaren arabera *cuaderno* deitezko bilduma batek lau orri beharko zituzkeen izan, edota ez askoz gehiago (*algunos*) behintzat. Cobarruvias bere 1611ko *Tesoro-an*—soilik 20 bat urte beranduago Garibairen hitzetatik— laburragoa da: «se dixo porque ordinariamente es de cuatro pliegos, y assí se llaman quaterniones cerca de los impressores». ¹⁷

Bada, hamabi orrialde ditu A-k¹⁸ eta hogoitazortzi B-k Michelek zioenez (ik. gorago § 2), baina gogora bedi bigarren honetan euskarazko hilen eta egunen izenak eta zenbait aditz ere bazela;¹⁹ batak 64 errefrau ditu eta 63 besteak, biek dituztelarik gaztelerazko lerroz-lerroko itzulpenera eta oharrak hitzen eta errefrauen erabilera, bidenabar, RS-eten behin ere agertzen ez direnak.

¹⁷ s.u.; ik. ostera Larramendiren erabilera aurreraxeago, baina gogora bedi jada 18. mendearren erdialdekoa dela.

¹⁸ Ik. Zubiaur eta Arzamendik (1976) beren lanaren eraskinian ematen duten faksimila.

¹⁹ Gainera B-ko errefrauen gaztelerazko azalpenak luzeago izan ohi dira.

Bestalde, RS-en orijinala Darmstadt-eko alea baino luzeago ez balitz ere —eta dagoeneko badakigu bazela—²⁰, 64 orrialde ditu, 16 *pliego* beraz; tamaina differentzia handiegia A eta B-rekin ezer esangabe uzteko eta sorta handiegia «otro quaderno» soilarekin aski izateko.

4.2. Ez zait alferrikakoa iruditzen A-ren izenburua gogoratzea: *Refranes en Baschence compuestos por Esteban de Garibay y Camalloa*. Zergatik jar zezakeen izenburu hau inork baldin eta Garibairena ez balitz? Urquijok nahi bezala Garibairen bilduma bataz (B-z) baliaturik egina balitz ere ez zukeen horrelakorik jarriko eta bai «urlaren bilduma», edota, zintzoago izanik delako urlia hori, «Urliak Garibairi erantsitako erre-frauak», «Garibairenetarik atera eta Urliak erantsitako erre-frauak» edo antzeko zerbait; zeren eta zer zentzu du Garibairen izenean jartzeak harenak ez diren hainbat, ia sortaren erdia inguru?

4.3. Gainera, ez dirudi A osatzeko B erabili zenik, bien gonbaraketari arinena ere horren kontra mintzatzen baita ozenki. Ikusi ditugu gorago A eta B-k batera eta bakoitzak bere aldetik dituzten erre-frauak. Alabaina, gonbaraketa horrek ezer erakutsiko badu ez da A / B ordenan egin behar, goian Urquijori jarraiki egin bezala, baizik eta B / A alderantzizkoan, soilik horrela ikus baitaiteke Urquijok arrazoirik izan dezakeen A bilduma B eta beste zenbait materialez baliaturik beranduagoko euskal-tzaleren batek osatua dela esatean. Hara bada egokitasunen zerrenda:

B	A	B	A	B	A	B	A
1	2	17	4	33	9	49	0
2	5	18	12	34	57	50	0
3	0	19	45	35	24	51	6
4	0	20	0	36	0	52	16
5	28	21	10	37	0	53	52
6	25	22	35	38	0	54	0
7	3	23	0	39	20	55	0
8	19	24	0	40	41	56	32
9	58	25	0	41	7	57	34
10	56	26	0	42	0	58	33
11	46	27	48	43	0	59	0
12	0	28	21	44	30	60	17
13	0	29	1	45	37	61	0
14	0	30	36	46	14	62	0
15	0	31	53	47	44	63	0
16	0	32	13	48	0	64	0

²⁰ Cf. Mitxelena 1970 eta haren gainerako lanak. Lakarra 1996a-n aritu naiz honetaz luzeago; ikus hemen 3. kapitulua.

Datu hauen arabera, A-ren egileak B erabili zuela suposatuaz oso ger-taera bitxia agitzen da, zeharo azalduezina hipotesi horren barruan: A-ren egileak 37 errefrau hartuko lituzke B-tik *baina behin ere bi segituan hartu gabe*, nahiz eta inoiz sorta hartatiko bederatzi bata bestearren atzetik eman, eta usu hiruzpalau. Jauziak, gainera, handiak dira B-tik hartuak omen ziratekeen artean: 2-5, 28-25-3-19-58-56-46, 4-12-45...

4.3.1. Soilik B-ko 56-57-58 zenbakiei dagozkien A 32-34-33.ek dirudite salbuespen lehen soan; hurbilagotik begiraturik, ordea, crabat ezberdinak dira ondorioak. Ikus ditzagun errefrauok:

B 56: «Porque Bilbao siendo uno de los mejores pueblos de la tierra bascongada, tampoco faltan en él trabajos a los malos, como donde quiere, dicen: Bilbao, allí también malo el maldición, *Bilbao, an vere donege-ac virao*».

A 32: «Porque los malos donde quiera hallan por la mayor parte la acogida deuda a sus obras, dicen: *Bilbao, an vere donegueac virao*, Bilbao, también allá allí el malo maldición».

B 57: «Porque en Bergara, uno de los buenos pueblos de la tierra bascongada, sucede entre los vecinos aver de ordinario muchos pleitos, dicen: Bergara, santiguate y pasa, *Bergara, ceñatu eta ygara*. *Ygara* se dice por *ygaro*, por el consonante, porque también la arte poética tiene en esta lengua sus licencias».

A 34: «Por las gentes de algunos pueblos que, naturalmente por disposición de sus astros, son inquietos y bulliciosos, dicen: *Bergara, ceñatu eta aygara*, Bergara, santiguate y pasa».

B 58: «Porque la villa de Villa real de Urrechua, que quiere decir "villa real del avellano", tuvo en un tiempo muchos debates y pleitos con las tierras sus circunvezinas, dixieron, por los que nunca saven salir de contiendas y pleitos: Villa real del avellano, siempre guerra sigue vos, *Villa real de Urrechu, veti guerreia darraiçu*».

A 33: «Por los pueblos que andan en diferencias y contiendas con sus vecinos, dicen: *Villareal de Urrechu, veti guerreia darraiçu*, Villareal de Vrrechu, siempre os sigue la guerra. Es la de Guipúzcoa, y a diferencia de la de Álava de la Casa de Abendaño se llama ésta de Vrrechu».

Begibistakoa da guztien arteko lotura: hirurak dira hiru euskal herriri dagozkionak, eta hirurek dituzte /b/-z hasten diren herriion izenak esaldi hasieran; beste datu guztiei bildurik honako honek ez du batere laguntzen Urquijoren hipotesia eta bai, aldiz, kontrakoa. Hots, A zein B Garibairenak balira eta suposatuko bagenu bietan —bigarrenean, bederen— gogoratuahala paperean jarriak direla bertako errefrauak, orduan askozaz errazago litzateke azaltzea nola bi sorten artean ugari diren errepikatzen direnak baina ez ordena berean; 3 errefrauok ez lirateke horren salbues-

pen baina indargarri, beren egitura berdintsuak eragingo bailuke bat goratzean beste biak erakartzea.

4.4. Errefrauon hizkuntzak ere Garibairen egiletasunaren alde jokatzen du. A-ren kopiagilea (egilea Urquijorentzat) jadanik Urquijok markatu legez, giputza zen zenbait xehetasunetan²¹ ikus daitekeenez:

B	A
17, 30, 34 <i>noc</i>	4, 9, 57 <i>norc</i>
2 <i>errabarria</i>	5 <i>erreverria</i>
9 <i>barriac</i>	58 <i>verriac</i>
11 <i>elexara</i>	46 <i>elçara</i>
27 <i>axeriac</i>	48 <i>ayceriac</i>
7 <i>gox</i>	3 <i>goiz</i>
45 <i>eçtau</i>	63 <i>dñ</i>
31 <i>mília</i>	53 <i>miña</i>
60 <i>arraynac</i>	17 <i>arraiac</i>
2 <i>esa galçay garria</i>	5 <i>echagalçaigarria</i>
33 <i>esa guinen</i>	9 <i>echaguinean</i>

Era honetako formak gonbaratu eta gero zera ateratzen du Urquijok ondoriotzat:

Esta conformidad de formas, de los refranes regalados por Maestre a Francisque Michel, con las que en la actualidad se usan en Mondragón, y la discrepancia de estas últimas con las de los proverbios del *Memorial Histórico Español*, parecen confirmar mi presunción, fundada en otras consideraciones, de que el Códice Cc 79 [B] era del propio Garibay, y que, en cambio, los refranes del Códice G 139 [A] constituyen otra colección, distinta de la primera, aunque basada en ella (Urquijo 1919: 531-2).

Sorta bateko eta besteko errefrauuen ordena gonbaratzean ene ustez aski argi ikusi ahal da A ez dela B-tik aterea. Hemen cre berdintsu gertatzen da, Urquijok besterik uste izan arren, zeren eta datu hauek oztopo gehiago suposatzen baitute haren teoriarako, bera konturatu ez bazen ere. Nahiz ere onartu A-ko kopiagileak zenbait aldaketa egin zituela hizkuntzaren aldetik, aski da aldaketa horiek aurrean zeduzkan Garibairen bilduma orain galdu batean (lehen W deitu dugunean) egin zituela proposatzea, eta proposamen honek bere alde lituzke aurreko buruetan (§§ 4.1.-4.3.) egin gogoetak.

4.4.1. Gainera Urquijoren hipotesiak ez du azaltzen A-k B-rekin batera (Urquijorentzat B-tik hartuak) ez dituen errefrauak zergatik ez dauden

²¹ Zerrenda honetarako Urquijok (1919: 531) emandakoaz baliatu naiz, zenbait eransketak eta zuzenketa eginaz.

gipuzkeraz, giputza izanik A-ren egilea, edota gutxienez, B-rekin batera dituenetan baino gipuzkerazko hitz eta forma gehiago ez den agertzen:

- A 22 *Vestec eg leguez Pieruc surra,*
- A 23 *Garean gareana leguez,*
- A 8 *Adin onari aquio,*
- A 27 *Ez vr eta ez ardâo,*
- A 43 *Vrte barri, isuac vere iguerri,*
- A 49 *Bardin Burgos eta Marquina,*
- A 52 *Hora il daguien mendian guiçona idoro ez didila,*
- A 59 *Ez eugnia ot orde.*

Ez dirudi *leguez, surra, garean, gareana, adinonari, ardâo, barri, vere* (= ere), *bardin eta idoro* formak agertuko liratekeenik (A 49 osoa ere seguru asko agertuko ez litzatekeen bezala) giputz baten bilduman, egilea (eta ez soilik kopiagilea) bera izan ezkero. Egia da 51 *det* eta 61 *geçurra* ere ematen direla B-n kiderik ez duten errefrauian, baina bakarrak dira eta credu bizkaitarren aldaketatzat ere azal daitezke (cf. § 4.4.).

4.5. Guzti honen aurrean atxrabide bakar bat dela deritzot Urquijoren hipotesiaren barnean: A osatzeko egile gipuzkoar horrek B eta beste bizkaiterazko iturriren bat erabili zuen eta hortik atera zituen B-n ez direnak. Iturri hori idatzizkoa bide zen, ez baitirudi daitekena denik giputz batek Bizkaian edota bizkaitarrei biltzea errefrauok eta gero hauek ere Garibairen izenean ematea, berea ezkutuan utziaz. Gainera, bada uste borren aldeko frogaren bat ere; hara zer irakurtzen den A 46.aren gaztelerazko zatian:

Por los que dc pusilánimes no se atreven a *emprender* cosas buenas, y quando alguna vez las ayan *comprendido* son desgraciados en ellas dijen...

A 46.ak badu bere kidea B-n, baina ezin esan huts hori handik hartu zuenik edo hura gaizki irakurtzean sortu zenik, oraingoan B-n ematen den gaztelerazko azalpena ezberdina baita:

B 11: «Por los que tarde y con desgracias, comienzan las cosas, dizen...»

Ez delarik B hor iturritzat darabilena, ez ote W aurrean duena?

4.6. Urquijoren hipotesiaren aurka erabiliko dudan azken arrazoi mota grafiazkoa da. Izan ere *Refranero Vasco-n* ukitu zuen Urquijok grafien arazoa baina, bildumei buruzko bere usteak beharturik edo, ez zen konturatua²² A-n eta B-n badirela zenbait xehetasun beren egilea (ez kopiagilea) bat eta bera dela frogatzeko adinako direnak.

²² Aski bedi gogoratzea «discrepancias ortográficas» deitu ziola hitzaurreko azterketari.

4.6.1. Ezaguna da, aski ikertua ez bada ere, /č/-ren (oraingo < ts > aren) idatzizko islapenak buruhauste larriak sortzen zituela garai luze batean. Pedro de Madariagak 1565ean < ss > zerabilen egiteko horretarako:

La S muchas veces se pronuncia apretando bien la lengua al paladar de arriba en medio de dicción como *essea* «casa», *ossoa* «lobo», *assoa* «mujer vieja»; y por eso se pone doblada para denotar aquella espesura de la pronunciación.²³

Betolatzak 16. mendearen bukaeran bakunaren bitartez ematen zuen afrikaria ere: *deusat*, *deusuguz*, *jasi*, *hiracasi* (eta *bederazi*, *eriozea*, *gorpuzeocoac*, *viziza*), etab., eta berdintsu egin zuten Larramendi aurreko beste bizkaitar gehienek ere (ik. § 4.8.1. RS-i buruz puntu honetan):

Viva Jesus 2 *cer*, *esan*, *situcen*, *vicia*, *gustia*, *çan*, *errazoa*, *eriozacoa*, *passiñoeacoa*, 3 *curze*, *ceinzuc*, *gaguicenzat*, *ezquerrecorean*, *deucegule*, *ezerean*, 4 *usu erraçaoacora*, *guizonari*, *deuzut*, etab.; Kapanaga iv *deusat*, v *gaucagati*, *fauoreciduco*, *egoci*, *ceinen bicicea*, 3 *eriocea*, *zeñazen*, *gagiçan*, *essaten*, 6 *iassarriric*, 11 *iasizala*, 13 *gorpuceocoac*, *iracassi*, 16 *vssain*, 19 *misericordiossoac*, *asseco*, *icüssico*, 20 *deusat*, 22 *iracasi*, 29 *deusut*, etab.;²⁴ Mikoleta²⁵ 8 *esan*, 11 *estabilas*, 12 *díñosu*, 73 *bissar*, 102 *ossashendaco*, 103 *osasun*, *enessat*, 150 *enesat*, 227 *ysi*, 231 *urgazi*, 240 *basuac* *besteacayti*, 242 *mayordomusat*, etab.;²⁶ Zubia-Lezamiz²⁷ 1 *diraz*, *çazpirac*, *pertenecietan*, 6 *poderosoagan*, 10 *gorpuçagaz*, 11 *gorpucic*, 42 *essan*, 96 *aussi*, 101 *passinoa*, 103 *eriozea*, 153 *jassarriric*, 201 *eusaçala*, etab.²⁸

²³ Apud Julio Urquijo «Notas de bibliografía vasca. XIII. Pedro de Madariaga, vizcayano, vascófilo», *RIEV* 13, 1922, 248-51. or.: aipamena 250-251. or.

²⁴ Bada salbuespenik (iv *ecsean*, *ecsagunçaac*) baina soilik hitzaurrean dirudinez, eta hor ere badira *esaguncetan* (iv) eta beste.

²⁵ Zenbakiak eskuizkribuaren lerroenak dira I. Sarasolaren (1983: 187-212) argitalpenaren arabera aipatuak.

²⁶ Cf. «Las fricativas se representan por s y, excepcionalmente por ss [...] c, f y z son muy poco frecuentes y aparecen casi siempre en préstamos claros, como *meçede*, aunque tampoco falta *mesede*. Las africadas se representan por ss o s [...]. Parece que nada sistemático puede establecerse respecto a la grafía de Mikoleta en este punto. Excepcionalmente encontramos z p. ej. en 25 *axechu ozbat* "un çergeganillo" y ts en 20 *yturic*» (Sarasola 1983: 210).

²⁷ Apud Sarasola 1983: 146-55; orain ere zenbakiak orijinaleko lerroenak dira, Sarasolaren argitalpenaren arabera aipatuak.

²⁸ 18. mendearen lehen zatiko testuei dagokienez ik. Lakarra 1985b, 244; cf. «en la mayor parte del ms. [Landuccirenean] se emplea la grafía sc (alguna vez sz) para las africadas ts y tz, sin distinguir una de otra, mientras que las fricativas aparecen representadas por ss (o s) y ç [...]. Más adelante, Baltasar de Echave en 1607 distingue por medio de digramas (t + c o z y s), aunque no siempre, las africadas vascas» (Mitxelena 1954c: 124).

Nahiz eta bietan < s > hutsa ere erabili egun < ts >ren bitartez islatzen dugun soinua idazteko, A-n B-n baino < sh > gehiago agertzen da:

A3 *osha*, B7 *osa*, A 10 *ush*, B 21 *us* (baina azalpenean *usha*),
 A26 *ausbo* (oker, *ausho*), A35 *ush*, B22 *us* (eta azalpenean *usa*),
 A20 *usean*, B39 *usean*, A43 *isuac*, B3 *esagalçaygarria*, B13 *esean*,
 B20 *vildos*, B37 *losavagueac*, B43 *arras*.

Alabaina, digrama hori ere Garibairen (eta ez A-ren kopiagilearen) asmakizuna izan bide zen oraindio eman ez dugun B-ko azken exempluan agertzen den gaztiguaren arabera:

13. «Porque cada uno haze mejor sus negocios por sí que no por terceras personas, dizen que el lobo tiene a su cabeza por el mejor mensajero:

Lobo el su cabeza mensajero mejor

Osho-ac vere burua mandatariric onaena.

En este lugar, y en otros muchos de esta lengua, se ha de herir mucho la S; y porque ayude algo, se pone aquí la haspiración, sin otra necesidad».

4.6.2. W eta B-ren etorkiak areago lotzen dituen bigarren grafiazko xehetasun bat aipatuko dut. Koldo Mitxelenak argiro erakutsi zuen bezala (1977a: 48-9), bizkaiera zaharrak bokal sudurkariak zituen, oraindik geroago zubererak eta erronkarierak legez. Inoiz, RS-ean esate baterako, sudurkaritasun hori idazkeran islatu ez bazen ere —zeinu zehatz baten peitu izanik—²⁹ lekukotasunak argiak dira. Jadanik aipatua dugun Pedro de Madariagak zioenez «la n algunas veces se pronuncia en las narices, como en *oracioa*, *ardaoa*, y para denotar aquella n se dueve sobreponer una cifra de esta manera a modo de nariz ~ ».

Hara zer dioen, bada, B31-k:

Por los hombres cuidadosos en sus propios negocios dizan:
 Diente en el dolor tiene el que lengua allá

Aguine an min daben-ac mina ara

Aguina llaman al diente, y *lataaguina* a la muela. Aquella dición *mina*, que significa «lengua», se ha de pronunciar algo con las narices, supliendo la *n* de la tilde con ellas, cosa muy usada en esta lengua en muchas dicciones, porque si se escribiese con la *n* diría *mina*, que es «dolor» y «amargura».

²⁹ Cf. «Como el ms G 139 de Garibay escribe *miú* y *arraiac*, en vize. mod. *mina* y *arra(i)nak*, es seguro que los autores de esta época, a falta de un signo inequívoco para indicar las vocales nasales, pudieron renunciar a señalar la nasalización. Este es sin duda el caso de otros textos, sobre todo RS, donde la comparación con el vizcaíno actual y con textos posteriores permite inferir la existencia de vocales y dipontongos nasales a pesar de la ausencia de toda notación» (FHV, 49. or.).

Beste errefrau batean ere dotrina bera errepikatzen du:

B60 «Por los que deven, y quanto más se le acercan los plazos de las pagas, están más temerosas dellas, o recelan algún otro mal que se les acerca, dizen:

Redes las quanto más cerca, pescados los apretados más.

Sara-ac urr-ago, arrayn-ac estu-ago.

Quiere decir: Quanto más se acercan las redes, tanto más se afilgan los peces. *Arranya* se ha de pronunciar con las narizes sonando la *n* de la tilde, porque *arrania* no quiere decir nada, y *arrayna* significa pescado en general, y a los peces pequeños llaman *eçcaluac* en plural y *eçcalua* en singular».³⁰

Bada, bi bildumetan czagutzen dudan (^) markaren crabileraren exen-plu bakarra A27an ematen dena dugu:

Por los hombres muy tibios, que no son para bien ni tampoco para mal, dizen:

Ez ur, eta ez ardaô

Ni agua ni vino.

4.7. Nakion orain Urquijoren hipotesiaren bigarren zatiari. Gorago ikusi dugunez, B bai baina A Garibairena ez zela pentsatuaz RS zuen haren bigarren bildumatzat eta hori frogatzeko bost arrazoi ere ematen zituen.

Alabaina, aurrerago (§ 3.2.) aurkeztu arrazoiok oso ahulak iruditzen zaizkit: lehenean urteen aldetik ezinik ez dela baieztagatzen da soilik, ez ordea, Garibairen aldeko ezer crakusten; bigarrena eta hirugarrena oso oinarri eskasen gainean eraikiak ditugu, RS-etañez ez baitira 10etara iristen handikiei eta herriei buruzkoak,³¹ arrunt gutxi, beraz, 560 ezagunen artean egile / biltzaile genealogista baten behar berezirik izateko; Idiáquezzen semeak liburu edo liburuxkarik Iruñean argitaratzean ere ez da Garibairen egiuntasunaren aldeko (kontrakorik ere ez jakina) argudio sendoegirik,³² eta, hortaz, hizkuntzari dagokion Urquijoren azken arrazoia baino ez zaigu gelditzten.

³⁰ Garibairen azalpen hau ulertzeko gogora bedi, Dodgsonek egin Kapanagaren edizioaz ari dela Mixelenak *IHV* 49. or., ohartean dioen bezala, kopiagileei leporatu behar zaieba usu (^) hori mantendu beharrean *n* ezartzea.

³¹ Cf. 167 *Eriac ereçan Butroeco alabea Plencian*, 270 *Muxica arrixatazar aguica*, 273 *Gacean, gacean ia ez Ybaranguengorean*, 404 *Butroeco meniac gayti ez ysquilosay echi*, 92 *Celangoada Butroe oroc daque*, 284 *Aramayo dabenac ezlemayo*, 334 *Daygu Goliz auzi ta garea vasez bizi*, 378 *Albia deunga dustien abia*.

³² Antonio Pérez Goyena, S.J.-ren *Ensayo de bibliografía navarra-ren arabera* (Dip. For. de Navarra-C.S.I.C., 1949, II, 83-84, 117, 148. or. eta 278, 305 eta 326. zb.ak) Alonso Ydíáquez y Muxicak 3 liburu atera zituen —1612, 1615 eta 1617an, bestalde, 1596tik aski urreti— edota, hobe, *zizkioten Assiayn-en etxeen*. Hiru kasuetan bere karguari («visorey») loturiko eginkizunen fede emateko atera liburuxkak ditugu: bi lege kuaderno eta erregeren alabari egin behar zitzzion harrerari buruzko paper bat. Hau ikusirk, ez dakit nola aldarrika dezakeen Urquijok bere hipotesiaren euskarritzat.

Ene ustez, Urquijoren susmoek, Guerraren laguntza gora behera,³³ ez dute oinarririk alde honetatik ere.

4.7.1. Hasteko, Idaquezi bidalitakoez goian eman dugun Garibairen testuan ez dugu ezertxo ere aurkitzen Guerrak eta Urquijok suposatu nahi dituzten Orozkoko ez besteko berriemaileei buruz, eta isiltasun hau esanguratsua da testuinguru hartan, laguntaileen aipamenaz bere lanaren balioa areago baitzezakeen Idaquez zein besteren aurrean.

4.7.2. Bestalde, ez Urquijok ez bestek ez du egin RS-en egiletasuna Garibairen alde crabakitzeko beharrezko zen bilduma honen eta Garibairen testuetako hizkeraren arteko gonbaraketa zehatzik, ez baita aski gaur egungo hango eta hemengo hizkeraren nolabaiteko antza duela esatea.³⁴ RS-i dagokionez 4. kapitulurako utziaz bilduma hori nongoa zatekeen aztertzea, 16. mendeko Arrasaten egiten zena dela frogatzeko Urquijok darabiltzan arrazoibide bitxien ahulezia erakusteko, lot nakion berak besterri jarraikiz aipatu *emaiten*-en kasuari, ez baitugu adibide gehiagoren beharrik diodanaren lekuko.

Irakurlea gogoratuiko bide denez (ik. § 3.3.) Urquijoren ustez RS-ean agertzen diren *beranquetan* eta *emaiten* egun Orozkon ez baina Leintz aldean erabiltzea bilduma horren etorkiari buruz berak zuen hipotesiaren alde etor daiteke. Alabaina, hori bezalako frogak ez dira sendoegiak, seguru baikaude 16. mendean (eta arre lehenago eta beranduago) Orozkon ere *emaiten* zcla, eta ez beste, *emon-i -te-* eranstetik ateratzen zen forma arrunta, ez baitago bizkaiera zaharreko testuak zertxobait ezagutzea bai-zik 18. mendera arte *emon* baina *emaiten*, *emaiteko*, *emaitea*, etab. agertzen dela jakiteko, jadanik Azkuck *Evolución de la lengua vasca-n* (1935: 74; ik. Lakarra 1984a, s.u.) erakutsi zuen hezala.³⁵

Dialektologia zaharrari buruzko ikerketak nahi bezain aurreratuak ez izan arren, eta nahiz eta oso zaila den erabakitzen duela 400 urtetako izkribu baten euskara zein herritakoa zatekeen,³⁶ —batez ere RS-ak beza-

³³ Ez zait beharrezko iruditzen ematea hemen Guerraren filologiazko trebetasun czaren (eta hizkuntzalaritzako ausardiaren) frogak luzegirik; cf. Urquijoren beraren *Los cantares antiguos del euskera-ren* kritikak, *RIEV* 15, 1924, 380. or. eta *Euskalerriaren Alde* 11, 1921, 379 eta hh. (eta Mitxelenarenak *ASJU* 20-1, 294-5).

³⁴ RS-en jatorriari eskeiniko diodan 4. atalean zuzenean bere lanaz aritu gogo dudan arren, ez dut esan gabe utzi gura aurreko oharrean Guerraz nioena zeharo eta zuzenago egokitzen zaiola B. Kapanagaren «Testu zahar baten [RS] bitxitasunak» delakoari; ik. *Euskera* 28-2, 1983, 159-168. or.

³⁵ 1745 baino lehen soilik *Ce modutan emoten deusca aumentuori* (Kapanaga 61), *Selan guey emotyen deustasu onetan urgasteco* (Mikoleta 288) eta *Vissita emoten joanic* (Urquiza 79) dira lege horri aurkitzen dizkiodan salbuespenak, *emaiten*, *emaitea*, *emaiteko*, *emaitean* etab., gutxienez horiek bider hogezi dirlarrik. Olaetxak (1763) eta *Peru Abarka-k* dagoceneko soili *emote-*, cf. Lakarra 1984a.

³⁶ Cf. Mitxelenaren iritzi bertsua, *ASJU* 20-1, 295. or.

la batean baino gehiagotan bilduriko materialecz osatua izan daitekeenecan—, ez deritzot ezinezkoa *RS*-en hizkuntzaz baliaturik beren etorkiaz zertxobait jakiteari; oraingoz zehaztasun gehiagotan sartu gabe, mende-baleko bizkaieraz daude funtsean eta horrelatsu pentsatzen zuten Azkuek eta Mitxelenak ere Orozko aldeko euskararen zantzu hartzean.

Nolanahi ere, askozaz errazago da *RS*-etako errefrauok garai hartako Arrasate aldeko euskaran *ez daudela* frogatzea, hor baititugu gonbaratzeko zorionez Garibairen beraren testuak: bai gorago aipatu errefrauak eta baita bere obretan zehar eman zituen kanta eta kanta zatiak ere.

4.8. Baina hizkuntzara igaro baino lehen, dakusagun, konpli den bezala, grafia bera. Ezaguna da hegoaldeko euskalkiek —eta beraien artean B— ez dutela gorde, nahiz eta zalantzarak gabe noizbait izan, beste euskalkiek mantendu duten aspirazioa; badakigu, halaber, galera hau historiaurrekoia izan dela, jadanik lehendabiziko testuetan islatzen den hizkeran emana baitzen.

Hala ere, < h > letra aurki daiteke hegoaldeko testuetan, batez ere erdaratiko zenbait mailebutan, baina baita noizik behin euskal ondare zaharrekotzat ditugunetarikoren bat (*hume*, esaterako) islatuaz, sistematiskotasunik gabe bada ere; honela erakutsi izan du Mitxelenak (1979a)— eta *RS*-etan oinarriturik, hain zuzen— Azkueren saio zaharrago (1935: 115) baina ez hain sakon baten ondoren.

Haatik, lan interesgarri hauek ez zaizkigu hemen axola orduko fonologiariekiko ondorioengatik, *RS*-en biltzaileak zituen grafiazko ohiturez diotenarengatik baizik. Mitxelenak frogatu duenez < h >ak *RS*-etan bokal arteko hiatoak markatzeko balio du: *hahoaz* (372), *parrhua* (220), *que/ric* (53), *quebea* (360), *quebeac* (364), etab., Kapanagaren dotrinan, *Viva Jesus*-en eta bestetan inoiz jazo legez. Markatzekoa da, aldiz, Garibairen errefrauetan ez dudala horrelakorik behin ere eriden: *asiac* (B64), *axeriac* (B27), *axeriani* (B73), *bear* (B45), *gueiaenean* (B4), etab.

Baina gonbaraketa hitz hasierako bokal aurrean da esanguratsuena: *h-*asko dira *RS*-etan, 84 Mitxelenaren kontuen arabera: *hurrutirean* (147), *huri* (148), *burte* (150), *burrieteac* (249), *burdinetan* (166), *hiñarchi* (112), *biz* (284), *baoa* (87), *bendorea* (73), etab. Horietarik 44 dira *hu-*, 20 *ho-* eta 24 *ha-*, *he-* eta *hi-* (Mitxelena 1979a).

Mitxelenak dioenez, *h-* horien sailkapena ez da halabeharrezko, zeren eta berariazko joerarik ez balitz bokal bakoitzari agerraldi kopuru berdintsua tokatuko bailitzaioke; zehazkiago, bokal bakoitzari bere euskal testu eta hiztegiak agerraldi frekuentziaren arabera: A-ri gehien, E-ri gutixcago, I-ri gutxiago, eta oso gutxi O- eta U-ri. Ikerlari berak azaldu bezala, *hu-* ugari horiek badute zergatirik: betebeharra ez da *u-* bokala eta kontsonantea (*hueuo* eta *ueno-ren* gisan) bereiztea baino, oraindik

finkatu gabe baitzen gaztelera, eta gaztelera zen eredu, < v > eta < u > ren grafiazko bereizkuntza (cf. Mitxelena 1979a).

RS-ei buruzko Mitxelenaren datu hauek Garibairen bildumarekin erakatzean —B-ra mugatuko naiz Urquijoren irizpideekin jokatzeko (gogora § 3.0. eta § 3.4.ean esanak)— oso besterik aurkitu dut: *h*-aren exemplu solte eta bakar bat (*B* 52 *hora*), alegia. Esan gabe doa *RS* berea izateko *h*-haboro behar lukeela erabili *B*-n edota, alderantziz, askozaz gutxiago *RS*-etan. Are gehiago, *RS*-etako 44 *hu*- kasu horiek eman zitezkeen 96ren artean gertatzen dira (ia %50a, beraz), 96 baitira, oker ez banago, bilduma horretan *u* hasieran duten hitzak; *B*-n, aldiz, 16 bider ematen da *u*-, behin ere *h*-rik ez daramalarik.

4.8.1. Grafiatik atera gabe, *RS*-etan ez dut gure oraingo < ts > irudiak Garibaik asmatu eta usu erabili zuen < sh >ren exemplu bakarra (338 *oshoa*) baino aurkitzen; *aberas* (2), *aberassoc* (2), *esea* (6), *esagücea* (58), *losauagueac* (66), *sorosi* (78), *aus* (79), *asoia* (79), *ossoac* (226), *bussic* (332), *ussa* (426) errenkadak erakusten duenez < s(s) > baita nagusi egiteko horretan, nahiz eta Garibaik inoiz erabiltzen ez dituen < xs > (*lauxsten*, 211), < csh > (*oscho*, 133), < csksz > (*wicshzdunic*, 455), < ts > (*lotsga* 263, *etsecoandrea* 259) eta < shs > (*oshsoac* 74, 480, *oshso* 471, *eshse* 442, *eshsean* 434, *eshseraco* 537, *esheco* 473, 525, *ushsa* 442) ere ageri.

4.8.2. Ez partikulari dagokionez bada, halaber, zer esanik. Garibairen bi errefrau bildumak gonbara bagenitza, laster konturatuko ginateke. A-ren kopiagileak ez bihurtu dituela berc orijinalean *eç* zirenak, bat edo beste pasatu bazaio ere; *B*-n, aldiz, *eç* da duguna.³⁷ *RS*-etan, ostera, ukanpenaren 54 agerraldietatik *ez* agertzen zaigu 53tan eta behin soilik *es*.

Ene ustez, grafiazko ezberdintasun hauek berak aski lirateke baiezta-
zeko Garibai *ez* zela izan *RS*-en egilea.

4.9. Hizkuntzan *ere* nahikoa dukegu zenbait xehetasunekin ondorio berdinera iristeko azterketa zabalagorik *ez* den bitartean, bederen, xehetasun horiek ongi hautatuz geroz gai baitira auzia erabakitzeko.

4.9.1. Mitxelena konturatu zen zuhurki Garibairen errefraueta beti *eta* juntagailua erabiltzen zela eta *RS*-etan *ta* dela askorekin aldaera nagusia (1985: 214). Kopuruek *ez* dute zalantza izpirik uzten, ene kontuen arabera 4 *eta*-ren alboan 135 *ta* baititugu *RS*-etan,³⁸ Garibairen erre-

³⁷ Cf. A12, 13, 27 *ez...ez*, 22 *eç*, 30 *ettoa* ([irakur ettoa], 35 *ez euguiia*, 36 *etcaroa*, 37, 55, 56 *ez* eta *B* 18, 32 *eç...eç*, 44 *ettoa*, 22 *eç euguiia*, 30 *etcaroa*, 45 *etian*, 9 *eçeac*, 10, 15, 25, 29, 63 *eç*).

³⁸ 4 eta 123 datozi Soto Michelena 1978-79: 15 hh, s.u. Hiztegi hau lehendabiziko hurbil-keta bezala erabil daiteke soilik, analisi eta metodo akats larriak baititu errazki ohar daiteke-enez; artean ikus bedi, adibidez, *egan sarrera*.

frauetan 18tatik 18ek *eta* dutelarik;³⁹ halaber, *eta* baino ez da agertzen Garibairen bitartez ezagutzen ditugun testu laburretan ere.⁴⁰ Mitxelenak berak esan bezala «hori kontuan eduki behar zuten bilduma hau [RS] eta oraingo gureak [A eta B] esku beretsutik datorzela uste izan dutenek» (1985: 214).

4.9.2. Kontuan izan behar zuketen, halaber, *Valizco oleac burniaric egin eztaroa* dakartela bai A 36 eta baita B 30.ak eta *Balizco oleac burdiaric ez RS 15.ak, euguaia* dutela A 35, A 39 eta B 22ak eta *euguiarren RS 264ak, gogaeta* dela «pensamiento» A 57 eta B 34ean eta *gogaiera*, aldiz, RS 395can, *jabea* dagoela A 45 eta B 19an eta *jaube RS 54, 286an, jaubea RS 551ean, urri-k* «marzo» esan nahi duela B 46 eta B 47an eta «octubre» *urrietea-k RS 149an* eta orobat soilik *done* ematen dela RS-eten eta bai hori eta baita *san* eta *santi* ere askozaz txikiagoak diren A eta B bildumetan; RS 318 *Done Vicen*, 320 *Done Meterij Celedon*, 545 *Otu doneari*, 254, 280 *Doneaneoco euria*, baina A 16 *San Simon eta Juda*, A 6 *Jaun Santi Laurenti*, B 52 *Sanct Simon eta Juda*, B 57 *Jaun done Laurenti*, B 63 *Jaun done Martinen*. Erabat kontrako esanahia duen hitzean A 32, B 56 *dongueac* dugu RS 222, 387, 440 *deunga*, 207 *deungen*, 97 *deungueaenean-en* kontra eta baita A 60 *izen* baina RS 414 *hucen* eta 461 *huzena* ere.

4.9.3. Hitzetatik atera gabe, bada oraindik RS eta beste bi bildumen etorkiak bereizten dituen xehetasunik. Ez luke zer aipatu, jakina, RS-eten Garibairen bildumetan agertzen ez diren hitzak agertzeak, hura handia-goa izateaz at, gaiak ere ez baitira beti errepikatzen hitz berdinak eman daitezen. Alabaina, markatzekoak deritzot Garibairen bildumetan esaterako hapaxik (ia «hitz arrarorik» ere esango nuke) ez agertzea; *urri* = «marzo» (B 46, 47), *diago* = «hieren / dice» (A 20, B 39), *eben* = «aquí» (B 44) eta *manturio* «azeriak arrapatzeko tranpa» (A 48, B 27) baitira aipagarri iruditzen zaizkidan berba bakarrak.

RS-eten, ordea, ugari dira; ikus, adibidez, A eta B letretan ageri direnak:

<i>aberasgarri</i> «aparejo para enriquecer» (11)	<i>andizuren</i> «honor, principal» (392, 507)
<i>agika</i> «a dentelladas» (270)	<i>anker</i> «cruel» (12)
<i>alaune</i> «majada» (152)	<i>apizetan</i> «robar» (509)
<i>alberdau</i> «regozijado» (482)	<i>aretx</i> «bellota» (37, 109)
<i>alogadu</i> «alquilar» (388)	<i>arritu</i> «rehir» (52, 386)
<i>altamia</i> «taza» (543)	<i>asakatu</i> «acabar» (171)
<i>anderra</i> «señora» (290)	<i>aspertu</i> «vengarse» (10, 362)

³⁹ Ez zait salbuespen iruditzen A25 *Mila urte igerota ura vere videan*.

⁴⁰ Cf. *sagar erreia eta arda gorria* (TAV 75), *jauna eta andrea* (TAV 76).

<i>asto</i> «fiador» (249)	<i>beralan</i> «de la misma manera»
<i>auzkin</i> «pleítista» (75)	(333)
<i>azarkunza</i> «atrevidimiento» (165)	<i>beranketan</i> «hacerse tarde»
<i>azarri</i> «atrevido» (383)	(521)
<i>baist</i> = <i>bait-</i> (35)	<i>behse</i> «abarca» (24)
<i>baratxexe</i> «despacito» (173)	<i>betsegia</i> «vaca con cría» (411)
<i>basoi</i> «montañero» (522)	<i>bizikide</i> «manera de vivir»
<i>bats</i> «orujo» (99)	(133)
<i>belorit</i> «rollo, horca» (196, 197)	<i>burrustu</i> «acometer» (424)

Hitz guztiok ez dute, jakina, pisu bera. Baliteke zenbait zerrendatik kendu beharra ere, nik ezagutzen ez ditudan bizkaierazko testuetan agertzeagatik; bestalde batzu soilik forma edo esanahi horrekin dira hapax edo ia ezezagun. Nolanahi ere, gutxitu bcharak gutxiturik, kopuru hau RS-en hiztegi osora hedatua baganeza, 145 bat genituzke (adizkiak kanpo) bilduma horretan agertuko litzaizkigukeen gainerako testuetan kiderik ez duten hitzok. Kontuan harturik Garibairen 3ak⁴¹ 90 errefrautan ematen direla RS-eko 145 hauck 560tan ematen diren bitartean, erraz ikus daiteke bilduma honetan agertzen diren hitz ezezagunen proportzioa ere askozaz handiagoa dela; zehazkiago, RS Garibairena izateko bilduma horretan soilik 18 hapax einan beharko lirateke edota, alderantziz, Garibairen bildumetan 23 bat eriden.

4.9.4. Izen eta aditz morfolojian ez da gehiegi Garibairen errefrauek eskeintzen dutena, bildumak txikiak izateaz gainera, aditza ezabatzeko joera atzeman baitaiteke, Urquijo ohartu bezala.⁴² RS-ekiko gonbaraketa arlo honetan zaila bilakatu arren hortaz, bada hemen ere etorki ezberdinaren alde argiro mintzatzen den xeherasunik. Ezaguna denez, bizkaierren azpieuskalki batzutan *-n* > *-a* ematen da lehenaldian, ez ordea gehienetan; zehazkiago, fenomeno hori mendebaldeko itsasaldean, Bilbo alboko herrietan ematen izan da Azkuek eta lehenago Zabalak markatu bezala:

Por 3.er defecto cuenta la supresión de la *n* final de los artículos, practicado en los pueblos de la costa del mar cercanos a Bilbao, v.g. *yan egua* por *eguiar*, o *evan* «él lo comió», *etorri cidi* o *za* por *cidin* o *zan* «se vino», *yoan ekio* por *ekion* o *yacon* «se le fué» (1848: 57; cf. Lakarra 1986b).

⁴¹ Ez dut *diago* kontatzen adizkia izaki, lehen RS-ekockin ere egin ez legez.

⁴² Cf. «En bastantes de los refranes de las dos colecciones que comparamos [A eta B] se suprime por completo el verbo; por ejemplo *Andiac andiro* (xi), *noc vere gogoeta moeta*, etc., *Los refranes de Garibay*, 539, or. eta «Bien que beaucoup de proverbes de Garibay soient des phrases sans verbe...» (Lafon 1943: I, 67).

Hara zer irakur daitekeen Mikoletaren *Modo breve-an* (1653):

10 nic vostac conta ninçean, 142 sillac etorsan Salamancaric baina 126 Flandesic etorri sirea, 141 non egün sidi?, Poesietan on oynerechu, mudadu nindia, vior equida, emon senguida, (ik. 4. eta 5. kapituluak).

RS-etan ere badira -edun formak, eta are nagusi ere dira, gutxigatik izanaren:

52 citean, 75 nenguiâ, 263 nindin, 294 cizan, 364 eban (eta 345 ezeuan, 228 ezeban), 419 neuen 513 neban, 513 neçan (eta 513 nezan), 526 jacazâ, 557 zan, baina 244 neuca, 244 eusta, 294, 486 cidi (eta 359 çidi), 332 nentorre, 332 necarre, 344 ezequida, 388 citea, 438 nencarre, 535 egua, 535 nenza, 555 neghia.

Garibairen errefrauetan, aldiz, ez da -n gabekoren agerraldirik: A 2, B 1 *cidin*, A 11 *çiteçen*, A 19, B 8 *engarren*.

4.9.5. Garibairen errefrau eta testuetan **edun*-en orainaldiiko eta lehenaldiiko pluraleko 3. pertsonaren formarik ageri cz arren *dau*, *euen* cdo oso antzeko zerbait ziratekeela suposa daiteke horrelakorik erabili izan balu; hori dioskute ez bakarrik gaur egungo dialektologiak (cf. Etxaide 1984: 228, Gaminde 1984: I, 302) (*asuen*) baina baita 18. mendearren hasieran Aramaio eta Arrasaten bizi izan zen Barrutiak ere: *85 chacurrac eurac eguiten dave, 349 goizean bein emaiten dabe, 33 profeta sagradiac escrividu eben*. RS-etan, ostera *dau*, **euden* aurkitzen dugu, -d-rekin, berriz ere mendebaleko hizkerck ohi nola:

3 aberassoc jaya daude, 3 auçooc vere yguy daude, 54 iaube bat daude asco, 85 iaunac asco daude, gueyago beardaude, 316 andra guztioc erçeti / erabilico aude veti, 441 gaxtoac daude hucen gueyago, 440 aldia gauzac daude.

4.9.6. Ez naiz gehiago luzatuko hizkuntzazko gonbaraketa honetan, cne ustez, orain arte emandako frogak aski baitira RS bilduma Garibairen eskutik ez zela atera erakusteko. Guztiz ezinezkoa ez den, baina itxadoten ez dudan berri ezezagun bezain pozgarriren batez bere egilea nor izan zen sekulako jakingabe jarraitzea atseginegi ez den arren, ez dirudi beste aukerarik dugunik oraingoz (ik. halere 4. atala).

5. Laburbilduaz

Orain arteko gogoeten arabera W (A-ren orijinal galdua) eta B —ez RS— dira Garibaik atondu zituen bi errefrau bildunmak; Urquijok zuen

kontrako iritziaren arrazoi nagusia —bietan 37 errefrau errepikatua— aski ahula iruditzen zait aurkakoa mantentzeko. Iza ere, edozeinek dakin da norbera ere asko errepikatu ohi dela errefrauak, ipuinak, kantak zein txistek *buruz* emanet, eta areago kopuru batera iritsiz gero, baldin eta memorio oparoko kasu bereziren batekin topo egiten ez badugu, berden; ez da harritzeko gauza bera gertatzea Garibairi ere, batez ere bilduma bata bidali zuenetik Idiáquezen eskariz bigarrena paperean jarri arte aldi luze edo luzexkarik izan balitz.

A bilduma, G139 zenbakiarekin Madrilgo Biblioteca Nacionalcan gordetzen dena, gipuzkoar kopiagile batek egina da; W-ren kopiagile hau aski zintzo izan bide zen, ez baitzuen seguru asko aldaketarik egin, grafia eta hizkuntzazko txiki eta gutxi batzuez landa (cf. § 4.4.), ez eta W-z atetiko beste materialik erabili A osatzeko.

Hau dela, deritzot, Urquijok erabili eta hark kontuan ez izandako beste datzu batzuren azterketak demaigun ondorioa.

6. Eranskina. A eta B-ren ekoizpen ordenaz

6.1. Urrats bat aurrerago emanaz, galda daiteke zein izan ote zitekeen Garibaik Idiáquezzi bidalitako lehena eta zein bigarrena, W eta B-ren artean. B da, ene aburuz, lehendabizi bidalia, eta W bigarrena.

Ohar bedi, hasteko, B-k hilien eta egunen izenak ere bazituela, nahiz Francisque Michelek ez argitaratu (cf. § 2; orain ik. Urkizu 1989). Gogora bedi Garibaik dioenez Idiáquezek *errefrauak* eskuu zizkiola lehendabizi-ko sorta bat hartu ondoren:

El señor don Juan de Idiáquez, del Consejo de Estado de su Magestad, deseó otros refranes en su lengua vascongada sobre los que le di antes en un quaderno, y en 18 de julio de este año de [15]92 le envió otro de ellos a Valladolid con su interpretación interlinear, palabra por palabra, y en el sentido de ellos para su mejor declaración.


Ez dio lehendabizikoan errefrauez kanpo beste zerbait ere bidali zion Idaíquezzi, mementu horretan ez baitzitzaion horrelakorik axola, baina ia segurua iruditzen zait bigarrenean soilik errefrauak bidali zizkiola: W sorta, beraz.

6.2. Bada, beharbada, beste arrazoi moeta bat ere lehendabizi osatu eta bidalitako sorta B dela suposatzaren alde. Gorago ikusi dugunez, A-n B-n baino < sh > gehiago agertzen da /é/ (egungo < ts >) islatzeko. Zehatzago, 6 kasutatik⁴³ 4tan < sh > dakar A-k; B-k, aldiz, 11tatik behin baka-

⁴³ Kanpo uzten ditut *echa-*, etab., A-ko kopiagilearen aldaketak izaki ez baitugu erabakitzetik W-n < s > ala < sh > ziren; alderantziz, *ausbo*-k (26) W-n < sh > eskatzen du zaldantzak gabe.

rrik.⁴⁴ Garrantzitsua da, ordea, exemplu bakar hori, bere azalpenean proposatzen baita espreski < sh > hautatzea soinu hori adierazteko. Bururadatorkidan azalpen modu bat honako hau izan daitake: demagun B dela lehendabizi osatutako sorta eta hori paperean jartzen ari zela pentsatu zuela Garibaik digrama hortaz baliatzea, gazteleraren ortografiak ez baitzion eskeintzen hoberik. Alabaina, soilik beranduago erabaki bide zuen sistematikoki, edota ia sistematikoki bederen (A-ko < s >ak oro ez balira kopiagilearen aldaketak), letra hori eta ez besterik erabiltzea. Nolanahi ere, zailago iruditzen zait alderantzizkoa onartzca, hau da, W litzatekeela 1.ko bilduma eta hor ia erabat < sh > erabili ondoren hurrengo bilduman czagutzen ez dugun arrazoiren batengatik ahalik eta gutxien erabili zuela; § 6.1.ekoia ere kontra luke.

6.3. Hau litzateke, bada, testuon arteko loturak islatzen dituen stemma:



⁴⁴ B 13 *osho-ac*, B 21aren azalpenean halaber *usba* (errefrauak *us*).

REFRANES Y SENTENCIAS ETA HERNAN NUÑEZEN BILDUMA

0. Kapitulu honetan⁷ *Refranes y Sentencias* eta Hernán Núñez-en bildumaren arteko harremana aztertuko dugu. Urquijok RS-en etorkiari buruz aurkeztu zuen teoria nagusia, hots, bilduma hori gehienbat Hernán Núñez-enetik itzulia zela azalduko dugu eta iruzkinduko, lehenik, eta, haren ikerbideak miatu ondoren, bi bildumen arteko erlazioak ikertzeko bestelakorik den bilatuko.

Hara segidan bere egitura: § 1. Urquijoren baieztapenak eta erizpidetako; § 1.1. Gonbaraketaren ustezko emaitzak taulan bildurik, § 2. Urquijoren emaitzen sailkapena: a) errefrau kiderik gabeak edo esanahi ezezagunekoak, b) soilik euskal kideak dituztenak, c) euskal eta (gaztelaniaz landako) erdal kideak, d) euskal eta erdal kideak (gaztelania barne baina etorki bezala hori aipatzeko), e) soilik erdal kideak (gaztelania barne) etorkiaz ezer esan gabe, f) soilik gaztelaniazko kideak, HN aipatzeke edo hari hurbiltzeke, g) gaztelaniazko kideak, HN RS-koaren iturburutzat duclarik eta beste lekukotasunik gabe, h) gaztelaniazko kideak, HN RS-koaren iturburutzat duclarik baina beste zenbait lekukotasunekin, i) erdal kideak, gaztelaniazkoak landa, HN RS-koaren iturburutzat duclarik; § 3. HN-tik hartutakotzat Urquijok aurkeztu errefrauen azterketa orokorra: § 3.1. Euskal Herriko gertaeren eta euskarazko hitz-jokoen garrantzia; § 3.2. HN-tik hartu (omen) atzerriko hizkuntzetako errefrau oro horrela ote?; 3.3. *Ad sensum*-eko antzekotasunak; § 3.4. RS-eko erdarazko euskarazkoaren itzulpen; § 3.5. RS-eko gaizki ulertuak; § 3.6. Aldaerak luze-laburrean RS eta HN-ekoen artean; § 3.7. Bestelako aldaerak; § 3.8. RS-eko euskararen polimorfismoaz; § 3.9. RS-eko hitzen zenbakien garrantzia; § 3.10. *Euskalerriaren Yakintza-n* bildu RS-eko(en aldaer)ak; § 3.11. Urquijoren emaitzak iraulirik eta haien iruzkina; § 4. Metodo berri bat RS eta HN arteko erlazioen azterketarako: § 4.1. Urquijoren benetako emaitzak; § 4.2. Bikote eta segida luzeagoez; § 4.3. Metodoaren ezarketa eta emaitzen azterketa: RS-ek erabili HN-ren berreraiketaz; § 5. Ondorio orokorrak: RS-en HN-ekiko zorraz.

⁷ Aurreko bertsio askozaz laburrago, xehetasun eta azterpide gutxiagokoa argitaratu zen Patxi Altunari egindako omenaldian (Lakarra 1990a); orduko akats guztiek ez ziren egile honen erruz izan, ordea.

1. Aurreko kapituluan (§ 3.1.) gaztigatu bezala, Urquijok ez zuen inoiz argitara eman, gogo zuen legez, *RS*-i buruzko «Sarrera» hori, eta han-hor-hemen (bereziki bere *RS*-aren edizioko iruzkinetan) sakabanatutiko oharrez jabetu behar dugu obra horri buruz zituen ideiez. Etorkiari dagokionaz, halere, baieztapenak ugari dira, eta interesgarria izan zitekeen arren bere iritzi eta frogak luzez azal balitza, nahikoa argiro antzeman dezakegu haren burbilketaren muina ondorengo pasarte honetan:

[...] Me hubiera sido fácil tomar los refranes italianos, franceses y portugueses que cito de colecciones modernas, más correctas que las antiguas; pero para la tesis que defiendo —de que la colección del Comendador es la fuente principal del libro vasco de 1596— me conviene no hacerlo. Quiero en efecto, hacer patente que, en varios casos, cuando el refrán vasco se asemeja más que el castellano a un proverbio extranjero, éste se halla incluido en la obra de Hernán Núñez. Véase para más detalles mi *Introducción*. Entiéndase bien, que no sostengo que no existen refranes vascos originales, sino que los de la colección de 1596 están tomados en grandísima parte de los refraneros castellanos (*RIEV* 5, 378, 1. oh.).¹

Ezinezkoa zait hemen 560 errefrau czagunen etorkia banan banan aztertzca; alabaina, aurkeztu nahi ditut zenbait gogoeta Urquijoren gonbaraketa metodo eta erizpideez, erakutsi nahiz haietan diren zenbait akats, ondorioak —neurri handi batean gutxienez— zalantzagarri bilakatzen dituztenak.

Has gaitezen Urquijok berak bere sailkapen arau nagusitzat duenetik:

Por lo demás, ingenuamente declaro, que creo podría intentarse, aun independientemente del estudio comparativo que ahora nos ocupa, una clasificación de los proverbios vascos en cuanto a su originalidad, basada exclusivamente, en el lenguaje de los mismos. Es decir, que dicha clasificación debería atenerse a mi juicio, a la regla siguiente: *No debe considerarse como proverbio genuinamente vasco, aquél que contenga una o varias palabras alienígenas o el que revela por su construcción influencia latina, francesa o española* (*RIEV* 3, 155; etzana nirea).

adibide zehatzak ere ematen dizkigularik:

Hállase, por ejemplo, comprendido en la primera parte de la regla, el prov. 110 de Oihenart: *Cosina guisen-eguiac labea du ahultzen eta exea aurizen*; y entra a mi juicio de lleno en la segunda, el nº 1 de *Refranes y Sentencias*: *Adi adi ce jaun goycoa dagoc adi*, Mira con cuidado q. el Señor de lo alto te está mirando (*ibidem*).

¹ «Encontramos su equivalente castellano, como de costumbre, en H. Núñez» (199.ean), «como lo están [tomados] otros muchos de esta colección, del libro de H. Núñez» (32.ean antzera 60.ean), «en la tantas veces nombrada colección del Comendador» (63.ean), eta antzekoak errazki bil eta ugal daitezke.

Nago erregela gogorregia den, orain gutxik onartuko lukeen garaiko garbizaletasunean oinarritua izateaz landa, ez baitu ez bere lehen zatian (mailebu lexikoak), ez bigarrenean (mailebu sintaktikoak) besterik gabe salatzen errefrau baten atetiko etorkia zalantzari gabe; gogora bedi, beste eremu batean, goldearen izenaz eta euskal goldeez beraiez Caro Baro-jak aspaldi markatua. Aski da errefrau jator batean hizkuntzak hartu dituen mailebuetarik bat islatzea haren, ez mailebuaren, jatortasuna ukatzeako; ezinezkoa da honelakorik onartzea, tradiziozko literaturako gene-roetako hiztegi eta hizkuntza oro har, delako gai bati etorkiz dagokionaren eta garai batean mintzatuaren arteko hitzarmena baita: cf. aipatu ahalko litzatekeen bibliografia ugariaren artean errefrau ei baladei bezain ongi ego-kitzen zaizkien D. Catalánen (1977: 231hh) ondorioak. Ez da, beraz, inondik inora aski generoaren edo gaiaren jatortasuna deuseztatzeko.

1.1. Hara taula batean czarriak haren ustezko emaitzak:^{1b}

RS	HN	RS	HN	RS	HN	RS	HN
1	—	22	? 141	43	—	64	—
2	—	23	—	44	—	65	276
3	40 (it.)	24	355	45	—	66	412
4	327	25	20	46	—	67	—
5	364	26	? 45	47	110	68	—
6	316	27	—	48	—	69	342
7	29	28	—	49	—	70	127
8	280	29	303	50	—	71	—
9	275	30	—	51	87	72	—
10	—	31	357	52	—	73	—
11	163	32	—	53	—	74	—
12	—	33	435	54	271	75	—
13	—	34	—	55	—	76	—
14	—	35	—	56	—	77	59
15	—	36	? 387	57	f.g.	78	35
16	74	37	15	58	—	79	457
17	150	38	—	59	—	80	—
18	? 61	39	—	60	5	81	154
19	? 55	40	90	61	? —	82	—
20	—	41	? 450	62	—	83	—
21	—	42	—	63	283	84	30

^{1b} Laburdurak: f.g. = folio gabe [Urquijoren oharreran], it. = italierezkotzat eman HN-en, fr. = frantsesekotzat ibid.; beherago (§ 3.11., 3. taulan) eriden ahal da hemengo hau berrantolaturik.

REFRANES Y SENTENCIAS (1596)

RS	HN	RS	HN	RS	HN	RS	HN
85	—	125	90	165	—	205	—
86	?—	126	427	166	—	206	—
87	290	127	—	167	—	207	19
88	—	128	272	168	—	208	—
89	10	129	—	169	—	209	? 338
90	—	130	359	170	—	210	282
91	—	131	11	171	—	211	1
92	—	132	—	172	—	212	—
93	302	133	—	173	—	213	54
94	277	134	134	174	80	214	—
95	413	135	282	175	—	215	341
96	—	136	77	176	89	216	341
97	—	137	457	177	—	217	341
98	113	138	303	178	f.g.	218	342
99	88	139	—	179	—	219	342
100	—	140	—	180	—	220	339
101	422	141	—	181	337	221	339
102	—	142	—	182	—	222	344
103	—	143	—	183	435	223	353
104	—	144	—	184	337	224	368
105	—	145	—	185	—	225	339
106	—	146	—	186	? 294	226	303
107	136	147	90	187	—	227	304
108	—	148	139	188	—	228	334
109	—	149	—	189	—	229	334
110	282	150	—	190	353	230	—
111	282	151	—	191	387	231	334
112	165	152	2	192	388	232	339
113	278	153	f.g.	193	125	233	—
114	—	154	—	194	127	234	135
3.10. Errefrauok herrikoiak bide ziren, gehienak eta gehienean bederen, garai harten eta aspalditik izan ere —aztertzale orok markatu legez— beren hizkuntza orduko zaharkituak salatu bezala, zenbait geroago ere ezagun eta herrikoi diren edo izan direlarik. Hara, esaterako, diodanaren adibide zenbait *Euskalerriaren Yakintza-n* Azkuck bildutako kideetan. Segur naiz oraindik egiteke den euskal errefrauengen corpus zabalago batek Urquijorentzat arrotz eta, zehatzago, usu HN-rengandik mailebatu anitz gehiago «euskaldunduko» lukeela:

⁴ Ikus Lakarra 1994b-n Urteren gramatikako antzeko usadioa.

16. *Betico ytoquinac arria çulatu* «Gotera continua piedra orada». Cf. EY 2139 *Betiko itoginak arriari ziloa* (B-mo, Otx. esk.). U-rentzat bere lehen zatian HN fol. 74 *Continua gotera horada la piedra-ren* (badira aldaera gehiago) itzulpena izan bi-de daiteke. Ez zuen ezagutzen, aldiz, egungo egunean euskaldunen ahotan erabiltzen zenik.
42. *Mutil horac buruan zauri gaxtoac bernazaquian* «El bué moço la herida en la cabeza y el malo en la pantorrilla». Cf. EY 265bis *Mutil onak buruan zauria* (B, Otx.esk.). Ez zuen uste U-k errefrauau hau HN-ren baten itzulpena izan zitekeenik; ezagutzen zuen Gar.ren bilduma bateko agerraldia, ez ostera, geroztikorik.
52. *Vnayoc arri citean, gastaeoc aguir citean* «Los pastores riñeron, los quesos parescieron» (= RS 386). Cf. EY 138 *Artzainak samurtu direnean gasnak ager*. Ia hitz berdinekin aldaera anitz entzuten dela gaztigatzen du bertan Azkuek. Ez dio oraingoan ere U-k HN-rengandik hartua denik —harengan kiderik bilatu arren: fol. 360v *Pelean los ladrones y descubrê se los hurtos eta kideak, seguruenik berak ikusi bezala, aldaera eta agerraldi gehien duten euskal errefrauatarik delako, ia ia bilduma guztieta eta lurralde ezberdineta ematen delarik.*
64. *Luqui cume azeri* «El hijo del raposo zorro». Cf. EY 528 *Lukikumea luki eta azerikumea azeri* (AN-b) eta *Luki-semea luki* (B-derio) aldaerekin. Gaztelerazko, baina ez HN-ko baizik eta Col. de Refr. del s. 15-eko *El lobo y la gulpeja son de una conceja-ren baliokidetzat* zuen U-k ez zekarren euskal aldaera edo geroztiko agerraldirik.
116. *Astoagaz adi quirolan ta deyc buztanaz biçarrean* «Regoziate con el asno, darte ha en la barba con el rabo». Cf. EY 1976 *Astoak yolas bat, ta bera ostikadea* (B-clantxo-bc). U-rentzat «es el castellano (HN fol. 55) *Burla os oô el asno, dar os ha en la barba con el rabo.* Ez dakar inongo beste aldaera edo kiderik.
124. *Asco badoc, asco bearcodoc* «Si tienes mucho, mucho aurás menester». Cf. EY 1970 *Asko baduk, asko beharko duk* (AN-b, L, Gar. eta Darthayet-en lekukotasunekin). Honelako errefrau anitz dela (frantsesezko bat aipatzen du) gogoratu arren ez dio U-k erdal etorkirik egokitzen, beharbada Gar.-ren bilduma batean duen agerraldiagatik.
170. *Motel oroc yznay* «Todos tartamudos quierê hablar». Cf. ad sensum eta egituragatik EY 2557 *Itsuak ikusgura, errenak ibilgura, gorrak entzungura* (B-l). Isastik ia era berean dakarrcla eta lat. eta fr.ezko baliokideak dituela gaztigatzen du soilik U-k.

202. *Lastozco buztana dauenac açera beguira* «Quien tiene rabo de paja aziatrás mira».
 Cf. EY 2165 *Buztana lastozkoa duena suaren bildur* (G-erre-zil). Euskaraz hiru aldaera (Isasti, Zalgize, Oih.) dituela markatu ondoren beste hizkuntza batzuetakoak aipatzen ditu U-k, baina euskal lekukotasun modernorik eman gabe.
281. *Ator(rjen) baxen vrrago narrua* «El cuero más cerca que la camisa».
 Cf. EY 1981 *Atorra urren, larrua urrenago* (BN-am, beste batzuek *Atorra burbil, larrua burbilago* esaten dutela gehituaz). Hizkuntza anitzetan ematen dela esan arren U-k, bere datuek —euskarazko aldaera aski ematen du— ez gaitutze behartzen erdaretan bilatzen euskal errefrau honen etorkia.
291. *Eguia ergarria* «La verdad causa riña».
 Cf. EY 2221 *Egia askoren erregarria* (B-garai-izp.). U-rentzat HN fol. 456 *Verité engendre hayne-ren imitazioa da, nahiz eta berak aipatzen duen Peru Abarka-ko 55. errefrauaua, Eguija, askoren erregarrija*.
294. *Iaygui cidi naguia erracizan vria* «Leuantóse el perezoso y quemó la villa».
 Cf. EY 2662 *Nagiak erre ei eban erria* (B-m cta B-i-ko Uriarteren aldaera). U-k Garren bi bildumetako, Oih.eneko eta Azkuck Markinan aurkitutako aldaerak dakartzza; horien aldamenean «todos ellos corresponden al portugués» (?); badi ocre, HN fol. 277 *Leuanto se o pegriçoso e meteo fogo a o palleyro* «Leuantó se el perezoso y pegó fuego al pajaro» gororatuaz.
305. *Ydiac oñon bidean gurdia*, «é lugar de gruñir los gueyes el carro».
 Cf. EY 498 *Idiak oñon beatrean burdiak oñoten* (B-izp.: Uriarte). U-k nahiz Isasti, Oih. eta Larramendi nahiz HN-ren agerraldi eta aldaerak dakartzza.
354. *Ardi chipia veti bildos* «Oveja chiquita siempre cordera».
 Cf. EY 336 *Ardi txikia beti beldos* (B, G, L eta BN-eko alde-rekin). Orobak EY 406 *Bei txikarra beti bigantza* (B, Otx. esk.) eta Errezil eta Bartzango aldaerak. U-k ezagutzen zuen Garren aldaera eta baita euskarazko moderno, Azkuek bildu batzuk, ere. Halaz guztiz, zenbait erdarazko ematen dizkigu, tartean HN-rena delarik.
387. *Albia deunga dustien abia* «Albia, nido de todos los malos».
 Cf. EY 10. or. *Mungia / Plentzia / lapur gieztiab abia*. U-k bere iruzkinean beste zenbait herriri dagozkion aldaerak emateaz at, Albiari errefrau hau ezartzearren arrazoiak bilatzen ere saiatzen da Guiard historialariaren bitartez. Ikus 4. kap. § 2.4.

397. *Chacur andiac eusi andia* «El gran perro gran ladrido».

Cf. EY 625 *Txakur andiak zaunka andia* (B-lek.). U-k gaztelera soilik Correasen 11 A *gran perro, gran güeso eriden zuela aitortzen zuen.*

428. *Ciria da guextoa zur berereangoa* «Mala clauija es la del mismo madero».

Cf. EY 2334 *Etxegok nor beren egurrekoa baiño ziri txarragorik* (G-orio). HN fol. 301 *Mala clauija es la del mismo madero* eta 337v *No hay tal cuña como la del mismo palo* dakartz U-k etorkitzat, bigarrena euskaraz ere badela (Zalgize 121 *çur bereti ciria*) erantsiaz.

3.11. Irakurlea gogoratuko bide denez, lehen kapituluan (§ 4.3. eta ondorengoak) Urquijorenez oso bestelako ondorioak jalgitzen ziren ustezko iturria (Garibairen B) eta hartzailea (haren A) ordena honetan eta ez berak emandakoan erkatzetik. Oraingo honetan ere Hernán Núñezzen bilduman RS-ekoek dituzten ustezko kideen arabera erkatuaz ondorio aski interesarrieta irits gintzkeela deritzot:

HN	RS	HN	RS	HN	RS	HN	RS
40 (it.)	3	110	47	88	99	90	147
327	4	87	51	422	101	139	148
364	5	271	54	136	107	2	152
316	6	f.g.	57	282	110	f.g.	153
29	7	5	60	282	111	8	155
280	8	?—	61	165	112	438 (fr.)	158
275	9	283	63	278	113	328	159
163	11	276	65	55	116	80	174
74	16	412	66	59	117	89	176
150	17	342	69	1	119	f.g.	178
? 61	18	127	70	83	120	337	181
? 55	19	59	77	2	121	435	183
? 141	22	35	78	112	122	337	184
355	24	457	79	90	125	? 294	186
20	25	154	81	427	126	353	190
? 45	26	30	84	272	128	387	191
303	29	?—	86	359	130	388	192
357	31	290	87	11	131	125	193
435	33	10	89	134	134	127	194
? 387	36	302	93	282	135	279	195
15	37	277	94	77	136	274	196
90	40	413	95	457	137	115	199
? 450	41	113	98	303	138	19	207

REFRANES Y SENTENCIAS ETA HERNAN NUÑEZEN BILDUMA

HN	RS	HN	RS	HN	RS	HN	RS
? 338	209	137	266	115	355	? 412	448
282	210	457	267	283	356	425	449
1	211	343	271	? 464	358	? 157	451
54	213	361	272	437	366	? 36	454
341	215	282	274	127	367	? 165	458
341	216	52	276	133	368	60	461
341	217	59	277	? 408	371	? 398	462
342	218	157	278	153	372	? 21	466
342	219	60	288	91	373	279	467
339	220	60	289	279	376	? 295	471
339	221	456	291	23	378	301	473
344	222	115	292	68	381	? 6	478
353	223	155	296	63	382	? 64	480
368	224	278	297	137	384	87	485
339	225	279	298	402	385	283	486
303	226	125	299	? 308	390	? 317	487
304	227	130	304	112	392	115	488
334	228	150	308	90	393	348	491
334	229	128	313	3	394	459	495
334	231	? 275	317	282	395	159	499
339	232	430	318	? 320	398	447	500
135	234	157	319	115	399	335	501
141	236	305	320	154	407	337	502
281	237	360	321	? 282	414	337	503
293	238	305	322	? 113	415	399	504
21	239	136	323	293	420	273	508
417	242	400	324	458	425	? 292	509
413	243	413	325	153	426	52 (fr.)	511
358	246	413	326	301	427	445	513
358	247	411	327	301	428	? 269	514
403	249	459	335	309	430	25	521
64	253	15	341	302	431	282	527
348	256	1	342	? 301	432	292	529
345	257	423	343	116	436	293	530
405	258	355	350	418	437	? 156	531
441	261	400	351	? 417	439	356	537
? 39	262	115	352	? 284	441	121	538
144	265	427	353	? 358	445		

HIRUGARREN TAULA

4. Metodo berri bat RS eta HN-ren arteko erlazioen azterketarako

Goiko taulak gainetik ikusirik ere nabarmena denez, *RS*-eko biltzaile / itzultaileak ez du HN-eko ordena errespetatu berea ezartzerakoan. Hori, bercz, ez da esanguratsua euskal ordainak —ordena alfabetikoan emanik— oso bestela amaitu behar baitzuten. Darmstadt-ekoaren diren errefrauuen hurrenkerari so egiten badiogu, ordea, betengizarrerik ez dugu erideiten: egia da lehendabiziko orrialdeko errefrauak oro A-z hasten di-rela eta O-z 64., azken orrialde ezaguneko, ia guztiak;^{4b} bigarren orrialdean, bederatziren artean nagusi dira B-z hasten direnak nahiz eta A- bat eta beste E- bat izan, eta B- eta C- dira, hurrenez hurren, hirugarrenean. Alabaina, A- da nagusi berriz (D- hatekin) laugarrenean, B- bat eta C-ren gehiengoa 5.ean, eta —larriago dena— N- bi, bi M-, L- bi, bi V- eta F- bakarra ondoko 6.ean. Hortik aurrera, orrialde batzuetan letra honen edo horren ghiengoa izan arren, jauziak dira aitzin-gibel, bai orrialde berean, bai biren artean ere. Ni neu, bederen, ez naiz gai 64 orrialdeentzat balioko lukeen lege hertsii ez zabalik erideiteko.⁵

Gauzak honela, Garibairen A eta B bildumez argudiatu bidetik, ez zen erabateko arrazoirik HN-ko hurrenkerari jarrai ez zekion *RS*-eko ustezko itzultailea (edota azken moldatzailea), erabat ez izaki noizean behin bederen.

4.1. Har ditzagun orain HN eta *RS*-en arteko Urquijoren ustezko egokitasunak baina HN-ren ordenaren arabera; beltzez, ematen dirut bietan, ez bakarrik batean, hurbilean ematen diren bikote eta segida luzeagoak:

HN	RS	HN	RS	HN	RS	HN	RS
f.g.	57	1	342	10	89	? 21	466
f.g.	153	2	121	11	131	23	378
f.g.	178	2	152	15	37	25	521
?—	61	3	394	15	341	29	7
?—	86	5	60	19	207	30	84
1	119	? 6	478	20	25	35	78
1	211	8	155	21	239	? 36	454

^{4b} Salbuespina 532. *Saguar...* dugu; hemen ere alfabetizazioa ez da bigarren letrara iritsien 531. *Oasun...*, 533. *Oroc...*, 534. *Otorde...*, 535. *Oñac...*, 536. *Hordia ganie...*, 537 *Ogai...*, 538. *Oso...* eta 539. *Ogui...*-ren aurrean.

⁵ Cf. «En realidad, aquí [18. orrialdeaz ari da] y en otros lugares se saca la impresión de que los refranes iban parcialmente ordenados por orden alfabetico. Así en esta página, hay 6 que empiezan por *H*- seguidos de uno (152) que empieza por *Y*-, *Ydiçarrari*, lo mismo que el 154 (*Yçecoa*), con el 153 (*Hon huaric*) intercalado entre ambos, como si fuera la reparación de un olvido en que se acaba de caer. La cuenta terminaria y volvería a empezar, lo mismo que en los *Proverbes* de Oihenart, sólo que más a menudo y con tiradas más cortas, lo que significaría en último término un original peor preparado antes de su impresión» (Mitxelena 1978 /SHLV/: 416-417).

REFRANES Y SENTENCIAS ETA HERNAN NUÑEZEN BILDUMA

HN	RS	HN	RS	HN	RS	HN	RS
? 39	262	115	355	271	54	302	93
40	3	115	399	272	128	302	431
? 45	26	115	488	273	508	303	29
52	276	116	436	274	196	303	138
52	511	121	538	275	9	303	226
54	213	125	193	? 275	317	304	227
? 55	19	125	299	276	65	305	320
55	116	127	70	277	94	305	322
59	77	127	194	278	113	? 308	390
59	117	? 127	367	278	297	309	430
59	277	128	313	279	195	316	6
60	288	130	304	279	298	? 317	487
60	289	? 133	368	279	376	? 320	398
60	461	134	134	279	467	327	4
? 61	18	135	234	280	8	328	159
63	382	136	107	281	237	334	228
64	253	136	323	282	110	334	229
? 64	480	136	528	282	111	334	231
68	381	137	266	282	135	335	501
74	16	137	384	282	210	337	181
77	136	139	148	282	274	337	184
? 80	174	? 141	22	282	395	337	502
83	120	141	236	? 282	414	337	503
87	51	144	265	282	527	? 338	209
87	485	150	17	283	63	339	220
88	99	150	308	283	356	339	221
? 89	176	153	372	283	486	339	225
90	40	153	426	? 284	441	339	232
90	125	154	81	290	87	341	215
90	147	154	407	? 292	509	341	216
90	393	155	296	292	529	341	217
91	373	? 156	531	293	238	342	69
110	47	157	278	293	420	342	218
112	122	157	319	293	530	342	219
112	392	? 157	451	? 294	186	343	271
113	98	159	499	? 295	471	344	222
? 113	415	163	11	301	473	345	257
115	199	165	112	301	427	348	256
115	292	? 165	458	301	428	348	491
115	352	? 269	514	? 301	432	353	190

HN	RS	HN	RS	HN	RS	HN	RS
353	223	387	191	413	243	437	366
? 355	24	388	192	413	325	438	158
355	350	? 398	462	413	326	441	261
356	537	399	504	417	242	445	513
357	31	400	324	? 417	439	447	500
358	246	400	351	418	437	? 450	41
358	247	402	385	422	101	456	291
? 358	445	403	249	423	343	457	79
359	130	405	258	425	449	457	137
360	321	? 408	371	427	126	457	267
361	272	411	327	427	353	458	425
364	5	412	66	430	318	459	335
368	224	? 412	448	435	33	459	495
? 387	36	413	95	435	183	? 464	358

LAUGARREN TAULA

4.2. Bikote eta segida luzeagoez

Ikusi berri dugun taulan ez dira asko euskal ordainetan hurrenkera mantendu duten bikote edo hirukoteak: HN 282-282 / RS 110-111, HN 387-388 / RS 191-192, HN 125-127 / RS 193-194, HN 303-304 / RS 226-227, HN 358-358 / RS 246-247, HN 60-60 / RS 288-289, HN 278-279 / RS 297-298, HN 292-293 / RS 529-530 bikoteetan eta HN 334-334-334 / RS 228-229-231, HN 413-413-[411] / RS 325-326-327 agian, hirukoteetan.

Gogoan badugu HN-en orriak (ez orrialdeak eta gutxiago errefrau zenbakia) eta RS-eko errefrauak erkatzen ditugula, nabarmena da erraztasun haboro dela HN-en partetik eta soilik oso baldintza hertsietan onar genezakeela bikote zein hirukote hurrenkera hutsa RS-en HN-ekiko zorraren crabitako lekukotzat; ez behintzat HN 80-89 / RS 174-176, HN 52-59 / RS 276-277, HN 127-133 / RS 367-368, HN 303-357-435 / RS 29-31-33, HN 144-137 / RS 265-266, HN 348-345 / RS 256-257, HN 68-63 / RS 381-382, HN 279-273 / RS 195-196, HN 280-275 / RS 8-9, HN 417-413 / RS 242-243 bezalako kasuetan. Zalantzak ditut HN 55-59 / RS 116-117, HN 1-83-2 / RS 119-120-121 eta HN 337-435-337 / RS 182-183-184ren aurrean ere: azken bietan, «itzultzalea», ordenaz kanpokorrik tartekatu ondoren, begi aurrean zeukanera bihurtu ote zen? Hala egin bide zuen.

Goian eman bikote eta hirukoteetarik HN-en orri bercan direnek ematen didate segurantzak handiena, HN 60-60 / RS 288-289, HN 282-282 / RS 110-111, HN 358-358 / RS 246-247, HN 278-279 / RS 247-248, bikoteetan eta HN 334-334-334-[339] / RS 228-229-231-[232] hirukoteetan, nahiz eta jarraiko orrialdeetan direnak ere kontuan hartzekoak izan:

288. *Hosqui osoa nayz etena escuan baño oñean obea* «Capato roto o sano más vale en el pie que en la mano».
289. *Hule luzea ta cêçun chaburra* «Cabello largo y seso corto». «Lo encuentro al pie de la letra en HN (fol. 60): *Capato roto o sano, más vale en el pie que en La mano*» eta «El que parece haber servido de modelo al 289 es el castellano: *Cabello luen-go y corto el seso* (HN fol. 60v)» U-k dioskunez.
193. *Semea etena ta assea, alabea jancia ta gossea* «El hijo harto y rompido, la hija hambrienta y vestida».
194. *Vler ezac lenago ta yz egnic gueroengo* «Entiende primero, y habla postero». «Es literalmente el de HN (fol. 125v) *El hijo harto y rompido, la hija hambrienta y vestida*» eta «Lo trae al pie de la letra HN (fol. 127) *Entiende primero y habla posterio*» dio U-k.
297. *Galdus azquero ondasuna, da eçauna* «Después del bien perdido es conocido».
298. *Guenac sagua ascazen ta eullia oraçen* «La tela araña desata el rato, y a la mosca apaña». «Es casi idéntico al 433 de esta misma colección: *Ondasunac galdu azquero dyra eraun* «Después de perdidos los aueres son conocidos». *Le biè perdu mieux on cognoist, quon faisoit quant on lauoit* «El francés. El bien perdido mejor le conocen, que no hazian quando le tenían» (HN fol. 278v) eta «*La telaraña suelta al rato y la mosca apaña* (HN fol. 279)» dira U-ren iruzkinak.
110. *Andra escôdua basoâ ostatua* «La muger casada en el móte posada».
111. *Alaba vmaguinari ama estalgui* «A la hija paridera la madre couertora». U-k «Es el castellano: *La muger casada, en el monte aluergada* (HN fol. 282v) lehenaz eta «Es traducción del castellano: *La hija paridera, y la madre cobrera* (HN fol. 282v) bigarrenaz.
529. *Esanac gugan eguinoc Iaungoycoagan* «Los dichos en nosotros los hechos en Dios».
530. *Fyngo doana ez biarco echí* «Lo que has de hacer no dexas para mañana». Es el castellano: *Los dichos en nos, los hechos en Dios* (HN fol. 292) eta «*Lo que has de hacer, no digas cras, pon la mano y haz* (HN fol. 293)» erkatzen dizkie U-k; bigarrenak HN-ctik nahikoa urrutí dirudi.

226. *Ynsaurrac baño ossac andiago* «Mas grandes los sonidos que las nuezes».
227. *Yl eyquec ta yl aye, ta yre erallea yl daye* «Matar le has, y matar te han, y a tu matador matarán».
 «Es refrán vulgarísimo en castellano: *Más es el ruido que las nuezes* (HN fol. 303v) eta «*Matarás y matar te han, y matarán a quien te matare* (HN fol. 304)» U-ren arabera.
228. *Matrazu orrec hurne ez eban carcaj orretarean* «Esse birote no salió de essa aljaba».
229. *Leorrean artu ez doa arrancaria* «En lo seco no se toma la trucha».
231. *Digaran artean ez burteagati gasoric essan* «Hasta que sea pasado no digas mal del año».
 «Lo conocemos en castellano en la siguiente forma: *No salió essa saeta de essa aljava* (HN fol. 334v), «Parece basado en el castellano *No se toman truchas a bragas enxutas* (HN fol. 334v) eta «*No digays mal del año hasta q. sea pasado* (HN fol. 334v)» dira, hurrenez hurren, U-rentzat; bigarrenak du aldaerarik handiena.
246. *Oguiagaz hura oragaz heroen elicatura* «Pan con agua, mantenimiento de loco y mastín».
247. *Pucheac ogui vaga ypirdira dau videoa* «La coajada sin pan al culo tiene camino».
 «*Pan e aqua, vita de mata, aqua e pan vita de can* «El italiano. Pan y agua vida de loca, agua y pan, vida de can (HN fol. 358)» eta «*Papas sem paon, a o cu se vaon* «El portugués, Puchas sin pan, al culo se van» (HN fol. 358)» U-ren goian eman azterketaren arabera.
191. *Hurtealango murcoa* «Qual el año tal el jarro».
192. *Dienean ereztuna yfinc chircandea* «Quando te dieren la sortija, pondrás el dedo menique».
 «Existe exactamente el mismo en castellano: *Qual el año, tal el jarro* (HN fol. 387v) eta «Su forma castellana es *Quando te dieren el anillo para el dedillo* (HN fol. 388v)» dio U-k, hurrenez hurren. Bigarrenak aldaera garrantzitsuak dituela dirudi.
325. *Demanac bician verea besteri doque negarra veti* «Quien diere en vida lo suyo, a otro tendrá lloro siempre».
326. *Lançea eschan dauenac gauça gustiac bereac* «Quien tiene lança en mano todas las cosas suyas».
327. *Onerechiac vrrutireâ dacus* «El aficionado de lexos vec».
 «Quien da lo suyo antes de morir, aparéjese a bien suffrir (HN fol. 413)», «Quien tiene lança en puño, tiene lo ageno y lo suyo (HN fol. 413v)» eta «*Quié bien quiere, de lexos vee* (HN fol. 411v)» U-rentzat.

Segida luzeagoetan (eta, hortaz, seguruagoetan) bakarra da, harako HN 341-341-341-342-342-339-339 / RS 215-216-217-218-219-220-221:

215. *Badaguic eguiipidea ona doquec eriocea* «Si haces lo que eres obligado, tendrás buena muerte».
 «Es casi a la letra el de HN (fol. 341v): *No es mala la mufejre-te, haziendo lo que deue*» (U).
216. *Hulerzen eztan yza prestuez* «Abla que no se entiende no vale nada».
 Cf. (U) *No es buena habla la que todos no entienden* (HN fol. 341v).
217. *Otu ceguioc oean andreari, ez hurtan çaldiari* «No le ruegues è la cama a la mujer ni en el agua al cauallo».
 Cf. (U) *No ruegues a muger en cama, ni a cauallo en el agua* (HN fol. 341v).
218. *Pilotuen escuan ajeric ez* «No viento en mano del piloto».
 Cf. (U) *No es mano del piloto, q. deRe el viento su sopló* (HN fol. 342v).
219. *Olloac biraporean arraucea ta ez ollarrerean* «La gallina del papo el hueuo, y no del gallo».
 Cf. (U) *No pone la gallina del gallo sino del papo* «Parece ser esto así, porque ponen sin gallo» (HN fol. 342v).
220. *Iazquereac parrahua eguite ez du* «El vestido al hermitaño no le haze».
 U-k dioenez, oso famatua izateaz landa birritan agertzen da HN-en liburuan, batean españiar gisan eta bestea frantziarrean: *No haze el hábito al monge* (fol. 339v) eta *Labit ne fait pas le moyne* (fol. 282v.); lehena dugu hemen axolako.
221. *Ezta gachic aldiac ez daroeanic* «No ay daño que el tiempo no le lleua».
 U-k *No hay mal que el tiempo no atiue su tormento* (HN fol. 339v) dakar kidetzat.
222. *Hoea ataostean deunga* «La cama de tras la puerta mala».
 Nunca os acontezca la cama tras la puerta (IIN fol. 344v.) oraingoan U-k, besterik gabe. Euskarazkoarekiko duen aldaera jasan ezina ez litzatekeen arren, 339. orritik 344rako jauzia ere kontuan izanik, errefrau hau ez bide zen HN-etik jaso.

4.3. Metodoaren ezarketa eta emaitzen azterketa: RS-ek erabili HN-en berreraiketaz

Goazen orain lehen tratatu gabekoak iruzkintzera edota lanabes berri honen bitartez berrikustera:

4. *Abenduco lañoa euria edo egoa* «Niebla de diciembre lluuia o solano».
5. *Arri ebiloquiac oroldioric ez, erle vçatuac abaaoric ez* «No tiene moho la piedra mouediza ni haze panal la ueja espàadiza».
6. *Basoa ta yuaya amço, an ez daben esea gaso* «Monte y río vezino casa que esto no tiene peruersa».
 «Parécese este refrán a uno de HN (fol. 327v) pero que se refiere al mes de marzo. Es el siguiente: *Niebla de marzo, agua en la mano, o elada de mayo* eta «No puede negarse que este refrán, aunque no idéntico, equivale al castellano: *Monte y río, de me lo Dios por vezino* (HN fol. 316) dio U-k, hurrenez hurren 4. eta 6.az; 5.az, gorago ikusi bezala, euskarazko aldaerak dituela aitortu arren 1. zatian gaztelerazko *Piedra mouediza, nunca moho la cubija* (HN fol. 364)-ren itzulpen badio ere, ez dirudi hiruretarik bat ere bilduma haratik hartu zela frogatzen duenik, eta bai kontrakoa, batzuen eta besteen bildumotako kokaguneak.
18. *Çagoquez exilic ta ençun eztayçu guextoric* «Callando estreyos, y mal no oyreys».
19. *Cantari guextoac onion* «El mal cantor porfiar».
 «Dícese en castellano: *Cállate y callemos que sendas nos tenemos* (HN fol. 61)» eta «Es el refrán castellano: *Cantar mal y porfiar* (HN fol. 55 y Col. de Refr. del s. xv). Hoy se dice en Oroszco: *Kantari txarra beti kantetan dago*» diosku U-k. Bai euskal aldaerak, bai bataren 15. mendeko lekukotasunak eta baita bien kokaguneak ere zaitzen dute U-ren hipotesia.
24. *Ayta çarra ta behse etena ezta guerena* «Padre viejo y abarca rota no es deshonra».
31. *Ax adinhon ta axa hon* «Sé acomodado y serás bueno».
 «Encuentro en el refranero de HN (fol. 355v) un proverbio que sólo se diferencia del vasco en una palabra: *Padre viejo y manga rota, no es deshonrra*» eta «Me inclino a creer, no obstante, que el que ahora comento equivale a *Para próspera vida, arte, orden y medida* (HN fol. 357) si bien aquél promete al «acomodado» la virtud, y éste la prosperidad material» diosku U-k. Biok lotzeko gutxi gora beherako hurbilatsuna izan delarik, aitortu behar da 2.a HN-etik urrutiegia dela eta ez dugula benetako bikoterik, 24.aren iturri izan dadin HN-koaren aukerak ere murrizten direlarik. Bestalde, komuni da gogoratzea tartean diren 25-30.ek ez dutela lotura sendotzen, dela ez dutelako kiderik HN-n (27, 30), dela U-k proposatuak HN-n 355-357 orrialdeetarik urrutti direlako.
110. *Andra escôdua basoâ ostatua* «La muger casada en el inôte posada».

111. *Alaba vmaguinari ama estalgui* «A la hija paridera la madre couertora».
 «Es el castellano: *La muger casada, en el monte aluergada* (HN fol. 282v)» eta «Es traducción del castellano: *La hija paridera, y la madre cobrera* (HN fol. 282v)» U-rentzat; (g)-n genekusan lehena eta etorkizko orrialdeek sendotu egiten dute HN-k bientzat duen iturri izaera.
119. *Biçar ylari losa guichi* «A barba muerta poca vergüenza».
 120. *Batti ertunac vidarienic ez* «La mala nueua sin porte».
 121. *Ydi çarrari arran berri* «Cencerro nuevo a buey viejo».
 «Es literalmente el de HN (fol. 1v) *A barua muerta poca vergüenza*» eta «HN (fol. 2) lo trae en forma idéntica *A buey viejo, cencerro nuevo*» dio U-k 119 eta 121.az; 120.az «Parecido a éste es el nº 408: *Batti ertuna lelengo ençuna* (...) que bien pudiera ser una modificación del castellano: *De la mala nueva, la primera: Porque no cuenta tan por menudo el mal como las otras* (HN fol. 83v)».
 Bai euskara, RS-en berton, beste antzeko bat izanak, eta baita HN-en ustezko kideak Iruñean kokaguneak, 120.a ez dela bilduma hartatik hartu adierazten digu.
174. *Yndac mica bat orban baga, diada nesquea gajpaga* «Dame vna picaza sin mancha, darte he la moça sin mal».
 175. *Escu onerean emay ona* «De buena mano buena dádiva».
 176. *Escurean haora oquelea galdu doa* «De la mano a la boca la tajada se suele perder».
 «Calcado, con ligeras variantes, en el de HN (fol. 80v): *Dame pega sin mancha, dar te hermoça sin tacha*» lehenaz eta «Con la variante «tajada» por «sopa» es el de HN (fol. 89) *De la mano a la boca, se pierde la sopa*» hirugarrenaz U-k. Bien artean aski urrutí dira HN-eko orrialdeei dagokienez eta tarteko 175.aren azterketak hirurak segidau itzuli zirela esateko ez du eskurik ematen: «Expresa lo mismo que los castellanos *Dádiva de ruyn, a su dueño paresce* (HN fol. 80v), *De casa de ruyn, nunca bué aguinaldo* (HN fol. 86), etab.»; esanahia antzekoa izan arren —eta orrialdeak tarteko—, formalki aski diferentes dira euskarazkoa eta erdarazkoa. Beharbada, HN-koak euskarazkoa gogoratu edota moldatzan lagundu ziola esan ahalko genuke eta horrela beste bien arteko zubi gisa egingo luke.
181. *Eztay yztanda puzchoan eztana* «Rebentar no se hará quien no se hincha».
 182. *Ezcur berereango ciya* «Del mismo árbol la cuña».
 183. *Ynutriari arrayo* «Sigue a la hormiga».
 184. *Lasterrago escua aora ce ez burucora* «Más presto la mano a la boca que no a la toca».

«*No te hinchas, y no rebentarás* (HN fol. 337)» eta «*Castellano: No se quita tâ presto la toca, como va la mano a la boca* (HN fol. 337v)» aurkitzen ditu U-k 181 eta 184.arenatzako. 182.az «Parece corresponder a *Mala clanija es la del mismo madero* (HN fol. 301)» dio eta 183.az «Constituye la primera parte del de HN (fol. 435) *Sigue la hormiga, si quieres vivir sin fatiga*»; alabaina, bi hauek hurrenkera hausien dute, bai beren artean eta baita beste bickiko ere.

Ez ditu RS-en eratzaileak, bada, laurak jarraian, aurkitu ahalia, itzuli ez moldatu; bai, agian, 181 eta 184.a orrialde horretatik gehiago ere hartu baitu (ikus 4. taula).

223. *Ardi bat doeán lecuti oro* «Por el lugar do va una obeja todas».
224. *Ejaco ognia oneguia* «Pan de arado demasiado bueno».
225. *Herrereaga coypasa* «Sin assar pringar».
226. *Ynsantrac baño ossac andiago* «Mas grandes los sonidos que las nueces».
227. *Yl eyquec ta yl aye, ta yre erallea yl daye* «Matar le has, y matar te han, y a tu matador matarán».
228. *Matrazu orrec burte ez eban carcaj orretarean* «Esse birote no salió de essa aljaba».
229. *Leorrean artu ez doa arrancaria* «En lo seco no se toma la trucha».
230. *Egaz manequi ora nequiqueo choriani* «Si volar supiese trabaría el pájaro».
231. *Digaran artean ez burteagati gasoric essan* «Hasta que sea pasado no digas mal del año».
232. *Ezconçea ta aguincea çerurean jatorguz* «El casamiento y mando del cielo nos vienen».
 «*Ouejas buenas, por do va una, vâ todas* (HN 353)», «*Pan de arado nunca malo* (HN 368v)», «*No assamos y ya empringamos* (HN 339v), «Es refrán vulgarísimo en castellano: *Más es el ruido que las nueces* (HN fol. 303v)», «*Matarás, y matar te han, y matarán a quien te matare* (HN 304)», «Lo conocemos en castellano en la siguiente forma: *No salió essa saeta de essa aljava* (HN fol. 334v)», «Parece basado en el castellano: *No se toman truchas a bragas enxutas* (HN 334v)», «No he logrado encontrar, hasta ahora, uno parecido, en otras lenguas», «*No digays mal del año, hasta q. sea pasado* (HN 334v)» eta «*Noze e magistrado, dal ciel be destinado* (HN 339)» dira, hurrenez hurren, U-ren kideak. Goian 215-222 bitartekoak HN-ren 339-344 folioetarik hartuak zirela kausitik, badirudi 225 eta 232.a ere haien bezala toki beretik hartu zirela. Lehen ikusi dugu 334. folioan aurkitu zituela RS 228-229 eta 231.a eta 303-304. etan RS 226 eta 227.a. Beste hizkuntzatan Urquijok kiderik aurkitu ez dion 230.a eta

etorkiko ustezko kokagune desegokia izateaz landa, aldaera esanguratsuak dituzten 223 eta 224.a lirateke HN iturritzat ez duten bakarrak.

242. *Onerechien beguietan gauza ezayric eztan* «En los ojos del amante no ay cosa fea».
243. *Naztauenac ogenic yñez begui guextoaganic* «Quién no quiere engaño, haga huyda del peruerso».
244. *Onço/e/riçat neuca, bayo oparinac eroa eusta* «Teníalo para no menester, más lleuómelo la necesidad».
245. *Guionoc oro buru balz, andra duztioc buru çuri* «Todos los hombres cabezas negras, todas las mujeres cabezas blancas».
246. *Oguiagaz hura oragaz heroen elicatura* «Pan con agua, mantenimiento de loco y mastín».
247. *Pucheac ogui vaga ypirdira dau videoa* «La coajada sin pan al culo tiene camino».
248. *Daucagunean naya gurari vaga oy gara* «Quando tenemos lo que queremos, sin deseos solemos ser».
249. *Asto dina zordun* «El que se haze fiador deudor».
 «El 242 corresponde a: *Quien feo ama, hermoso le paresce* (HN 417)», «*Quien no quiere ser engañado, huya del malo* (HN 413)», «El modelo del proverbio vasco es, según creo, el castellano: *Para no menester*» (baina HN-korik gabe), «No conozco refrán castellano que haya podido servir de modelo» dira lehen lauren iruzkinak. Gauzak honela, ez dirudi bata bestcaren segidan itzuli direnik inola ere, eta hurbilena aipatzearen 243.ari egokitura egingo nuke (4. taulan orrialde bereko RS-eko errefrau gehiago eriden liteke). 246-247.ak bikoteetan goian aipatu ditut dagoeneko; «No conozco la forma castellana de este refrán» eta «*Qui respond, il doit* «El francés. El que fia, aquél deuc (HN 403v)» dio U-k 248 eta 249.az; azken honetan goian eman arrazoieei orrialdearen ge-hitu ahal zaio orain HN-etik hartu dela ukatzeko.
256. *Edoceyn bereçat ta Iaungoycoa oroençat* «Cada qual para sí, y Dios para todos».
257. *Ezca çe aquio daucanari ta vay onderextanari* «No pidas al que tiene, y sí al que bien te quiere».
258. *Laster emaytē dauenac birretan emayten du* «Quien presta, dos veces lo que tiene da».
- 256.a HIN 348ko italierazko batetik emandakotzat azaldu zaigu gorago eta frantseszkotzat 258.a (HN 405v-etik); 257.az. «Casi al pie de la letra lo encuentro en HIN (fol. 345) *Nunca pidas a quien tiene, sino a quien sabes que te quiere*» dio U-k. Ez ustezko jatorrizko orrialdeek, ez aldaerek, ez hizkuntzek laguntzen dute U-ren HN-en aldeko erabakia.

288. *Hosqui osoa nayz etena eschan baño oñean obea* «Capato roto o sano más vale en el pie que en la mano».
289. *Hule luzea ta cêçun chaburra* «Cabello largo y seso corto». «Lo encuentro al pie de la letra en HN (fol. 60): *Capato roto, o sano, más vale en el pie que en la mano*» eta «El que parece haber servido de modelo al 289 es el castellano: *Cabello luen-go y corto el seso* (HN fol. 60v.)» dio U-k eta hala dirudi bietan. Aurrekoetan, aldiz, edo ez du erdal kiderik ezagutzen, edo HN-etik kanpora dira horrelakoak, edota HN-en antzekorik izan arren ez da han jatorria bilatzeko adinakorik.
320. *Obe da gorde ce es esque* «Más vale guardar que no pedir».
321. *Hurte jaybala baño belua obago* «Mejor es el año tardío que el infructuoso».
322. *Obe da aurpegui gorri ce ez bioza balzqui* «Mejor es cara colorada que no coraçon denegrido».
323. *Hosaylean aldiz eguzquitan, aldiz sutanzean* «En febrero a tiempos al sol, a tiempos al amor del fuego».
324. *Amucorco buztana dauenac suen bildur* «Quien tiene cola de estopa al fuego teme». «Más vale guardar que demandar (HN fol. 305v), «Más vale año tardío que vacío (HN fol. 360)», «Más vale rostro bermejo que coraçon negro (HN 305v)», «En febrero, un rato al sol, y otro al humero (HN fol. 136)» U-k lehendabiziko lauzet. Bostgarrena HN 400-tik hartu katalantzar dakar, ikusi dugunez, eta 411 413. orrialdeetarik hartutzat ondorengo RS 325-326-327a.k; orain, lehen eman arrazoiez gainera, 324ren kokagune desegokia atera genezake U-ren aurka. Badirudi 320 eta 322.a HN-etik hartuak izan daitezkeela, baina ez 321 eta 323.ak.
352. *Gax chipiac nau ycaraçen, ta andiac nau bigunçen* «El mal pequeño me haze temblar, y el grande me haze ablandar».
353. *Gaz esuroa galduro batu doa* «La sal vertida malamente se recoge».
354. *Ardi chipia veti bildos* «Oveja chiquita siempre cordera».
355. *Aoti bero ezac labea ta çarra* «Por la boca calienta el horno y el viejo». «El pequeño mal espanta, el grande amansa (HN fol. 115)», «Sal vertida, nunca bien cogida (HN fol. 427v)», «Encuéntrase también este refrán, que es muy conocido, en la colección Maestre [Gar.ren bilduma bata]» eta «Es variante de este el 488: *Zarra ta labea aoti berotu*. Compárense ambos con el de Y. L. de Mendoza: *El viejo y el horno, por la boca se calientan* (se escalientan, según HN fol. 115) diosku U-k.

Datuon aurrean 352 eta 355 HN-tik hartutakotzat —bigarrena beharbada, soilik hark gogoratua eta hortik aldaera bilduman bertan— joko nituzke; ez, ordea, 353.a.

367. *Edoceyn cidorrec dan luparia* «Cada qual sendero tiene atolladero».
368. *Hosaylean hureyten daroa [a]rçac leçereâ* «En hebrero salir suele el osso de la cueva». «*En cada sendero, ay su atolladero* (HN fol. 127v) eta «*En hebrero, sale el osso del ossero* (HN fol. 133v)» U-rentzat; ez dira, haatik, segurtasun osoz bilduma horretatik hartuak, eta ez soilik euskarazkoek dituzten aldaerengatik, baina baita bien artean HN-en diren orrialdeengatik, eta halaber aurreko eta osteko errefrauak bilduma horretatik ez bide direlako jaso (ikus goian § 3.2. 366.az). Bat hautatzekotan 367.ak du aukera gehien 127. orrialdetik bestelakorik ere jaso duelako RS-ek (ikus 4. taula).
381. *Eun sauel bateco ta bacocha bere gogoco* «Ciento de vñ vientre y cada vno de su mente».
382. *Ezcó ezac semea nay doaneá ta alabea al daguianean* «Casa al hijo quando quieres, y la hija quando puedes». «Resulta traducción literal del castellano: *Ciento de un viétre y cada uno de su mente* (HN fol. 68v) eta «el que aparece más literalmente calcado sobre el de HN (fol. 63): *Casa el hijo quando quieres, y la hija quando pudieres*» (U). Iturrian jauzia suposatu behar bada ere ez dirudi ezinezko.
427. *Gextoagoac obea nay* «El peor me hará mejor».
428. *Ciria da guextoa zur berereangoa* «Mala clauija es la del mismo madero».
429. *Ydiac eta veyac yl ezauz ta loben baten biriac yndauz* «Mata bueyes y vacas y dadme vñ cornado de liuanos».
430. *Ondo dot hoera asalçaga jaguiterten zorbaga* «Bien me será a la cama sin cenar por levantarme sin deuda».
431. *Yre auçoac eztequiā gacha ona da* «Daño que no te sabe tu vecino bueno es».
432. *Oba chori bat escuan çe ez bost ezcurrear* «Mejor un páxaro en la mano que no cinco en el arbol». «*Malo verná que bueno me hará* (HN fol. 301)», «*Mala clauija es la del mismo madero* (HN fol. 301)», «*Matad vacas y carneros, da me un cornado de boses* (HN fol. 303)» eta «*Más vale acostarse sin cena que levantarse con deuda* (HN fol. 309)», «*Mal que tu vecino no sabe bien se llame* (HN fol. 302)» eta «*Más vale páxaro en mano que buytre bolando* (HN fol. 301)» dira, hurrenez hurren, U-rentzat.
- 428.a lehen EY-n aurkitu dugu baina honako honetan badi-rudi hurrenkeraren pisua larriago dela jatorria erabakitzera-

koan; nolanahi ere den, euskaraz lehenagotik bazen HN-en ikustea oroitzapena sor ziezaiokeen biltzaileari. 430.ak aurkezten du zaitasunik handiena HN-eko hurrenkerari dago-kionez.

437. *Luquiari trancart eguiteco gojtu bearco* «Para hacer engaño al raposo madrugar es menester».
438. *Lar janac eta edanac guichitara nencarre* «Demasiado comer y beber me ha traydo a poco».
439. *Arr ezac leyen ganeco lañoa ta doquec goxera gassoa* «Toma la niebla de sobre el yelo, y tendrás mala mañana». «Quien la raposa ha de engañar, cumple le madrugar (HN fol. 418) eta «Quien quisiere mala mañana tome la niebla sobre la elada (HN fol. 417v)» dakartzia, egoki, U-k lehendabiziko eta hirugarrenarentzat; bigarrenari legozkioken 161.aren iruzkinean bildutakoen artean *El mucho comer, trae poco comer* (HN fol. 124) da hurbilena dirudien, baina koguneak eta aldaerak ez dute bere hautagaitza laguntzen.
471. *Oshso gosea ebiloqui* «Lobo hambriento andador».
472. *Hurac dacarrena hurac daroa* «El agua lo que trae el agua lo lleva».
473. *Neure eshseco quea laguneneco sua baño obe da* «Humo de mi casa mejor quel fuego de la del ageno». «Oihenart (nº 393) trae: *Otso gossea ekurugaitz* «Un loup affamé est inquiet» y ambas variantes pueden ser adaptaciones del castellano: *Lobo hambriento, no tiene asiento* (HN fol. 295) o del francés *Loup affamé nulle part applacé* (...) siendo lo más probable que el de 1596 sea traducción del castellano y el de Oihenart del francés» da U-k egin lehenaren iruzkina. Bigarrenaren aldaeratzat du Gar-ren bi bildumetako *Gure mandoa, urak engarren eta urak aroa*; hirugrenaz, azkenik, «Corresponde al castellano: *Más vale humo de mi casa que fuego de la agena* (HN fol. 301)».
- Azken hau egiantzkoak da gogoan badugu RS 427-432 bitartekoak HN-en orrialde horretatik edota ingurukoetarik harria zirela; 471.a, aldiz, ez bide da HN 295-etik hartua, bai aldaera eta baita 4. taulak aurreko eta ondoko orrialdeekin RS-ek egin erabilera erakusten digunagatik.
501. *Ce egunic gachic ta ce euc bildurric* «No hagas daño, y no tengas miedo».
502. *Ez veti gazta ta ogui* «No siempre queso y pan».
503. *Ezta zarra dauena caldarra* «No es viejo el que tiene liueso».
«*No hazella y no temella. No la hagas y no la temerás* (HN fol. 335v), «En el refrán correspondiente que trae HN (fol.

337) se habla de «nueces» y no de «queso»: *No todas veces, pan y nuezes* eta «Aunque en diferente dialecto, es el 596 de Oihenart: *Esta saharra duena saldarra* (...) y ambos son idénticos al de HIN (fol. 337) *No es viejo quié tiene diuesso*» (U). Azken biak HN-eko orrialde horretatik hartu bide dira (RS 181 eta 184 bezala, eta hurrengotatik beste mordo bat legez, cf. 4. taula); 501.a formalki HN 335-ekotik aski urrutit izateaz landa, ohar bedi 4. taulan usu erabilitako 334. orrialdetik 337.era halako jauzi txiki bat eman dela, 335 eta 336. orrialdeetan honako zalantzako hau litzatekeelarik, onartzera, zubi bakar; hobe da, beraz, iturri asketzat eman.

527. *Andrauren en essea garazazal* «La casa de la señora de buñ recado acolmada».
 528. *Ygazco abietan aurten choriric ez* «En nidos de antaño no pájaros ogaño».
 529. *Esanac gugan eguinoc Iaungoycoagan* «Los dichos en nosotros los hechos en Dios».
 530. *Eyngo doana ez biarco echi* «Lo que has de hacer no dexes para mañana».

Lchenari «La muger de buen recaudo, hinche la casa hasta el tejado (HN fol. 282)» egokitzan dio U-k, baina hobe dirudi hori RS 210.arentzat uztea; bigarrenarentzat «*En los nidos de antaño, no ay pájaros ogaño* (HN fol. 136v)» dakarkigu baina desegokia dirudi HIN-en hurrenkerari bagagozkio; «*Los dichos en nos, los hechos en Dios* (HN fol. 292)» eta «*Lo que has de hacer no digas cras, pon la mano y haz* (HN fol. 293)» azken bientzat, aldiz, ongi datozen alde horretatik, baina ez formaren aldetik laugarenarentzat.

Bostgarren taulan orain arteko emaitzak bildu ditut, beltzez emanik RS-ek HN-n segurtasunez ukitu orriak.

RS-EK EGINDAKO HIN-EN ERABII ERA

- 1-50: 1, 1(2), 2, 2, 3, 5, ?6, 8, 10, 11, 15(2), 19, 20, 21, ?21, 23, 25, 29, 30, 35, ?36, ?39, 40, ?45
 51-100: 52(2), 54, ?55, 55, 59, 59(2), 60(2), 60, ?61, 63, 64, ?64, 68, 74, 77, 80, 83, 87(2), 88, 89, 90(4), 91,
 101-150: 110, 112(2), 113, ?113, 115(2), 115(4), 116, 121, 125, 125, 127(2), 127, 128, 130, 133, 134, 135, 136(2), 137(2), 139, 141(2), 144, 150(2)
 151-200: 151, 153(2), 154(2), ?156, 157(2), ?157, 159, 163, 165, ?165
 201-250: 238,

251-300: ?269, 271, 272, 273, 274, ?275, 275, 276, 277, 278, 278,
 279, 279(3), 280, 281, 282(2), 282(5), ?282, 283(3), ?284, 290,
 292, ?292, 293, 293(4), ?294,
 301-350: ?301, 301(3), 302, 302(2), 303, 303(2), 304, 305(2), ?308,
 309, 316, ?317, ?320, 327, 334(3), 337(4), ?338, 339(4), 341(3),
 342(2), 342, 343, 344, 345, 348, 348
 351-400: 353, 353, 355, 355, 356, 357, 358(2), ?358, 359, 360, 361,
 364, 368, ?387, 387, 388, ?398, 399, 400(2)
 401-450: 402, 403, 405, ?408, 411, ?412, 412, 413(3), 413, 417,
 ?417, 418, 422, 423, 425, 427(2), 430, 435(2), 437, 438, 441,
 445, 447, ?450
 451-500: 456, 457(3), 458, 459, ?464
 fol.gabe (3)
 ?__ (2)

BOSTGARREN TAUZA

5. Ondorio orokorrak: RS-en HN-ekiko zorraz

Orain arteko HN eta RS-eko errefraueng elazioen iruzkina laburtze-ko, ezar dezagun orain segidako taulan bigarrenaren ordenaren arabera. Hasiera batean hurbilean diren bikote eta segida luzeagoak hartu ditut kontuan, horiek baitira bi bildumen artean den elazioa frogatzeko ia gai diren bakarrak; alabaina, eta alderdi hori segurtatu ondoren, onartu ditut multzo horien gunetik urrutixea gelditzen ziren orri bereko (HN-en) edota segidako (RS-en) errefrau banaka batzu ere. RS-eko hurrenkeran eta kausitu ditugun bikote eta multzoak banaturik ezartzean, ikusi ahalko da iturriaren hurrenkeraz izan diren jauziak (ez beti euskararen ordena alfabetikoa mantentzeko, dakigugunez).

RS	HN	RS	HN	RS	HN	RS	HN
110	282	181	337	215	341	226	303
111	282	184	337	216	341	227	304
				217	341	228	334
116	55	191	387	218	342	229	334
117	59	192	388	219	342	231	334
				220	339		
119	1	193	125	221	339	246	358
121	2	194	127	222	344	247	358
				225	339		
174	? 80			232	339	256	348
176	? 89					257	345
						249	403
						258	405

REFRANES Y SENTENCIAS ETA HERNAN NUÑEZEN BILDUMA

RS	HN	RS	HN	RS	HN	RS	HN
277	59	325	413	381	68	471	? 295
288	60	326	413	382	63	473	301
289	60	327	411		427	301	501
					428	301	502
297	278	352	115	431	302	503	337
298	279	355	115	432	? 301		
320	305	367	? 127			529	292
322	305	368	? 133	437	418	530	293
				439	? 417		

SEIGARREN TAUZA

Guztira 64 errefrau⁶ kontatu ditut segurantz edo egiantz handiarekin RS-en HN bildumaren erabileraren bitarteaz azaldu beharko liratekeen artean; litekeena da RS-en prestatzaileak edo prestatzaileek kopuru hori baino gehiagotan mailebatzea bere mendean Espanian izan zen bildumariak aberats eta garrantzitsuenetik. Arcago dena, HN eta antzeko gaztelerazko bilduma garaikiderik izan ez balitz agian ez bide genukeen RS-ik ere izango. Alabaina, egun ezagutzen ditugun %10,2rekin edo baino ezin frogatu ezin dut, Urquijoren erizpideak baino hertsagoak erabiliaz, bi bildumen arteko lotura. Litekeena (eta beharrezkoa ere) azterketa berriek etorkizunean nirea zehaztea eta aldatzea RS-eko jatorri eta bildumaren ekoizpena bera uler dezagun; baina Urquijoren «los [refranes] de la colección de 1596 están tomados en grandísima parte de los refraneros castellanos» hartara bihurtuko ote?

⁶ Orrialdeko bat, pentsa daiteke Darmstadt-eko alearen 64 ezagunak (ikus hurrengo kapituluan) gogoan izanik; taula honetatik bertatik atera gabe, erraz ikus daiteke distribuzioa ez dela horren etregularra, ez RS-i ez HN-i dagokionez: zipagarri iruditzen zait gure bildumako lehen 100 errefrauen artean batere ez kausitzea taulan, ezta (cf. 5. taula) HN-eko 165etik 265.erako bitartean ere gure bildumakoien iturri izan daitekeenik. Urquijoren arabera, ate markagarrirago dirudienea, bikoteen erizpidea onartuaz 133. orrialdetik 278.erako jauzia dugu, horuk aurrera 150 orrialdetan biltzen direlarik RS-ekoien iturritzako gcheinak.

REFRANES Y SENTENCIAS-EN TAMAINA ZEHAZTU AZ

0. Laburpena

Kapitulu honetako¹ azterketan testukritika ez-stemmatikoaren alderdi batzu ukitzen dira, bereziki iturri bilaketa eta berreraiketa formalari legozkieen zenbait (cf. Lakarra 1988a, 1991a). Hizkuntzalaritzako ohizko usadiocn eredura, oraingo honetan iturriaren erabilera iturria neurri batean berreraikitzen lagun gaitzakeela erakutsi nahi nuke segidan adibide batez. Iturriaren eraginaren azterketa bana banakoaren aurrean testu edo hiztegi emailearen egituratik abiatuaz haren isla testu (hiztegi) hartzalean ikertzen da, ondoren horretatik iturriaren egitura eta —inoiz— tamaina erdiesteko asmoz. Azterbide hau *RS* eta *Hiztegi Hirukoitz*-aren *Eraskin*-aren arteko erlazioei ezartzen zaie. Orain arte *RS* *E*-ren zenbait puntu, sarrera zenbaiten etorkia funtsean, azaltzeko baliatu badugu (cf. Mitxelena 1961, 1964, 1967 eta, bereziki 1970), nago *E* baliatuaz ez soilik Larramendik egin haren erabilera, baizik eta *RS*-i berari buruz ere zerbaite jakin dezakegun.

Hara, segidan, kapituluaren egitura: § 1. *RS* osatuaz; Vinson; § 2. Urquijo Oihenartek ezagutu *RS*-ez; § 3. Mitxelena Oihenarten *RS*-ez; § 4. Mitxelena *RS*-en tamainaz; § 5. Larramendiren «kuaderno zaharra»; § 6. Mitxelenaren *Hiztegi Hirukoitz*-aren Eranskinaren azterketa: Darmstadt-eko alekoak, § 7. *E*-ko *RS* galduetikoak; § 8. Azterketa berri baterantz; § 9. *E*-ren iturrien berrazterketaren eragina; § 10. Saioak *RS* osoaren tamainaz: Darmstadt-ekoaren hurrenkeraz; § 11. *E*-ko *RS*-en erabilera orokorraz: taulak; § 12. Lehen eta 4. kuadernotxoak ezagutzen ote?; § 13. Azterketa 1.ko eta 4. kuadernotxotik hartu omen zirenen benetako jatorriez;

¹ Kapitulu honen aurreko bertsio bat Uztaro-n agertu zen (16, 1996, 21-55), «Iturrien erabilera eta tamainak egitura(z) zehatzuaz: *Refranes y Sentencias* eta *Hiztegi Hirukoitz*. (xvi. mendeko bizkaierazko errefrauez III)» titulu luze bezain adierazgarriarekin; ordutik hona batez ere liburu barnean gerta zitezkeen errripikapenak ekiditearen aldeko zenbait aldaketa txiki egin izan dut.

§ 14. Darinstadt-eko alcan ez diren zatiez eta behin-behineko ondorioak
 RS osoaren tamainaz; § 15. Excursusa: *RS HH*-aren gorputzean?; § 16.
 Ondorioak; § 17. Eraskina. *RS E-n*: hitz zerrenda.

1. RS osatuaz: Vinsonek

1596an argitara zen Iruñean Amberesko Pedro Porraliscen etxearen honako izena zeraman bilduma: *Refranes y Sentencias comunes en Bascuence, declaradas en Romance con números sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas*. Vinsonek bere Bibliografiaren Eranskinetako dagoion sarreran (1891-97: 6-7) dioenez

Voici la description exacte de ce précieux volume, où il n'y a ni cote, ni numéro, ni ex-libris, ni signature d'aucun ancien propriétaire. Je n'ai pu savoir comment il est arrivé à Darmstadt (...) Il n'y a ni introduction, ni préface, ni avis; on n'y trouve ni approbation, ni licence, ni permission, ni taxe; on n'y voit même aucun fleuron. Il faut noter aussi qu'il n'y a pas de titre, et l'aspect de la dernière page ferait croire que le livre n'est pas fini et qu'il se compose des bonnes feuilles d'une publication interrompue en cours d'impression.¹

Ezagutzen zen ale bakarra Hesse-ko Artxitxu Handien bibliotekan (Darmstadt-en) gordea genuen azken Mundu-gerlan hondatu edo galdu artean; han aurkitu zuen 1894ean Van Eys-ek eta argitara eman bi urte beranduago, liburuaren 300ak egiten zirenean. Alea suntsitu baino lehen Urquijok ere izan zuen parada haren argazkiak lortzeko eta haien baliatutik eman zuen bere iruzkindun argitalpena 1911-33 urteetan RIEV-en. Ale honek 539 errefrau ditu 64 orrialdetan.²

Gorago eman dugun Vinsonen aipamenak erakutsi legez, ezer gutxi diosku liburuskak bere buruaz eta bai, aldiz, zalantza eta galdera asko sortzen: nor zen bere egilea?, zein bere tamaina?, ze eratako zabalkundea izan ote zuen eta inork ezagutu ote?, nondikakoak ote dira errefrauok? etab. Bi ikertzaile —Julio Urquijo eta Koldo Mitxelena— saiatu dira arazo hauek edo horiei lotuak argitzten (cf. 1., 2. eta 4. kapituluak), eta beraien izango ditut solaskide *RS*-en tamainaz aritzeko ere.

¹ Beherago «Il est remarquable que Oihenart n'a pas connu ce livre; il paraît ne lui avoir fait aucun emprunt».

² Vinsonek markatu bezala, 254.a eta 280.a, 256.a eta 291.a, 277.a eta 357.a beren artean errepikaturik dira eta aldaeratzat jo daitezke 14.a eta 518.a, 51.a eta 485.a, 52.a eta 386.a, 106.a eta 139.a, 210.a eta 317.a, 213.a eta 438.a, 239.a eta 466.a, 314.a eta 329.a, 423.a eta 456.a; harentzat «Il n'y a donc en réalité que 527 proverbes différents» (*ibid.*).

2. Urquijo Oihenartek ezagutu RS-ez

1967az geroztik badakigu, Urquijok argitaragabe utzi zuen lan baten bitartez («De paremiología vasca. ¿Conoció Oihenart los *Refranes y Sentencias* de 1596?», *ASJU* 1, 3-10), Oihenartek RS ezagutu zuela: Urquijo konturatu bezala, Zalgizeren errefrau batzuen ondoren Oihenartek eskuizkribuan idatzi zituen 200etarik 39 «Biscaye» izenburuean dator, «Navarre»-ko bakarraren eta «Soule»-ko ugariagoen artean. Bada, horietarik lehena Pozarengandik hartutako sasi-errefraua dugu («298. *Garagorri; est adagium hominum factiosorum.* Poça, pag. 61»)³ eta 18 (299-306 eta 327-336ak) jada Darmstadt-eko alearen bitartez czagutzen ziren benteako errefrauak:

299. *Perrau neñen gogoa axeac bestera naroa.* [= 419];
300. *Ongo dot hoera afal çaga, jaguiterten çor baga.* [= 430];
301. *Exean dagoan gaxa erraz da ezauten.* [= 434];
302. *Obe chon bat escuan ce es bost ezcurrean.* [= 432];
303. *Apizetan eztina edarayten da.* [= 509];
304. *Beluco ezconcea deunga, goxeticoa ez oba, aldia gauzac daude aroari jarray gaquioza.* [= 440];
305. *Cozpalac dirudi bere egutra ta egurrac bere escurra.* [= 483];
306. *Edoceyn bere ydeaz.* [= 489];
327. *Vgarajoen trisquea leorrerean ezera.* [= 436];
328. *Oassun ecen [sic]. baño obea çarzaroco alabea.* [= 457];
329. *Ychadonic xoria ezcondu ney.* (alcançaria) [= 457];
330. *Catuac daroean oquelea gueyago da berea ce ez eurea.* (tajada) [= 468];
331. *Errana ezta goçoa bada bere eztizcoa.* (sabrosa) [= 460];
332. *Eguin ta aguindu ta ez ayte galdu.* [= 462];
333. *Chiroac arlotea ygni.* [= 493];
334. *Cequenaen vicia caltea osasuna aren heriocea.* [= 484];
335. *Saguac jango dauena catuac jan deçala.* [= 532];
336. *Çor çaurra goiz gaxtoen beguira.* [= 475];

3. Mitxelena Oihenarten RS-ez

Koldo Mitxelenak pausu bat gehiago eman zuen eta, Urquijoren lanari jarri zion eraskinean (Mitxelena 1967), erakutsi zuen hark aipatzan ez zituen 307-326ek ere bilduma berekoak behar zutela izan, hizkuntzak eta grafiak adierazi legez:

³ Ikus *TAV*, § 3.3.2. eta Gorrotxategi 1987 haren hizkuntz lekukotasunez.

Entre los refranes vizcaínos copiados en este cuaderno, uno [...] procede de Poza, y otros dieciocho [...] están tomados, sin lugar a dudas, de los *Refranes y Sentencias vizcaínas* de 1596. Esto lo vio Urquijo [...] pero lo que no vio, o lo que no se aventuró a decir, es que, intercalados entre ellos hay otros veinte, los números 307-326, desconocidos hasta ahora, que provienen de la misma fuente.

Hauok alegia:

307. *Ynardun badaguic ez doquer [sic] besterenic.* «Si continuas en el trabajo, no tienes necesidad de otro»;
308. *Ojal ona buchan saldu doa;*
309. *Vrrineric ospea erricoa obea;*
310. *Saldabaga altamia ozaf. Itan ez dilist[.ia];*
311. *Huhuñenerean hoxtuac bulea;*
312. *Otu doneari ygarartean nequea;*
313. *Guicon onac azcurriac bere;*
314. *Ecandu gasstoari bernea ausi;*
315. *Barria edereguic;*
316. *Maya ta vide lucea gastigaturic (enseñanza);*
317. *Jaunen botua oy da aguindua;*
318. *Emazte dollorten jaubea jopu;*
319. *Maiaz ozac dacaz pozac;*
320. *Garrastu adi icasterren ta neca adi euterren.* «Sufre por aprender y trabaja por tener»;
321. *Bere burhua czautea da jaquitea;*
322. *Gastelauna negua senar onean arr ta beguijan negar;*
323. *Esquerrac yndauz ce onderexta ene gauçary;*
324. *Ene laba aldian labe[a] jausico zan;*
325. *Ilbeeran ereyn ceguic arean;*
326. *Onerextea dodan lecuan jarri daquidala egusquia.*

Arrazoiak pisuzkoak dira, noski:

Esto es fácil de probar, o por mejor decir es evidente, por lo que me limitaré a apuntar las razones en que fundamento mi opinión. El lenguaje de esos veinte refranes es el mismo vizcaíno arcaico de los demás; iban, por otra parte, acompañados del mismo estilo de versión castellana, aunque Oihenart no consignó ésta más que ocasionalmente. Ciertas particularidades gráficas, finalmente, coinciden del todo con las que ya nos eran familiares por la parte publicada de RS: cf. *burhua* (321), *ojal* (308), pero *maiaz* (319) (Mitxelena 1967: 13).

4. Mitxelena RS-en tamainaz

Darmstadt-eko aleak dituen 64 orrialdeetarik (4 kuadernotxo) 16tan (kuadernotxo bakarra) —49 eta 64. orrialdeen bitarteko laugarren kua-

dernotxokoetan, hain zuen— kokatzen dira Oihenartek kopiatutako errefrau ezagunak. Ez dirudi 49. orrialde horren (4. kuadernotxoaren hasiera) aurrekorik ezagutuko zuenik bitxi asko baitzen bat ere ez kopiatze-ko. Darmstadteko alean gordetzen ez ziren beste 20ak horien ondoren bide zihoazen, 65. orrialdea litzatekeenetik aurrera, hots bostgarren kuadernotxoan eta ondorengoa. Kalkuluak arriskutsuak direla aitortu arren, Mitxelenaren ustez (1979 [SHLV]: 416-418) honelako proportzioa genuke:

$$\frac{18 \text{ errefrau ezagun}}{16 \text{ orrialde}} = \frac{20 \text{ ezezagun}}{x}$$

Berari «Iruñean egindakoaren erdi osoa falta dakigu keela» ateratzen bazaio ere, etregela honek balio badigu orain arte ezagutzen genuenaren ia herena emango liguke, ene usteko, 17,7 orrialde, zehatzago (=150 bat errefrau gordetako orrialdeen 8,42nako batez-bestekoaren arabera). Liburua 16 orrialdetako kuadernotxotan antolaturik izaki, erans dezakegu Oihenartek horietako bat (136 bat errefrau) edo, bcharbada, bi (272 bat) ezagutuko zituela. Ez dakigu Larramendiren aleak zituen zati guretzat cuezagunak horien artekoak ziren ala ez. Beherago, (§ 14) saiatuko gara honetaz zerbait esaten.

Mitxelenaren aurkikuntzaren ondoren RS-eko 560 errefrau ezagutzzen ditugu; lehen baino 21 gehiago, alegia. Baino zenbat ote ziren guztira? Zenbat ezagutzen ote Larramendik? Eta erabili zenbat? Ba ote hau jakiteko modurik? Galdera asko eta erantzuteko bideak sasiz josiak, jakina; zer edo zer jakin daiteke, ordea, Mitxelenak egiten duen Larramendiren *Hiztegi Hirukoitz-eko Eraskina*-ren iturrien azterketan oinarriturik.

5. Larramendiren «kuaderno zaharra»

Hara zer dioen Larramendik *Hiztegi Hirukoitz-eko Eraskina*-ren hasieran:

Al acabarse la Impresión del Diccionario me embía el Padre Agustín de Cardáveraz, de nuestra Compañía, un Quaderno viejo, que le ha avido á las manos, andando en Missiones en Bizcaya. Está impresso en quarto, y contiene refranes del Bascuence, traducidos en Castellano demasiadamente á la letra. Fáltale el principio, y el fin; ni se sabe su Autor, ni donde se imprimió. Las páginas están en dos columnas, y en la

izquierda viene el Bascuence de letra redonda, á quien corresponde de letra cursiva el Castellano en la izquierda. En ambas lenguas están apuntadas con números iguales, y correspondientes todas las voces, assi las Bascongadas, como las Castellanias, para que nadie pueda equivocarse en su explicación por la Sintaxis tan diferente de una, y otra Lengua. El dialecto es una mezcla del Guipuzcoano, y Bizcaíno, aunque por lo común domine este ultimo. En la Ortographía tiene sus erratas, pero son conocidas, y no causa confusión. Las paginas legibles son sesenta en treinta hojas. Destas he ido entresacando con bastante prolixidad aquellas voces Bascongadas, que por lo común no están en este Diccionario, y las he colocado por su orden en las correspondientes Castellanias. He añadido también otras muchas voces que he oido en las conversaciones, y notado en los Libros, especialmente en Axular, que he buelto á repassar con cuidado.

Vinson ohartu zen jadanik bere Bibliografiaren gehigarrian RS izan zitekeela Larramendik «kuaderno zaharra» deitzen duen hori, eta horrela jarri zuen argitan Mitxelenak bere *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue-n* L-ren eraskinari eskeintzen zion atalean. Zorigaitzez, L-k ez du hitz bakoitza nondik hartzetan duen aitortzen eta ezin baiezta daiteke segurtasun osoz Darmstadt-eko alean aurkitzen ez den berba edo errefrau bat RS-etik hartua dela; halaz guztiz, Mitxelenak frogatu ahal izan du L-k RS-en ale bat ezagutu zuela eta, areago, ale horrek bazituela Darmstadt-ekoak gorde ez zituen zatiak, baina baita falta zituela beste zenbait, bestela L-k ez baitzuen erabili gabe utziko bere eraskinean haietan ediren zeza-keen hainbat hitz interesgarri. Ezin dira, oro har, L-ren E-aren bitartez berak zuen RS-eko aleko errefrauak osatu, hitz solteak ematen baititu, ohi bezala; hala ere, inoiz edo behin oso bat ere ematen du exenplu gisa, edota errefrau zati oso bat progotxatzen:

185. Darasme, y darete [sic] he, *i quedac, ta diaqueada.* [= RS 233];
459. Obero, overo caballo, *saruc.* Y el refrán, *saruc bat uste, tresnatzen dauenac beste.* [= RS 335];
400. Mañana, *biar.* Después de mañana, *etzi.* Dos días después *etziluma.* Tres días después, *etzicaramu.* [= RS 410 *Beyçüt nai baoçu / gaur, biar, ezi, etziluma, etzicaramu,* «Haréoslo si quereys / hoy, mañana, después de mañana»].

Hirurok genituen ezagunak Darmstadt-eko alearen bitartez; alabaina, «Quien con niños se acuesta, sucio se levanta: *seyacaz echun dina, ucuzca jaigui d/oja* Mitxelenak ohartzen duenez RS-etik dator Darmstadt-eko alean ez agertu arren: *sey dauagu hor bezala, idazkeran islatu gabeko diptongo sudurkariarekin* RS-eko 55, 238 eta 523an ere.

6. Hiztegi Hirukoitza-ren Eraskina Mitxelenak aztertua: Darmstadt-eko alekoak

Har ditzagun, hasteko, Mitxelenak *E*-ko sarreraren batean litzkeen iturrien artean aipatu errefrauak:

RS	E	HITZA	RS	E	HITZA
266	6	<i>opea</i>	120/408	200	<i>ertuna</i>
171	8	<i>asacatu</i>	168/248	201	<i>guraria</i>
331	16	<i>equix</i>	259	204	<i>cimbota</i>
251	20	<i>uzcurtu</i>	301	220-2	<i>irachoa</i>
144...	21	<i>oratu</i>	399	233	<i>etsequi</i>
295/372	27	<i>leusindu</i>	341	235	<i>jarrugui</i>
388	37	<i>alogadu</i>	243	237	<i>ogena</i>
242	39	<i>oneretsia</i>	299	245	<i>galendu</i>
323	43	<i>sutanza</i>	239/466	251	<i>quibela</i>
420	48	<i>zarraldoa</i>	236	257	<i>sasitu</i>
541	58	<i>hucha</i>	260	262-3	<i>arbindh</i>
7/404	60	<i>isquiuac,</i> <i>isquilosac</i>	49/272...	269...	<i>[arbina]</i> <i>trancarta</i>
102/521	64	<i>garbatu</i>	2/107...	271	<i>ospea</i>
367	74	<i>luparia</i>	242	273	<i>ezaya</i>
383	77	<i>azarria</i>	249	275	<i>asto</i>
165	78	<i>azarcunza</i>	302	277	<i>atzaga</i>
339	86	<i>urgaci</i>	265	292	<i>donari</i>
79/436	90...	<i>trisca</i>	16	298	<i>itoguina</i>
185	109	<i>yrola</i>	19/179...	301	<i>oñon</i>
365	118	<i>oñatu</i>			<i>eguin</i>
210/527	123...	<i>urena</i>	7/21/165	303	<i>gudua</i>
88	152	<i>laso</i>	344	314	<i>jarrequin</i>
290	162	<i>maquerra</i>	287	315	<i>buruna</i>
156/279	171	<i>ecandu</i>	319	317	<i>jaraunsi</i>
?393	176	<i>gardia</i>	220	318	<i>parrabua</i>
33/247	178	<i>ipirdia</i>	272	319	<i>iac, iyac</i>
182	180	<i>ciya</i>	392/507	322	<i>andizura</i>
175	184	<i>emaya</i>	238/469	324	<i>escaratza</i>
233	185	<i>iquedac ta</i> <i>diqueada</i>	379 199/450	325 326	<i>induscatu</i> <i>zurtza</i>
174	186	<i>diada</i>	243/422	328	<i>imes(i)</i>
141	188	<i>gaso</i>	295	330	<i>burquidea</i>
192	191	<i>chircandea</i>	402	335	<i>curea</i>

REFRANES Y SENTENCIAS (1596)

RS	E	HITZA	RS	E	HITZA
307	337	<i>maemana</i>	25/329...	521	<i>arlota</i>
321	341	<i>jaibala</i>	265	521	<i>landerra</i>
94/191	347	<i>murcoa</i>	238	528	<i>atartea</i>
313	349	<i>garagarrila</i>	388	536	<i>palagadu</i>
254/280	350	<i>Doneane</i>	317	540	<i>burrena</i>
380/397	355	<i>eusi</i>	407	543	<i>ecertu</i>
?79	367	<i>erogui</i>	514	544	<i>gondua</i>
303	379	<i>narea</i>	339	547	<i>gucidea</i>
211/262	382	<i>ibarrac</i>	437	563	<i>luquia</i>
353	386	<i>bicioa</i>	235	565	<i>elia</i>
151/169	387	<i>guestoa</i>	370	573	<i>izpizatu</i>
174	392	<i>orbana</i>	52 / 386	575	<i>arritu</i>
76/246	398	<i>elicatura</i>	279	582	<i>arecha</i>
410	400	<i>biar, etzi,</i> <i>etziluma,</i> <i>etzcaramu</i>	217/?255...	585	<i>otu</i>
			196/197	586	<i>belorita</i>
			159	589	<i>laurem-</i> <i>bata</i>
272	404	<i>erac</i>	239	595	<i>aldiona</i>
398	413	<i>loca ibilli</i>	367	601	<i>cidorra</i>
33/82...	418	<i>ceja</i>	289/481	604	<i>cenzuna</i>
349	419	<i>ibarjauna</i>	366/?506	606	<i>biaota</i>
372	431	<i>esugui</i>	183	607	<i>arrayo</i>
536	437	<i>arean</i>	497	613	<i>coicatia</i>
75/?244	439	<i>oparfajina</i>	371/495	614	<i>gueriza</i>
166	448/9	<i>seyzaroa</i> {seyzaroth}	373	628....	<i>chirib-</i> <i>ghina</i>
238...	450	<i>seya</i>	210	634	<i>lauzatua</i>
335	459	<i>saruc {__ bat</i> <i>uste, fresa-</i> <i>tzen daue-</i> <i>nac beste</i>	37/214	650	<i>irunsi</i>
			404	653	<i>meniac</i>
			201	656	<i>iusturia</i>
			39/115	658	<i>grisolac</i>
215	460	<i>egnipidea</i>	299	660	<i>ubera</i>
149	461	<i>bearra</i>	209	665	<i>guebendu</i>
69	468	<i>lapicoa</i>	10/361-2	668	<i>aspertu</i>
219	485	<i>birapora</i>	220	669	<i>jazquerea</i>
291	505	<i>ergarrria</i>	?176...	673	<i>oquelea</i>
395	506	<i>gogaya</i>	51/ 228...	677	<i>matrazua</i>
63	506	<i>gogoa</i>	207	680	<i>minteguia</i>
9	511	<i>baraz</i>	?403	684	<i>ideco dira</i>
241	520	<i>celaya</i>	21/275	689	<i>cirola</i>
3...	521	<i>chiroa</i>	275	690	<i>osquia</i>

7. Eranskineko RS galdukoak

E-n badira, Darmstadt-eko alekoetan ez azaldu arren, Mitxelenaren ustez etorki bereko direnak edo, gutxienez, izan daitezkeenak formaren edo geroko lekukotasunen arabera. On da ikuska dezagun haien gainean Larramendiren bitartez Darmstadt-ekoari emenda geniezaiokeena jakiterik dugun (zenbakiak Mitxelena 1970-n E-ko sarrerei ezarriak dira):

16 <i>acbiti</i> ;	197 / 508 <i>oldozque-</i>	<i>dina ucuzcari</i>
23 <i>cresala</i> ;	ra(n) / <i>oldoztu</i> ;	<i>jaigui da</i> ;
24 <i>ostelearia</i> ;	236 <i>arana</i> ;	458 <i>gorgolla</i> ,
29 <i>emayenac</i> ,	254 <i>zayoia</i> ;	472 <i>garria</i> ;
33 <i>pozcaria</i> ;	256 <i>senguea</i> ;	484 <i>acizurria</i> ;
41 <i>larua</i> ;	258 <i>gortaisa</i> ;	503 <i>galenda</i> ;
54 <i>ibiretu</i> ,	276 <i>obua</i> ;	508 <i>oldoztu, oldoz-</i>
76 <i>azartu</i> ;	280 <i>canora</i> ;	<i>queran</i> ;
89 <i>triscaria</i> ;	285 <i>lejarra</i> ;	519 <i>cirarra</i> ;
94 <i>done Matro</i> ,	297 <i>mardula</i> ;	526 <i>nauquera</i> ;
101 <i>ezteguac</i> ;	302 <i>jagotu</i> ;	554 <i>ollaquea</i> ;
107 <i>fresa</i> ;	305 <i>guertaetu</i> ;	564 <i>arri iratzua</i> ;
121 <i>seldorra</i> ;	<i>guertucatu</i> ;	574 <i>enquina</i> ;
123 <i>azquina</i> ;	321 <i>meaca</i> ;	581 <i>huarriza</i> ;
131 <i>coitigua</i> ;	335 <i>curea</i> ;	583 <i>azaroa</i> ;
137 <i>acotatu</i> ;	338 <i>iztegia</i> ;	587 <i>abayescu</i> ;
146 <i>gomburua</i> ;	344 <i>guiraquea</i> ;	605 <i>eraitoquia</i> ;
148 <i>milistu</i> ;	351 <i>obuan</i> ;	609 <i>coya</i> ;
160 <i>erago</i> ;	365 <i>garchua</i> ;	620 <i>ucuza</i> ;
163 <i>zancabia</i> ;	380 <i>buerguina</i> ;	632 <i>zapotza</i> ;
165 <i>goria</i> ;	384 <i>bicioa</i> ;	633 <i>erbatza</i> ;
174 <i>betzuhoa</i> ;	425 <i>baldoquia</i> ;	635 <i>amaraua</i> ;
181 <i>cicoza</i> ;	426 <i>parapardiña</i> ;	638 <i>orrillac</i> ;
189 / 458 <i>gargolla</i> / <i>gorgolla</i> ;	435 <i>balbea</i> ;	644 <i>urtiguin</i> ;
194 <i>ortoza</i> ;	445 <i>siracha</i> ;	646 <i>gurdichapa</i> ;
	451 <i>seyacaz echun</i>	662 <i>ciorrea</i> ;
		670 <i>jazca</i> .

Mitxelenak berak emandako egokitasunekin ari garela gogoratzea konpli bide da;⁴ beherago markatuko dugunez, litzkeen iturri-hautagaiek zenbait adibide baino ez zituen hark eman, ordea, eta ezin espero

⁴ RS galdukorzar emanici Bizkaikorzar edota Mendebaldekorzar joak ere gehitzen dizkiet hauen eta besteen arteko mugak oso labainkorra iruditzen baitzaizkit.

sistema honen bitartez hau edo hura, hau ala hura, hobe, zehaztea: ez errefrau bat ezinbestez ezagun zuen Larramendik, ezta ezaguturik ere halabcharrez erabili behar zuen.... Horrenbestez, ezta bildumaren tamaina ere; ikusiko dugu, aldiiz, zerbait gehiago egiterik badela.

Ene kopuruak zuzen badira 810 hitz dira guztira *E-n* (319 «hiérele, pégale, iac, iyac» bezalako bikoitzasun faltsuren bat kendu ondoren); horietarik 34 kendu beharra dugu behin baino gehiagotan forma eta esanahi berean berbarik ez zenbatzeko; ez dira hurrengo sarrerok kontuan sartzen behin edo gehiagotan errepikatutik direlako: 126 *triscac*, 153 *ontsatu*, 155 *arrontatu*, 187 *trisca*, 215 *gardia*, 232 *bisicatu*, 239 *escolatu*, 255 *butbuna*, 264 *marrusatu*, 272 *irachoa*, 296 *aurizquita*, 310 *jolasturia*, 313a *urena*, 313b *azquina*, 346 *barrendaria*, 351 *obuan*, 366 *goratzapena*, 393 *arrontatu*, 455 *garraitza*, 458 *gorgolla*, 466 *erra*, 471a *arrontera*, 471b *arronta*, 508b *oldozqueran*, 531 *behartu*, 536 *orazt*, 556 *ecairac*, 619 *guertacuntza*, 629b *narrowa*, 631 *armora*, 640 *mendoza*, 660b *huerriza*, 676a *irisca*, 676b *urisca*.

Exer baino lehen, 451.eko (errefrau osoa) erabateko gutxiengoan dela markatu behar dugu, H-en Ax.-en «marra, muga, xedea» taiukoak bezala (cf. Lakarra 1991a) edota ia saratarraten erran komunak *E-n* legez. Nolanahi ere, nekez segurta daiteke bat baino gehiago errefrau batetik hartu den eta zenbat. Beharbada, Darmstadt-eko alearen bitartez ezagutuetatik orriko bataz beste duen harraldia jakinik edo suposaturik, hauk zenbatetik atera zitzakcen antzematen saia gaitezke —eta orriko errefrau kopuru ertainaren arabera kopuru osoa— Mitxelenak egin bezala. Alabaina horretara baino lehen duela mende laurden pasa (Mitxelena 1970 dut gogoan bereziki) hark egin ikerketetan zenbait zehaztasun beharko ditugu.

8. Azterketa berri baterantz

Ezaguna da, ikusi bezala, Darmstadt-eko alea amaiera gabea zela, beharbada inprenta lana amaitzeke aterea. Zaila badirudi ere, bada biderik Iruñean 1596an inprimatua bere osotasunean czagutzen saiatzeko, edota ale hura zen baino osoago, behintzat, egiteko. Lehenago ere (cf. Lakarra 1991a, 1993) adierazi dut testu baten, orobat hiztegi baten, eta haren iturriaren arteko erlazioa ez dela nahitanahiez zuzenbide bakarrekoa; simetrikoia izatera heltzea ezinezko bada ere, egokitasun sistemaren czagutzak bata izanaz besteari alderdi zenbait deribatzea dakarkigu inoiz.

Esaterako, badirudi hainbat eta aukera gehiago dukeela *Hiztegi Hirukoitza*-eko (= *JJH*) *Eraskin*-eko hitz batek ez testu batetik, RS zein Axularrengandik, hartua izateko —bestelako, hots, formazko edo semantikazko erizpiderik ez denean— zenbat eta Larramendik hura erabiltzeko

behar, presa, edo beta gehiago izan. Alegia, berezi egin behar soilik behin, hiztegiarik batean, adibide ez eratorririk gabe datorren Harrieten Hiztegiako (= H) litekeen kide (ez-hapax) baten eta H-en bi hiztegieta, sarrera bat baino gehiagotan, eta, oraindik hobe, Larramendik hitz horri eman dion gaztelerazko itzulpenaren frantseseko kidetasun fonetiko zuzencan, erabilera adibide eta zenbait eratorrirekin inguratua den beste baten artean. Nabarmena iruditzen zait honelakoetan hiztegi batek edozein testuren aitzinean duen azalpen boterea.

Larramendiren, *E*-ko lehendabiziko 352 sarreretan, lehen zatian, alegia, 14 dira gaztelerazko sarrera eta H-en frantseseko oso hurbileti loturik direnak; halere, hauei 17 kontrajar dakizkicke zeinetan egokitasun herti hori betetzen ez den. Hau bada *E*-ko lehen zatiko joera ezinukatuzkoa, areagotzen da lanean jarraitu ahala eta ia erabateko bilakatzen amainerarantz: orain lehengo % 45 inguru izan beharrean % 90-91 aurkitzen dugu. Bi hizkuntza erromanikootan izan den eboluzio fonetiko eta lexikoa izan delako nolabaiteko hurbiltasun handiagoa izatea letra hauetako lexemen artean baliteke; halaz guztiz zenbakiok zirrikitu gutxi uzten diote lehen aurreratu diagnostikoari: presak eta amaitu beharrak hiztegi-gilea lehenago emaroago erabili testu-iturriak, duten aurrelan nekosoarekin, utzi eta iturri errazagoetara, hiztegiatar eraman du; han ere, gainera, bertatik bertara bere egiteko burutzen laguntzen zioten sarrera bereziora (cf. Lakarra 1991a eta 1994a); ikus berton § 15.eko Larramendi eta Harrieten hiztegiarik atera adibideak eta L-k kide horietan duen zorra.

Hizkuntzalaritzako ohizko usadioen eredura, oraingo horretan iturriaren erabilerak testu-iturria bera, *Refranes y Sentencias*, neurri batean berreraikitzen lagun gaitzakeela erakutsi nahi nuke segidan adibide batz. Orain arte RS *E*-ren zenbait puntu, sarrera zenbaiten etorkia funtsean, azaltzeko baliatu badut, nago *E* baliatuaz ez soilik Larramendik egin haren erabileraz, baizik eta RS-i berari buruz zer edo zer jakin dezakengun.

9. Eraskinaren iturrien berrazterketaren eragina gure helburuetarako

Hiztegiaren Eraskinaren aitzin oharrean Larramendik dioskunez, *HH*-ren inprimaketa bukatzean jaso zuen Bizkaiko misioetarik zetorren Kardaberatzengandik Vinsonez geroz behintzat RS-en aletzat jo izan den «kuaderno zahar» bat. Handik hiztegian ez ziren hitz abondo («con bastante prolixidad») hartu zuen Larramendik eta zegozkien gaztelerazko sarreretan ezarri. Horrezaz landa «he añadido tambien otras muchas voces, que he oido en las conversaciones, y notado en los Libros, especialmente en Axular, que he vuelto á repassar con cuidado».

Gauzak honela, Ax eta RS-erantz zuzendu beharra zegoen E-ren iturriak, nagusienak behinik behin, ikertzeko orduan eta bide horretatik abiatu zen Mitxelena (1970). Urrats bat gehiago ere eman zuen Larramendik —hitzaurrean hartaz esandako ondoren aitor horretan sartzea gogortxoegi edo iruditurik— aipatu ez zuen Landucci ere hartzekodun egi-tean.

HH-aren E-n 243 direlarik Ax-engandik hartuak (% 31,13), 161 ezagutzen ditugun RS-eko zatietarik (% 20,74), 129 H-tik (% 16,62), eta 67 Landucciren hiztegitik (% 8,76). 9rentzat (% 1,15) hautagai bat baino gehiago dugu ezagutzen diren iturrien artean, 47 RS-en zati galdukoak izan daitezke (% 6,05) eta 118rentzat (% 15,20) ez dugu oraindik iturburrik. 1/6 da, goiko azterketaren ondoren H-k E-ren iturburuez argitzen duena eta —gainerako iturriei, Ax-i bereziki, Mitxelenak egokitu mailebuak zchaztcaz landa— erdira jaisten du etorki cenzaguneko sarrera kopurua. Halere, bada zer iker hondar hori agortzeko.

Orain H ere E-ren hartzekodun berri bilakatzean, kontu garbiketa hura berrikusi beharrean gara. Zenbait kasutan H-en lekukotasunak ez du aldatzen lehen Mitxelenak emandako azalpena, nahiz hori ezagutu ondoren ere iturria ez delako gure irispidean, nahiz lehengo azalpena zeharka datorrelako (cf. Lakarra 1991a: 243 hh).

Bestalde, Mitxelenaren azterketa oso fina da, aldacea guretzat, E-ko hainbat sarrerari RS-eko (edota Landucciren hiztegiko) iturria bilatzean: hara, esaterako, E 8ko *asacatu* hapaxa nola lotzen duen RS-eko 171.arekin (*Asiac equina dirudi, / asacatuac eder* «Lo comenzado parece acabado, / lo acabado hermoso»), edota forma eta itzulpena kontuan izanik RS 141 (*Guibeleco on dana / areco gasso* «Lo que es bueno para el hígado / dañoso para el baço») eta E 181 *cicoza* «curiosa» RS-en zati galduik eta ez bestetik etorri behar duela erakustean.⁵

Baina segurki badateke zer edo zer alda edo zuzen, are Mitxelenak RS eta Landucciren hiztegiotzat dituenen artean ere:

176. Cuidado, *gardia*.

RS 393an *Edoceynec edat ostean / dio vere gardia*, «cada cual después de beber / dice su parecer» aurkezten du erkaratarako, nahiz eta gehiago komeni E-ko 215. sarrerari: «dictamen». Azk-k, hiztegiaren eranskin eskuzkribatuetan «anhelo» itzultzen du eta Lemoakotzat jotzen; hiztegian bertan *garda* «fogosidad, afán» dakar, Otxan.esk. eta Añgan oinarrituaz. Edozein kasutan ere B-kotzat du.

⁵ Proposamenen bat cenzagun edo iluntzat utziako pasarteren batez egin nuen Lakarra 1995a-n, esaterako, F. 16ko «De aquí adelante, *equix*» (=331) hapaxa ongi itzulia (eta azaldua) den. Ikus orain errefrau horretan ezarri oharra.

RS-en galdu tako zatian adiera horretan beste *gardia* bat iza-tea litekeena den arren, ez da hori *E*-ko azaltzeko bide bakarra, eta merkeago dugu H-en «sérieusement, *gardiacor-qui*», «sérieux, *gardiacorra*» jotzea iturritzat, batez ere kontuan harturik baduela «fidèle pour tenir le secret, *gardia-corra*» ere. Ez zait ezinezko iruditzen hauetarik ateratzea L-k erroa; esanahia ere azalpen honen alde litzateke.

661. Vagabundo, *ibildaua*.

«B-ko a dirudi (RS-ekoa ote?) eta euskalki hartzan soilik azaltzen den *ibiltau(n)-ekin* eratzeko moduko» dio M-k bere iruzkinean. Haatik, bere susmoak ez zihoazten bide zuzenetik, B-tik oso urrutti baitu bere etorkia: H «vagabond, *ibil-daua*».

103. Bollo, *opilla*.

«Land. «bollo de pan, *ogui opilla*» da M-ren iruzkina. Bainan, itxura batean hori bezain ongi, eta agian errazkiago, cf. -ll-a, har zezakeen L-k H-engandik: cf. «masse, *opilla*», «la masse de sang, *odol opilla*». Oih-ek ere badu 20 *Amac irin balu opil balaidi* «Si ma mere auoit de la farine, elle faroit des gasteaux» baina hiztegi iturriak hobesteko arrazoia azaldu dira gorago, zabalago Lakarra 1991a eta 1993-n egin bidetik. B. Urgellek ereduko erdarena gogoratzen dit (*bollo / masa*), beharbada arrazoi osoz.

274. Festividad, *eguzaria*.

M-k Land. «feria o fiesta, *eguçaria edo feria*», «fiesta de guardar, *eguçari euchayteco*» uste du hartu duela L-k, erreferentzia soil horretaz landa bakarrik «cf. Ms 318 «*eguzaria*, añade *eguzaroa*, media fiesta» baitu, mendebalekotasuna hermatzeko asmoz gehitua, segurki».

Baina H kontuan hartuz geroz Land. ez da nahita nahiezko hartzekoduna: cf. H «*pezta, eguçaria, fête, f.*». Urrutiago joaz, egiazta gehiago du H-en aukerak, besterik ez bada ere *eguçari euchayteco* hori L-ri ez bide baitzitzaiokeen mezprezagari begitanduko.

Inoiz H are lehenagoko hiru iturriren kontrakarrean dator:

534. Prenda, *baya*.

M-k litzkeen hiru iturri dakarza, L-k ezagutu eta erabilitako testu ezberdinak bana: RS 523 *Baguila, sey goseen bay-la*, «lunio prenda muerta /bay yla/ de los niño hambrientos», Land. «prenda, vaya» eta Ax 80 *Bahibat tabernara arnoçun igortcen duçunean, gaztigatcen dioçu tabernariari eduqui deçala cenbait egunez bahi bura*. Bainan badira M-k aipatu ez zituen Leiz Adv 2v, Ins B 4v, C5v, Materre 250, Noelak 120, 170, Gasteluzar 126 eta are Pouy *Imitacionea* III 54, Philotea 478, EtxSar 164, CatLav. 243 ere.

H-ek gauzak ilunduaz aukera berri bat dakarkigu: «*gage, babilia*». Bi sarrera gorago egin gogoeten arabera Land. hobesterra makurtu behar genuke baina ez segurtasun osoz.⁶

Mitxelenak iturria —dela Axular nahiz RS, oso bestelako baitugu honetan Landucci (cf. Lakarra 1995b)— asmatu duela onartzeko prest izaki ere, zehaztasun haboro lor daitekeela eta, ikusiko dugunez, inoiz are beharrezko dela ere pentsa genezake. Izen ere, *E*-ren azterketan sarrera bat baino gehiagotan esaten digu honako edo halako hitza Axularrek asko darabilela adibideren bat edo beste (gutxitan guztiak) emanaz edota bestelakoa mendebaldekoa dela eta RS-en ere badirela, bere txikian, zenbait adibide, hemen ere horietarik batzu agertuaz. Egia da 18 *arrontatu*, 21 *oratu* edota 178 *ipirdia*, 201 *guraria* bezalakoek ez dutela itxura batean askoz gehiago merezi lexikografiaren aldetik, hain baitira usukoak dagoeneko ezagun ditugun testuotan; alabaina, lexikografiari dagokiona ez bada gure interes bakarra, ezta nagusia ere, merezi bide du, gure iritzian, are sarrera horietan ere litezkeen iturri hautagaitzen artean erabakitzeko irizpideak izateak.

Mitxelenaren ikerketa gogoan izanik eta behar diren tokietan honako edo harako zuzenketak egin ondoren gelditzen zitzaigunarekin asetu nahi ez denarentzat, RS-eko errefrauetarik Larramendik zalantzak gabe ezagutzen zituenak, ez gutxi gora behera, edora gutxienez, zein ziren jakiterik ba ote? Nago badela entseiatu beharreko beste biderik zehaztasun asmo honetan; aurreiaz markatu nahi dut, ordea, ezin itxadon daitekeela segurtasun erabatekorik metodo honen bitartez soilik, eta ez duela aurreko lana hondatzen baizik eta suposatzen, hartan oinarrituaz hura zehazten, sendotzen eta hedatzen.

10. Saioak RS osaren tamainaz: Darmstadt-ekoaren hurrenkeraz

Lehen saioa Darmstadt-ekoaren egiturari, errefrauen antolamendu eta hurrenkerari, so egitea genuke: ba ote horrelako czer eta, izatekotan, ba ote inongo oinarririk hartan falta den zatiak izan zezakeenaz iharduteko? Zerbait bada, zalantzak gabe: lehendabiziko orrialdeko errefrauak oro A-z hasten dira⁷ eta O-z 64., azkeneko orrialdeko ia guztiak.⁸ Bigarren

⁶ Osoa ez bada, ia osoa egiten da RS-en 4. kuadernotxoan, ez bigarren edo hirugarrenean, azaltzen dela ikustean; beherago eta Lakarra 1991a, 1993 eta 1994a Axular H-k iturritzat —inoiz pasarte oso garrantzitsuak aipatuz— erabiltzeak sortu arazo berciez.

⁷ Ordene alfabetiko hertsirik (1. *Adi...*, 2. *Aberas...*, 3. *Aberassoc...*, 4. *Abendu...*) ezin eska, Euskal Herrian eta hemendik landa ere hiztegieta alfabetizazioa ez baitzen usuko bigarren letraz geroz (ik. Lakarra 1993, 1994a eta han aipatutako bibliografia).

⁸ Salbuespina 532. *Saguat...* dugu; hemen ere alfabetizazioa ez da bigarren letrara iristen 531. *Oasun...*, 533. *Oroc...*, 534. *Otorde...*, 535. *Oçac...*, 536. *Hordia ganic...*, 537. *Ogwi...*, 538. *Oso...* eta 539. *Ogui...*-ren aurrean.»

orrialdean bederatziren artean nagusi dira B- letraz hasten direnak nahiz eta A- bat eta este E- bat izan eta B- eta C- dira, hurrenez hurren, hirugarrenean. Alabaina, A da nagusi berriz (D- batekin) laugarrenean, B bat eta C-ren gehiengoa 5.ean, eta —larriago dena— N- bi, bi M-, L- bi, bi V- eta F- bakarra ondoko 6.ean. Hortik aurrera, orrialde batzuetan letra honen edo horren gehiengoa izan arren, jauziak dira aitzin-gibel, bai orrialde berean, bai biren artean ere. Ni neu, bederen, ez naiz gai 64 orrialdeentzat balioko lukeen lege herti ez zabalik erideiteko.

Orobat diot Darmstadt-ekoan legerik izatekotan, neurriren batean bederen, horren berme etorri beharko luketen Oihenartek gorde zatikoez (ik. gorago). Aski bedi ondoko hurrenkera hau gogoratzea: *ynardun..., ojal..., urrineric..., salda..., hubuñenerean..., oñu..., guicon..., ecandu..., barría..., maya..., jaunen..., emazte..., maiaz..., garrastu..., bere..., gastelau..., esquerrac..., ene..., ilbearan..., onerextea...*⁹

11. E-ko RS-en erabilera orokorraz

Ondoko taulan asteriskoek delako hitza —ezagutzen ditugun erre-frauetan— soilik zenbaki horretantxe gordetzen dela adierazten dute; asteriskorik ez denean, aldiz, zenbaki horretaz at besteren batean ere azaltzen dela RS-en.

- 1-50 bitartean: 2, 3, 7, *9, 10, *16, 19, 21, 25, 33, 34, 37, 39, 49,
- 51-100 bitartean: 51, 52, 55, 63, 64, *69, 75, 76, 78, *79, 82, 88, 94,
- 101-150 bitartean: 102, 107, 115, 120, 141, 144, *149,
- 152-200 bitartean: 151, *152, 156, *159, *165, *166, 168, 169, *171, *174, *175, 176, 179, 180, 182, *183, *185, 188, 191, *192, *196, *197, 199,
- 201-250 bitartean: *201, *207, *209, *210, 211, 214, *215, 217, *219, *220, 225, 228, 230, *233, *235, *236, *238, *239, *241, *242, *243, 244, 246, 247, 248, *249,
- 251-300 bitartean: *251, 253, 254, 255, *259, *260, 262, *265, *266, *272, 275, *277, *279, 280, *287, 289, *290, *291, *295, 298, *299,
- 301-350 bitartean: *301, *302, *303, 305, *307, *313, 314, *317, *319, *321, *323, 327, 329, *331, *335, *339, *341, *344, *349,

⁹ Zalantzak gabe, Oihenartek duen kopiatzeko modua «bigarren graduiko desordena» dei genezake; izan ere Darmstadt-ekoaren bitartez ezagutzen ditugunak ere ez ditu bere hartan ematen eta ezta ordena alfabetikoren batz ere, gorago ikusi bezala; ez da, beraz, harrigarritzorik testuko datuetan.

- 351-400 bitartean:* *353, *361, *362, *365, *366, *367, *370, 371,
 *372, *373, *379, 380, 381, *383, 384, 385, 386, *388, 392,
 *393, *395, 397, *398, *399,
401-450 bitartean: *402, *403, *404, *405, *407, 408, *410, 413,
 416, 419, *420, 422, 428, 435, 436, 437, 443, 450,
451-500 bitartean: 458, 466, 467, 468, 469, 478, 481, 485, 487,
 493, 495, *497,
501-560 bitartean: 506, 507, *514, 521, 523, 525, 527, *536,
 *541,¹⁰ 542, *544, 545, 547, 550, 558.

LEHEN TAUZA

Datuok esanguratsu izan daitezen, errefrauak zein orrialde eta zein orritan doazen jakin beharra dugu; izan ere, badirudi zatika baino gordezen ez zirenak lekat, errefrau bat hautagai bakar bilakaturik, orri hortetakoak hobetsi beharra dugula hainbatik hainbatean horrelakorik ez duten orrietakoena aurrean. Hain zuzen ere errefrau horren segurtasunak orri osoarena (aurreko orrialderena zein atzekoarena) dakar eta, beraz, bertako gainerako errefrauak litzkeen hautagai hoherenak dira RS-en behin baino gehiagotan azalduz geroz delako forma hori:

1. KUAD.	2. KUAD.	3. KUAD.	4. KUAD.
1: 1- 5	17: 139-145	33: 275-282	49: 413-419
2: 6- 14	18: 146-154	34: 283-290	50: 420-426
3: 15- 23	19: 155-163	35: 291-299	51: 427-434
4: 24- 32	20: 164-170	36: 300-308	52: 435-440
5: 33- 39	21: 171-179	37: 309-318	53: 441-449
6: 40- 48	22: 180-189	38: 319-327	54: 450-457
7: 49- 56	23: 190-197	39: 328-335	55: 458-466
8: 57- 66	24: 198-206	40: 336-343	56: 467-473
9: 67- 73	25: 207-214	41: 344-353	57: 474-482
10: 74- 82	26: 215-224	42: 354-364	58: 483-490
11: 83- 91	27: 225-232	43: 365-372	59: 491-499
12: 92-102	28: 233-241	44: 373-379	60: 500-508
13: 103-111	29: 242-249	45: 380-387	61: 509-515
14: 112-120	30: 250-258	46: 388-395	62: 516-522
15: 121-130	31: 259-267	47: 396-403	63: 523-530
16: 131-138	32: 268-274	48: 404-412	64: 531-539

BIGARREN TAUZA

¹⁰ Gogora bedi Darmstadteko alea 539ean amaitzen dela eta gainerakoak Mitxelenak Oihenarten eskuizkribuan aurkituak eta Larramendiren beraren bakarra direla.

Lehen taulak argiro esaten digu 150 eta 400.a bitarteko errefrau izarreraztua goredetzen zituzten orrialde (17.etik 48.erakoak) gehienak bederen, guztiak seguruenik, ezagutzen zituela Larramendik, anitz baitira nahi eta nahiez hark haietarik hartuak. Hortaz, orain arte genekiena 2. taulan aurkituarekin gombinatuaz, hamasei orrialdetako kuadernotxotan antolaturik izaki testua, Darmstadt-ekoaren bigarren eta hirugarren kuadernotxoak (17-32 eta 33-48. orrialdeak, hain zuzen) egiten bide zituzten Larramendik ezagutu 60 orrialdeetarik 32.¹¹

12. Lehen eta laugarren kuadernotxoak ezagutzen ote?

Halere, ez da gehiegiz, oraindik beste 28 orrialde argitzea geratzen baitzaigu. Gogoratzan bagara, Larramendik berak dioskunet, irakur zitezkeen 60 orrialde bazituen behintzat bere aleak eta 64 Darmstadt-ekoak. Honek ez zituenetik zenbat izan zitzakeen Larramendirenak suposatzen hasi orduko komeni bide da hark Darmstadt-ekoan gordetakoez egin erabilera zehatzago miatzea.

Lehendabiziko kuadernotxoari dagokionez (1-16 orrialdeak, 1-138. errefrauak), esana dugu Larramendik ezagutu zuen alean Darmstadt-ekoaren 1.ko orria (1-14. errefrauak) falta zela, behintzat, bertan bairzihoa zen inprenta eta urteari buruzkoak. Esango nuke gehiago ere peitu zuela eta goian eman dudan zerrenda osoaren (hots, litzkeen guztiak biltzen dituenaren) laburtasuna esanguratsua begitantzten zait. Areago de-na, 9.a, 16.a, 69.a, eta 79.a (138tik 4 soilik) dira goiko taulan izartxoaren markarekin hornituak lehen kuadernotxoan;¹² bigarrenean 35, ia bederatzi bider gehiago, eta hirugarrenean 44, hamaiaka bider gehiago. Ikus ditzagun laurok ere xehekiago, orain arte esandakotik ez baita besterik gabe jarraitzen horiek L-k erabili egin zituen eta, hortaz, horiek dituzten orriak, osotoro edo zatika, ezagutzen.

Lchena (9.a, *Acerrian lurre garraz hoña ybini egutie baraz*
 «En patria estraña la tierra es agra, el pie pondráse espaciosamente») L-k ezin ezagut zezakoen kuadernotxo horren bitartez lehen orrikoa baitugu; beraz, L-k RS-en bitartez ezagutu ba-

¹¹ 17.ak (139-145 errefrauak) eta 27.ak (225-232) Larramendiren arreta erakarri ez bazu-ten ere bere alean ziren, hauen gibeleko 18.a (146-154) eta 28.a (233-241), hurrenez hurren, ederki baliatu baitzituen.

¹² Mitxelenak E 152 «como, laso, leguez, bezala»-ko lehenaz «el primero en RS 88. badio ere, 413 *Guion gazteen gogoa ecosaria laso* «El pensamiento del hombre jóven, del tamaño del aua» (4. kuadernotxoaren hasieran) eta, bereziki, 344 *Harríoingo ynsaurra burua laso, jarrequin ezequida erricoa laso* «El nogal de lexos como la cabeza, mas no la allé como la de la patria» hori bezain egoki ditugu E-koaren iturritzat.

zuen *E*-ko 511 «perezoso, *baraz*» Darmstadt-ekoak galduetako zatiren batetik ezagutu beharra zuen.¹³

16.a (*Betico itoguinac arria çulatu ta aldi luçeac guztia aztu* «Gotera continua piedra orada y el tiempo largo todo lo olvida») *E*-ko 298 «gotera, *itoguina*»-ren iturburu genuke; alabaina esan beharrik ez da *itogin* ez dela *RS*-eko hitz arraroenetarik, are gutxiago hapax bat. Litekeena da, hortaz, galduetako zatitik edo herritik, ahozko iturriren batetik eta ez idatzizkoetatik jasoa izatea.

Antzeko zerbait esan daiteke 69.az (*Lapico egin dana estal-gui licate, ce edoceynec danco vere lecua vete* «Quien no puede ser olla podría ser cobterera, que cada qual tiene su lugar lleno»); areago dena, *E* 468 «olla, *dipidia, lapicoa*» aztertzean M-k esau bezala «el segundo en *RS* 69... También en Land., a consecuencia de un divertido desliz: ola del agua, *lapicoa*», hiztegi-iturriak hobesteko irizpideak hemen bere indar osoa hartzen duelarik.

E 367 «levantar, *jasan, jasaitu, ereguir*»-ko azkenaren iturri Land. da, orobat, eta ez *RS* 79 (*Triscan badabil asoa aus asco eriguidaroa* «Dançando si anda la vieja mucho poluo leuantar suele»); cf. Land. «leuantar otra cosa, *ereguí vestre gauça*», *E*-ko bokalarekin, *RS* ez bezala.

Kontuak honela, lehen kuadernotik eta ez beste inondik nahita nahiez hartu beharrezkorik ez da batere; bestela esanik, ez da zer suposatu Larramendik lehen kuadernotxo hori ezagutzen zuenik —orri edo orri zati solteren bat gehienez ere— eta agian hobe hori ere ez onartzea: izan ere, Mitxelenak behin baino gehiagotan aipatu Larramendiren hitz ezezagunen zaletasunak nekez utzik bide zion 12 *hamquer* «cruel», 14 *labio* «rabitorta», 15 *balizco* «de si fuese»¹⁴ (16ko *itogin* aipatu arrunt horren aldameneau), 32 *anbiolaco* «del tiempo pasado», 49 *trancart* «engaños», 55 *beçuza* «regala», 65 *yususqui* «escoba», 73 *hendoreca* «alcalde», 82 *tacoc* «para» eta beste asko baztertzeu. Zein nahi ere den begitazio honen aurreko gure iritzia, berreraikitzaleak ez du Darmstadteko liburuaren lehen kuadernotxoaren inongo beharrik Larramendik *E*-n sartuak azaltzeko; *entia non sunt multiplacanda praeter necessitatem*, bada.

Goazen orain laugarren kuadernotxora. Honek 49.etik 64-era bitarte-ko orrialdeak eta 413.etik 539. errefrauera bitartekoak besarkatzen ditu.

¹³ Bidebatez, erdarazko ordainen artean ere («espacioamente» / «perezoso») hada alde nahikoan jatorria testu beraren izanik ere, beste nonbait izan behar zuela suposatzeko.

¹⁴ *E* 622 «suponer, *balizcar*» ez dator hortik Mitxelenak proposatu bezala Harrieten-gandik baizik; cf. Lakarra 1991a, s.u. eta edizioan ezarri oharrean.

Horietarik 420, 437, 497 eta 514 dira soilik 1. taulan izartxoarekin —hots, RS-eko beste inon ez direla *E*-n agertu hitzak adieraziaz— markatuak: lehen kuadernotxoan diren berak, halabeharrez, eta, hartan bezala, Larramendik kuadernotxo honen erabilera urria egin zuela agertzeko ezin adierazgarriagoak, zalantzariak gabe.¹⁵

Lehena 420garren *Hugazean edaten dana cerraldoetan essuro* «Lo que en la teta se beue en las andas se vierte» *E* 48 «andas de muerto, *zarraldaoa*»-ren iturritzat hartzeari Mitxelenak ere dagoeneko zail erizten zion: «Además de la diferencia en la primera vocal, sin embargo, lleva a dudar de que ésta sea la fuente precisa el hecho de que Larramendi no recogiera alguna palabra rara (*burrustu* «acometer», *peco* «sospecha») que figura en la misma página de RS» (1970: 59). Orri bereko aurreko orrialdean ziren 418 *yguini* «entiende» eta 419 *perrau* «hermitaño» ere hor zituen.¹⁶

437 *Luquiari trancart eguiteco gojtu bearco* «Para hazer engaño al raposo madrugar es menester» genuke 563 «Raposo, *luquia*»-ren jatorria,¹⁷ halcre ezin esan hapax batekin ari garenik eta ezta RS-en galduztako zatitik edota ahozko bizkaieratik jasoa ezin izan daitekeenik.

497 *Esa jaunen saria ezta ayn coycari çeyn dirudi* «La dádiva del duende no es tan sobradíssima como parece» eta 514 *Etorti vqdaquic billaetan doan gacha gondu daquiala* «Si te viene el daño que buscas prouecho te haga»-n *E* 613 (*koikari*) eta *E* 544-n (*gondu*) hurrenez hurren bildu hitz bakanagoen aurrean gara¹⁸ eta bidezkoena Larramendik errefrauok ezagutzen zituela onartzea izan bide daiteke. Alabaina 497ko *etsajaun* «duende» ez baina *iratxo* datorrela *E*-n s.u. eta 496ko *gomonzalleac* «acomodador» orrialde horretan eta 504 *marraac* «joyas», 505 *nojala* «vaca que ha dos años que cría» eta 506 *zajagauzi* «dejatiuo» ez biltzeak zalantza izpirik sor lezake 497.az. 514ri dagokionez ulertzeko da Mitxelenak inolako zalantzariak gabe errefrau hori

¹⁵ Izan, bada han 536 *Hordiaganic engindu çe egunc arean* «De borracho no fies nada» cre, baina *E* 437 «nada, *arean*» orobat atera zezakeen RS 558 (hots, Darmstadt-ekoak ez baina bai Oihenartenak, eta agian baita Larramendirenak ere, gordetzen zuen) *Ilbeieran ereyn cegunc arean-ekik*.

¹⁶ 220-ko *parrahuia* *E* 318 «hermitaño, *parraua*»-n izanik bigarrena hor ez sartzea lehen-dabizkioa kanpo uztea bezain esanguratsu ez dela deritzonak gogora beza aldaerak behin baino gehiago ageri direla testu horretan; cf. Mitxelena 1970 eta Lakarra 1991a.

¹⁷ Bada RS 64 *Luqui cuma azeri* «El hijo del raposo zorro» baina ez dirudi hautagai hobea denik gorago ikusitako lehendabiziko kuadernotxoaren erabilkeraren arabera.

¹⁸ Bigarreña lehena baino bakanago hasierako ahostunarekin Landuccirengan bildutako aldaera baitakar Mitxelenak, s.u.

minatea; orri berean agertzen diren 509 *apizetan* «se hurtá», 510 *calta* «daño», 515 *leloa* «canción», 518 *mergaz* «desabrida», 522 *soloj* «heredadiega», eta *vasoy* «montañero» *E*-n ez biltzea halabeharrari edota kuadernotxo honetan Laramendik presagatik edo beste zioren bategatik lan arinagoa eginari zorko litzaiok.

Nolanahi ere, azken kuadernotxotik halabeharrez hartutakoa azaltze-ko gehienez ere 2 errefrau, lau orrialde —edo orrialde zati—, behar ditugu. Gauzak honela, Darmstadt-eko aleak eta Laramendirenak goitik iota 36 orrialdetan egiten zuten bat; bigarrenak 60 orrialde irakurgarri (beste-lakorik gehiago?) zituenez, Iruñean argitaratuak bazituen, gutxienez, Darmstadt-ekoari falta zitzazkion 24. Logikoena bi kuadernotxo gehiago (32 orrialde, 272 bat errefrau) zituela suposatzea litzateke.

E-n diren eta Darmstadt-ekoan ez beste lekukotasunetan gordetzen ez diren 53 hitz *RS*-en zati galdu tikit baletoz Mitxelenak (1970)-en susmata bezala, antzeko zifretara iritsiko ginateke: bigarren kuadernotxoko erabileraaren arabera (gutxienez 35 errefrau 16 orrialdetan) 24,2 beharko liratuke horkoen iturriarentzat eta 3. kuadernotxoaren arabera (gutxienez 44 errefrau 16 orrialdetan) 19,2 orrialde.

13. Azterketa: Laramendik lehen eta laugarren kuadernotxoetarik hartu omen zuenaren benetako jatorriaz

Segidan Lakarra 1991a eta 1993-ko azterketa zerbaixka aldaturik Mitxelenak (1970) Eraskineko sarrera batzuekin egina eztabaidatzetan eta zehazten dugu goiko gogoeten arabera, usu ez haren hautagai zerrenda baina aukera bakarra zehaztea lortuaz; zenbakiak *E*-koak dira:

6. Abril, opea.

«*RS* 266: *Opeco erlea eneçat / Mayacecoa anajeençat* «En-jambre de abril para mí / el de mayo para mi hermano». En *RS* 416, casi igual al citado, se lee, sin embargo, *Opeileco berlea y Opeyl* «abril» se repite en el 129» dugu M-ren iruzkina. Éta horrela dira gauzak, izan ere. Kapitulu honetan aurkeztu analisirako ezin interesgarriago dugu datua, 416.a eta 129.a, hots L-k erabili ez zituenak, 4. eta 1.ko kuaderno-txokoak baitira.

29. Albricias, emayenac.

«Un hapax que por su formación recuerda otro de *RS* 120 *Barri ertunac vidarrienic ez* «La mala nueua sin porte» diosku M-k. Baliteke, baina L-k ez bide zuen 120.a ezagutzen; *emai*, ordea, erabat ezaguna da oraindik mendebalean eta *RS* galdua izan daiteke honen iturri.

48. Andas de muerto, *zarraldoa*.

M-ren azterketa oso ongi bideratua genuen RS 420eko *cerraldoetan-i* bi aitzakia aurkitzen baitzikion hautagai ego-kitzat: bokal differentzia batetik eta orri bercan agitzen diren zenbait hitz bitxi (*burrustu* «acometer», *poco* «sospecha») L-k ez jasoa.

420.a 4. kuadernotxoko lehen orriko bigarren orrialdean delarik orain are sendoagoa iruditzen zait M-ren susmoa.

60. Armas, *isquiliuac*, *isquilosac*.

RS 7 Bioça ta zençuna guduan dira bearrago ysquilliuc baño «Coraçon y entendimiento en la guerra son más necesarias que las armas» eta 404 *Butroeco meniac gayti ez ysquilosay echi*, «por las treguas de Butrón no dexes las armas». M-k markatu bezala ez dago ongi definitua hemendik landa azaltzen ez den hitz honien forma; bietarik bat bestearen ustelketatik izatekotan badirudi errazago dela 1.koa izatea forma jatorra. Alabaina, 7.a 2. orrialdekoa dugu eta 48.ekoa bestea eta beraz ez 7.a baizik eta 404.a izan zen Darmstadt-ekoan gordetarik L-k ezagut zezakeena; *isquiliuac*, beraz RS galdukit hartu zuen edota bera da ustelketa (eta ez alderantziz) edo L-ren berreraiketa (?).

64. Arrepentirse, *garbatu*.

RS 102 Ezcondu ta garbatu «Casar y arrepentir». En RS 521 se repite *garhatua* «arrepentido» dio M-k.

Alabaina, ez bata (1. kuad.) eta ez bestea (4. kuad.) ezagutzen zituen L-k gure azterketa zuzena bada. Hitza, ordea, ez da inolaz ere hapax eta edozein dotrinatan —zein herri hizkeran— eriden zezakeen.

134. Cesto, *zarampoa*.

M-k hitza H-ren hiztegira igaro zela eta harengandik B *zarau-en* aldaeratzat aurkezten digun Azkuerenera diosku, «no es imposible que se trate no de una variante de *zarau* sino de una corrupción de éste» gehituaz. Alabaina hor aipatzen duen RS 34 *Zaran bat daguanac bi day* «quien hiciere un cesto hara dos» ez litzateke ustelketa horren iturburua, erre-fraua 1.ko kuadernotxoan baita.

152. Como, *laso*, *leguez...*

RS 88 Olaso guichibazuc ylaso «Olaso, pocos son como tú» ematen digu M-k iturburutzat. Ez da hori, ordea, Darmstadt-eko alean aurkitzen den bakarra eta 3. kuadernotxoko 344.a bide da iturri zehatza 12. oharrean azaldu bezala. Bigarrena «*RS 127, etab.*» dio eta izan ere beste edozeinek (195 eta 454, hain zuzen) luke orrialde horrek adina aukera; 195.a begitantzen zait dela iturri zehatza.

200. Desdichado, *ertuna*.

RS 408 Barri ertuna lelengo ençuna «La nueua desdichada la

primera oyda» cmatcn du M-k, RS 120.ean «mala» itzultzen dela gehituaz.

Gehi bekio orain 408.a 48. orrialdean dela (hirugarren kua-dernotxoaren azkenengoan) eta 120.a 14.ean (lehendabiziko kuadernotxoan).

220. Duende, *irachoa* eta 272. Fantasma, *irachoa*.

M-k RS 301 *Gassoto yrabacia / yracho en da yracia* «Lo mal ganado / es del fantasma esprimido» du iturburutzat, zuzenene ustez; halaber, «En RS 497 aparece esa jaun «duende», que no recoge Larramendi» gehitzen du; harentzat anekdota markagarria izan daitekeena erabat interesgarri dugu orain azken hau 4. kuadernotxoan dela jakinik.

251. Espalda, *quibela*, *acia*.

«El primero responde a RS 466 *Quibel eguioc ecachari* «Hazle espaldas a la tempestad» y 239 *Quibel ecachari / bular alditionari* «Espaldas a la tempestad / pecho a la buena sazón» dio M-k, ekialdeko bigarrena nondikoa izan daitekeen ez dakiela gehitu aurretik (cf. Lakarra 1991a: 234 honetaz).

466.a ez (55. orrialdean baita) baizik eta 239.a (bigarren kuaderno) bide da iturri zehatza.

269. Falsia, *trancarta*.

«RS 49 *Trancart eguiten deustac / ta vllerretan deustat* «Engaños me haces / y te entiendo». Con la misma trad., RS 272, abajo, 319, y, escrito *trançart* «engaño», en el 437 (abajo, 563)» dugu M-ren iruzkina.

Azken forma gerorako utziaz (cf. 563), esan dezagun orain ere pasa gaitezkela 1. kuadernotxoko 49.eko gabe.

271. Fama, *ospea*.

«RS 2 *Aberas yzayteabaño / hospe ona obeago* «Mejor buena fama / que ser rico». Se repite en RS 107, 188 y 507, con o sin *b-* dio M-k, alabaina, beharbada ez RS 2-k eta ezta RS 107-k (1. kuad.) ez RS 507.ak eta ezta hark aipatzen ez duen RS 542-k *Vrrineric ospea, erricoa obea* (4.a) balio digute. RS 188 dugu, beraz, hautagai bakarra; *b-* gabea dugu I.-rena bezala, bidenabar, horko *Gal bidi guizona / ta ez aren ospe ona* «Piérdase el hombre / y no su fama buena».

298. Gotera, *ítoguina*.

RS 16 *Betico ytoguinac arria çulatu ta aldi luçead guztia aztu* «gotera continua piedra orada y el tiempo largo todo lo olvida» da M-k dioena baina ez bide zen —ikus gorago— 3. orrialdeko hori jatorria Darmstadt-ekoan edota Oih.en zati berrian besterrik agertu ez arren. Hitza erabat arrunta da oraindik.

301. Gruñir, *oñon eguin*.

«305 *Ydiac oñon bidean gurdiac* «en lugar de gruñir los bueyes el carro». También en RS 19 *Cantari guextoac oñon* «el mal cantor porfía» eta RS 179 *Onec oñon eta ni ijilic egon* «Este hahlando y yo callando estando» gertatzen direla dios-

ku M-k; zalantzarik gabe 2. kuadernotxoko 305.a da hautuna itzulpenagatik eta baita 19.a den kuadernotxoan delako ere.

303. Guerra, *gudua*.

M-k itzulpen honekin ematen dela 7, 21 165 eta bestetan (331 eta 383.eten, zehazki) gaztigatzen du, Ax.ren «combate, pelea»-tik bereizteko seguruenik; zalantzarik gabe RS bada ere jatorria, ez 7.a edota 21.a.

322. Honor, *andizura*.

M-k erakutsi legez, RS 392 *Emaytea andizuren arçaytea mingarri* «El dar es honor, y el tomar causa dolor»-eko formaren ustelketa dugu. Berak RS 507 *Dollorracpere andizuren ospea / gora joacu ycaztobico quea* «Aún el más ruyn fama de principal / arriba se nos va el humo de la carbonera» ere aipatzen digu baina testuko hori gabe ere (4. kuad.) azal genezake.

323. Hormiga, *inurria*.

«RS 8 *Ynurria guino lagun gura* «Hasta la hormiga desea compañía» ematen du M-k «cf. además RS 183 y 326, pero también Land. tiene *ynurria* (2^a mano, *chinurria*)» gehituaz. Gure analisiaren arabera soilik RS 183 eta 326 lirateke hautagai eta, gainera, batak eta besteak hiztegiaren aurrean amore eman behar dutela nago; cf. Lakarra 1991a-n eman arrazoik hiztegien iturritzat oro har beste hiztegi batzuk hartzeko.

328. Huir, *ines, inesi*.

«RS 422 *Ausso Chordon arzorri / ta nic yñes dayda* «Ten Hordoño a ese osso y yo haré huyda» demosku M-k «cf. además RS 243» gehitzen du, beste sarrera batean (237) aipatua izaki.

Seguruenik, bigarrena dugu —*Naztauenac ogenic, yñez begui guextoaganic* «Quien no quiere engaño, haga huyda del peruerso»—, ordea, iturri zehatza eta ez 4. kuadernotxoko 422.a.

347. Jarro, *murcoa*.

«RS 191 *Hurtealango murcoa* «Qual el año tal el jarro» ematen du, zuzen, M-k, RS 94.ean «cántaro» itzultzen dela gehituaz.

Oraingoan ere 2.-3. kuadernotxokoa dugu beharrezkoa eta 1.-4.-eko desegokia.

398. Mantenimiento, *elicatura*.

RS 76 *Banabil burua ezin sinisturic / erasuna elicaturazat arturic* «ando no pudiendo creer la cabeza / la locura por mantenimiento tomando» eta RS 246 *Oguiagaz hura / oragaz heroen elicatura* «Pan con agua mantenimiento de loco y mastín» ematen ditu M-k iturburutzat. Biek itzulpen bera

izan arren 246.a hobesten dugu iturritzat bestea Darmstadt-ekoaren lehen zatian delako. Ikus beherago 542. sarrera ere.

418. Mercado, ceja.

«Ocurre en RS 33, 88 y 253» dio M-k. Lehen biak 1.ko kuadernotxokoak izaki, 2.eko 253.ak dirudi iturri zehatza.

437. Nada, arean.

RS 526 Hordiaganic encindu ce eguic arean «De borracho no fies nada» demosku M-k, «arean (nada) algo; arean ez, nada» eskuizkribu batekin zuzenduaaz.

Bada ordea *RS 558 Ilbeieran ereyn ceguic arean* ere Oih.ek (eta agian L-k) ezagutu zatian. Bestalde, orduan eta gero ere hitza herrikoia zen eta, beraz, M-k aipatu 4. kuadernotxokoa ez da erabat beharrezko.

439. Necesidad, oparina.

«*RS 75 Oparinac nenguan bearguin / ta alperqueriac auzquin* «La necesidad me hizo obrero, y la vagamundez pleytista». Hay también *oparinac* en *RS 244*, pero con la misma traducción, se lee *opariari*, dativo, en el 78 y *oparayna* en el 140», honaino M. Oharbekio 244koak sarrera azaltzeaz landa gure analisiak 78 eta seguruenik 140.eko (2. kuadernotxoko 1. orrialdea) *E-n zergatik agertzen ez diren aurreratzen digula.*

468. Olla, dipidia, lapicoa.

«El segundo en *RS 69 Lapico egin dana / estalgui ligate* «Quien no puede ser olla / podría ser cobertera». También en Land., a consecuencia de un divertido desliz: «ola del agua, *lapicoa*» diosku M-k.

Testuan gorago gogoratu eta Lakarra 1991a-n azaldu arrazoiengatik hiztegiari eman beharko litzai oike lehentasuna iturri gisa.

506. Pensamiento, gogaya, gogoa.

Lchena gaizki zatitua dela gogoratu ondoren *RS 395 Gaba gogayeren ama* «La noche, madre de los pensamientos» aipatuaaz, bigarrena *RS 63* eta beste askotan datorrela diosku M-k, iturri zehatza zein den erabakitzea czinezkotzat joaz.

Alabaina, *gogoa* «pensamiento» *RS 63, 398, 413, 419, 458* eta *gogoco* «de mente» *RS 381* dira Soto Michelenak (1978-79, s.u.) ematen dizkigun agerraldi guztia etz M-k uste baino zehaztasun gehiago egin ditzakegu orain: *RS 63, 413, 419* eta *458.ak* aukeraketatik landa dira 1.ko edota 4. kuadernotxokoak izatecarren era, seguruenik, baita *RS 381* ere itzulpengatik. Beraz, *RS 398-k* ditu aukera guztiaik hain hitz arrunt eta ezagun honen iturri izateko.

511. Perezoso, baraz.

RS 9 Acerrian turra garraz / hoña ybinieguic baraz «En patria extraña la tierra es agra / el pie pondráslle espaciosamente» da M-ren soluzioa.

Baina, gorago esan bezala, L-k ezin ezagut zezakeen testu horren bitartez Ichen orrikoan baitugu; beraz, RS-en bitartez ezagutu bazuen Darmstadt-ekoak galduztako zatiren batetik ezagutu beharra zuen. Bidebatez, ikus 13. oharra.

521. Pobre, *chiroa, arlota, landerra*.

Lehena RS-eko hainbat lekutan dela (esaterako 3 *Aberassoc jaya daude / chiro gajooc veti neque...* «Los ricos tienen fiesta / y los pobres cuytados siempre trabajo...») diosku M-k eta orobat bigarrena (25, 329, 493). Hirugarrena iturri bereko 265 *Ondo eguioc landerrari / Iayncoac diquec donari* «Haz bien al pobre / dar te ha Dios galardón».

Azkena soilič pasarte horretan har zezakeen eta den kuadernotxoan delarik L-k orrialde hori ezagutu zuela badakigu: beste bi hitzei dagokienez M baino zehatzago izaterik bada: *chiroa ez zen RS 3-tik hartu, noski, eta ezta chiro 435etik, ez chiroac 467, 493tik eta ezta chiroari 78tik ere; hots, gelditzentzaigun aukera bakarra 314 chiro dugu.*

Arlota-ri dagokionez ere 329.a dugu hautagaia eta ez beste biak.

534. Prenda, *baya*.

RS 523 *Baguila, sey goseen bayla* «Junio prenda muerta de los niños muertos» demosku M-k baina Land.k («prenda vaya») eta Ax.ek ere (80, etab.) badutela gaztigatuaz.

523. errefrauau 4. kuadernotxoan izaki eta hiztegi-iturriek duten lehentasuna kontuan izanik, Land. bide da hemengo iturria.

542. Probar gustando, *elicatu*.

M-k Ax.en zenbait pasarte hobesten ditu RS 57-ren aurrean, honen itzulpena «mantenerse» baita; haren arrazoiari errefrauaren kokapenarena gehi geniezaiokorain.

563. Raposo, *luquia*.

Ikus gorago § 12, RS 437.

575. Reñir, *arritu*.

«RS 52, muy semejante al 386: *Unayoc arri citean / gastaeoc aguir citean* «Los pastores riñeron, los quesos parecieron» diosku M-k; dagoeneko azaldu arrazoiengatik 386.ekoan bide da iturri zehatza eta ez 52.ekoan.

582. Roble, *arecha*.

RS 279 *Arecherean artera / ecandu gaxtoa arçayten da* «Del roble al ençino / se toma mala costumbre» ematen du M-k iturritzat, zuzen, RS 37 eta 109.ean «bellota» itzultzen dela gehituaz.

Azken biak 1.ko kuadernotxoan direlarik orain badakigu zergatik L-k ez zuen bildu itzulpen arraroago hori.

604. Sesó, juicio, *cenzuna*.

RS 289 *Hule luzea ta cençun chaburra* «Cabello largo y seso

corto» dakar M-k, RS 481ean ere itzulpen bera dela markatuaz, RS 7ko «entendimiento»ren aurka.

481.ekoan beharrezko ez delarik sarrera azaltzeko, RS 7 zergatik jaso ez zen ere ezagun dugu jadanik.

614. Sombra, gueriza, itzalgaizca.

RS 371 eta 495, *Gextoac on jaunen guerizan* «Los malos, buenos a la sombra de los señores» eta *Edoceyn hulec bere gueriza* «Cada qual pelo su sombra» aurkezten ditu M-k lehenaren iturritzat; aski dugu lehenarekin noski.

615. Tizón, supita, ichindia.

M ohartua zen dagoeneko RS 32 *Anbiolaco supitac eguiac* «Refranes del tiempo pasado uerdades» itzulpenaren aldetik urrutti gelditzen zela sarrerakotik; orain bere tokia, 1. kuadernotxoan gehi genezake, ia erabat ezinezko eginaz hautagaitza. IZATEKOTAN ere galduztako zatitik.

616. Tragar, irunsi.

RS 37 *Caden charriac arech obea yrunti* «El cochino torcuelo traga la mejor bellota» eta 214 *Ysasoac errecaac / yturriac ta ybayac yrunti* «La mar traga los arroyos, los ríos y las fuentes» ditu M-k iturritzat; bigarrena soiliik, noski.

617. Vengarse, aspertu.

«RS 10 Aspertu banequio asper lequiquet» «Si me lo yo vengasse vengarse meya». También RS 361 y 362» dio M-k.

Azken biok dira (361 *Sayra noçu asper çaquidaz* «en la buytadera me teneys, uengaosme» eta 362 *Sayra noçu asper/rjetan gach eztoçu* «en la buytadera me teneys, no os será difícil el uengaros»), jakina, litkeen iturri bakarra Darmstadt-eko alean gordean artean, bestea L-k czagutu ez zuen orrian baita.

618. Vianda, gondura, oquelea.

Lehena urrutiegi dela bilduman agertu *gondu* «provecho»tik eta bigarrena RS 176 (*Escurean haora / oquelea galdu doa* «De la mano a la boca / la tajada se suele perder») eta RS 468n (*Catuac daroean oquelea / gueyago da verea ze ez eurea* «La tajada que lleva el gato / más es suya que no tuya») ematen dela dio M-k (1970, s.u.).

Aski genuke 2. kuadernotxoko 176.arekin 4.eko 468.a gabe.¹⁹

619. Virote, matrazua.

M-k «RS 51 Vrdeen buztanez / matraçu onic ez» «De rabo de puerco / no buen birote» casi igual al 485 (*Charri buztanez*): la voz ocurre con igual traducción en el 228» diosku.

¹⁹ Alabaina, B. Urgellek gogoratzen didan bezala, E-n benetan datorrena *oquelia* dugu, -i-rekin. Nik Mixelenaren irakurketa jarraitu dut hemen bestetan bezala eta litekeena da forma hau Larramendiren hutsa izatea (nolanahi ere, RS-en ezin eriden zezakeen *a+a > ia*); HH-ean s.v. «carne» badu dagoeneko *oquela* eta *gondura* agertzen da s.v. «vianda»-o.

Bada, itxura guztien arabera 228.ekoan dugu eta ez 1.ko eta 4. kuadernotxoko beste biak, benetako iturria.

689. Zapatero, *cirola*.

M-k RS 21 *Zitel zirola, noc gudura aroa* «pusilánimo çapatero quién te lleva a la guerra» eta 275 *Aroz dinean cirola osqui guichi ur/rjatu doa* «cuando el carpintero se haze carpintero pocos çapatos se desgarran» dakartza.

Bigarrena izan daiteke soilik iturria.

14. Darmstadt-eko alean ez diren zatiez eta behin-behineko ondorioak RS osoaren tamainaz

Goian Oihenarten alearen tamainaz eta bertan izan zitezkeen Darmstadt-ekoan gorde zatiez aritzean 17,7 orrialde edo atera zaizkigu, 16ko kuadernotxoka antolaturik izaki liburua kuadernotxo bakar bat (136 bat errefrau) ala bi (272 bat errefrau) evezagun²⁰ gehiago izan zitzakeen ezin erabakirik, hurbilegi baita gutxi gorabeherako kopuru hori kuadernotxo bakarraren orrialdeetarik. Ez genekien ere kuadernotxo eta errefrau horiek Laramendirenak zituen berak ziren ala bestelakoak. Azken puntu hau garrantzitsua dugu zeren eta, batera ala bestera izan, Iruñeko osoa Darmstadt-ekoaren 539 ezagunetarik gutxienez 800 inguruko edota 1000tik gorako ikusia izatera iritsiko bailitzateke.

RS-eko zati galdukozat Mitxelenak aipatu *E*-ko hitzen eta Oihenartek gordetako aleko 20 errefrauen azterketa bide da auzi hau erabaki bidean sartzeko lanabes sendo bakarra. Segidan ematen ditut berriz bi lekukotasunok errefrauiei zenbakuntza berria eta *E*-ko hitzei dagokien erdal sarrera emendatuaz:

- 540. *Ynardun badaguic ez doquer [sic] besterenic.* «Si continuas en el trabajo, no tienes neccssidad de otro»;
- 541. *Ojal ona buchan saldu doa;*
- 542. *Vrrineric ospea erricoa obea;*
- 543. *Saldabaga altamia ozaf.Jtan ez dilist[.ia];*
- 544. *Ihubuñenerean boxtuac bulea;*
- 545. *Otu doneari ygarartean nequea;*
- 546. *Guicón onac azcurriac bere;*
- 547. *Ecandu gasstoari bernea ausi;*
- 548. *Bartia eder eguic;*
- 549. *Maya ta vide lucea gastigaturic (enseñanza);*
- 550. *Jaunen hotua oy da aguindua;*

²⁰ Mitxelenak RS-ekotzat jo hogeik barne, noski.

551. *Emazte dollorren jaubea jopu;*
 552. *Maiaz ozac dacaz pozac;*
 553. *Garrastu adi icasterren ta neca adi euterren.* «Sufre por aprender y trabaja por tener»;
 554. *Bere burhua ezauntea da jaquitea;*
 555. *Gastelaunia neguia senar, oñean arr ta beguiar negar;*
 556. *Esquerrac yndasz ce onderexta ene gauçary;*
 557. *Ene laba aldian labefaz jausico zan;*
 558. *Ilbeeren ereyn ceguic arean;*
 559. *Onerextea dodan lecuan jarri daquidala egusquia.*

E-ko hitzei dagokien erdal sarrera jarri zaic:

- | | |
|--|--|
| 16. Adelante, <i>achiti.</i> B-M. | 189. Degolladero, <i>gargolla.</i> |
| 23. Agua salada, <i>cresala.</i> B,
RSgald. | 194. Descalzo, mal vestido, <i>orthusa,</i> ortoza. (?); RSgald. |
| 24. Agua de tempestad, <i>oste-</i>
<i>leuria.</i> Goiherri, B?. | 197. Descuido, <i>oldozquera.</i> RS- |
| 29. Albricias, <i>emayenac.</i> RSgald. | <i>gald.</i> |
| 33. Alegría, <i>pozcaria.</i> B. | 236. Endrina, <i>arana.</i> RSgald. |
| 41. Amarilla, <i>larua.</i> B, RSgald. | 254. Espera, <i>zayoia.</i> B. |
| 54. Aplacar, <i>ibiretu.</i> B?. | 256. Estéril muger, <i>senguea.</i>
RSgald. |
| 76. Atreverse, <i>azartu.</i> | 258. Estiercol, <i>gortaisa.</i> RS- |
| 77. Atrevido, <i>azarria.</i> | <i>gald.</i> |
| 89. Bailador, <i>triscaria.</i> | 276. Fiel, equilibrio, <i>obua.</i>
RSgald. |
| 90. Baile, <i>trisca, tritea.</i> | 280. Forma, manera, <i>canora.</i> B
/L. |
| 94. Bartolomé (San), <i>done Ma-</i>
<i>tro.</i> B? | 285. Fresno, <i>lejarra.</i> RSgald. |
| 101. Bodas, <i>ezteguac.</i> RSgald. | 297. Gordo, grasiendo, <i>mardu-</i>
<i>la.</i> M. |
| 107. Cabezón, <i>fresa.</i> RSgald. | 302. Guardar, <i>jagotu.</i> RSgald. |
| 121. Carga, <i>seldorra.</i> RSgald. | 305. Guisar, <i>guertaetu, guertu-</i>
<i>catu.</i> RSgald; RSgald. |
| 123. Casera, hacendosa, <i>urená,</i>
<i>azquina.</i> RS 210; RSgald. | 321. Hijada, <i>meaca.</i> B ?. |
| 131. Cena, <i>coitiguia.</i> B? | 335. Inclinación, <i>curea.</i> M ?. |
| 137. Citar, <i>acotatu.</i> B? | 338. Ingle, <i>iztegia.</i> RSgald. |
| 146. Colmo, <i>gomburua.</i> RS- | 344. Inquieto, <i>guiraquea.</i> B ?. |
| <i>gald.</i> | 351. Justo, al justo, <i>obuan.</i>
Vide 276. |
| 148. Comedirse, <i>milstu.</i> B? | 365. Lentisco, <i>garchua.</i> RS- |
| 160. Continuar, <i>erago.</i> B. | <i>gald.</i> |
| 163. Corba, <i>zancabia.</i> B. | 380. Lindero, <i>huerguina.</i> RS- |
| 165. Cortijo, <i>gorta.</i> B. | <i>gald.</i> |
| 174. Cuenca de los ojos, <i>be-</i>
<i>tzuloa.</i> | 384. Lombriz, <i>bicioa.</i> RSgald. |
| 181. Curiosa, <i>cicoza.</i> RSgald. | |
| 187. Danza, <i>trisca.</i> | |

425. Mollera, *baldoquia*. B.
 426. Molleja, *parapardina*. M.
 435. Muerte, *balbea*. B.
 445. Nervio, *siracha*. RSgald.
 451. Quien con niños se acuesta, sucio se levanta: *seyacaz echun dina uczcari jaigui da*. RSgald.
 458. Nuez de garganta, *gorgolla*. RSgald.
 472. Orina, *garnua*. RSgald.
 484. Papera, *acizurria*. RSgald?
 503. Peligro, *galenda*. RSgald?
 508. Pensar, *oldoztu*. Sin pensar, *oldozqueran*. Vide 197.
 519. Plata, *cirarra*. RSgald.
 545. Buen provecho, *essé* (?).
 554. Puta, *ollaquea*, B.
 564. Rayo, *arri iraztua*. RSgald?
 (?) = Iturri ezezaguneko; B = Mitxelenak bizkaieratzat emana;
 M = Mitxelenak mendebalekotzat emana; RSgald = Mitxelenak RS-en galduztako zatikotzat proposatua)

Badirudi Larramendi presatua zela 540 *ynardun*, 543 *altamia*, *dilistia*,²¹ 549 *gastigaturie*, 553 *euterren* eta besteren batez ez ohartzeko; Oihenartek ere oso alper edo beldur behar zuen izan, testu elebidunaren aurrean, Larramendik Darmstadt-eko alean ez baina Iruñeko aldez osoagoan irakurri eta E-n ezarritako 16 *achiti*; 23 *cresala*; 24 *osteleuria*; 33 *pozcaria*; 41 *larua*; 76 *azartu*; 101 *ezteguac*; 107 *fresa*; 121 *seldorra*; 123 *azquina*; 131 *coitignia*; 146 *gomburua*; etab., edota 451 *seyacaz echun dina uczcari jaigui doa* bezalako pasarteetarik²² halabeharrez ere bakar bat ez hartzeko.²³

Gauzak honela, Mitxelenak E 58ko *buchan* Oihenartek ezagutu RS-eko zati galduaren bidez (541 *buchan*) azaltzen duclarik, eta hapax baten aurrean garela edota ezinezko dela galduztako kuadernotxoetan bat baino

²¹ Ez bide zuen RS 50 *tilista* ezagutu ahal (cf. gorago) eta ez du E-n biltzen; baina bada *dilistea* «lenteja» E-n s.u., nahiz eta Landuccirengandik hartua izan. Hortaz ez zuen —ezaguturik ere— Oihenartek jasoa bildu beharrik.

²² Litkeena, noski zertxobait etorkizunean haztertu beharra RS-eko zati galduzik ez baina ahorko euskaratik edo beste iturriren batetik hartuak balira; nago, ordea, gutxi horiek argudioaren funtsa nekez uki dezaketeela.

²³ Alabaina, gogoan izan bedi Oihenart errestrau bila ari zela, ez hitz bila.

gehiago izatea²⁴ ezin esan bada ere, *E* 356 «ladrón *ubuna*»-rekin (cf. *RS* 544 *bubuñ-*) biltzen badugu ezin esanguratsuagoak iruditzen zaizkit bai grafiagatik, bai (cf. Lakarra 1991a) grafia horretara heltzeko *RS*-en bide zuenetik ezarri zitzazkion aldaketei dagokienez. Oihenartek dakarren *RS* 546 *azcurriac* Mitxelenak nahi bezala (1970: 111) *aciçurriac* «páperas» irakurri behar bada *E* 484 s.u.-n egin legez, edota —gorago mantendu dugun bezala— *arean* ez Mitxelenak eman *RS* 526 *Hordia ganic ençindu çe egunic arean* «De borracho no fies nada»-tik baizik eta *RS* 558 *Ilbeieran ereyn ceguic arean* Oihenartek ezagutu zatitik baletor, arrazoi are sendoagoak genituzke Oihenartek eta Larramendik, partez bederen, *RS* galduaren zati berberak ezagutu zituztela edota, zehatzago, galduetako zati berauen arrastoak baino ez zizkigutela utzi.

Datuon aurrean Larramendik eta Oihenartek, galduetako zatiaren bi kuadernotxo, 32 bat orrialde, gchiagoren berri ematen digu, Larramendiaren aleak zituen 60 orrialdeetara iristeko Darinstadt-ekoaren 2. eta 3.az landa behar genuena, hain zuzen.

15. Excursusa. *RS Hiztegi Hirukoitz*-aren gorputzean?

Galdera batekin amaitzen nuen aurreko lan batean (Lakarra 1991a) Harriet eta Larramendiren erlazioaren azterketa: *H* eta *E*-ren artean iku-sitakoaren nolakoa ikusi ondoren, «ongi ulertu izan ote da *L-k HH*-aren hitzaurrean (xxxv. or.) *H*-z esandakoa?

Acaba de imprimirse una Gramática de Bascuence, y Francés, por su Autor Monsieur Harriet, con muchas curiosidades, y un Diccionario cortito del Bascuence, y Francés, todo en octavo; cuyas voces con otras, que le faltan de su Dialecto, se hallarán en mi Diccionario.

Itxura batean badirudi zenbait lerro beherago deskribatzen eta epaitzen duen Landucciren hiztegiarekiko juzku gaizto bera errepikatzen dela hemen ere; hots, *H* ez zaiola batere baliagarri gertatu bere urrian, hura ateraterakoan inprimategian edo harako bidean zuen bere hiztegian bilduak baitzituen dagoeneko han diren eta bertan falta diren iparraldeko hitz anitz. Bat edo beste peitu zituela konturatuaz inprimaketa amitzera-koan, berriz *H*-ra bihurtu eta hango zenbait hitz jasoko zituen *E*-n.

Haatik, dagoeneko bagenuen itxura eta sasaiorretan ez gelditzeko ziorik eta emaitza onik izan nuen (cf. Lakarra 1991a, 1993, 1994a) *H* aldamencan ezarririk *HH* barrena ostera txiki bat egitea erabaki nuenean:

²⁴ B. Urgelk gogoratu bezala, basen *ucha* / *cucha* *HH*-aren gorputzean s.u. *arca*: «esta voz la tomó sin duda el latín de el bascuence *arca*, con que significamos los arquetones muy grandes, a diferencia de las arcas menores, que llamamos *cuchá*, *uchá...*». Berak diostan legez, seguruenik *uchá* «aldaera» *etymologiae causa* asmatua dugu beste anitzetan legez (cf. Urgell prestatzen). Nolana hi ere den, gertakari honek sendotu baino ez du egiten testuko azalpena.

- Agradable, [otzana, onirizgarria, emagurria], *naicaria* : agreeable, *nabicaria*.
- Agrio, [gacia], *miña*; agrura, acrimonia, [gacitasuna], *mintasuna* : aigre, *miña*; aigreur, *mintassuna*.
- Apetencia, apetito, [gogoa, naya, ganá, zalea, trempea], *jambidea* : appetit, *janbidea*.
- Arrogante, [arrotia, arrutia] *fursfuiatsua* [*facatia, antusteduna*] : arrogant, *fursfuiatzua*.
- Auditor, *aditzallea* [*enzunlea*] : auditeur, *aditçaillea*.
- Banquete, *jatequeta*, [*oberaria, oturunza, bonaza*] : banquet, *iatequeta*.
- Bañar, [*ureztu, urtan sartu*], *maiñatu*; [*busti*], baño, [*bañua*], *maiñua*, [*urezguitia, bustialdia*] : baigner, *maiñatcea*; bain, *maiñhua*.
- Barbero, [*bizarquiña*], *bizarguillea*, [*bizarquenlea, bizarmochallea*] : barbier, *bicarguillea*.
- Bestia, [*aberea*], *abrea, atzienda*; bestialidad, [*aberequeria*], *abrequeria*, [*aberetasuna*] : bête, *abrea, atcienda*; bêtise, *abrequeria*.
- Blanqueador, *churitzallea*, [*zuritzallea*] : blanchisseur, *churitçaillea*.
- Cadaver, *gorputzilla*, [*illotzá*]; cadavre, *gorpuzhilla*.
- Capricho, [*hisia, burutacina*], *burcoitasuna*; [*burujaira*], caprichoso, [*hisitia, burcoitsua*], *burcoitsua* [*burujairra* (sic)] : caprice, *burcoitassuna*; capricieux, *burcoixua*.
- Carnoso, *araguitssua*; carnal, *araguicoia*, [*araguitarra*] : charnu, *haraguitssua*; charnel, *haraguicoia*.
- Carpintería, [*arozquintza, zuarozquintza*], *zurlana*; carpintero, [*arotza, zuarotza*], *zurguina* : charpentier, *çurguïña, maistria*; charpenterie, *çurlana*.
etab.

Horrenbestez L-k H *HH*-aren gorputzean bertan, ez soilik *E-n*, erabili zuela baieztagen zen, huts bateratzaile parea ere horren alde zetorreala: L-k «caza de aves, *ihiza*», «cazador, *ihiztaria*»; «cazar, *ihiztatu*» dakartza, < h > horiek, hitz barneko kokagune horretan, ez dute zalantzarik uzten iparraldeko iturri idatziren baitetik hartuak direla, beste askotan bezala gorde duclarik puntu horretan iturburuaren grafia: cf. «chasser, *ihiztacea*», «chasse, *ihicia*», «chasseur, *ihiztaria*». Bigarrena H «bagatelles, *chirebilqueria*» L «bagatela, *chireilqueria*» da, iturburuko formaren zuzentasuna emandakotzat joaz, mailebatzailea < h > kentzera mugatuaz.

Nago bazela *E-ko H-en* erabilera H eta *HH*-aren azterketa erkatua eskatzen zuen arrazoi formalik: Laramendik *E-n* egindako H bere itu-

rriaren erabilera mia bagencia, ohartuko bide ginateke erabilera hori ez dela bat eta bera *E*-ren zati guztietan. Segidan ematen dut osoan edo zatika *H*-ren bitartez azaldu *E*-ko sarreren multzoa:

5, 12, 15, 18, 26, 31, 66, 75, 79, 96, 103, 105, 125, 138, 144, 149, 150, 154, 156, 157, 169, 171, 175, 176, 195, 196, 203, 227, 247, 251, 259, 261, 264, 266, 270, 332, 333, 352, 362, 368, 370, 372, 373, 376, 377, 379, 391, 401, 405, 407, 409, 410, 413, 423, 428, 433, 436, 446, 452, 460, 462, 463, 464, 465, 470, 481, 487, 489, 491, 496, 497, 498, 499, 502, 507, 509, 510, 522, 523, 527, 532, 533, 534, 538, 551, 552, 593, 594, 600, 603, 608, 610, 611, 616, 617, 622, 624, 625, 629, 643, 645, 649, 655, 656, 657, 659, 661, 671, 672, 674, 675, 676, 678, 680, 686.

Ene kopuruuen arabera 10 dira lehendabiziko 100en artean, beste 16 100.etik 200.era, 9 hortik 300.era, 12 handik 400.era 26 gero 500.era. 15 hortik 600.a bitarte eta beste 27 akaburengoa 691.era arte. Honetako berez ez zukeen beharbada gauza handirik adieraziko, aldakorra izaten baita usu iturri erabilera, are testu bakarrean ere. Alabaina, § 8.ean ikusi bezala, hiztegigilea iturriko erdararen eta berak sarreratzat erabiliko duen erdararen arteko hotskidetasunaz baliatzen delarik hitz bat sartzeko edo kanpoan uzteko, eta frantses-euskara delarik iturri nagusi —ia bakar— (cf. Lakarra 1991a eta 1994a) azaldu beharreko bilakatzen zaigu *E*-ko lehen zatian 37 baino ez izatea *H*-tik jasoak bigarreneko 68ren aurka; hau da, *E*-ren bigarren zatian *H*-ren erabilera ia lehendabizikokoa halako bi izatea. *E*-ren erdia 395-396.ean jarri beharrean zertxobait aurrerago 329-330ean jar bageneza are bistakoago litzateke 1.koaren eta 2.goaren arteko desoreka: hogeitabost larogeiren kontra.

Esango nuke badela arrazoi erabat praktikoa honela gerta dadin: proba zuzenketak czagut ditzanak badakike azken orduko gehiketak ez direla ematen hein berean liburuaren zati guztietan, eta ez soilik (edota, ez batez ere) gehitu beharren arabera ihardun ohi delako; presak eta aukerak zuzen gchiago izan ohi dute. Ez ote zen horrelakorik gerta *Hiztegi hirukoitz*-ean ere? Bai ene ustez. 329.ean amaitzen dira *E*-n *H*-letraren sarrerak eta 330.ean hasten *I*-renak; baina, *Hirukoitz*-ean *H*-ak amaitzen du lehen liburukia eta *I*-ak hasten bigarrena. Ez ote da *E*-ren bigarren zatian areagotuko Harrieten erabilera dagoceneko *HH*-aren gorputzeko lehen liburukian handik sartu nahi zuen gchiiena sartua zuelako baina ez aldiz bigarren liburukian? *HH*-era bihurtu eta Harrieten erabilera sistematikoago ikertuaz hara zer eriden dezakegun:

dardo, dardua, azagaya, cho-choa: dard, chochoa.
decidir, debedi, debeditu, era-

baqui, erabaquitu, trenca-tu: decider, trenquatcea.

diezmo, amarrena, dechema:	fantasía, irudiquiña, oldea:
décime, dixme, hamarrena, detchema.	fantaisie, oldea, fantasia.
defecto, gabenda, utsaldia, itena, baña, saltá, escasa:	fuego, sua: feu, sua; fuegos por fiestas, suberriac: feu de joye, subterria.
défaut, baña, escasa.
disgustar, higindu, hastandu, descustatu, mincaistu, ira sartu: dégouter, higuincea, hastancea; disgusto, enfado, higuintza, descustua, mincacha, ira, chimicoa: dégout, higunça.	guante, achorroa, escularrua, guantea: gants, escularruac.
.....	generoso, motalaya, ecarguiña: genereux, ekharguiña, biçarroa.
efecto, ecarraya, eguiundeara, econdea: effet, eguiñquendea.	genio, manua, ancia, ancea, etorquia: genie, maiña, ancea.
elección, auta, autesá, autacunza, auquera, iracurtza: election, hautaçunça.	gesto, gesticulación, queñua, higuidura, siñua, egira-mua: gestes, higuidurac.
entendimiento, aditza, adimentua, adiera, adiquiña, adaira, centzua: entendement, adimentua.	gentilhomibre, el noble, ezcurtaria, aitorensemea: gentil homme, aitorensemea.
emprender, mellatu, equigotu: entreprendre, mellatcea.
entrada, sarrera, sarcunza, sarbidea, sarrilguia, sartztea, barrutea, battendea: entrée, sarrilguia, sarkunça, sarbidea.	historia, condairá, esagaroa, lempiztea: histoire, conde-ra, istorioa.
.....	honestidad, honestasuna: hon-néteté, onestassuna.
fácil, erraza, eguiñcara, aisa: facile, eguiñcara, errecha.	horrible, lardazquigarria, biguingarria: horrible, bi-guingarria.
familia, familia, echadia, dia-pea, mainada: famille, mai-nada.	humilde, esta y la voz latina humilis vienen de el bascuence humilla o umilla, que significa lo mismo, y humilla sale de hume illa, criatura apagada, y como muerta, y es lo que oportunamente, se dice de el humilde. Umilla, manuguiña, etorcorra: humble, manuguiña, umilla, ethorcorra.
famoso, famatia, famatsua, deitatua, ospetsua, otsandiduna, omenduna: fameux, leloxua, deithatua, ospexua.

Lakarra 1991a²⁵ eta 1994a-n Harrietenarekin bezala, E-n egin RS-en

²⁵ Iku § 10 H-ren eta L-ren erdara diferenteek E-ren iturriei dagokienez (eta ondorioz HH-arenenez) duten garrantziaz.

erabilera baliatzen saiatu behar genuke bertan izan litekeen distribuzio arrarotasunen baten aurrean erabileraren nolakoaz eta, bigarren graduan, Larramendiren *RS*-en alearen izaera edo tamainaz zerbait ateratzeko asmoz.

Emaitzek, ordea, espero baino are berdintasun handiagoa islatzen du-te *Hirukoitz*-aren *Eranskin* osoan zehar: beste iturriarekin, Harrietekin, ikusitako desorekaren aurka, 61 hitz dira *I*- letra arte *RS*-etik hartuak, 16 Mitxelenaren ustez *RS*-en zati galduak eta 37 etorki zehatzik gabe emanak; handik eta amairara 64 *RS*-eko, 16 *RS*-en galduak zatikoak eta 37 etorki zehatzik ez dutenak.²⁶

Horrenbestez,—eta gogora bedi Larramendik dioenez kuaderno zaharra azken orduan baino ez zuela eskuratu—ez da arrazoi berezirik *RS*-en eragin apartekorik *Hirukoitz*-aren gorputzean, ez lehen alean ez bigarrenean itxadoteko eta izan ere ez dut egin dudan azterketan oraingoz honclakorik lortu; abian diren ondorengo lanek izango ahal dute ideia hauek baiezatzeko edo ebezatzeko aukerarik.

16. Ondorioak

Aurreko lan batzuetan bezala (ik. Lakarra 1986a, 1990a *RS*-en testukritikaz²⁷ eta 1991a, 1993 *HH*-aren *E*-z), honetan ere helburu metodologikoak izan ditugu, testukritikaren metodologiazkoak, hain zuzen. Izen ere, testu bateko honako edo harako hitzaren jatorrizko pasartea zehaztea lexikografoci ez bide zaie lan premiazkoa edota presa gorrikoa begitanduko; seguru asko inoiz osorik eskuratuko ez dugun ustezko testuaren oso-tasun teorikoa erdiestea hain guti.

Testukritika ikersail autonomotzat edota berariazko intereskotzat dugunok, aldiz, Mitxelenak bere lan ezagunetan bi alorrotan (Mitxelena 1961, 1967, 1970, etab.) erdietsi emaitzak euskal testu tradiziorako oso garrantzitsu direla ikusirik, miatu nahi izan ditugu, duten segurtasuna pisatu eta azaleratzeko eta etorkizuncan beste antzeko saioaren batean be-rregiteko aukera izan dadin.

Kapitulu honetan itxura batean lehendik egindako eta, gainera ederki burututako *RS*-en eragina Larramendiren *Hiztegi Hirukoitz*-aren *Eranskin*-ean berrikusi da; orobat horrekin neurri batean lotua den Iruñean

²⁶ Zifra hauek Mitxelenaren ikerketari lan honetan egin orrazketen ondokoak dira eta *RS*-ekotzat hark jo eta nik bestelako azalpenik eman kasu orotan testuan espreski eztabaidatzen da; etorki ebezaguetaoetarik argiro ekialdeko diruditen hiru («478. Pajar, aozteguia»; «479. Palmo, cebea»; «480. Palma de la mano, escueda») kendu dira. Nolanahi ere, ez dirudi azken hauek pisu handirik izan dezaketenik batera zein bestera.

²⁷ Ikus hemen 1. eta 2. kapituluetako bertsio hobetuak.

argitaratzen hasi zen eta Darmstadt-eko ale bakarrean osorik ez zen tamainaren arazoarena. Iturrien, bereziki hiztegien, azterketa formalak, ez atomista, beharrezkotzat agertu zitzaigun Lécluse eta Harriet (cf. Lakarra & Urgell 1987, etab.) aztertzean bi hiztegien alderdi bien arteko diferentzia nabarmenez ohartzean, edota *HH*-aren *E* eta Harrieten artean zirenak ikustean; azken honetan, esaterako, hain asimetrikoa zelarik *H*-en eragina *E*-n ezinbesteko gertatu zitzaigun *HH*-aren gorputzean horren osagarri (eta azalpen) izan zitekeenik agitzen zen miatzea. Era horretako hurbilketa batek emaitza onak eman zituen, ene usteko; orain *RS*-en eragina «simetriko» delarik *E*-n, horrelatsu izan behar dela *HH*-ean ere proposatu dut: hots, ez dela arrazoi berezirik itxadoteko lehen liburukian bigarrenean baino handiagoa / txikiagoa izan dadin. Eta nago —ondoko ikerketek izan bezate hau zehazteko aukera— hutsaren hurrengoa dela bai batean eta bai bestean.

Bana banako iturri azterketari aitzi edo horren lagungarri, egiturazko azterketa proposatu dut; hots, *RS*-en egitura —kuadernotxotan antolatua— kontuan izatea ezinbesteko iruditzen zait liburu horrek izan zezakeen zabalkundea eta, bereziki, *E*-n izan zuen eragina zehazteko; eragin horren egitura ere oso interesgarri begitantzen zait ituriaren tamaina (eta egitura) asmatzeko. Ene usteko, goiko tauletan (§ 11) laburtu azterbideak balio berezia du iragazki legez prozesu honetan, Mitxelenaren proposamen anitzen artean diskriminatzeko eta batzuk ezinezko (arrazoi semantiko eta formalengatik, *RS* barneko kokapenagatik, bereziki) eta besteak ez litezkeenatariko baizik eta beharrezko eta bakar bilakatuaz.

Testu emailearen barneko antolamendua giltzarri gertatu zaigu, Mitxelenak kasu berezirik egin edota etekin handirik atera ez bazion ere: Larramendik 1. eta 4. kuadernoak ez zituela funtsean ezagutzen —edota berreraiketarako haien lekukotasunik ez zigula utzi— frogatu ahal izan dugula esango nuke eta hortik, haren lekukotasunak izan dezakeen garantziareu arabera, Iruñeko osatzeko oiuariak ere lehen baino sendoago ikustea: Darmstadt-ekoak gorde ez zituen zatietarik Oihenartek eta Larramendik bi kuadernotxo gehiago bederen ezagutu zituztela eta Iruñeko orijinal osoak 96 orrialde eta 759 bat errefrau gutxienez bazituelan esan baikenezake.

17. Eranskina: *Refranes y Sentencias Hiztegi Hirukoitz-aren Eranskinean*

Ondoren datorrena 8-9. ataletan bildu Mitxelenaren emaitzen ene berrikuskapenaren ondorioak dira. Irakurlea ohartuko denez, ez da Larramendiren *RS*-ekiko zorra handitzen (ezta gehiegiz gutxitzen ere [cf. halere 48, 60, 64, 134, 298, 323, 468, 511, 534 eta 563. sarrerak]) baizik eta zehaz-

ten (ez beti erabat [cf. 27, 201, 303, 355, 382, 387, 585], baina bai gehienetan [6, 152, 200, 220, 251, 269, 271, 305, 322, 324, 326, 328, 347, 418, 437, 439, 506, 521, 534, 575, 582, 604, 614, 650, 668, 673, 677, 689]) Mitxelenak (1970) aurkeztu aukeren artean gorago atondu dugun azterketa formalak ezarriaz.

6. Abril, *opea*. RS 266.
7. Abundoso, *liscoa*. (?)
8. Acabarse, *asacatu*. RS 171.
16. Adelante, *achiti*. De aquí adelante, *equix*. B / M; RS 331.
20. Agacharse, *uzcurtu*. RS 251.
21. Agarrar, *oratu*. RS 144.
23. Agua salada, *cresala*. B, RSgald.
24. Agua de tempestad, *ostelerria*. Goierri, B?
27. Alagar, *leusindu*. RS 295, 372.
29. Albricias, *emayenac*. RS-gald.
33. Alegría, *pozcaria*. B.
37. Alquilar, *alugadu*. RS 388.
39. Amante, *oneretsia*. RS 242.
41. Amarilla, *larua*. B, RS-gald.
43. Amor de la lumbre, *sutanza*. RS 323.
48. Andas de muerto, *zarraldoa*. RS 420.
58. Arca, *bucha*. RS 541.
60. Armas, *isquiliuac*, *isquilosac*. RS 404.
65. Arrojar, *uritgui*. RS 405.
74. Atolladero, *luparia*. RS 367.
76. Atraverse, *azartu*. 77. Atrevido, *azarria*. 78. Atrevimiento, *azarcunza*. RSgald.; RS 383; RS 165.
86. Ayudar, *urgaci*. RS 339.
94. Bartolomé (San), *done Matro*, B ?
101. Bodas, *ezteguac*. RSgald.
107. Cabezón, *fresa*. RSgald.
109. Caduco, *irola*. RS 185.
118. Cansar, *oñatu*. RS 365.
121. Carga, *seldorra*. RSgald.
123. Casera, *hacendosa*, *urena*, *azquina*. RS 210; RS-gald.
131. Cena, *coitiguia*, B?
137. Citar, *acotatu*, B?
146. Colmo, *gomburua*. RS-gald.
148. Comedirse, *milistu*, B ?
152. Como, *laso*, *leguez*. RS 344, RS 195.
160. Continuar, *erago*. B.
162. Contrahecho, *maquerra*. RS 290.
163. Corba, *zancabia*. B.
165. Cortijo, *gorta*. B.
171. Costumbre, *ecandúa*, RS 156.
180. Cuña, *ciya*. RS 182.
181. Curiosa, *cicoza*. RSgald.
184. Dádiva, *emaya*. RS 175.
185. Darasme y darete [sic] he, *iquedac*, *ta diqueada*. RS 233.
186. Darete, *diada*. RS 174.
188. Dañoso, *gaso*. RS 141.
191. Dedo meñique, *chircandeia*. RS 192.
194. Descalzo, mal vestido, *orthusa*, *ortoza*. (?); RS-gald.
197. Descuido, *oldozquera*. RSgald.
200. Desdichado, *ertuna*. RS 408.
201. Deseo, *guraria*. RS 164, 248.

204. Desperdiciador, *cimbota*. RS 259.
220. Duende, *irachoa*. RS 301.
233. Encender, *etsequi*. RS 399.
235. Encontrar, *jarrugui*. RS 341.
236. Endrina, *arana*. RSgald.
237. Engaño, *ogena*. RS 243.
245. Escarmentar, *Inertu, galendu*. RS; 299.
251. Espalda, *quibela, acia*. Cf. RS 299, 466; H.
254. Espera, *zayoa*. B.
256. Estéril muger, *senguea*. RSgald.
257. Estercolar, *sasitu, sastu*. RS 236.
258. Estiercol, *gortaisa*. RSgald.
262. Estrechar, *arbindu*. 263. Estrecho, *arbina*. RS 260.
269. Falsía, *trancarta*. RS 272.
271. Fama, *ospea*. RS 188.
273. Fea cosa, *ezaya*, RS 242.
275. Fiador, *astoia*. RS 249.
276. Fiel, equilibrio, *obua*. RSgald.
277. Fin, postre, *atzaga*. RS 302.
280. Forma, manera, *canora*. B /L.
285. Fresno, *lejarra*. RSgald.
292. Galardón, *donaria*, RS 265.
297. Gordo, grasiento, *mardula*. M.
301. Gruñir, *oñon egin*. RS 305.
302. Guardar, *jagotu*. RSgald.
303. Guerra, *gudua*. RS 185, 331, 383.
305. Guisar, *guertaetu, guertucatu*. RSgald; RSgald.
314. Hallar, *jarrequin*. RS 344.
315. Harina, *buruna*. RS 287.
317. Heredar, *jaraunsi*. RS 319.
318. Hermitaño, *parraña*. RS 220.
319. Hiérele, pégale, *iac, iyac*. RS 272.
321. Hijada, *meaca*. B ?.
322. Honor, *andizura*. RS 392.
324. Hogar, *escaratza*. RS 238, 469.
325. Hozar, *induscatu*. RS 379.
326. Huérfano, *zurtza*. RS 199, 450.
328. Huir, *ines, inesi*. RS 243, 422.
330. Igual, *burquidea*. RS 295.
335. Inclinación, *cirea*, (?)
337. Inexcusable, *maemana*. RS 307.
338. Ingle, *iztegia*. RSgald.
341. Infructuoso, *jaibala*. RS 341.
344. Inquieto, *guiraquea*. B ?.
347. Jarro, *murcoa*. RS 191.
349. Julio, *garagarrilla*. RS 313.
350. San Juan, *Doneane*. RS 254.
354. Ladrar, *eusi*. 355. Ladrido, *eusia, sainga, auná*. RS 380, 397; Ax 426; Land.
356. Ladrón, *ubuna*. RS 544.
365. Lentisco, *garchua*. RSgald.
379. Linage, *narea, bernagea*. RS 303.
380. Lindero, *hueraguina*. RSgald.
382. Llanos, valles, *ibarrac*. RS 211, 262.
384. Lombriz, *bicioa*. RSgald.
386. Malamente, *galduro*. RS 353.

387. Mala, *guestoa, deunga.*
RS 151, etab.; RS.
398. Mantenimiento, *elicatura.* RS 246.
400. Mañana, *biar.* Después de mañana, *etzi.* Dos días después, *etziluma.* Tres días después, *etzicaramu.* RS 410.
413. Menearse, *loca ibilli,* RS 398.
418. Mercado, *ceja.* RS 253.
419. Merino, *juez, ministro, ibarjauna.* RS 349.
425. Mollera, *baldoquia.* B.
426. Molleja, *parapardina.* M.
431. Morder, *esugui.* RS 72.
435. Muerte, *balbea.* B.
437. Nada, *arean.* RS 558.
439. Necesidad, *oparina.* RS 244.
445. Nervio, *siracha.* RSgald.
448. Niñada, *seizaroia.* 449. Niñear, *seizarotu.* RS 166;
450. Niño, *seyá.* 451. Quien con niños se acuesta, sucio se levanta, *Seyacaz echun dina, uczucari jaigui da,* RS 560.
458. Nuez de garganta, *gorgolla.* RSgald.
459. Obero, overo caballo, *saruc.* Y el refrán, *saruc bat uste, tresnatzen dauenac beste.* RS 335.
460. Obligación, *eguipidea,* RS 215.
461. Obra, *bearra.* RS 149.
472. Orina, *garnua.* RSgald.
484. Papera, *acizurria.* RSgald.
485. Papo, *birapora.* RS 219.
505. Pendenciero, *ergarría.* RS 291, 443.
506. Pensamiento, *gogaya, gooa.* RS 395, 398.
519. Plata, *cirarra.*
520. Plaza, *celaya.* RS 241.
521. Pobre, *chiroa,* RS 265.
528. Portal, *atartea.* RS 238.
536. Prestar, *palagadu.* RS 388.
540. Principal, *hurrena, arrrena.* RS 317; G-GN.
543. Prohibir, *ecertu.* RS 407.
544. Provecho, *gondua.* RS 514.
545. Buen provecho, *essé.* (?)
547. Próximo, *gueidea.* RS 339.
554. Puta, *ollaquea.* B.
563. Raposo, *luquia.* RS 437.
565. Rebaño, *elia.* RS 235.
573. Renegar, *izpizatu.* RS 370.
574. Rencor, *enquina.* RSgald.
575. Reñir, *arritu.* RS 386.
581. Ribera, *huarriza.* RSgald.
582. Roble, *arecha.* RS 279.
583. Rocío, *azaroia.* RSgald.
585. Rogar, *otu, oyutu.* RS 217, etab.; LE.
586. Rollo, *belorita.* RS 196, 197.
587. Roso y belloso, *abaresca.* RSgald.
589. Sábado, *laurembata.* RS 159.
595. Sazón, *aldiona.* RS 239.
601. Senda, *sendero, cidorra.* RS 367.
604. Sesos, *juicio, cenzuna.* RS 289, 481.
605. Siennes, *eraitoquia.* RSgald.
606. Siesta, *biaota [biaoa].* RS 366.
607. Siguele, *arrayó.* RS 183.
613. Sobrado, abundante, *coicatia [coicaria].* RS 497.
614. Sombra, *gueriza,* RS 371, 495.

627. Sustento, *saralea*. M.
 628. Tabernero, *chiriboguina*.
RS 373.
 632. Tapón, *zapotza*. B.
 633. Tasco, *erbatza*. M.
 634. Texado, *lauzatua*. *RS 210.*
 635. Telaraña, *amarauna*, *RS-gald*.
 638. Tenazas, *orricac*. *RSgald*.
 644. Tirar, *urtiguin*. B.
 645. Tizón, *supita*, *ichindia*?;
H.
 646. Toalla, *gurdichapa*. B ?.
 650. Tragar, *irunsi*. *RS 214.*
 653. Treguas, *meniac*. *RS 404.*
 656. Trueno, *iusturia*, *RS 201.*
 658. Turmas, *grisolac*. (?).
 660. Vado, *ubera*, *huerriza*.
RS 299; ikus 581.
662. Vara, *ciorrea* [*ciorraj*]. B.
 665. Vedar, *ecertu*, *guebendu*.
Ikus 543; RS 209.
 668. Vengarse, *aspertu*. *RS 361, 362.*
 669. Vestido, *jazquerea*, *jazcaya*. *RS 220; (?)*.
 670. A medio vestir, *jazqui*,
jazca. *RSgald*; id.
 673. Vianda, *gondura*, *oquelea*. (?); *RS 176, 468.*
 677. Virote, *matrazua*. *RS 228, 485.*
 679. Vitoria, *gurenda*, *RS 308.*
 680. Vivero, *nintegua*, *RS 207.*
 684. Uno, son para en uno,
ideco dira. *RS 403.*
 689. Zapatero, *cirola*, *RS 275.*
 690. Zapato, *osquia*. *RS 275.*

REFRANES Y SENTENCIAS-EN JATORRIA

O. Sarrera

Lehen kapituluan ikusi denez, A —zehazkiago, W, honeu orijinala— eta B errefrau bildumak Garibairenak dira, beren tamainak, A-ko kopia-gilearen egileazko lekukotasunak, A eta B-ko errefrauen ordenak, hizkuntz azterketaren ondorioak, A-ren ekoizpena ulertzeko B ez den iturri baten beharrak eta A eta B-ren grafiazko loturatik datozkigun arrazoiek erakusten diguteuez. Bestalde, RS ez dela Garibairena, baina egile ezezagun bat(zur)ena, erakutsi dudalakoan nago. Honetarako grafiazko eta hizkuntzazko argudioak erabili ditut, aurretiaz Urquijok RS-ei buruz eraikitako teoriaren ahuleziak agertu eta RS-ean, batetik, eta A-B bildumetan, bestetik, errepikatzen diren zerbait errefrauren ezberdintasunak gogoratu ondoren. Bertan esan bezala, azterketaren bi atalak dira elkarren osagarri, bateko gogoeta eta ondorioek bestekoak laguntzen eta indartzen dituztelarik. Ene ustez bata zein bestea aski den arren Urquijoren teoria deuseztatzeko, biak ukitu nahi izan ditut haren ordezko baten oinarriak sendotzeko eta, bidebatez, ondorio berriak (W eta B-ren arteko kronologia zehazteko diren edukinezko eta grafiazko arrazoia, demagun) emendatzeko.

Arrazoizkoa iruditu zait bide horretatik abiatzea XVI. mendeko bizkaierazko errefrau bildumen testukritikazko arazo ugarietan argiren bat egiteko, RS-ek berak ere frango buruhauste eta galdera sortzen dituelarik testukritikari dagokionez, gerorako uizi dut RS-en berariazko azterketa, soilik Garibairen sorteza egin dezakeen argiagatik nerabilelarik harako hartan bilduma hori.

Urquijoren irizpideak eta ondorioak RS-en iturriez ez zitzaidala zuzenak iruditzen erakutsi dut bigarren kapituluan: ene usteko, Hernán Núñezena ez da RS-en iturri nagusia, ahozko euskal tradizioa baizik. Hala balitz ere, gainera, ez litzateke sendotuko RS-en etorkiei buruzko Urquijoren beste hipotesia, hots, bilduma hau dela Garibai arrasatearrauen bietarik bata. Izan ere ez da deus hark bere lanaz damaizkigun berrietan HN-tik ezer hartu zuenik suposatzeko eta Urquijo ez zen saiatu ere egin bide hau urratzen.

Kapitulu honetan RS-en etorkiari ez zeharbide horien bitartez baina zuzenean lotuko natzaio. Zati galdua zein ezaguna, Laramendiren *Eraskin-eko* iturri garrantzitsu dela ikusi dugu dagoenekoz eta haren le-

kukotasunaren harat-honatak zehazteak interes berezia du, bizkaieraren historiarako duenaz landa, L-ren hiztegiaren osaketaren irudi garbiagoa izan dezagun; euskal paremiologiaren historia eta geografiak ere asko irabaziko luke jatorri hori ezagutuaz.

Gorago (1. kap. § 4.9.ean) lehen hurbilketa bat egin dugu *RS* eta Garibairen errefrauak erkatzean hizkuntzazko datuak ere erabili ditugularik; datu horiek dagoeneko ez dute zalantzak uzten, Garibai eta *RS* bizkaieraren (B) azpieuskalki ezberdinetarik direla erakutsiaz; zehatzago, eraketa horren arabera Garibai ekialdeko enparatuko lekukotasunekin (Barrutia, adibidez) dihoakigun bitartean, *RS*-ek B-mendebalekoetan lituzke bere kideak.

Ondorio horiek abiapuntutzat harturik, segidako buruetan aitzinamendu zenbait emendatuko da. *Refranes y Sentencias*-en jatorriaz egin izan diren baieztapen eta hipotesi batzu (§ 1.1. Urquijo-Guerrarena, § 1.2. Azkueren izenean dabilena, § 1.3. *RS* Azkueren hiztegian; § 1.4. Kapanga garena) miatuko dira eta, halaber, haien alde zein kontra diren argudioak eta argudio horien pisua.

Kapituluaren bigarren zatian hipotesi berri bat plazaratuko dut, bai bildumaren hizkeran, bai *realia* delakoetan, eta baita literatur soziologian oinarrituaz. Orain ere erabiliko diren arrazoiketa sendoenak halabeharrez hizkuntzazkoak (§ 2.5.) badiratzeke ere —eta hortik § 2.1.-en Orozkoren aldeko iritzia bereziki aztertza—, literatur soziologaren (§ 2.2.), eta *realia*-en aldetik datozenak ere (§ 2.4.) miatu nahi izan ditut, Bilboko literatur ekoizpen eta giroaz —ia erabat ezezagun gertatu arren orain— garai hartarako diren aztarrenak (§ 2.3.) aipatuaz, halaber, norabide berean joa-ki batak bestea indartzen duela uste baitut. Esan behar dut, ordea, gaia ez dudala ahortutzat jotzen, lehen ziren elementuei berririk gehitzen ahalegindu arren; etorkizun diren azterketek zehaztuko ahal dute enea.

1. *Refranes y Sentencias*-en jatorriazko hipotesiak

1.1. Urquijo eta Guerra *RS*-ez

Lehen kapituluau ikusi dugunez, Urquijok *RS* Garibairen lumatikoztat hartzeko zuen bostgarren arrazoia bildumaren hizkerari zegokion. Aurreko ikerlarien iritzia batu ziuen Urquijok berea eman baino lehen: van Eysek bere 1896ko argitalpenaren hitzaurrean bilduma gipuzkeraz dela zioen, nahiz eta bizkaieraren eragin nimiñoa ere izan; Vinsonentzat errefrau gehienak gipuzkeraz dira, baina badira B-zko hainbat eta baita hego-GN eta iparreko-GNzko batzu ere. Laramendirentzat *RS*-etako hizkera G eta Bren nahaste bat litzateke, baina bigarrena nagusi delarik; Azkuek, azkenik, B hutsean direla esan zuen, nahiz eta egun zenbait

hitz Bizkaian ez erabili eta bai Lapurdin.¹ Urquijoren aburuz, RS Arrasaten 16. mendean hitzegiten zen legez idatzia izan zitezkeen eta hori frogatzeko edo deuseztatzeko egokierarik hoberenean omen zen Juan Carlos Guerrari zuzendu zion galdera.

Ikusi dugunez (1. kap., §§ 3.2.-3.3.), Guerrak gutun batez ihardetsi zion Urquijori, haren hipotesi guztiak goitik behera onartuaz. RS-etako errefrauak irakurri ondoren gehienak Oñati, Arrasate, Aramaio, Otxandio, Legutiano eta Arratiako ingurueta bilduak omen haren ustez, berculegora zetozen baserritarren hizkeraren antz-antzkoak izan ere. Gauzak honela, Guerrak —Idiáquezen eskariari hobeki erantzuteko— Garibaiak alde hartako herkideei eskuatu eta haitek bidali datuez osatutako sorta gisa aurkezten digu RS.

Lehen kapituluan erakutsi denez, Urquijoren frogak ez dira sendoegiak. Labur esateko, dialektologia zaharrari buruzko ikerketak nahi bezain aurreratuak ez izan arren, eta nahiz eta oso zaila den erabakitzetan duela 400 urteko izkribu baten euskara zein herritakoa zatekeen, —batez ere RS-ak bezala batean baino gehiagotan bilduriko materialez osatua izan daitekeenean—, seguru gaude, RS-en hizkuntza funtsean mendebaleko B dela, eta horrelatsu pentsatzen zuten Azkuek eta Mitxelenak ere Orozko aldeko euskararen zantua hartzean.

Beranduagorako utziak ikertzaile hauen hipotesia aztertzea, askozaz errazago da RS-etako errefrauok garai hartako Arrasate aldeko euskaran ez daudela frogatzea, zorionez hor baititugu gonbaratzeko Garibai beraren testuak: bai gorago aipatu errefrauak era baita bere obretan zehar eman zituen kanta eta kanta zatiak ere. Lehen ataleko § 4.8. eta § 4.9.ean erakutsi da, bai grafiagatik bai hizkeragatik (morfología nahiz lexikoagatik) segurtasun osoz Garibairenak diren testuak aski urreti gelditzen direla RS-etik, giltzarri bilakatzen diren xehetasunetan: < h->, < sh > grafian, < ^ > fonetikan, ta / eta, burniaric / burdiaric, eugria / euqiarren, gogaeta / gogaiera, jabea / jaube, urri «marzo» / urrietea «octubre», san, santi, done / done; dongueac / deunga, izen / bucen lexikoan (RS-en diren hapax askozaz ugariagoez landa), -n / -ø lehenaldian, daude / dabe 3.p.pl.ean aditzean, etab.

1.2. Azkue RS-ez

1897ko urtarrilaren 31.ean plazaratu zen *Euskalzale-reu* lehen urteko bostgarren «geian» hasi zen argitaratzen *Refranes y Sentencias «Esakuneak»* sailean; aurreko «geiau» (I, IV, urtarrilak 24) emana zen bere asmoen berri:

¹ Edizioan banaka aipatzen ditut Azkuek (1935: 117-118) eman «elementos de otros dialectos vascos y romanismos. Primero se expondrán los vocablos, a continuación las flexiones verbales, ajenos al dialecto bizkaino» (117).

Igaz irureun urte argitaratu zan Iruñan liburu eder bat, *Refranes y sentencias comunes en Bascuence, declaradas en Romance* izentzat dauka-na. Bizkaitarrez esku-tiztuta dago. Berba banakaren batzuk eztira gaur esaten; baina ikastetxek sortutten laungoikoak itxi nai izanezkerro, oituko dira. Beste berba batzuk gaur eztira Bizkaian entzuten, Lapurdi-aldean baino. Onek bere ederto oitu leikez. Liburu eder au agortu-aginik egon da. Darmstadt-ko Liburutegian bakar bat egoan. Van Eys-ek birregin da igaz barriro argitararu eban. Eztakit zelan ordaindu ginaion euskaldunok euskalzale iakintsu ta errime oni, guri egin dauskun mesedea. Esku gitxitarra eldu leike liburu au; batetik moldaldi laburra egin dalako, bestetik nai litzakean baizen merkea eztalako. Onegaitik EUSKALZALEK irakurleai era-kutsi nai dautse. Onetarako, esku-tizkera (ortografia) zaarra ta guztiz txarra, barriraztuta agertuko dogu.

Urrengo geitik asiko gara esakune onek mortxaka txikietan argitaratutenean. Gaztelarrez da prantzesz biurtuko doguz; eta esakune bakoitzai azalgeta labur bat geituko iako (*Euskalzale I*, 28).²

Azkuek liburu honetaz berariaz esandako gehiena eta bestek haren iritziez egin aipu zuzen eta zeharkakoak *Euskalzale*-ko argitalpen honi dagozkionez, markatu beharrekoa da Azkuek ez zuela berton inongo monografiarik idatzi nahi izan, ez liburu horren inguruan modu oroko-rean, ez alderdi zehatzten batez, ezta orain aztergai dugun RS-en jatorriaz ere. Izan ere, zuzenkizunak (batzuek «euskarara», besteak «azkuerara»), arkaismoen azalpena, ohar historiko eta kulturalak, hizkuntzazko gogoe-tak... denetarik biltzen da haren edizioan. Ohi bezala, pentsa lezake nor-baitek, baina aldizkari herrikoi nahi zenaren irakurlegoak aruntasuna are-agotuaz. Har ditzagun, esaterako, lehendabiziko biei ezarriak:

Adi adi, ze Jaungoikoa dagok adi. Mira con cuidado, que el Señor de lo alto te está mirando. Fais attention que le Seigneur te voit.

Lelengo adi ta irugarrena bardinak dira; erderazko *atender*, *atento* esan gura dabe. *Bigarren adi, ai-n ordezkoa da.* *Egon adi ta etorri adi, egon ai ta etorri ai esatcko.* *Adi adi ta adi ai bardinak dira.*

Dagok-en ordez iagok obeto esan leike. Adiskide-artearen esaten da *iagok* edo *iagon*, *dago* esan-bearrean; *iaukak* edo *iaukan*, *dauka* esateko.

Aberats izatea³ baino ospe ona obeago. Mejor buena fama que ser rico. Mieux vaut bonne renommée que fortune dorée.

² Gaurko grafiara aldatua ematen dut Azkuerena (<ts>, <tx> eginaz); bidenabar hainbat dira, berak dioenaren aurka, iruzkinik gabeko utzitako errefrauak. «Erderazko biurrera edo itzulkera onetatik, gaztelarra azaldariak edo liburu-egileak berak ezarri eban; frantzes, geure adiskide bat (sic) ezarririkoa da» diosku 38. orriko oharrean.

³ Honela *Euskalzale*-ko edizioan; orijinalean *-ai-* eta hortik Azkueren iruzkina.

Gaur, *izaitea* Orozko-aldean esaten da ta Lapurdin. Bizkaitar geienak eta Giputzak *izatea* esan daroagu.

Ospea, erderazko *fama* adierazoteko, gaur bere oituten da. (*Euskalzale* I, 37).

Herrien aipu gehiago jarraitzen zaizkie azalpenetan, baita arkaismo eta berrikuntzenak ere; alabaina, soilik era hartako oharrak bilduko ditugu segidan (baina horiek guztiak, ez baitu inongo mailaketarik egiten), *RS*-en jatorriari buruz Azkuek, ustez, zuen aburuaren aldetik interesgarri bakarrak begitzen zaizkigulako:

3. «*Igui-gaiti iguin* esaten dogu Bizkaian; eta erderazko *asco, tédio* esan gura dau. Oñati-aldean gorrotoagaitik berc esaten da»;
5. «*Abaa* gaur berc Txorierrin esaten da; *abaaa* Markinan; Bizkaitik kanpora *aberaska, breska, abaraska, orraze*»;
11. «Gaur ezta asko esaten *baratza* edo *baratzea* Bizkai-aldean»;
16. «*Burdia* barik *burdina* esaten dogu Bizkai-aldean, Gipuzkoa-aldean *burnia...* *Itokina* esaten da Gipuzkoa-aldean *itoginagaitik*»;
18. «Gaur *zagokez-ek* daukan *ke* ori, Lapurdi-aldean oituten da, baina gure artean *ez*»;
19. «Gaur bere asko czarren, esaten dira *oñon* edo *oinon*, ta *oinotea*. Bilbo-ondoan entzuten da. Añibarrok *Lora-Sortan* dakar»;
21. «Gaur ezta esaten *zirola* zapatori edo oskinagaitik. *Oskina* bere gitxi. Bizkaian ezta oituten. *Zitel* bere ezta oituten, *guk dakigula*»;
25. «Esakune au eztago bizkaitarrez eginda: *emaiok-en* ordez *emioik* esaten da Bizkaian; *dik-en* ordez *deusk* edo *dausk*»;
27. «*Iauso-ren* ordez *iazo* edo *iasan* edo *iosa* esaten da gaur: lenengoa ta irugarrena Bizkaian, bigarrena Lapurdin»;
34. «Gaur bere batzuk esan daroe Bilbo-aldean *zarau* otzarea-gaitik»;
35. «Orozko-aldean esaten dabe *Aitea* ta *Amea*, Aita ta Ama-gaitik. Beste erri askotan *Aitea* ta *Amea* txorikumeen gurasoakaitik esaten da; baina gizakumeakaitik *ez*»;
36. «Gaur bere Mundaka-aldean esaten dabe *ze*» (id 336.a);
45. «*To-ren* ordez *tori* esan oi da Donostia-aldean. *To* Bizkaian *txakurrai* esaten iake»;
46. «*Ustrail* esaten da Mundaka-aldean upa edo upcla-gaitik»;
37. «*Kaden* esaten da gaur bere Txorierrin»;⁴
49. «Oñati-aldeko berbetea da *etan au*»;
52. «*Unai* artzainagaitik ezta, Bizkaian beintzat, gaur esaten»;

⁴ Errefrauen iruzkinetan diren jauziak Azkuek bere edizioan egindakoak dira.

78. «*Tamal, lóstima* esateko, gaur bere Orozko ta Oñatikoko (sic) baserritxuetan esaten da»;
85. «Ezaun da Arratia edo ingurueta zana esakune onek baturikoa. An esaten da *daude*, *daua* edo *dabe* esateko»;
96. «Gaur bere Arratia-aldean askok esaten dabe *duztia*, *guztia-n* ordez» (cf. 245.a);
98. «*Sar ezak* ezia bizkaitarren esakerea, gipuzkoarrena baiño. Esakune onetan, bizkaitarrak eurok izanarren, bein edo bein bertoko esakeraak eztireanak irakurten doguz»;
100. «Arratia-aldean *au-n* ordez *eu*, ta *ai-n* ordez *ei* askok esaten dabe»;
105. «*Anaje* esaten da Bilbo-ondoan *anai* edo *anae*-ordez»;
107. «*Geiztoa* esaten da Bilbo-aldean, Gernika aldean da Bizkaiko beste batzueta *gaztoa* esateko»;⁵
113. «*Dio* Gipuzkoan esan daroe: Bizkaian *diño*»;
129. «Araba-aldean *urilla* esaten eidabe. *Aprilla* gaur geienak»;
130. «Bizkaian *arerio* esan daroagu *etsai-n* ordez»;
132. «*Igui* Gipuzkoan esaten da; Bizkaian *iguin*»;
145. «Bizkaian gitxi esaten dira *ar*, *artu-n* ordez, *sar*, *sartu* esateko. *Ken adi*, *kendu adi-n* ordez sarrien esaten da. Lapurdi-aldean oituten dira asko esakera onek» (id 188, 230 eta 363.ak eta gorago 98.a);
155. «*Irapazi* esaten da Orozko-aldean *irabazi* esateko»;
169. «*Mibi* esaten dabe lapurtarrak gure *miün* da gipuzkoarren *mingainña*-gaitik» (id 271.a);
170. «Lenago bere esanda daukagu *oro* gaur lapurtarren berbea dala» (id 198 eta 223.ak);
173. «*xe* Gipuzkoan batez bere oituten dabe»;
179. «Oñon edo *oiñon* gaur bere esaten da Larrabetzu-aldean» (cf. 19.eko);
187. «*Arzaiten* da *emaiten* edo *emoiten* Orozko ta Oñati-aldean [258.ean hau ez du aipatzen] esaten da gaur, baita Lapurdi-aldean bere, *emaiten* beintzat» (id 351.a);
236. «Batzuk esaten dabe *baltzitu*, *otzitu*, *utsitu*, *putzitu*, beste batzuk *balztu*, *oztu*, *ustu*, *puztu*»;
243. «*Iñez* gaur bere esaten da Txorierrin da Arratian *iges* esan-bearrean» (cf. 423);
306. «*Mirabe* gaur Gipuzkoakoa da»;
327. «Lenagotik daukagu esanda Bizkaiko liburu zaurrenetan irakurten dala *rean* gaurko *tik-en* ordez»;
343. «Lapurdi-aldean oituten dira gaur onelango esakeraak»;
347. «*Ora* gaur bere esaten da Bidasoatik aranzko izkelgi edo dialektoetan»;

⁵ Uler bedi *gextoa*, RS-eko orijinalean bezala.

352. «*Txipia Lapurdi-aldekoa da» (id 500.a);
 365. «*Oiñatu onen ordez unatu esaten da gaur Lapurdi-aldean»;
 368. «*Otsaillari Bizkaian zezeilla esaten iako»;
 376. «*Arena, Bizkaian da Gipuzkoan beintzat, ezta gaur berba baten baiño oitutene: arenegun...»;
 400. «*Barruna itxasaldeko erri batzuetan esaten da»;
 417. «*Etsea Bizkaiko erri askotan esaten da etxea esan-bearrean»;
 420. «*Zerraldo esaten da gaur bere Gipuzkoako alde batzuetan»;
 423. «*Iñes, iges-en ordez; da aditu begiratu-ren ordez Arratia-aldean esaten dira»;
 437. *Luki Orozko-aldekoa da»;
 459. «*Erurra esaten dabe gaur bere bizkaitar askok edurra edo elurra csateko»;
 461. «*Uzena gaur egunean bere esaten da toki askotan izena-ren ordez»;
 466. «*Bidasoatik aranzko euskaldunen artean bakarrik esaten da gaur gibel, atze-ren ordez»;
 470. *Opetsi esaten da gaur Arratian, Txorierrin da beste tokiren baten opaesi-ren ordez».⁶*************

Kontuak zuzen baditut,⁷ berariaz herri edota bailararen bat aipatzen dituen iruzkinetarik 9 kasutan (5, 19, 34, 37, 105, 107, 179, 243, 470) Bilbo-Txorierrri, 6tan (85, 96, 100, 243, 423, 470) Arratia, 5etan (35, 78, 155, 187, 437) Orozko, 4tan (3, 49, 78, 187) Oñati eta 2tan (36, 46) Mundaka dira aipatuak. Bitan (243, 470) datozen bat Bilbo-Txorierrri eta Arratia eta beste bitan (78, 187) Orozko eta Oñati; garrantzitsuago dira, jakina, lehen batasunaren aldeko arrazoia eta Azkuek esplizitoki 85.ean batasun hori markatu ez arren buruan bide zuen: 85. «Ezaun da Arratia edo ingurueta zana esakune onek baturikoa. An esaten da *daude, daue edo dabe esateko*». Txorierrri-Arratia izango da gero ere, bai Azkue eta bai bere ikasle Zamarriparentza, bizkaineraren azpieuskalki gardenenetarik eta badirudi bere ohar arin eta azalekoootan ere beren arteko kidetasuna —ia baliokidetasuna— besteena baino askozaz handiagoa izanik, gune horretarantz garamatzatela berak eman berrietarik atera ditzakegun aieru eta susmoak. Orozko eta Oñati, gutxiago aipatzeaz landa, bata bestearen etsai dira jatorri bilaketa honetan, eta ezer adierazteketan, bi bazter-hiz-

⁶ 501.ean amaitzen dira itxuraz.

⁷ Eta aipuen zehaztasun falta erabat atzendurik, nahiz eta horrek zeresanik izan bere usterko iritzi edo lekukotasunari dagokionez; beheraxeago zehaztasun falta eta arinkeria horrek gerora bere Hiztegian dioenarekin kontraesanean jartzen dela ikusi ahal da.

kerak RS-eko arkaismuen iraupenaz ematen duten lekukotasuna adieraziko lukete, batez ere bat egiten dutencan biek.⁸

1.3. RS Azkueren Hiztegian

Segidan RS-eko hitz andana bat zerrendatzen dut, «B orokorrak» ez izaki zein azpieuskalki edo hizkera modernotatik gertuen agitzen den RS-eko lexikoa ikusatzeko; hitzek aldamenean daramazkiten iruzkinak Azkueren hiztegiko kokapenak dira, laburdurak osatuaz eta «B-arkaikoa» •RS» bilakatuaz, hiztegi horretako baliokidetasunen arabera:⁹

<i>aditu:</i> Arratia-Orozko-Txorierra	<i>biao:</i> Araba-Bakio, Otxandio
<i>agirtu:</i> RS -Mikoleta	<i>bidari:</i> Ispazter, Mondragoe / Gernika, Ispazter, Mundaka, Ondarroa
<i>amuko:</i> Gernika, Orozko / Mundaka, Otxandio	<i>birapo:</i> Arratia, Basauri, Orozko, Ubidea / Arratia, Orozko, Txorierra
<i>anaje:</i> Txorierra	<i>buruko:</i> Mikoleta / Gernika
<i>apaka:</i> Ondarroa	<i>dolara:</i> Ispazter, Markina, Mondragoe
<i>arbindu:</i> Arratia, Orozko, Txorierra	<i>duzti:</i> Txorierra, Mikoleta
<i>asaba:</i> Ondarroa, Txorierra	<i>egitai:</i> Arratia, Orozko
<i>askatu:</i> Gernika, Mundaka, Orozko, Ondarroa	<i>exar [Azkuek eizar]:</i> Markina
<i>atarte:</i> Durango, Lekeitio, Mondragon, Orozko, Txorierra	<i>ekosari:</i> Zigoitia
<i>atseden:</i> Oñati / Barinaga, Orozko, Txorierra, Urduñiz	<i>ekusi:</i> Orozko
<i>audiaka:</i> Markina, Ondarroa / Orozko	<i>erallea:</i> Mogel, Mikoleta
<i>azarkuntza:</i> Arratia, Bermeo, Orozko, Txorierra	<i>erasun:</i> Mikoleta
<i>azarri:</i> Mundaka, Orozko / Mundaka / Ispazter, Mundaka	<i>ereztun:</i> Gernika, Mondragoe, Mundaka, Ondarroa
<i>baratz(e):</i> Arratia, Orozko	<i>erur:</i> Arratia, Mundaka, Orozko, Txorierra
<i>betatu:</i> Txorierra	<i>estalgi:</i> Arratia, Orozko, Txorierra
<i>bezuza:</i> Orozko	<i>etxi:</i> RS / Orozko, Mikoleta
	<i>etxun:</i> Lekeitio, Ubidea
	<i>etziluma:</i> Plentzia, Urduliz, Zigoitia [etzilume]
	<i>etzikaramu:</i> Arratia, Gernika

⁸ Mundakak, azkenik, ez batera ez bestera ez garamatza, urriegi baitira bere aldekoak eta zehaztasun apur bat bilatuz geroz. BZ-eko lekukotasun gehienekin batera duen ezaugarriren bat (ze) da jokoan.

⁹ (/) adiera diferenteetan Azkuek aurkeztu hitzon hedadura bereizteko erabili dut.

- exa:* Gernika-Markina
ezai [Azkuek ezain]: Izpazter, Mundaka, Mondragoe
garri: Arratia, Gernika, Mundaka, Orozko, Txorierrri
geroengo: Arratia, Orozko, Txorierrri
geun: Durango, Orozko / Durango, Gernika, Lekeitio, Markina, Mundaka, Oñati, Txorierrri / Arratia, Orozko, Txorierrri, Urduliz
gurdi: Txorierrri
jaibal: Orozko
ifini: Arratia, Deustua, Galda-kao, Orozko (bada ibini ere)
inardun: Arratia, Gernika, Markina, Orozko, Txorierrri
ines: Arratia, Orozko, Otxandio, Txorierrri
irapazi: Orozko
iratxo: Gernika, Izpazter, Mundaka, Txorierrri
irol: RS / Txorierrri
irrigau: RS / Otxandio
itogin: Lekeitio, Mundaka
itzadon: Arratia
justuri [Azkuek juzturi]: Arratia, Mundaka, Otxandio / Berango, Mundaka, Otxandio
iztanda: Gernika, Txorierrri / Arratia, Durango, Mundaka, Orozko, Txorierrri
kaden: Elorrio, Ubidea / Gernika, Txorierrri / Izpazter, Mundaka
langin: Ubidea
lastategi: Arratia, Txorierrri
lei: Arratia, Gernika, Lekeitio, Mundaka, Orozko
luki(kume): Albia, Basauri, Orozko, Txorierrri
loba: Orozko, Zeberio / Txorierrri
mendel: Arratia, Gernika, Lekeitio, Mundaka, Orozko
mizka: Mundaka
mizkeri: Mundaka, Txorierrri
murko: Arratia, Gernika, Orozko, Txorierrri / Txorierrri
narea: Orozko
oian: Lezama
oneretxi: Mikoleta
oñon [Azkuek oñon]: Txorierrri, Urduliz, Zamudio
opaetsi: Arratia, Orozko / opetsi Arratia, Orozko, Txorierrri
oroldio: Lezama
ospe: Txorierrri
osteiren: Orozko
ostendu: Arratia, Basauri-Orozko
ostu: Arratia, Gernika, Orozko, Txorierrri
otzitu: Lekeitio, Mundaka, Txorierrri
peko: Arratia, Gernika, Lekeitio, Mundaka / Arratia, Eibar, Lekeitio, Markina, Mundaka
putxa: Arratia, Elorrio, Orozko
satsitu: Arratia, Orozko, Txorierrri
sendari: Arratia, Mondragoe, Orozko, Txorierrri
triska: Arratia, Markina
txabur: Markina, Orozko
txiro: Orozko
ugaraxo: Ubidea
ukuzka: Orozko [ukuzi]
ulertu: Arratia, Deustua, Gernika, Orozko, Otxandio
ulertzalla: Arratia, Gernika, Orozko, Txorierrri

<i>unai</i>	[Azkuek <i>unain</i>]: Mondragoe, Oñati
<i>urrieta</i>	: Getxo
<i>urtzin</i>	: Arratia, Markina, Orozko, Zigoitia
<i>urtigi</i>	: Kapanaga
<i>ustrail</i>	: Mundaka
<i>uzen</i>	: Arratia, Bermio, Orozko, Txorierrri

<i>zaartzza</i>	[Azkuek <i>zartzza</i>]: Lekeitio, Ondarroa
<i>zarau</i>	: Arratia, Orozko, Txorierrri
<i>zartegi</i>	: Txorierrri
<i>zerraldo</i>	: Markina
<i>zi</i>	: Txorierrri / Arratia, Durango, Mañaria, Orozko, Txorierrri

Ezaugarri guztiak pisu bera ez duten arren, ohartzekoa da Txorierrri eta Orozko direla nagusi 50 eta 48rekin eta aski hurbil Arratia 37rekin;¹⁰ urrutii gelditzen dira Mundaka-Lekeitio pare bat dozenarekin eta Gernika-Bermio beste horrenbesterekin; are urrutago Otxandio-Ubidea-Zigoitia dozena eskasarekin. Txorierrri eta Orozkokoei gehitu behar zaizkie batetik, Urduliz-Bakio-Berango-Getxo eta, bestetik, Basauri-Galdakao batasunen dozena, are garbiago gelditzen delarik testuaren jatorria B-mendebalean, ipar-mendebalean beharbada, bilatu behar dugula.

1935eko bere «Evolución de la lengua vasca»-n ere ez da Orozkoren aldeko ezer kausitzen ahal: 61. orrialdean B-arkaikoko lan garrantzitsuena legez aurkezten digu, hurrengoan —van Eys-en aurka— batez ere bizkaiera, nahiz eta gipuzkera eta nafarrera apurrekin dela bertako hizkera, 74.ean *emoile* lehendik esana zigun bezala Orozkon (eta Erronkarin, gehitzen du) erabiltzen dela, 77.ean *bi dai* oinarritzat harturik errefrau horren biltzailea Leintz-Otxandio aldekoa bide zela adierazten (oker agian), 79.ean *RS*-ekoentzako aoristo zenbait Plentzia-Barrikan entzun zituela markatzen eta 117-118.etan «beste dialekto batzuetako formak» zerrendatzetan. Eta hori da guztia *RS*-en jatorriaz lan honetan.

1.4. Bittor Kapanaga

«Testu zahar baten bitxitasunak», izenburu beharbada adierazgarriarekin, argitaratu zen *Euskera* 1983-koan Bittor Kapanagaren lan bat *RS*-ez. Bertan «bilduma hori Mendebaldeko euskalkiaren eremuan regina denez, euskalki hori ezagutzen duen batek egin behar lukeen» (159) azterketaren aitzindaritzat aurkezten digu berea egileak. Urquijok euskara,

¹⁰ Gogora bedi Uriartek Printzeari bidali zion gutun baten aurkitzen duguna: «Luego envié los tres Catecismos: el literario de Marquina, el de Plencia y el de Arrigorriaga. El distinguir el de Plencia del de Arratia me va costando mucho» (Ruiz de Larrinaga 1958: 421, *apud* Elordui 1994: 450).

Mendebaldeko euskalkia batez ere, behar bezala menderatzen ez zuenez, eta bildumako errefrau gehienak erdaratikoak direla frogatu nahi omen zuenez soil-soilik, haren bildumaren ekoizpen eta jatorriarekiko iritzien ahulezia erakusten saiatzen da hasieratik bertatik.

Kapanagaren ustez (1983: 160-161) bilduma ez da egile bakarrarena:

1) Egile bat-berak eginak balira erderatik euskerarako itzulketak eta honetatik berriz erderarakoak, hor ageri diren aldaketa eta bihurketak barneko direla, iruzurkeria latza litzateke liburu horren egintza.

2) 1596. urtean argitaratua izan zen liburua, inprimatzailaren izena ondo agertuz eta egileenik aipatzeke. Urte haietako liburuak ikusiz, eta izaten dituzten eskaintza loriatsu eta handikoiak kontutan izanez, uler-tezina zaigu oraino honetan egile bat izan eta bere burua izkutatzea.

3) Liburuko euskal testuak, Mendebaldeko euskalkian ditugu gehienak; eta honen barruan, Arabako euskeria nagusi dela, esan liteke; baina Arratiakoa ere ageri da, Lenitz aldekoa eta beste batzuetaakoak bezelaxe. Beraz esku asko ageri dela hor, pentsakizun bidezkoa genuke.

Gauzak honela, Kapanagaren ustez (1983: 161) ez egile bakar bat bai-zik eta apailatzaile edota edizio arduradun bakar bat izango genuke, Mendebaleko euskara nabarmenki ezagutzen ez zuen apailatzailea, izan ere. Egileak beste nonbait kokatzen ditu, Gasteiz edota inguruetaiko komen-turen batcan, hain zuzen:

Zerbait pentsatu behar eta, pentsa dezagun, Gasteizko edo inguruko uriren hatetako komenturen batetan egina dugula bilduma, urte askotan zehar. Gauza asko ulertu daiteke horrela: arabar euskeraren eragina, baina era berean beste eskualdetakoak ere agertzea; bilduma osoaren zehar (sic) ageri den erudito usaina; gazteleratiko itzulketak, Ekiadeko euskeratikoak (hainbat ageri dira), eta bertako esaerak nahaspildurik agertzea; iturri batetatikо itzulketetan hain estilo ezberdinak ageri iza-tea, etb. (Kapanaga 1983: 161).

Kapanagaren hipotesi berri hau eta horren lagungarri dakartzan «bitxitasun» batzuen azalpena miatzten hasi aurretik, dagoeneko ofizioko irakurleak antzemango bide zituen artikuluaren ezaugarri formalez ohar orokorren bat egitea ezinbesteko dugu. Hots, Urquijo zenbait aldiz lane-an aipatzen bada ere, haren artikulu eta liburuez erreferentzia zehatz gu-txi da; Azkue, Lafon, Mitxelena, Irigoyen eta bestelako hizkuntzalari eta filologoren izerik ez da behin ere agertzen eta ez haien ez beste inoren lanik ez da azaltzen, izan ere ez den laneko bibliografian. Orobart, Landucci, Garibai, Barrutia, Gamiz (hau zailago zuen, egia esan), Mikoleta, Kapanaga edo antzekorik ere ez da ageri, erkagai bezala, demagun. Gainera ez dakigu zergatik aski duen «mendebaldeko hizkera» aipatze hutsarekin, hori definitzen sartu ere egin gabe (cf. Mitxelena 1958, 1982, Lakarra 1986b, Zuazo 1989, 1996b), edota zergatik uste duen aski dela, goian ikusi

dugun bezala, «Arabako euskera nagusi dela» esatearekin.¹¹ Ez dirudi, ez lehen eta ez orain, bere saioaren oinarritzat dituen ustekizunak euskalarien *consensus* begibistakoan sartzen direnik. Bestela esan, aurreko filología ausarki eta lotsagabe ahaztuaz eta han-hor-hemen eskuratu datu solte, aurreiritzi antolatu eta metodo falta erabatekoarekin ihardukitzten du, euskal testu tradizioan den garrantzitsu eta zailenetako batekin.¹²

Hara 86. errefrauaren iruzkina adibide baterako: *Ogia lenago, ora baino* «Pan primero que mastín» aldatzen zuen Kapanagak (1983: 163), ondoren «Antes el pan que la masa» itzuli behar zela argudiatuz, RS-eko itzulpen hutsen adibide gisa aurkeztuko eta berchalaokoan ekialdeko apailatzale baten eragina hor salatzeko: «Baina ekialdekoa izan behar zuen hari, ora horrek zakurraren irudia eskaintzen zion. Guri ez ordea; guk, *ora-maia, ora-ola, orategia, opil-ora* eta honelakoak erabili egiten ditugu, eta *ora* ere bai, forma honetantxe; beraz, honek erakusten digu garbiro, ezeinck erakustekotan, Ekialdeko apailatzale bat ibili zela hor eta nahi zuena ezarri zuela ulertzen ez zituen hitzen ordez» (1983: 163-164).

Alabaina, ondorio larri horiek frogatutzat emateko oinarriak zer edo zer sendotzea komeni litzaiguakela deritzot; ez bide litzateke gehiegi eskatzea bilduma osoan hitz horrek dituen age-rraldi guztik ikuskatzea, milaka ez izan arren gehiago bai baita: 86. *Oguia lenago ora baño*. Pan primero que mastín, 246. *Oguagaz bura oragaz heroen elicatura*. Pan con agua, mantenimiento de loco y mastín, 347. *Ora osoen lagun*. El mastín compañero de los lobos, 349. *Oric eztan erria, ybar jaun da aceria*. En la patria do no ay mastines es merino el rafoso, 377. *Posaco orac heyz onic ezin ley*. El mastín forzado caña buena no puede hacer, 380. *Ecin eusi dayan orac ynciria*. El perro que no puede ladrar azer gruñir.

Nago datuek bere buruz mintzo direla eta ez Kapanagaren solasaren bidetik.

¹¹ Aipatzen dituen Leintz eta Arratiako ezaugarriez (Orozkoz ez dio ezer) beste atal batzuetan eta berton ere zerbaite esan dut dagoeneko.

¹² «Neronen aldetik, honako [ondorio] hauak behintzat ateratzen ditut: edozein testu zahar (bostehun urte zahartasuntzat jo badaiteke behintzat), baliotsua izan daitekeela, baina euskera erabilia mila bider baliotsuagoa izango dugula beti. Éta honetaz ariz labankada ederrak egin badaitezke ere, testuez ariz izugarriki handiagoak egin daitezkelako» esanaz (!) amaitu zuen bere artikulua (Kapanaga 1983: 168). Badut borondate on hutsa —gehi Tomas doneak bezala bere begiz ikusi edo bere belarriz entzuna— eskas gertatu zela, ezinbestez, egiteko larri honcarako. Izen ere, Larry Trask-ek arrazoi bide duen bezala, ez euskara eta ez hungariera (ez linguistika historiko gehituko nuke) ezaugurzeak —demagun— zenbait ikertzailei hizkuntza horiek genetikoki lotu nahi zituzten saioak apailatzzen jartzeko gogorik kendu ez badio, zergatik espero filología, hizkuntzalaritzta, dialektología eta zentzu komuna bezalako «xehetasunek» atzeratu behar zutela inor eskuartean dugun lan hau akademia czagun batzen aldizkarian argitaratzetik?

Teoria osoa hurbiltasun apur batez begiraturik ez dirudi egile eta jatorriari buruzko proposamenek egiaz handirik dutenik, batetik, eta behatzeko edota beste edozein baino hobe direnik, bestetik. Izan ere, ez da Gasteiz edo ingurueta komenturen bat testu honen eitea azaltzeko biderik egokiena, ez komentuaren aldetik —ikusiko dugunez (§ 2.2.) ez dirudi elizgizonak zirenik, hain zuzen (eta hain gutxiago samaldaka), 16. mendean horrelakoetan ari zirenak— eta nekez onar daiteke mende hortetako Arabako, eta zehazki Gasteizko, euskaraz dakigunaren izpirik islatzen dela bilduman. Alderaketa errazegia da (eta zen 1983an ere!) hemen asti gehiegiz horretan emateko; ez da Mitxelenak 1958an Landucciren hiztegi gasteiztarrari jarri hitzaurreari so egitea besterik. Hara, nolanahi ere, adibide zenbait:

LAND.	RS
<i>eçurra</i>	<i>azur</i>
<i>guerti</i>	<i>garri</i>
<i>izen</i>	<i>uzen</i>
<i>irten</i>	<i>urten</i>
<i>etzin</i>	<i>etxun</i>
<i>gut(x)i</i>	<i>gitxi</i>
<i>iguzki</i>	<i>eguzki</i>
<i>ibili</i>	<i>ebili</i>
<i>biurtu</i>	<i>biortu</i>
<i>biorrogei</i>	<i>berrogei</i>
<i>gurrioi</i>	
* <i>bok.</i> , <i>geminat.</i>	<i>bok.</i> , <i>geminat.</i>
<i>arpegi</i>	<i>aurpegui</i>

Eta hau soilik bokalismoari dagokionez (ikus Mitxelena 1958: 22 h.b.); Mitxelenaren ikerketan (eta ondoren etorri denak ez du hura errotik aldatu), Arabako euskaran dela kontsonantismoan, dela lexikoan, dela (zatika ezagutzen den) izenaren zein aditzaren morfologian, RS-ekiko alde nabarmena aurkitzen dugu: genit. *-an / -an* (RS *-en / -en*), dat. *-ai / -ai* (RS *-ari / ai*), soziat. *-kin, -az / -kin* (RS *-gaz / -kaz*), arc, *artan* (RS *ac, atan*), *dut, du, deuena, duçu* (RS *dot, dau, dauena, dozu, daude*)... Izan ere, RS-en jatorria mendebalean bilatu behar den arren, ez da hegomendebalean haren kokapena.¹³

¹³ Kapanagak bere tesien alde, ustez, egiten dituen proposamen zeharrez (*ebiloki = ebiliko, daguenil = «mes de la abundancia», ora = «masa», ez = «can», jak, erak ta zegiok trankart = «Come..., bebe y no te atranques» eta ez = «Hiérele, dale, mátale y no le hagas falsia», Erioak erezan Butroeko alabea Plenzian = «Manantiales en Erczan, la hija de Butrón en Plencia» ez = «El tártago mató a la hija de Butrón en Plencia»...) hobe, esatekoak esanak ditugula pentsatu.*

2. Hipotesi berri baterako

2.1. Orozkori aitzi

Aurreko ataletako frogan pisua gora behera, ene ustez argi asko izan beharko genuke orain artekoaren ondoren *RS* funtsean bizkaitarra, eta zchatzago, mendebaleko B dela.¹⁴ Gorago ikusi da, jada hizkunzaren alderdira joaz, aditz morfologiako ezaugarri garrantzitsu bat baino haboro duela Mikoleta bilbotarrarekin, ezaugarriok are interesgarriago bilakatzen direlarik *RS*-ek mendebaldeko gainerako testuekin dituen ezberdintasunen aurrean (ez da $-n > -o$ *VJ*-en ez Betolatzaren dotrinan, esaterako).

Lehen kapituluko § 3.2.4.an ikusi dugunez, *RS*-en etorkiaz galdetzean Azkuek, Arrasate erabat ezinezkotzat jo gabe, Orozko hobesten zuela idatzi ziola gaztigatzen zigun Urquijok, mende hasieran han gordetzen baitziren gorde ere bilduman agitzen diren hainbat ezaugarri; alabaina, *emaiten* edo *beranquetan* bezala ez Orozkon baina Leintz aldean gordetzen diren formak ikustean ez zuen gaitzesten haren hipotesia. Urquijok, ordainez, bere Garibairen egiletasunaren hipotesiaren barnean, zati nagusia arrasatearrak bere herri inguruan bilduko zuela mantendu zuen baina Azkuek ikusi uste zituen herri hartako hizkeraren ezaugarriak orozkoar laguntzaileei zorko litzainkicela gehituaz.

Bildumaren egilearekiko haren hipotesia deuseztatu ondoren, errazki neurtuko da Urquijoren hipotesi ahulagoaren pisua. Azkuerenak, aldiz, hizkuntzaz bestelako ondorioetarik askea izaki, azterketa berczia merezi zuen. Damurik, ordea, ez dirudi inoiz bere hipotesia zehaztu ez arrazoitu zuenik, ez bederen lan bereziren edo zabalago baten zati batean. Testu hori Iuzkienik «Evolución de la lengua vasca»-n (1935, Urquijori egin gutuna mende laurden lehenagokoa da) aztertu zuen, han ziren gramatika eta hiztegizko arkaismoak erakusteko. Hala ere, bildumaren edizioak eta hizkuntza aipatzean ez da zehatzegi etorkiaz eta, bidenabar, Orozkoren izena ez da ezertarako ere azaltzen:

Van Eys, que la reprodujo admirablemente, cometió un pequeño lapsus al juzgar el dialecto en que fueron escritos los proverbios, pues dice: *le dialecte est celui de Guipuzcoa légèrement influencé de Biscain*. Hubiera acertado cambiando los vocablos de los dialectos, pues aunque la obra tiene algunos guipuzcoanismos, el dialecto dominante es el bizkaino (1935: 62).

Orozkoren aldeko hipotesia Mitxelenak berrartu zuen XVII eta XVIII. mendeko hiztegileez egindako euskaltzain sarrera-hitzaldiaren adabaki

¹⁴ Ikus 1. atalean ekialdeko Garibairekiko erkaketa labur bat.

batean «RS-en izkera nongoa ote?» galdeztean (Mitxelena 1961: 372). Bertan «ezta nora ezkoia, jakiña, guztiak leku berean sortuak izatea» markatuaz hasten delarik, «zenbaiten ustez, badute [errefrau] batzuck Orozko-aldeko usaia eta neroni ere bat natorkie» diosku, frogatuta berri bat aurkeztuaz: Larramendiren *Hiztegi Hirukoitz-aren Eraskin-eko* 451. sarreran «Quien con niños se acuesta, sucio se levanta: *seyacaz echun dina ucuzcari jaigui da*» Darmstadt-eko aleak gorde ez zuen bilduma horretako errefrau dugu. *ucuzcari*, Mítxelenaren ustez *ucuzca* irakurri beharko litzateke, eta Darmstadtekoan azaltzen den *uhuñerean i...u > u...u* aldaketaren aldeko lekukotasunak dira; Mikoleta bilbotarrak, aldiz, *ycusle* «lavandera», «*suzio, ycusquea*» eta «*ycuscatasumbat*, una suciedad» asimilaziorik gabe dakartzan. Alabaina, gogora bedi Mítxelena ez dela ari bilduma osoaren baina errefrau honen eta, agian, beste zenbaiten etorkiaz.

1986an Jose Ramon Garigorta eta Iñaki Gamindekin argitaratu zituzten Orozkon 1739an idatzitako otoitz labur batzu (85 lerro).¹⁵ Han azaltzen den hizkera RS-ekoarekin eratzeko gogoratu behar da, 18. mendeko testu horren gazteleraezko aurkezpenean adierazten den bezala, otoitz horien ohitura eta, beraz, haietan islatzen den hizkeraren hainbat xehetasun goragotik zetorrela:

en ratificación del primer instrumento de fundación puso la excepción de que los Patronos y Capellanes se han de encargar de que todos los días del año se le cante a María santísima en la lengua bascongada como presente se practica, la Salve Regina con las oraciones devotas, y para ello suplica lo hagan escribir a continuación de su Fundación y por este religioso cuidado perciba el patrón quince ducados (62. or.)

Har bitez -ie- *misericordiecoa-n* (2), *g- ghey-n* (5), *-ch gueugananch-en* (11),¹⁶ *-e- vedeinquietuan-en* (15), *icen (gaitezanzat)-en* (23), *yzen (bide)-n* (82), *misericordiecoa-n* (43), *borduen-en* (45), *santuéri-n* (49), *saludeetan-en* (53-54), *bulerreco-n* (55), *zenguizenac-en* (58), *yregaro-n* (60), *zenguizelaco-n* (60), *daguicela-n* (61-62), *daguizucela-n* (62-63), *pecatariec-en* (63-64), *graciera-n* (65), *alivie daguizuzela-n* (65-66), *gustiec-en* (68) *santuén-en* (75), *bedeynquietu-n* (81), *virgine-n* (83-84), eta *originen-en* (84-85), *-e baite-n* (33, 50) eta *gaunce-n* (68), *-ei- Jeincoen-en* (22),

¹⁵ Zehazki «La Salve Regina en Bascuence» (1-41. lerroak), «Rosario Fin de cada Decenario del Rosario» (42-46. lerroak), «Gloria» (47-52. lerroak), «Adoración de las llagas» (53-70. lerroak) eta «Dios te salve» (71-86. lerroak); jauzi bat egiten dute egileek (ez dakit beharrezkoan den) 55 eta 57. lerroen artean.

¹⁶ Cf. *da osterancheco dacusguen da estacusguen ganzac* (*Viva Jesus* 4), eta *osterancheco hondasunec* (*Viva Jesus* 11).

-u- *erruquiurra-n* (19) eta *sigluetaco sigluetan-en* (34),¹⁷ -m- *yminten-en* (40) eta *eminten-en* (67);¹⁸ ez da horrelakorik *RS*-en.

Jose Ignazio Aranak zioenez «en vascuence vizcaíno occidental de Vizcaya y Alava»¹⁹ (*apud* Mitxelena 1954: 85) bada *Viva Jesus*, eta Vinson eta Urquijoren ustez 17. mendeko edizioan gordea baina lehenagoko batzen berrargitalpen, garaikide erabateko ez izan arren, hegomenedebalekoen artean hori da *RS*-etik gertukoena egiten zaiguna. Bokalismoaren aldetik itxura guztien arabera *Viva Jesus* hurbilago dugu Orozkoko 1739ko testu labur horretatik *RS* baino: cf. *vecenean* (3), *zure uzena* (13), baina *Iaunec* (2), *situcen* (2), *bicen zan* (2), *crucificadue* (2), *orduen* (2), *cumplimentue* (2), *divine* (2), *christineuena* (2), *sinfiqueduric* (2), *generalissimuen* (2-3), *mundue* (3), *araguie* (3), *acostumbredu* (3), *confienza* (3), *andiegas* (3), *becoquieren* (3), *libredu* (3), *gaguicenzat* (3), *dogule* (3), *Iaune* (3), *bulerrera* (3), guei «deitu» (3), *deucegule* (3), *Trinidede* (3),²⁰ *persinedu* (3), *santiguedu*, Mitxelenaren edizioko lehen lerroetarik jalgi gabe (1954b: 87-88), *graciie* (9), *santueu* (9),²¹ *gueyego* (12), *caridedean fundeduec* (13), *gueuguena* (14), *vici iceteco* (16), etab., ez aipatzearren; berriz ere, ez da honela-korik *RS*-en.

Kontsonanteei dagokienez, bi ohar moeta, bata orokorrako, bestea xeheago, iruditzen zaizkit komenigarri; alde batetik, *Viva Jesus*-en dagoneko nabarmena da txistukari neutralizazioa aurreratua zela: *situcen* (2), *gustia* (2), *legues* (2), *asquero* (2), *se señale* (2), *señaleagas* (2), *gaguizus* (3), *deucegule* (3), *ezerean vrteiten dogunean* (3), *elexaan zarçaiten* (3), *zaspi* (4), *deuzut* (4), *deucet* (4), *es* (4), *esebere eserean* (4), *cegaitic esse* (5), *sidin* (5), *senguisen* (7), *gause* (7), *gorpusbaten* (9), *seinzuc* (9), *locearren edo bildurrarren* (10), *messaan* (11), *deuzudes* (16)... Halere, gehiago dira hotren isla grafikorik ez dutenak eta oso gutxi hiperzuzenekat; bestela esan, Mikoletak mende berean aitzinatuago zuela esatera ausar bide daite-

¹⁷ Markatzeko da 59 *dusuguz* (baina 61 *deusegu*), hau beste fenomeno bat izan arren.

¹⁸ Egia osoa esateko badira *Maria, Santissima eta Trinitade* (76. lerroa) Orozkoko testu honetan baina gutxiengo erabatekoan izateaz landa, litekeena da ez izatea arrazoi fonetikoak salbuespen horiek azaltzen dituztenak.

¹⁹ Uler bedi 19. mendearren egoeraz eta orduko materialez Bonapartek egindako sailkapenaren arabera.

²⁰ Hemen ere (cf. bi ohar gorago) bada *Santissima Trinidadecoa* bat (2. or.).

²¹ 10. orrialdean *mandamientuetati, pensamientusoac*, hiatoarekin. Betolatzarengan *pensamintu* nabiz *mandamintu* aurkitu nituen, -e-rekin ere bai, eta hala mantendu (cf. Lakarra 1981eko hitzegia s.u.) Mitxelenak bere edizioan errataztat jo arren. Ondoren *-mintu* ediren daiteke Uriarteak Arabako euskarara itzuli eta E. Knörrek argitaratu Buldan (*Iker* 2, 283hh) testu batean, bederen: *pensamintuz* (3), *merecimintuai* (24, sic eta gutti); *Laudiyoco abade jaunen encarguz eta costuz* Bilbon 1828an argitaratutako Astetean ez dut horrelako rik ikusi, ordea.

ke baina agian ez digu ezaugarri honek balio *Viva Jesus*²² RS-etik bereizteko, hemen ere neutralizazioaren zenbait arrasto agertzen direlarik beranduago hedatu den fenomenoa baitirudi (ikus 5. kap. § II.3.).

Aditzean *credoac edo articuluec contenietan daudeena* (7) / *Elexa santa catoliqueac iracasten dabena* (7), *ofendidu daudeenagas* (9), *errecibietan daudena edo celebretan daudeena* (11);²³ aurkitu arren, ez da RS-eko (eta Mikoletaren *Modo breve*-ko, cf. 1. kap. § 4.9.4.) -n > -o aditzen lehenaldian *Viva Jesus-en*:²⁴ *esan situcen* (2), *egin situcen* (2), *emon eben* (2), *can eta da* (2), *bicen zan* (2, 6), *eugueiben* (2), *acabadu eben* (2), *cein sidin guizon?* (5), *non cidin guison?* (5) *gueracidin virgine* (6), *libredu guenguicé?* (6), etab., salbuespenik gabe 16 orrialdeetan. Lehen kapituluan ikusi dugunez joan den mendelean erorketa mocta hau «Bilbo inguruko kostaldeko herrixketan» gertatzen zen Zabalaren esanetara (1848: 57) eta horrelatsu 20. honetako arrasto eskasetan ere. Litekeena da distribuzioa antzerakoa izatca lehenago, 17. mendelean eta are orduan ere iparra eta hegoa mendebaleko B-an ezaugarri honen arabera bereiztea: hots, hegoaldeko lirateke *Viva Jesus* eta Orozkoko 18ko testuak, iparraldeko Mikoleta eta *Refranes y Sentencias*.

2.2. Zenbait gogoeta generoaren soziologiaz

Orain arteko oharrek mendebalean iparralderantz begira jarri bagaitzute, testuaren izaerari buruzko gogoetak ere nonbaiterantz egitekotan Bilborantz begira jartzen gaituelakoan nago etorkiak bilatzekotan.

«Curiosamente fueron autores de altos vuelos los que se sintieron atraídos por esta apretada transmisión de la sabiduría y a ello dedicaron su esfuerzo con dedicación admirable» badio ere Victor Infantes-ek,²⁵ ez dirudi Spainia osoan 16. mendelean jazotako errefrau bildumen hedaduran gertakari hori halabebarrezko izan zenik.

²² Orozkoko 1739koan gutxi dira neutralizazioaren arrastoak (ez ditut mailebuak sartzen): *vizicea* (3), *rengan* (7, 45), *negarrezcua* (9), *eguizus* (11), *zeure* (12, 14), *gustiz* (13), *eracusi* (16), *eguniguzu* (16), *gutzis* (18), *gozo* (20, 29), *eguizu* (21), *icen gaitezanzat* (23), *aguinze gustiz* (25), *nogaz* (27), *ceure* (28, 40), *semeari* (30, 48), *zana* (32), *vizi* (35), *escuetan* (40), *gorpuz* (41), *zeuc* (43), *gaguizuz* (44, 46), *eriozaco* (45), *doguz* (54, 68), *zenguizenac* (58), *dusunguz* (59), *zenguizelaco* (60), *esqueetan* (61), *deusegu* (61), *daguicela* (61-62), *daguizuce-la* (62-63, 65-66), *gauce* (68), *gustiec* (68), *vihozta* (69), *seemeen* (73), *yzen bide* (82). I.eherkari aurrekoan dirudi aitzinatu den kokagunea.

²³ *eta cumplietaco dinden penitencie* (16), edota Urquijok eta bestek kausitu aoristoak (cf. Lakarra 1986b eta hango erreferentziak).

²⁴ Ezta Orozkoko 1739koan ere, baina hau ez da esanguratsua gertatzen den lehenaldiko forma bakarraren -n hori erlatibo batean azaltzen baita, testuan aipatu *afrenta hac artu zenguicenat gure amudioz-en* (58), hain zuzen.

²⁵ 1992an Visor-ek egin Correasen berrargitalpenean (v. orria).

Ora se atienda a la categoría social del individuo, ora a su talento, con sólo echar una rápida ojeada por la literatura patria veremos muy luego que el asunto que nos ocupa ha merecido ser tratado de un modo más o menos directo, pero predilecto siempre en el terreno lingüístico, por plumas tan ilustres y graves como la de D. Iñigo López de Mendoza, marqués de Santillana; Hernán Núñez de Guzmán, llamado comúnmente el Pinciano por haber sido natural de Valladolid, antiguamente Pincia, o el Comendador Griego, a causa de haber comentado o explicado los AA. helenistas en la Universidad de Salamanca; Mosén Pero Vallés, historiador insigne; el obispo de Astorga D. Fr. Antonio de Cáceres y Sotomayor; Cervantes; Quevedo...²⁶

zioen J. M. Sbarbik 1874an bere *El refranero general español-en* (I, vi. or.). Ezaguna denez, Hernán Núñez-engandik (1555) Correas-enganaino (1627), Pedro Vallés (1549) edo Juan de Mal Lara (1568) tarteau direlarik, gutxi batzu baino ez aipatzearen, errefrau-bilketan aritu ziren espiniar humanista anitz.²⁷

Les noms qui vont être évoqués sont bien connus. Pedro Vallés, Hernán Núñez, Juan de Mal Lara, Gonzalo Correas —les quatre plus célèbres— ont acquis droit de cité dans l'humanisme espagnol du xvie et du xvie siècle grâce à de grands ouvrages érudits. Mais ces importants travaux —traductions d'auteurs anciens, recherches philologiques, gloses érudites, grammaires, etc.— ont moins contribué à immortaliser leur nom que cette autre partie de leur oeuvre, dont l'intérêt, à l'époque, paraissait parfois discutable: les grands refraneros qui, entre 1549 et 1627, jalonnent cette période des lettres et de la parénitologie espagnole (Combet 1971: 135).

Haien lanean, jakintsuen idazkienganako begiruneaz gainera, txiroen filosofiarekiko eta «arte herrikoia»-renganako eta «bereko sormena»-ren aldeko benetako onespina aurkitzen dugu Chevalier-en ustez (1979: 105). Dirudienez, sentimendu eta joera hauek Espanian beste inon baino zabalduago ziren, ez Frantzian, ez Italian ez beste Europako herritan

²⁶ Beranduago ezagutu eta Sbarbik aipatu gabe utzitako Gonzalo Correas «Catedrático de Griego y Hebreo en la Universidad de Salamanca» genuen bere *Vocabulario de refranes y frases proverbiales y otras fórmulas comunes de la lengua castellana*-ren tituluan (1627ko eskuizkribua) agertzen zuen bezala; Juan de Mal Larari buruz, (*Filosofía Vulgar*, Sevilla 1568) «fait aussi partie de la grande lignée humaniste et érasmiste de la Renaissance espagnole. Professeur et polygraphe, sa vie et son activité intellectuelle l'apparentent à ses maîtres» diosku Combetek (1971: 152).

²⁷ Pedro Vallés-ek glosarik gabeko 4.500 eman zituen, Hernán Núñez-ek 8.331 errefrau, gehienak glosarik gabe (bidenabar, batek ere ez du RS-en); Mal Lara-k 1.001 errefrau glosadun eta Correas-ek 18.000tsu errefrau (8.000 inguru orijinalak, icurri asko erabili arren) eta beste 7.000 esapide (cf. Combet 1971: 170).

eriden ahal baitugu bere hedadura eta sakontasunean xv. mendearen azken hamarkadez gerotzik espainiarren artean herri lirika, romanceroa eta errefrauen alde aurkitzen dugun zaletasunarekin.²⁸

Asko eztaba idatzi izan da honetan guztian Erasmoren jarraitzaileek izandako erantzunkizunaz;²⁹ nolanahi ere, argi dago haren *Adagia* famatuak jarraitzaileei eta enparatuei bihotz eman ziela eta zuri zuela dela-ko paremiologiazko lanotan.³⁰

Ez dirudi xvi. mendearen amaieran RS bezalako bildumarike espero genezakeenik Bizkaiko (edota Euskal Herri osoko) herrixkaren bateko czein elizgizonengandik eta bai nolabaiteko kulturguneren baten inguruau kokatzen zen laiko ikasiren batengandik. Ez da ahazteko, bidenabar, ez apaiz baizik historialari zen Garibaik berak ere ez zituela errefrauak Arrasaten eta Arrasaterako bildu, kortisau baten eskariz baizik, edota Isastik ere gortean idatzi zituela bereak (*Compendioa bera bezala*) eta ez

²⁸ Combet-ek dioskunez, lehenago gauzak oso bestela ziren: «(...) nous avons vu qu'il en allait autrement avant cette date et qu'en particulier la parémiologie populaire française recueillie au xiii^e siècle et au siècle suivant est incomparablement plus riche que la parémiologie espagnole de la même époque» (1971: 134) eta, oharrean, «Après le xvii^e siècle les proverbes ne disparaissent pas de l'usage courant. La situation est différente suivant les couches sociales et surtout suivant les pays. Ceux que le classicisme à la française a le plus marqués ont vu peu à peu s'éteindre leurs proverbes, sauf dans certaines régions excentrées ou rurales. En revanche, les nations les plus réfractaires à la rationalisation d'essence française — Espagne, Russie — ont conservé très tard ce mode d'expression.

²⁹ Iku Combet eta Chevalier-en lanak, Bahner 1966 eta, jakina, Bataillon-en *Erasmo y España klasikoa*. Hara, esaterako Bahner-engandik (1966: 159-160) hartu pasarte hauek: «Los primeros en construir el andamiaje teórico del tradicionalismo español fueron Juan de Valdés y otros humanistas españoles influídos por Erasmo, que acudieron al refranero como muestra del espíritu lingüístico español». «Los refranes tienen para Valdés una significación similar en la lengua castellana a las autoridades clásicas italianas citadas por Bembo para el italiano. La obra capital de esta tendencia tradicionalista fue la colección comentada de refranes aparecida en 1568 con el título de la *Philosophia vulgar* y debida al humanista sevillano Mal Lara, que expone en los preámbulos su programa, de acuerdo con el de Erasmo». Berian iku daiteke espainiar erasmotarrek jakituria herriko horri klasikoari baino garrantzia gehiago nola eman zioten edota gaztelararen lehentasuna gainerako hizkuntzen artean, are «castellano primitivo» dclakoaren teoria bera, neurriren batean, hizkuntza horretan kausitzten errefrauen aberastasun eta egokitasunen oinarritzen zuten.

³⁰ Ezberdintasunak, Valdés-ek erakutsi legez, ukezinak izan arren: «...la diferencia es que Erasmo cogiólos en latín, de autores doctísimos, griegos y latinos, y declaró el origen de ellos. Yo helos copilado en romance, tomando de acá y de acullá» (*apud* Chevalier 1979: 106-107). Erasmoren pedagogi-baheketa ere ez zuten beti jarraitu «hizkuntza arruntez» axoldurituk. Hauek ahozko tradizioak emanako guztia —urre zein lohi— biltzen baitzuten, gustagarri hezitzaire bainoago agerturik: errefrau Pedro Vallés-entzat «dicho antiguo, usado, breve, sotil y gracioso» genuen eta bere liburua «de refranes y sentencias maravillosas, donosas, y aun provechosas» aurkezten zuen (cf. Chevalier 1979: 107).

Lezon. Iparraldeko Zalgize, Bela eta Oihenart laiko humanisten eredu diskusiogabeak ditugu hemen luzatu bchar izateko.³¹

2.3. Bilbo aldeko literatura zaharraz

Atseyñ andia da amore eutea
Eta bere bada gustiz firmea
Ecin essan leydis ondo munduac
Cein andiac diren aren gustuac
5 Glorias beteric iayo nindia
Icussias guero seu ene egusquia.

Honela irakurtzen da *RS* ere ezagutu eta erabili zuen Oihenartek bere *Art poétique*-n eman adibide batean. Sarasolak erakutsi bezala (1983: 86-87), badu berak «pocía galante vizcaína» deitzen duen poesia moetaren eiterik; azpigenero horren barnean kokatzen ditu hark «Catigatu ninduçun librea ninçana» (*Contribución* 87 hh), Mikoletaren *Modo breue*-ko biak (*TAV* 133 hb), «Ene veguiacaz vioçeen artean» (*TAV* 122), «Zure vegui ederroc» (*TAV* 123) eta Perutxoren kanta (*TAV* 103). Hizkuntzaz «la composición, en su brevedad, es una buena muestra del tipo de lengua que suele denominarse vizcaíno antiguo» diosku labur Sarasolak (1984: 87), baina gehixeago zehaz bide daiteke, berak ikusi bezala horko 3 *leydis* bezalakoak nekez aurkituko baititugu *RS*-etik landa eta —batez ere—, 5 *nindia*-ren kidea *Modo breue*-an (*mudadu nindia*) erideten dugu hain zuzen.^{31b}

Hots, B-ren barnean Bilboko edo Bilbo aldekoa izateko aukerarik badu orain iruzkintzen dugun eta hain modu xelebrean gorde izan den bertso honek.³² Badira Mikoletaren aipatu liburuaren bere garaiko eta lehenagoko poesiaz gogoangarri diren ohar labur batzu:^{32b}

³¹ Conca eta Guia-k (1996: 17) «podem dir que el proverbio es una fórmula de pensamiento i un acte de comunicació nascut de les necessitats mnemotècniques de les cultures orals, amb una estricta relació entre proverbio, poesia i narració, els tres tipus de discurs más importants per a emmagatzemar coneixements» badiote ere, Ramon Llull edo Anselm Turmeda Erdiaren eta gero Pedro Valles, Hernán Núñez edota Palmireno aipatzen dituzte katalanezko biltzaleen artean.

^{31b} Arejitat (1991: 14) Azpiazuk argitaratu (1988) *Nori mundu onetan espada neurri* (Elgoibar 1677) eta *Enojaduric* (1611-33) gehitzen dízkie zerrendari. Azkena (cf. 4 *nauden*, 8 *cudea*, 19 *cirea*, 3 *jatas*, 5 *guichigas*, 8 *nigas*, 13 *gustia*) nabarmenki ipar-mendebalekoa dugu.

³² Aurreko oharreko *Enojaduric*-en transmisión ikuñ Arejita 1991.

^{32b} Beti garbi uzten ez dener gero, komoni da gaztigatzea ez dela inongo arrazoirik segurutzat emateko *Modo breue*-ko poesiak liburuaren egilcarenak berarenak direla; litke-ena da oso, bere garaikide edo egile zaharxeago ezezagunen batengandik mailebatuak izatea. Hori bai; hizkuntzaren aldetik ez da zalantzarak Mikoletaren hizkera berekoak direla eta Bilbokoak edo oso gertukoak, beraz.

Dexando a las coplas de Lelori, lelori, que suelen cantar las moças los días festivos, que no entran en la más graue poesía vascongada, ordinariamente ay en nuestra lengua dos modos de versos, y entrumbos se componen de assonantes como los romançes de la lengua castellana, y a este símil, los llamamos nosotros vasquenses: son pues como digo dos los géneros de nuestra poesía; digo hablando generalmente, porque abajo diré de otro género de versos que no son vulgares. El primer modo de versificar (...) El otro es más largo, a modo de soneto, y se canta de ordinario por el son que llaman las vacas, y aunque es a modo de soneto, también se compone por assonantes. Exemplo (...)

Estos dos son como dixe los dos géneros de poesía, para que si alguna vez fuere Vm. tentado de alguna locura poética en nuestro idioma, no ygnore el estilo.

También algunos modernos del Parnaso Cantábrico han escrito dézimas, lyras y sonetos en vasquenze, con los mismos acentos y consonantes que suelen tener en romanç, pero es obra de poco luçimiento, por los pocos que en vasquenze entienden este metro, etc.

Bestelako arrastorik laga gabe joan zaizkigun «moderno» horiek zebat eta nor ziren jakin ez arren, badirudi Bilbo inguruan bide zirela poesia mota hori lantzen zutenak.

16. mendearcen bigarren zatian eta 17.ean zehar arrasto ilauntzat *Modo breve-a* baino utzi ez digun Bilboko literatur giroa, denik txikiena ere izaki, berezia izan zela ohartzeko gogoratu beharrá dugu Euskal Herrian bi ordezkari baino ez dituen generoa: hizkuntz eskuliburuena, alegría.

Lakarra 1995a-n erakusten den bezala, merkatalgorako zuen garantzia bide da (cf. Osselton 1973: 14) Noël Berlaimont-en *Colloquia-en* Holandako edizioetan inglesa agertzeko arrazoi nagusia. Frantses-flamendar itxuran hasi zen 1530ean Antwerp-en lehendabizikoz atera zenetik mende eta hiru laurdenez Europa osoan zehar zabaldu zen liburu arrakastatsu hau; alabaina, ehetik gora edizio izaki, asma daitezkeen gongabinaketa gehienetan bildu zituen latina, gaztelera, italiana, portugesa, alemaniera, inglesa, tsekiera, polskera eta bretoiera, uoiz binaka, noiz hirunaka, eta are lau, bost, sei eta zazpiko taldeetan ere.³³

Bourland-ek (1974: 289) markatu legez, berchala ohar gaitezke Berlaimont-en liburuaren izena aski nahasgarri gerta daitekeela —Voltaire-rena

³³ Ikus Osselton 1973, 14. or., 44. oh., Bouchard 1974 eta Gallina 1959ko atala (Berlaimont-en ondokoen pisuaz italiana-españierazko biztegintzan) eta, batez ere, oraingo Stein 1989, passim, Berlaimont-en izenaren aldaera ezberdinatarako; orobat haren liburuaren deitura ezberdinatarako eta izandako imitazio eta itxuraldaketa ugarietarako.

bezala, bigarren argitalpenetik aitzinakoak, bercziki—: *Vocabulaire* (nahiz *Interprect zein Tresora*) hori merkatari eta eskola-haurrentzako flamendar-frantses hiztegi praktikotzat eratua bazeen ere, gai ñabardura handia da bertan. Erabilera arrunteko hitzen hiztegiño orokorraz landa, zenbaki eta egun izenen zerrendak, hiru elkarrizketa, merkatalgo gutun eta dokumentu-ereduak, Aita Gurea, Agur Maria, Fedeko artikuluak, Mandamentuak, bi bedeinkapen, eta frantses ahoskerari buruzko atal-txoa, 42 folio³⁴ eta bi zutabetako liburuxkan. Osoa da bi hizkuntzetan, salbu eta frantsesez den hizkuntza horren ahoskerazkoa. Gordetzen den lehendabiziko argitalpena 1536koa bada ere, badakigu credua 1530 (agian baita 1525 ere) baino lehenagokoa izan zela. Arrakasta ikaragarria izan zuen eta Londres, Varsovia zein Venezian argitaratu zen hainbat aldiz. Beren artean hain urrutiz ziren hiri horietan hizkuntza atzerritarra ikasteko zen beharraz landa, bere etengabeko iraupena liburuaren benetako balioari atxeki dio Bourland-ek (1974: 291): hots, egilearen pedagogizale-tasunari, elkarrizketen errerealismo eta bizitasunari, gaien antolakuntza eta hizkera herrikoiarri.

Euskal Herrian ere islatu zen, betiko neurri apalean baino ez bada ere, lexikografi eredu hau.³⁵ Horren barnean kokatzen dira erosoenik Voltoire-ren *L'interpret ou traduction du François Espagnol & Basque (Hirur lengoajetan tresora)* eta haren familia, eta baita Mikoletaren *Modo breve para aprender la lengua vizcayna* ere.³⁶ Bata Donibane Lohizune eta

³⁴ «In the course of its existence through 162 years, de Berlaimont's bilingual manual of 84 pages had grown to a volume of 448 pages in eight tongues» dio Bourland-ek (1974: 300; cf. orobat Gallina 1959); Voltoire-ren libutuak tarteko credu bat jarraituko luke, bada, eta hala dagokio kronologjaren arabera ere.

³⁵ Iritsi, Kroaziaraino bederen iritsi zen: cf. *Opera nuova che inseagna a parlare la lingua schiavonesca alli grandi, alli picoli et alle donne* (Ancona, 1527), beharbada Pietro Lupis Valentiano, espainiar judu batena. Filipovic-ek dioskunetz (1986: 66) «From the introduction and the rest of the book we learn that he was a merchant and that he wanted to help other merchants and travellers to learn the language spoken and understood not only in Croatia but also in other neighbouring countries such as Serbia, Albania, Turkey, Hungary, etc., in many cities and trade centres. His book is intended to enable merchants to sell their goods, to make purchases and to calculate in those languages. But he also wanted to help Croats to learn Italian, and even to learn how to read it».

³⁶ Tradizio zabala zela eta euskaraz ere bertakotua, Vinson-ek (1892: 97-99) argitaratu zuen baina ezagunegi ez den Pouvreuren zirriborro batetik erakusten digu. Bertan burutu ez bide zuen elkarrizketaz hornituriko gramatikaz ere hitzegiten da argitarakizunen artean: «Privilege du Roy: Lovis par la grace de Dieu Roy de France et de Navarre: ...» De la part de nostre bien-aimé Silvain Poureau, prestre du diocese de Bourges nous a été exposé qu'il a traduit en langue basque un liure qu'il intitule *Iesusen Imitacionea sur le latin de Thomas de Kempis chanoine regulier de l'ordre de Saint Augustin*: qu'il a aussi dressé une *Grammaire Basque et François avec quelques Dialogues familiers pour le commerce des deux langues*, et de plus un *Dictionnaire basque, françois, espagnol et latin*. Lesquels liures étant approuvez et iugez utiles au public il desireroit mettre en lumiere, et faire imprimer». (Itzana neureka).

Ziburuko cuskaran («denik ederrenean») eta Bilbokoan bestea, orain arte esandakoaren bermegorik azkarren ditugu, XVII. mendean Euskal Herrian ziren bi portu eta bi merkatal gune nagusien izaki.

Mikoletarekiko bibliografian³⁷ behin baino gehiagotan aipatu izan da eskuizkribuaren aurkikuntza tokiak ematen duen Bizkaia eta Ingalaterraren arteko merkatalgo erlazio estuen lekukotasun hau. Izan ere 1639an Bilbon zeuden atzerritar merkatarien —batez ere ingeles merkatarien— zerrenda aski luzea ematen du Teófilo Guiard y Larrauri-k,³⁸ horietako batek, Samuel Sainthill artile saltzäileak, eraman zuen eskuizkribua Inglaterrara.³⁹

Elkarritzetei dagokienez, Mikoletak bakarra dakar gazteleraez eta euskaraaz, ezker-eskuin:

Diálogo primero para leuantarse por la mañana y las cosas a ello pertenecientes; entre un hidalgo llamado don Pedro y su criado Alonso, y un su amigo llamado don Juan, y una ama / Platika lelengoa ocrean xayguiteco goxeán, ta ari dagocasan gausena essatari Peru xauna derechan vategas vere osseyñ Alonsoen artean ta bere adisquide derechala Joane xauna eta asso bategas.

Mitxelenak zioenzc⁴⁰ dialogoak berri interesgarririk lukete —orijinalak balira—⁴¹ XVII. mendeko Bilboko pertsonen arteko harreman, janzkera, jan-edan edo altzariez (ez da libururik ageri, ordea) eta goizeko bostetan jeiki arren zeregin handirik ez zuen eta emakumeak laketegi ez zitzaitzkon aitonen seme baten egunoroko biziaz. Haatik, aspaldidanik dakigu (Dodgson 1901: 100) elkarritzeta horrek orijinalik gutxi duela: John Minsheu-k bere *A dictionary in Spanish and English*-i erantsi zion *Pleasant and delighfull dialogues in Spanish-eko lehendabizikoa* dugu;⁴² ez da halabcharrez 1623ko ediziotik hartua, ordea, Dodgson-ek nahi bezala. Era honetako ckoizpen anitzekin gertatu bezala, elkarritzeton argi-

³⁷ Cf. C. Villabaso «El doctor Rafael Micoleta», *RIEV* 7(1913), 568-569 eta Zelaieta 1988: 136-137.

³⁸ *Historia de la noble villa de Bilbao*, Bilbo 1906, II, 297. or.

³⁹ Apud Zelaieta 1988: 137. or., oh. Museum-era Robert Harley-ren bildumaren barnean joan zen eta hark sir T. Browne —zeinari eraman baitzion Sainthill-ek— bere arbasoaren gandik zuen.

⁴⁰ «Prólogo» in E. Arriaga, *Lexicón bilbaíno*, 2. arg. Madrila, Minotauro, 1960, 6. or.

⁴¹ Baldintza hori da, dirudienez, A. Irigoyenek ikusi ez zuena «Bilbo eta euskera» lancan (*Euskeria* 22, 1977, 389) Mitxelenari jazar egin zionean.

⁴² «The Spanish text of the Diálogo Primero, which the author evidently meant to have successors, as he introduces it with the leading diálogos in the original, is to be found at the beginning of the *Pleasant and Delightful Dialogues in Spanish and English*, etc. by John Minsheu...London 1623» (Dodgson 1901: 99-100).

talpenen historia aski korapilatsua dugu: hasteko, 1623koa ez da 7. argitalpena baino (cf. Foulché-Delbosc (1919: 77-80); lehendabizikoa 1599an egin zen Londresen.⁴³ Geroztik 1608an eta 1611n Cesar Oudin-ek gaztelera-frantzes bilakatzen ditu; orobat, ondoren Juan de Lunak 1619 eta 1621ean eta Cesar Oudin-en edizio berri bat dator Dodgsonek aipatu 1623koa baino lehen. Gero ere italieraz jarri zituen Lorenzo Franciosini-k 1626, 1638 cta 1648an eta are italiera, alemana eta frantsesa gehitu zizkion gaztelerari bigarren Oudinek, Antoine-k, 1650ean, guztiak Mikole-tarenaren aurretik. Hortik aurrera elkarrizketok gazteleraz, frantsesaz, italieraz eta ingelesaz, hizkuntzok era ezberdinetan gongoratu ziren oraindik.⁴⁴

Horrenbestez, Donibane Lohizune eta Bilbo ditugu europar genero berezi horren kokagune bakar Euskal Herrian; ez ote hori *Refranes y Sentencias*-ena izateko aukera gehien duena ere?

2.4. Realia

Aurreko atalean literatur soziologian oinarritutako arrazoientzatik Bilboren aldeko hipotesia aurkeztu ondoren eta, argi dudalarik arrazoibide horiek berez duten ahulezia, gehi dezaket badela bestelakorik ere hizkuntzazko sendoagoetara igaro baino lehen: hots, era ezberdinak *realia*-tarik abiaturikoak.

Har bitez hurrengo errefrauok:

92. *Celangoa da Butroe oroc daquie. Que tal es Butrón todos lo saben.*
167. *Erioac ereçan Butroeco alabea Plencian. El tartago mató a la hija de Butrón en Plencia.*
270. *Muxica arrioacaz aguica. Múxica a dentelladas con los enemigos.*
273. *Gaçean, gaçean ta ez Ybarguengorean. De la sal, de la sal, y no de la de Ybargüen.*
284. *Aramayo dabenac ez lemayo. A Aramayona quien la tiene no la daría.*
334. *Daygu Goliz auzi ta garea vaquez bizi. Hagamos pleyto de Goliz y seamos con paz biuir.*

⁴³ Horren berri bazuen Sarasolak ere (1983: 188, 8. oh.) S. Martín Gamero-ren *La enseñanza del inglés en España*-ren bitarte (Madrid 1961).

⁴⁴ Foulché-Delbosc-ek 27 edizio oso aipatzen ditu José María Sharbi-ren 1874koa baino lehen; ez da zer pentsa horiek direnik izandako guztiak. Zatikazkoak, elkarrizketa solte-enak (César Oudin-ek bere gramatikaren edizio anitzetan ezarri zuen 3.a. demagun) ez bide ziren urri izan. Lakarra 1995a-n ematen ditut gaincrafko elkarrizketen tituluak (Foulché-Delbosc-ek testu osoa ematen du 1599ko ediziotik jasoaz).

387. *Albia deunga dustien abia.* Albia, nido de todos los malos.

404. *Butroeco meniac gayti ez ysquilosay echi.* Por las treguas de Butrón no dexes las armas.⁴⁴

Hauek ditugu, okerrik ez bada, RS-en herri edo familia izenen bat dakarten errefrau guztiak. 270, 273 eta 284.aren aitzinean lehendabizikoan besterik nste izan arren, Bilbo edo haren iparraldeko herrixkaren batetik sortutakoentzat antza dute. Goiko hiru horiek ere ez doaz uste honen anka; beren ezagutza eremua gainerakoena baino zabalagoa izaki, ez du te etorki zehatz bat bilatzeko balio. Bi lehenak eta azken hirurak are bobeto datozkigu gure hipotesirako, eta are gehiago 387.a, ez lchen ez gero bere eremu meharretarik landa oihartzun gutxi izan duen Albia horren aurrean: nork sor zezakeen eta gogora hari buruzkorik? «Esakune onen aldian, gaur uri andi bat dagoan Albian, basoa ta sasia ta larrea baño etzirean, da ezta arrigarria gaizkin askok euren burua bertan gordetea» azaltzen edo digu Azkuek bere edizioan; alabaina, Albian beren buruak gorde zitzaketen «gaizkin» abstrakto horiek erreferentzia ezaguna zuten bilbotarrentzat: García de Salazar-ek dioskunez «En el año del señor de 1342 años, este Juan de Avendaño, seyendo ome mncho vullcioso e guerrero, e para mucho, fasía guerra al Concejo de Viluao, de un castillo que tenía en un otero sobre las veneras de Bilbao, que llamaban Malpica, e salieron los de la villa todos, e pelearon con él a cerca del castillo e fueron vencidos e corridos hasta la puente de la Villa, e quedaron muchos muertos dellos, e dexaron muchas armas» (A. Rdz. Herreroren edizioa, Bilbo 1984ko argitalpena, 181. or.). Beranduago (1415) «En este mismo año, en el mes de mayo, ovo discordia e contienda entre este Juan de Avendaño e Juan de Múgica, e la causa fue, que moriendo Jnan Alonso de Múgica, su agüelo, ganó Juan de Avendaño la guja de Aluia, que deuía auer este Juan de Múgica, e por la poseer ovieron mucha guerra e contienda» diosku (194. or.); «de la pelea de la pesqnería de Aluia e de la muerte de Juan de la Guerra, fijo de Galas de Ligiamón» deitzen digu (210. or.) historialariak 1445ean han borrokatzeko bildu ziren zenbait leinuren arteko liskarra eta 274. orrialdean azaltzen 1430ean basurtuarrek eta zamudioarrek han izandakoa: «De la pelea que los çamudanos ovieron en Aluia con los de Vasurto e de la causa della.⁴⁵

⁴⁴ Urquijok bere iruzkinean Guiardek bidalitako 1329ko dokumentu bat aipatzen du *in extenso* baina ez dakit hura hobeto dagokion testuan emanak baino errefrauari. Testuko argumentazioa ez da suntsitzen, kontrakoagian, «X-ia Y-ren abia» bezalakoak (Plenitzia edo Mungjari ezarriak, demagun) EY-n aurkitzeagatik.

Bestalde, aipatzekoak dira santuci buruzko bi errefrauak:

318. *Done Viçen arguta guztioençat dacar ogua.* San Vicente reluziente para todos trae pan.

330. *Done Meterij Celedon porru ereyaro on.* Por Sant Meterio y Celedón buena sazón de sembrar porrina.

Lehena herri askotako eleiza eta parrokietakoa izan daiteke, noski (Bilbon bertan hasita); orobat bigarrena, baina anitz horien artean Larrabetzuko elizakoa, non Bizkaiko jaunak bere zinetariko bat egin beharra baitzuen.

2.5. Hizkuntzaz

Hizkuntzari dagokionez, Azkueren eta Mitxelenaren Orozkoren aldeko hipotesiaz landa, bazen Bilboren aukera kontuan hartzeko zaitasunik. Aurreko lan batean (Lakarra 1984b) BZ-eko ablatiboa ikertzean, oztopoak aurkezten nituen Mikoleta eta Betolatzaren datuak bata bestearrekin konpontzeko, biak Bilbokotzat jo behar baziren bederen:

Interesgarria iruditzen zait Mikoletaren usadio hau [denbora kutsuko eta leku izenez at -rean, -reanik bakarra] Betolatzarenarekin gongarratzea. Bigarren honek ikusi dugunez singularrean ere -rik formak ditu erabiltzen eta -rean ez du artorean-en, arkaismo gisa, baino gordetzen. Mikoletaren testuak, bestea baino 57 urte berriago izan arren hark baino itxura zaharragoa du aztertzen ari garen alderdi honetan. Hau ez litzateke zaitasun larriegia baldin eta suposatzen badugu bizkaieraren bi azpieuskalki ezberdinak, bata berritzaileagoa, bestea kontserbatzaileagoa, ordezkarri direla. Alabaina, ez dakit nola esplika daitezkeen emaitzok biak bilbotarrak zirela eta hango euskara erabiltzen zutela pentsatuaz, baldin eta hizkera polimorfoa ez bazen behintzat. Azken hau ez da ezinezkoa XVI. mendearren bukaerako nolabaiteko garrantziko hiria baitzen Bilbo; haistik, iruditzen zait honekin ez dela korapiloa askatzen, ez baitakigu zein zen -rik-dun azpieuskalki berritzailea eta zein aldaketaren zuzenbidea espazioan, edota Bilboz kanpo beste non ematen zen -rik (Lakarra 1984b: 174).

Aurretiaz, Kapanaga zen Betolatzarekin erkagai. Bigarrenarena mañatiarrarena baino 60 urte lehenagoko testua izan arren hura baino berriptaileagoa dela zioen Azkueri erantzunaz, Mitxelena beren arteko ezberdintasunak testuetan islatzen zituzten azpieuskalkienei zor zitzaiokiela esatera zetorren:

Aunque el escrito es anterior al Catecismo de Capanaga con prioridad de 60 años, su lenguaje sin embargo no es más arcaico que el de este. Al contrario, mientras el Licenciado trae los arcaísmos *baea* pero (5-2), *egun* hoy (4-23), *arean* de allí (6-16), *gaxerean* (5-2), *ilaen eta bizien juzgaetara* (6-18), *iaio zidin* nació (6-2), *ilak beatutea* sepultar a los muertos (14-27), el Doctor dice en su lugar *baya* (4-30), *gaur?* (4-21), *arik* (6-22), *gatz guztirik* (4-30), *juzgaetan bilak eta biziak* (6-23), *jayo zan* (6-11), *hilak enterretea* (14-3) (Azkue 1935: 65).

(...) Su obra [Betolatzarena] es un reflejo, por breve e impreciso que sea, de su habla y de la de los que le rodeaban. Dentro de esa hipótesis, descontadas las variables individuales (sumisión o libertad frente al texto original, preferencia estilística por lo propio o extraño, etc.) habrá que explicar las diferencias entre Capanaga y Betolaza como originadas en lo fundamental de las diferencias reales que existían entre el habla de una zona vizcaína (Durango) a mediados del siglo XVII y la de otra (Bilbao?) a fines del XVI. Y no hay en principio razón alguna para negar que la primera pudiera ser más arcaica, es decir más abundante en rasgos

hoy desaparecidos o en vías de desaparecer, que la segunda (1955 [SHLV]: 828).

Metodologikoki Mitxelenak Azkueri egindako oharra guztiz oinarritzko eta premiazko izan arren, ez dirudi ohartu bide zenik Betolatzaren hizkerari, zalantza markarekin bazen ere, Bilbo etorkitzat ematean Azkueri Kapanagarekiko bururututako auzia amaitu arren,⁴⁶ beste berri bat sortzen zela. Hots, bagenuen jaiotzez eta bizitzez (cf. Irigoyen 1977: 388-9 eta oh.) bilbotarra genuen egile baten hizkuntz lekukotasunik, *Modo breve para aprender la lengua vizcayna compuesto por el Ido Rafael Micoleta, presbytº de la muy leal y noble villa de Bilbao (1653)*-n alegia, eta haren behar zen parckatu Betolatza norbaitekin egitekotan eta ez Kapanagarekin Azkuek egin bezala.

Eta hara non erkaketa horretan ezberdintasun markagarriak azaltzen diren, are gorago ikusi dugun ablatiboaren nabarmenaz landa.⁴⁷

BETOLATZA	MIKOLETA
<i>gustia</i> (829), <i>gustiric</i> (830)	191 <i>dustia</i> , 196 <i>dustiac</i>
<i>libradu gaguzâ</i> (829)	192 <i>vior equida</i> ⁴⁸
<i>jaquiten</i> (830)	195 <i>xaquin,</i>
<i>jancitea</i> (830)	189 <i>xasten, 190 xansi,</i>
<i>bagaric</i> (835)	193 <i>aymbaga</i>
<i>dila</i> (830)	
<i>izenean</i> (829)	178 «nombre» <i>ucena</i>
<i>emateco</i> (833), <i>ematea</i> (835)	208 <i>ydarayten, 211 ysayteco</i>
<i>ezegüeu</i> (832)	190 <i>sedeguidisula, 193 sebegui</i>
aoristorik cz	aoristo ugari
<i>sinistetea</i> (832, hainbat)	
* <i>ezan-en formarik ez</i>	196 <i>essasus, etab.</i>
<i>onec</i> (833)	206 <i>y doroco gu</i>
<i>-mintu</i> (834)	192 <i>oneyc</i>

⁴⁶ Aranak «Eta gehiago esango nuke: Kapanagak Betolazaren testua erabili zuen bere itzulpena osatzeko, eta askotan hitzez hitz hartu zuen 60 urte lehenagotik itzulita zegoen Dotrina» (1986: 508) dioen arren, ez dirudi bere frogak erabatekoak direnik: adibide gisa ematen duen *Aita Gurea*-tik (*ibid*) jalgi gabe, ez da ikusten zergatik bihurtu behar zituen Kapanagak *santificadu dila, egun iguazu, Echi te eguiuguazu, baca, gacherean* Betolatzaren *santificadua ian dila, emon eguiuguazu, echi ez eguazu, baya, gach gustiric*.

⁴⁷ Zenbakiak Mitxelenaren eta Zelaietaren edizioetako orrialdeenak dira, hurrenez hurren. Ikus orain Zuazo 1996a bi egileon arteko ezberdintasun gehiagotarako (zenbait Azkue 1935-n ere aurki daitezke).

⁴⁸ «Que así como hay en el libro de *Refranes*, según se ha visto, diez y ocho verbos indeterminados por ausencia del sufijo *tu* (...) que ni su coetáneo Betolaza (...) ni el que había de seguirle años después, Licenciado Capanaga, presentan ejemplos de estos preciosos arcaísmos de infinitivo determinado» (Azkue 1935: 72); ikus Lakarra 1985d irrealatak partizipio markaren erabilera eta hedapenaz bizkaieraren historian.

BETOLATZA	MIKOLETA
<i>cituelaco</i> (833)	203 <i>edan daysu, esteysu</i>
<i>eban</i> (831), <i>zan</i> (831)	203 <i>nay daude</i>
<i>deunguetaric</i> (829)	204 <i>etorri sirea-ø, 205 egin sidi-ø</i>
<i>-acaz, -agaz soz.s.</i> (836)	- <i>agaz / -akaz</i> (s/pl.)

Mitxelenak, zalantza ikurrarekin bada ere, proposatutako Betolatzaren bilbotar etorkia ukatzera zetorren Aranaren (1986) beranduagoko azterketa. Ez zen, garaiko paperak gorde arren, haren arrastorik agertzen hiriko artxiboetan, haren jaiotzaz ez apaiz lanez. Susimatzekoa zen beste nonbaiteko zela. Bilbon inprimatu arren haren doctrina, eta, Dodgsoni lotuaz, beharbada Arratia aldekoa izan ote zitekeen galdetzen du Aranak, baina aurrerago jo gabe.

Urte bereko beste lan batean, Odon Araizen gomendio bati jarraikiz, bestetara jo zen (*de*) Betolatza doktorearen etorkiaren atzetik: haren izena ongi irakurri izan bagenu aspalditik garbi izan behar genuen Betolatza Arabako iparraldeko herrixkara, hain zuzen (cf. Knörr 1986). Geroztik badakigu bere sorterrian 1592 arte, eta handik eta 1599-1602 bitartean hil arte, Santo Domingo de la Calzadan apaizgoan aritu zela, Bilborekin erlazio berezirik ez zuelarik.

Datuon aurrean ez dugu inongo arrazoirik pentsatzeko Betolatzak bere doctrina bilbotarentzat eta Bilboko euskaraz egiteko asmorik izan zuenik eta, aurreko buruan eman hizkuntz frogak kontuan izanik, Mikoletaren testua gelditzen zaigu soil-soila Bilboko euskara zaharraren ordezkarri eta RS-en erkagai.⁴⁹

2.5.1. Segidan Mikoletaren liburuko eta *Refranes y Sentencias*-eko zenbait forma parekatzen dira testuen hizkuntz hurbiltasuna (edo urruntasuna) oinarri harturik testuen euren jatorriaz gogoetarik egin dezakegun aztertzeko:

MIKOLETA	RS
<i>labur</i>	<i>labur, txabur</i>
<i>dustis</i>	<i>guztiz, duztiz</i>
<i>atxikandrea</i>	<i>txirkandea</i>
<i>urtigi</i>	<i>urtigi</i>

⁴⁹ Partez, bederen; gogora bedi bere hiztegitxoaren aurretik ezarri pasarte: «Pondremos aquí un vocabulario breve de los nombres que más esquisitos son en nra. lengua, porque ay muchos que con el mismo sonido y significación del romance se vasquensean, como *sermón*, *sermoea*, *considerar*, *consideradu*, etc.» (160); euskal garbizaletasunaren historiareneko aldetik iruzkin baterako ikus Lakarra 1992 eta ondoko lanak. I. Gaminderen «Bilboko euskara aztertzeko materialak», *FLV* 1987, 207-250 baliatu arren ez dut izan duela 4 mende hango euskara garbiro orain kontraesanean diren ereductarik zeinekin zihoan aterazterik.

MIKOLETA	RS
<i>etxi</i>	<i>etxi</i>
<i>beatu</i>	<i>orzitu</i>
<i>gaixoa</i>	<i>gaxo</i>
<i>erotu, erratasuna</i>	<i>ero, erasun</i>
<i>ikuska-</i>	<i>ukuzka</i>
<i>arorio</i>	<i>etsai</i>
<i>anaxea</i>	<i>anajea</i>
<i>etse</i>	<i>etse</i>
<i>nax</i>	<i>nax</i>
<i>douz</i>	<i>ezauz</i>
<i>inarrea</i>	<i>isuskia</i>
<i>esaña, esaintasuna</i>	<i>ezáirik</i>
<i>irapazi</i>	<i>irabazi, irapazi</i>
<i>sugatea</i>	<i>suatea</i>
<i>uruna</i>	<i>uruna</i>
<i>arauntzea / arrausa goringoa</i>	<i>arauntzea</i>
<i>ines egin</i>	<i>iñes egin</i>
<i>mandasaina</i>	<i>mandazaik</i>
<i>erailea</i>	<i>erallea</i>
<i>txakur</i>	<i>or, txakur</i>
<i>llobeia</i>	<i>llobeia</i>
<i>xaygui, xaquin</i>	<i>jaygui, jaquindun</i>
<i>tellatu</i>	<i>lauzatu</i>
<i>eugi</i>	<i>eugi</i>
<i>luki, azebari</i>	<i>luki</i>
<i>lorak</i>	<i>markaak</i>
<i>mudadu nindia</i>	<i>jagi cidin, erra-e cizan</i>
<i>diño</i>	<i>dió</i>
<i>-reanik</i>	<i>-rean</i>
<i>daude «dute»</i>	<i>daude «dute»</i>

Ez dira ez batean ez bestean diren guztiak, jakina,⁵⁰ baina, beharbada, esanguratsuak ideia orokor baterako. Zerrendatuen artean badira aldaera eta antzekotasun fonetikoak, morfologikoak eta lexikoak: Mikoletak erabat gauzatua du, ezagun denez txistukarien neutralizazioa (143 *xaunacas*, *xaunensat*, 148 *espatac*, 149 *dosu*, 150 *sendua*, *suc*, 155 *a sa*, 167 *eroç*, *yçutu* «cegar», etab.),⁵¹ RS-en oraindik abian zena⁵² eta honetan gorde dira zenbait bokal geminatu (*laar*, *ataarte*, *abaa*, etab.) eta sudurkari (*burdiâ*, *gastâê*, *igûî*, etab.)⁵³ harengan eriden ahal ez ditugunak; RS-en nahiz

⁵⁰ Hurrengo kapituluan RS-en hizkuntzaz aritzean ediren ahal da haboro; orobat biztegi eta oharreran.

⁵¹ Honetan Betolatzarengandik ere aldentzen da Zuazok (1996a) erakutsi bezala.

⁵² Aurreratuen leherkari aurrean eta hitz amaieran, beharbada. Iku 5. kapitulua, § II.3.

⁵³ Iku edizioa eta 5. kapitulua.

-n nahiz -o ediren ahal dugu Mikoletaren ia salbuespen gabeko -oaren aurrean, partizipoaren hedadura irrealen ia burutua da 1653an eta hasia baino ez askoz gehiago RS-en.,⁵⁴ lexikoan RS-eko hapax eta forma gutxi lekututako zenbait falta da, jakina, Mikoletarengan (*lauzatu, marka, or* eta *etsai* ...).

Erabateko berdintasunak (*daude* eta beste asko aditzean, *etse, eralle, eugi, llodea* eta beste hainbat lexikoan) eta ezaugarri bereizle amankomunak (txistukari disimilazioa, -n > -o aipatu neurrian, *ezan-en erabilera,⁵⁵ *irapazi, tuki, ezain...*) ez eze, bi *testuen* artean emandako hamarkadek —zazpi baino gehiago ezaugarri anitzi dagokionez— azaldu ahal dituzten korrespondentziak ere gogoan izan behar ditugu testu hauetan islatzen diren hizkeren arteko hurbiltasuna edota urruntasuna erabakitzeko; hots, goian ukitu diren fonetikazko hiru ezberdintasunak ia ezer ezean gelditzen dira 1) txistukari neutralizazioa, mendebaletik ekialderantz hedatzen den berrikuntza dela jakinik (eta /j/ > /x/ erdararen interferentzia dela, Bilbo bezalako hiri batean beste inon baino lehenago espero dena) eta 2) oharturik bokal sudurkaria eti geminatuak eta arkaismoak direla lehen testuetarako eta modu batera edo bestera ezabatuaz joan direla euskalki guztietan, iparmendebaleko bizkaiera barne. Morfologian ere ez gaitu harritzen Mikoletarengan aurkitzen ez dugunak (*daminda, ikedak ta dikeada* famatua, etab., -rean soilik ablatiboan)⁵⁶ eta ezta RS-en aurkitzen dugun bikoiztasunen batek ere, -n / -o lehenaldiau, esaterako: testu honetako hizkeraren polimorfismo bereziren bat proposatu beharrean horko errefrau guztiak ez direla Mikoletaren hizkera berbereko (hots, Bilbo bertako) onartea aski litzateke;⁵⁷ hau, ordea, ez da garestitze berzirik teoriarako, lehen esan bezala herri ezberdinietan bildutako errefrauak —ez nahita nahiez gune batetik urrutiegi— izan baitaitezke, bilduman honen edo haren (gogora Mitxelenak aipatu *ukuzka*) bestelako etorkirik ezagun baita inoiz.

Alabaina, ez bide dira bizkaiera zaharrean bi testu beren artean hurbilago RS eta *Modo breuea* baino; amaitzeko, Bilbon bilduak ez badira errefrau hauek —ez guztiak eta ezta beharbada gehienak ere— ez bide dira handik urruti eskuratuak, eta ezin dugu inor beste inon horiek biltatzeko (zein itzultzeko) aukera hobean asmatu.

⁵⁴ Nire datuen arabera 6 -o (hauetarik 1 poesietan) eta 11 -tu Mikoletarengan; RS-en 28 -o eta 14 -tu; nolanahi ere arkaikoa da honetan ere Mikoleta bere garaikide Kapanagak 2 -o eta 67 -tu baititu, eta *Viva Jesus*-ek 2 eta 19. Bilbotarraren ondorengotan soilik bertsotan ari direnek (Bertso bizkaitarrak, Barrutia) dute erro gehiago (cf. Lakarra 1985d: 289).

⁵⁵ *Viva Jesus* eta Betolatzarengan ez dut aurkitzen, eta bakarra ehundaka egim-en aurka Kapanagarengan; ikus 5. kapituluan BZ-eko guztien zerrenda.

⁵⁶ Ikus 5. kapitulua eta Lakarra 1984b.

⁵⁷ Bikoiztasun morfológikoez csana fonetiko edo lexiko zenbaitez ere (RS *guzti / duzti* baina Mikoleta *duzti*) errepikatu ahalko genuke.

REFRANES Y SENTENCIAS-EN HIZKERAZ ETA BIZKAIERA ZAHARRAZ

0. Laburpena

Euskal hizkuntzalaritzako historikorako lekukotasun garrantzitsutzat jo izan da arrazoi osoz *Refranes y Sentencias* (cf. Azkue 1935, Gorostiaga 1953, Mitxelena 1964c, 1964d). Segidako orrialdeotan bere pisu hori zein den antzeman ahalko dela uste dugu. Orobak, bizkaiera zaharraren barruan ze argitasun egiten digun bere lekukotasunak ere miatuko da, morfologia eta sintaxiko ezaugarri larri batzuen azterketa gonbaratuaren bittaratz; bidenabar, kapitulu honek errefrauak eurak irakurtzean norbaitek izan ditzakeen zenbait zaitasun arintzeko ere balio bide lezake.

Hara kapituluaren egitura: I. Sarrera, BZ-ak euskalkien artean duen kokaguneaz eta ustezko urrututasunaren lehenagoko eztabaida baten (cf. Lakarra 1986b) iruzkina eta corpusaren aurkezpen llaburra, hori ikertze-ko hurbilketaren zioak azalduaz. II. *Refranes y Sentencias*-en hizkeraz: hemen bi atal nagusi (§ 1 eta § 2) berezi dira zenbait ezaugarri (18, hain zuzen) morfosintaktikoren azterketarako; gero (§ 3) zenbait ondorio ate-rra da RS-en kokaguncia BZ-aren barnean, aurreko azterketan oinarrituaz eta abian diren beste zenbaiten (fonetikazko batez ere) laguntzarekin. RS bazter hizkera bat(zu)en isla legez azaltzen zaigu, arkaismu ugari eta berrikuntza esanguratsu zenbaitekin, Mikoleta bilbotarraren hizkeratik ger-tuen BZ-koen artean. Gure ustez, aurreko iruzkinak BZ-ak (eta inoiz bizkaiera osoak) diakronikoki eta alderdi batzuetarik bestera izandako bilakaera diferenteen azterketarako ematen duen laguntza agerian geldi-tzen da.

I. Sarrera

Or on a vu et on verra encore que les dialectes grecs sont loin d'être bien connus. Les dialectologues doivent en prendre conscience. Avant de comparer les dialectes, il importe de les connaître. Chercher à connaître les dialectes, telle est la priorité actuelle; chercher à les connaître en leur consacrant des monographies, en les décrivant synchronique-ment et diachroniquement, tels qu'ils nous sont livrés par les docu-ments, sans préjugés comparatistes. C'est à ce prix seulement qu'on assainira les bases de la comparaison (Bile et alii 1984: 172).

La idea de que la historia propiamente dicha de una lengua, de la vasca como de cualquier otra, sólo puede edificarse sólidamente sobre documentos fechados y localizados con la mayor precisión posible, no ofrece ninguna novedad. A lo sumo, acaso no esté difundida entre nosotros cuanto fuera necesario. [...] Lo demás [...] no es más que extrapolación, que sólo vale si tiene el firme punto de apoyo de datos seguros y sirve para explicarlos diacrónicamente (Mitxelena 1971a: 149).

Hauet ziren 1986an «Bizkaiera zaharra euskalkien artean» izenarekin argitaratu nuen lan baten abiapuntuak. Orduko helburua ez zen —ezta zorigaitzez oraingoa ere— BZaren deskribaketa zehatz eta osoa ematea, luze jotceaz at, xede horretarako behar diren aurrelanak izatetik urrutti baikinen oraindik. BZ-aren zenbait ezaugarri —batez ere morfologiazkoak— aurkeztu nituen eta fenomeno bakoitzaren sorrera, kronologia eta hedaduraz dakiguna laburtzen saiatu, euskararen historiaren barnean BZ-ak gainerako euskalkiekin izan duen (eta duen) erlazioa argitzeko asmoz. Aski izan nuen, bada, BZ-a zeri deitzen diogun,¹ ze testutan iker zitekeen eta ikerketa hori zertarako eta zergatik axola zitzaigun azaltzea.

¹ Adituek berba horretaz baliatzen zirenean elkar ueltu arren, dakinanez ez zen artean deitura hau zehazteko siorik, beharbada gaia ere zehazteke zira ualako. Badirudi ikerlari guztiek ados zirela eta direla izenburu horren barnean sartzeko XVI eta XVII. mendean ekoiztu testuetan islatutako hizkera; XVIII. mendekoak; ez dira horren czagunak —edizio eta ikerketa faltaz seguru asko— eta ez da hain garbi ere bakoitzak horrela sailkaruko lituzkeen ala ez; XIX. mendearren hasiera literatur bizkaiaren sorreratzat izaki (cf. Alzibar 1992 eta Urgell 1985a eta ondorengo lanak) Añibarro, P. Bartolome, J. A. Mogel eta bere iloba Juan Jose eta Bixente, Uriarte, Zubala eta enparauckin, ez dirudi garai hau inork BZ-tzat lukeenik.

Nik neuk 1745 jarri nuen mugarritzat, ez soilik BZ-arentzat baina baita —eta batez ere— GZ-rentzat; guztioek dakigunez, urte horretan argitaratu zen mende hartan eta hurrengoan hainbesteko arrakasta izan zuen *Hiztegi Hirukontza*. Ohi bezala, proposatzen den letxa gutxi-gorabeherakoa da, jakina; ez da abantzekoa, gainera, 16 urte lchenago Salamanca atera zen egile beraren *Arte de la lengua bascongada*-k izan zuen eragina literatur B eta G-ren craikuntzan ez zela mezprezarzekoa izan. Alabaina, bat hautatu behar eta hori aukeratu dut; cf. halaber «Gero Larramendi dugu aro berria zaharretik bereziko duena eta urtumuga, horrelakorik behar bada, 1745 litzateke» (Mitxelena 1984: 13 eta ik. orobat Sarasola 1986). Iletxa horrek G-ren historian suposatu zuen iraultza czagunegi da hortaz orain luzatzeko; nahikoa dugu duela zenbait urte I. Sarasolak prestaru zituen euskal liburugintza zaharraren produksio kopuruzaren tauletan (ik. Sarasola 1976, eta Lakarra 1985c-ko iruzkina) geroztik G-zko liburuek erdietsi gorakada nabarmenaz jabetzea. Halaber, Mitxelenak markatu zuen legez, Larramendik ez zituen soilik idazle berriak erakarri, baina baita beren lanetako euskara hobetu eta gaitu ere: gonbara bitez bestela Otxoa Arinen eta Irazuztaren dotrinak Ubillosenarekin, adibidez (ik. Mitxelena 1984, Lakarra 1985c, Sarasola 1986).

B-ri dagokionez Larramendiren eragina ez bide zen askoz txikiagoa izan (cf. Urgell 1985, 1988a); beranduagokoa dirudien arren oraingoz, XIX. mendearren hasierakoa, irudi hau ez bide da zuzena, ikerketa fatalak eragina baizen. Nolanahi ere, ukacazina da Gandara gernikarraren hamazortziaren erdialdean, edota 1794an Bilbo argitaratutako gabon kantak, eta Oktxearen dotrinan hizkuntzaren beste egoera bat islatzen dela; zilegi deritzot, bada, «literatur aurreko B» genukeen 1745etik 1800era doan mende erdi hori ere aurrekotik berreiztea (cf. Lakarra 1985c).

1. Bizkaiera euskara ote?²

Harako hartin B-k euskalkien artean ze kokagune zuen, edota horrezzaz izan diren iritzi eta usteketen oinarria genuen aztergai. Izan ere, euskalkien artean mutur batean kokaturik egoteagatik edo, B-ri aparteko nortasuna ezagutu izan zaio ikertzaileen artean. Batzuk (Lacombe, laburtzeagatik), ordea, urruagi jo dute eta beste euskalkien mailatik igo eta haien guztien aurrean jarri izan dute, euskarak egiatan soilik bi euskalki bailitu: mendebaldeko aldeko (bizkaiera oraintsu arte) alde batetik eta erdi-ekialdeko (gainerako guztiak) bestetik. Are urruagi joan zen Uhlenbeck Lacomberen sailkapen bikoitzari aitzinatasun handia emanaz, eta B eta erdialde-ekialdeko euskalkien arteko ezberdintasuna etorki berezietan oinarrituaz.³ Bestalde, etorkiei buruzko hipotesi honek eraginik B eta G-ren antzekotasunak historikoki etengabe gertatu omen den hurbiltze prozesu batez azaltzen zituen.

Tovarrek eta Mitxelenak, batez ere azkenak, dagoeneko bazuten ikuspegi honi egindako oharrik. «El vizcaíno entre los dialectos vascos» lanean bi galdera nagusiri ihardetsi nahi izan zien Tovarrek: «¿la personalidad dialectal del vizcaíno es tal que podría representar la herencia de una lengua originariamente distinta de la que sería el antecedente de los otros dialectos vascos?» eta «¿Será el vizcaíno resto de una lengua diversa, que

Ezaguna denez, XVI. mendean bildu eta argitaratu zenbait testutako euskarak (herri kanta eta errefrauez ari naiz) oso eredu zaharkituak aurkezten ditu eta are aintzinagokotzat eduki behar dira. Bai herri kantetan eta bai errefrauetan, tradiziokoak izaki, ez da soilik mezua mantentzen baina baita etorkizko hitz eta perpausak ere, neurriak eta gainerako egitura nenioteknikoek lagundurik, cf. Lázaro Carreterrek (1980) «hitzez hitzezko» hizkuntzaz (*lenguaje literal*) diocena eta Mitxelenak (1977b eta beste lan batzutan) egun oharra erakontzeko euskal adibideekin. Gaur egungo bat edo beste gehitzeazaren cf. *Paseito bat emoidakezu, urten daik mutil halako bentanarian, kanpora sospetzerian, neure anaia hantxe datorke* «Ana Juanixe» baladaren eta *bota egin eustan lantzea bentanarean, orain hil bere banzoa eta enterrau bere naikerzu «Lantzarean»* (Ik. Lakarra et alii 1983 II; Lakarra 1984b-n ere badira -ean-en adibide gehiago herri kantetakoak). Bestalde, Mitxelenak ohartu bezala, ipuin zaharretan ere gorde dira hitz eta esamolde arkaikoak, hortik at nekez aurki daitezkeenak, *halbea* esaterako, cf. «muerte, en los cuentos de Peru y María» (s.v. *Voces Bascongadas*).

² Izena Zuazo 1989c-tik hartu dut; ikus bedi han eztabaideren historia, Lakarra 1986b baino ikuspuntu zabalago baterik.

³ Cf. «Si nous faisons attention aux particularités individualisantes du biscayen par rapport aux autres dialectes basques, nous avons plutôt l'impression qu'il nous faut partir de deux dialectes pyrénéens occidentaux anciens qui, pendant une certaine période, n'étaient pas immédiatement voisins, mais qui, entrés plus tard en contact immédiat, se sont rapprochés de plus en plus. De l'un serait donc issu le biscayen; du second, tous les autres dialectes en territoire espagnol et français. Le rapprochement entre le biscayen et le guipuzcoan, en d'autres mots l'effacement graduel des limites indubitablement nettes autrefois, est un processus en cours depuis longtemps et qui se poursuit toujours» (Uhlenbeck 1947: 544).

habría sido asimilado sólo en cierta medida a los otros dialectos vascos, sus vecinos por el este?» (Tovar 1959: 147). Gero Mitxelenak askozaz zehatzago eta sakonago burutuko zuen B eta gainerako euskalkien arteko gonbaraketa baten ondoren ezezkotan zegoen.⁴

Mitxelenarena, zalantzarik gabe, aurreko sailkapen bikoitzent kritikariak zorrotzena. Hasteko, Lacombe eta Uhlenbecken argudio eta oinarriak oso axalekoak zirela erakutsia zuen, ez baitzuten gaztigatzen, esate baterako, *norentzat eta zenbat den ezberdina* B: giputz batentzat hurbil ez izatera, hurbilago ote zuberera edo erronkariera? Izañ ere Lacobek aipatzen ditu B-ren hiztegiko berezitasunak baina ez du gogoratzen badirela hainbat hitz ekialdean giputzek egun ulertuko ez lituzkenak; zenbatu egin behar B-k gainerako euskalkiek baino hitz berezko gehiago duela frogatzeko —markatzen du Mitxelenak— eta ez dirudi honelakorik inork egin duenik, ez eta nahi izanez gero ere erraz lukeenik.⁵ Ausartago zelarik, Uhlenbecken teoria are ahulagoa bilakatzen zen Mitxelenaren iruzkinaren ondoren, ez baitzen inongo oinarririk suposatzeko aintzina hizkuntza edo dialektu ezberdinak batu edo bateratu zirenik Euskal Herrian, edota «Auñemendi alboan» berak dioen legez. B ez genuen, bada, euskal dialektu soil bat baizik; euskalkiak irudikatzeko zuhaitzaren metáfora ezagunaz (cf. Mitxelena 1963a: 80-1) baliatzen bagara, adar bat litzateke anitzen artean, ez bitatik bata.⁶

Gainera, eta hori zen 1986ko artikulu hartan jorratu nahi nuen alorra, Uhlenbecki aitzi, Mitxelenak testuen lekukotasuna gogoratzen zuen B eta G hurbilduaz joan direla ukatzeko, lehen latzagoak eta nabarmenagoak omen ziren mugak beratu eta estali beharrean areagotu egin direla eraku-

⁴ «En conclusión, no tenemos en el vizcaíno un resto de otra lengua afín al vascuence oriental, que en la convivencia, como resultado de una progresiva asimilación, se ha reducido a ser un dialecto del euskera común. Se trata de un dialecto bien caracterizado, pero, en definitiva, no independiente. Forma parte del patrimonio común del vasco, es un tesoro de antigüedades lingüísticas, como los demás dialectos, pero no nos permite remontarnos con la reconstrucción en él basada, mucho más allá. [...] El vizcaíno no procede de una lengua afín a la que dió origen a los otros dialectos vascos, sino que deriva de una misma lengua. No está excluido que rasgos primitivos del vizcaíno apuntaran ya en el vascuence de muy remotas épocas [...]. Las diferencias que se reflejan en el vizcaíno actual, frente al guipuzcoano y los otros dialectos del euskera, pueden tener sus orígenes en un pasado muy remoto, pero ello no compromete más la unidad del vasco primitivo que las diferencias del latín vulgar tal como se deducen del estudio de los diferentes dialectos románicos» (Tovar 1959: 17-46).

⁵ Orobait, aditzean Lacobek aipatu mendebaleko *daike* erdialdeko *dezake*-tik gertu ez bada, ez dateke gertuago ekialdeko *dijo* (tk. Mitxelena 1964b: 59-63).

⁶ Ez da zer esanik Lacoberen eta besteren zatiketa bikoitza erizpide ahuletan oinarritzen bada egoaria modernoari dagokionez, areagoetan datkeela duela hiruzpalau mendekatzailekoak Lakarra 1986b-n eta, bidenabar, segidakoan ikusi ahalko denez. Testukritika eta linguistika historikoaren harrenianez (stemmatika dela eta, esateko) ikus Mitxelena 1963a eta Timpanaro 1985.

tsiaz, eta xv eta xvi. mendeetako B eta oraingoa amin bat ezagutuaz, ez hurbiltze prozesua baina sakabanatzea eman dela markatuaz (ik. Mitxelena 1964b: 63).

2. Bizkiera zaharra eta euskalki banaketaz

Gorago agertu cztabaidarako morfologia hartu nuen batez ere oinarriztat, eta hautaketaren zergatia begibistakoa iruditzen zait gureak bezain aberatsa duen hizkuntza batean. Hara, oso bestelako hizkuntzetan pentsatuaz (katalanean eta erromaniotan oro har), Veny-k dioskuna:

Les diferències dins una llengua històrica afecten diferents sectors: fònic, morfològic, sintàctic, lèxic (aquest, amb la cultura popular). Qualitativament [etzana Venyrena berarena da] tenen prioritat el fònic i el grammatical (morfo-sintàctic), més sistemàtics; després, el lèxic. Quantitativament [id.] ofereix més fragmentació el lèxic (especialment el que no pertany al vocabulari bàsic); el que menys, el sintàctic (...)

62. *Diferències morfològiques.* - Des del punt de vista tipològic, juntament amb les fòniques, són les més importants. Justament un tret morfològic [...] ha servit per a una classificació «lineal» dels dialectes catalans, la desinència de la 1^a persona del present d'indicatiu: -o (*cant* en balear i alguerès), -i (*canti* en rossellonès), -e (*cante* en valencià), -o (*canto* en nord-occidental), -u (*cantu* en català central). I també un altre tret morfològic, les desinències -ara, -era, -ira, de l'imperfet de subjuntiu, en comptes de -és (o -ás), -is, ha estat aprofitat per recíficar el límit entre valencià i català nord-occidental que resultava d'aplicar el criteri anterior (1985: 57; Blasco Ferrer 1986 ere «morfosintaxiari» zuzendua da erabat).

Hortaz, euskalkien sailkapen bikoitza suntsitzeko modurik zuzenena begitandu zitzaidan ezberdintasunen gunera so egitea, borrako bere ahulezia frogatz geroz azalekoagoetarako errazago baitzatekeen. Ez dut ukatuko fonoliogiatik abiaturiko azterketak zukeen interesa, baina era hortako datuak ez zitzaizkidan besteak bezain erabilterrazzak iruditu; cz bedi ahantzi testu zaharrek azterketa luze eta zehatzak eskatzen dituztela beraietan islatutako ahoskerak antzemateko eta oraindik horrelakorik ez dugula beharko genukeen neurrian. Halaber, euskalkien arteko fonologi ezberdintasunak ez dira morfologiazkoak adina sistematiko eta soinu kopurua eta distribuzio ezberdintasunak orobat hartu beharko genituzkeela gogotan; «bego arlo hau hurrengo baterako, bada» nioen eta oraingoan ere bakarrik bigarren maila batean ukituko dut, zenbait ohar kapítulu akabuan aurreratuaz.

Hiztegia azalekoegia genuen ezer frogatzeko bere aldakortasunean, dagoeneko Menéndez Pidalek ongi zioenez:

Las mudanzas del léxico son ciertamente considerables, más rápidas y más frecuentes que las alteraciones fonéticas; por eso su estudio es más rico en hechos. Pero los estudios de geografía léxica hallan grandes dificultades de documentación para conocer el estadio antiguo de la distribución territorial de los vocablos, ya que los documentos primitivos manejan un léxico muy escaso; por esto los estudios suelen ceñirse al estado moderno de la nomenclatura, acaso juzgándola estacionaria y antigua, lo cual es muy aventurado (Menéndez Pidal 1979: 28).⁷

Ez da zer esan Pidal euskarak baino askozaz lekukotasun idatzi haboro duen gaztelera zuri dela; bere gogoetek, hortaz, chun halako balioa zuten guretzat eta, alderantziz, frango eskasten hiztegiaren egiteko gona baraketarako.⁸

1986an ondoloko taulan laburbildu nuen,⁹ ausarki egian, orduko azterketa:

	BZ	GZ	LitB	LitG
1. <i>egin</i> eta <i>*ezan</i>	+	+	-	+
2. <i>dio</i> eta <i>dextso</i> (edo <i>dirau-</i>)	+	+	-	-
3. <i>To gen</i> eta nom.	+	+	-	-
4. - <i>gaz</i> eta - <i>kin</i>	+	-	+	-
5. - <i>d-</i> <i>daude-n</i> (edo <i>dste-n</i>)	+	+	-	+
6. Asim. <i>*edin-en</i>	+	+	-	-
7. - <i>n</i> > - <i>ø</i> lehen.	+	-	-	-
8. Komunzt. falta	+	+	-	-
9. - <i>ø</i> / - <i>tu</i> A. Nag.	+	+	-	-
10. - <i>rean</i> ablat.	+	(+)	-	-
11. - <i>ti</i> prosekt.	+	+	(+)	-
12. Genit. gonbar.	+	-	-	-
13. X- <i>ekin</i> Y = «X eta Y»	+	+	-	(+)
14. Futur. imperat.	+	+	+	-
15. - <i>a-</i> / - <i>e-</i> 2 eta 3 perts.	+	+	+	-
16. - <i>zu</i> «zuek»	+	+	(+)	-
17. Futuro zah.	+	+	-	-

⁷ Cf. antzeko gogoetak euskal adibideekin Mitxelena 1981c eta 1985: 83-84. or.

⁸ Iku Laka 1986b-ko 4. oħarrar. Hemen 4. kapituluan zerbait erabili da hiztegia RS-en jatorria eztaba datzean. Azkenik, irizpideak eta ermaitzak hobeki ulertzeko, eta BZ-a enparatu euskalkietarik hurbil agertuko denarren, oħar bedi nire soa aski gainetikoa izango dela halabeharrez, hots, ia lehen begiradan erabakiaz berdintasun eta ezberdintasunak; azterketa sakonago batcan (aditzaren elementuen funtzieta ordena gonbaratuaz, demagun) berdintasunak eta are isomorfismoak ere askozaz handiagoak bailirateke Mitxelenak sarri (cf. adibidez 1981c: 302-303) ohartu bezala.

⁹ Parentesiek ezaugarri horren agerraldi kopurua murritza dela (3. eta 4. zutabeetan inoiz bakarra edota testu edo egile bakar batzko) adierazten dute.

BZ GZ LitB LitG

18. Aoristoa	+	+	-	-
19. <i>eroan</i> eta <i>joan</i> aditz lag.	+	-	+	-
20. A. Nag. + ez + A. Lag.	+	-	+	-
21. <i>bai(s)t-</i>	+	+	-	+
22. -eta- aditz izen.	+	(+)	+	-

LEHEN TAULA

3. Iruzkina eta azterketa berrien beharra

Gogoangarria izan daiteke F. Rodríguez Adradosek grekera zaharrauen dialektoen arteko bereizkuntzen sailkapenerako proposaturik, Tovarrek (1959) eta Mitxelenak (1964b) beren lanetan inoiz erabilitako erizpidea; hauen arabera, dialektu ezberdintasunak sailkapen hirukoitzean labur daitezke: 1) hautapen ezberdinak, 2) berrikuntza ezberdinak, 3) arkaismu iraunkorrak (cf. Mitxelena 1964b).¹⁰

Gure goiko taulan 1.tik 4.era czarriak ditugu euskara zaharreko diasistima hautagaiak (gero nonbait, noizbait, batera edo bestera erabakiak), 5.etik 9.era (kronologia eta hedadura ezberdineko) berrikuntzak eta 10.etik akabura arkaismuak. Dakusagunez, GZ-a bat dator BZ-rekin 22etarik 16 ezaugarritan (% 72,7) eta are 18tan (% 81,8) parentesi artean doazenak ere onartuaz; LitG, aldiz, bakarrik 3tan (% 13,6), parentesi artekoak gehituaz ere 5era (% 22,7) baino ez da iristen. Baino ez da soilik hau BZ-etik urrundu dena; LitB-k ere ez ditu BZ-aren 5 (edo 7) ezaugari baizik, % 22,7 (edo 31,8) alegia, eta areago dena BZ-a = (LitB = LitG) = 0.

Aurrerago ere bihurtuko gara berriz taulon iruzkinera baina diogun hasiera hasieratik hauek honela izanik ezin onar daitekeela inola ere Uhlenbecken iritzia, hots, B eta G bilduaz joan direla historian zehar, nabarmena baita horien garairik ezagun zaharrenetan askozaz gertuago zirela beren artean euskalki bakoitzaren aldirik berrienak (erraztuaz, literatur euskalkiak) baino, eta are bakoitzaren garai zahar eta modernoa be-

¹⁰ Sail bakoitzaren balio eta pisua ez da bera, noski; ikus —klasiko bat aipatzearren— Birnbaum eta Puhvel-ek 1966an argitaratu *Ancient Indo-European Dialects*, non material batzukin edo besteekin gai honen inguruko Hoenigswald, Lehmann, Watkins, Cowgill, Hamp eta cnparaucn, argitaratzailcak curak barne, lan interesgarriak kausi daitezkeen.

ren artean baizen; pentsatzeko zen, bestalde, horrelako zerbait susma daitekeela historiaurrerako ere.¹¹

Taulara bihurtuaz, norbaitek uste lezake B eta G (=LitB eta LitG oraingoz, ik. gorago) ez daudela oraindik orain ere oso urrutি beren artean, eta beharbada arrazoi du. Ohartzekoa da, ordea, biek batera «irakurtzen» duten 10 ezaugarrietan (% 45,4) guztietan «ezetz» irakurtzen dute-la; hots, ez dutela halako edo holako ezaugarria, baina ez nahi eta nahiez biek ezaugarri bera dutenik; cf. (2) adibide argi baterako. Ez luke, bada, adostasun horrek balioko goian esandakoaren aurka, bertatik ezin atera baitaiteke inongo hurbiltze prozesurik.

Alabaina, beren interesa dute (3) edo (8) bezalakoek, argiro erakusten ahal dutenez gero dialektuen ezaugarri berdinak bi eratakoak izan daitez-keela: a) aitzin-hizkuntzatik datozenak, eta b) berrikuntzetarikoak. Lehendabizikoek ez dute azalpen handiagorik behar, begi bistán baitago euskalkiek hainbat eta bainbat dutela aitzineuskaratik datorrena eta hori dela kausa euskalki horiek elkarren antza dutela eta, azken finean, hizkuntza bakarra osatzen. Bigarren saila ez dut uste horren ezaguna denik, aldiz, oso garrantzitsua izan arren hizkuntzaren historiarako. Esate baterako, nahiz eta historiaurrekoa izan, artikuluaren sorrera berrikuntza da, zalantzak gabe, euskararen eboluzioan: ez da horrelakorik agertzen akitanieran eta nahiz alboko nahiz urruagioko hizkuntzek ere beranduago garatu dute. Aldaketa, ordea, euskalki guztietara hedatu da, ezberdintasun batzukin bada ere: Erronkarin eta Zuberoan -a jartzen dute gainera-kook egiten ez dugun deklinabide kasuetan, *Maulealat, etxeara* eta beste erabiliaz (cf. Mitxelena 1981c, Zuazo 1989b) fenomeno hauek eta, bistoriokiki antzeman daitekeen, artikulua bakoitzean gehiago erabiltzeko joe-rak goiko azalpen hori sendotzen dute.

Berrikuntza baterakide hau, hots, guztien etorkia den aitzineuskaratik zuzenbide bercan urruntzen dituen berrikuntza, historiaurrekoa da, esan bezala, lehen euskal testuak agertu orduko eta baita 500 edo 600 urte lehenago ere betea zelako. Baina baditugu beste zembait, ostera, historikoak direnak, testuetan geure begien aurrean gertatzen baitira; halaber, berrikuntza hauetarik asko eta asko bercizleak ditugu, ez baitira euskalki guztietara hedatu. Baina azkenon artean ere badira aipatu (3) eta (8)-k legez euskalki bat baino gehiagotan zabalkundea izan dutenak, euskalki

¹¹ «Basta, por lo demás, con consultar la documentación disponible que, si no es excesiva, tampoco es escasa, para llegar sin vacilaciones a la conclusión de que las diferencias entre vizcaíno y dialectos más orientales no han hecho más que crecer sin descanso desde los siglos xv-xvi hasta nuestros días. No veo, por consiguiente, razones que inviten a no extrapolar, es decir, a no suponer que las divergencias eran todavía menos marcadas digamos en el siglo x» (Mitxelena 1981c: 300).

horiek gainerakoen aurrean batera irakurriaz; haatik, hemen utziko dut gai interesgarri hau, gutxiegi aurreratu baitugu Mitxelena 1964b-tik hona (ikus Camino 1994 eta 1997).

Bestalde, lehenago Tovarren hitzak aipatuaz adierazi dugun legez «se trata [el vizcaíno] de un dialecto bien caracterizado, pero, en definitiva, no independiente. Forma parte del patrimonio común del vasco, es un tesoro de antigüedades lingüísticas como todos los demás dialectos, pero no nos permite remontarnos con la reconstrucción en él basada, mucho más allá».

Hala da, izan ere, seguru asko; alabaina, hori aitortu ondoren, gorago ikusiaren arabera BZ-ak orain arte eman dizkigun (hartu dizkiogun, hobea) baino berri eta zehaztapen gehiago eman diezaiguke euskara zaharra-en berreraiketa eta ezagutzarako, ez baitakit hemen ukitu zenbait —eta ukitzeke utzi beste hainbat— ezagunegiak diren gure hizkuntzaren historiaz arduratzen direnen artean. Bile, Brixhe eta Hodot-ek grekera zaharra-z esan zuten bezala

Par habitude et par facilité, il [le dialectologue] fait ainsi appel à une sorte de vulgate dialectologique, constituée d'un ensemble de faits, qui, à force d'être indefiniment cités, sont devenus des évidences (1984: 166).

Baina, eta hor dago koxka,

De tels exemples [beren lanekoak] mettent clairement en évidence les insuffisances de la vulgate sur laquelle reposent les débats de la dialectologie grecque. Pour qu'un trait soit exact, il ne suffit pas qu'il ait été affirmé par Bechtel, Thourmb-Kieckers ou Thourmb-Scherer et qu'il ait été maintes fois repris, même pour les meilleurs. Est-il besoin d'ajouter que l'erreur a des conséquences d'autant plus graves qu'elle concerne un fait intervenant dans la comparaison interdialectale? (1984: 168).

Hau guztiau, zorigaitzez, errazkiago egoki bide zekiokeen gure aloantri goiko izenok Bonaparte, Vinson, Azkue eta hestez ordezkatuaz.

B ez da bakarrak euskalki enpararuen alboan definitu beharrean, baina baita berekiko ere. Ikerlari samalda luzearen bitartez badakigu, mende honen hasieratik gutxienez, oso zaila dela bi isoglosa bat etortzea eta ia inon ere ez dela ematen hortik gorako adostasunik, hizkeren ezaugarrick oso muga ezberdinak izan ohi baitituzte. «B» badira ere *barri, urten, uzen, itxi, zan, ganean, narru, bedar, deust, edonun, donga, arerio, ugaza-ba, domeka*, etab., (Mitxelena 1964b: 61-62ko adibideak eta orain Zuazo 1996b) beren mugak ez dira ados: zenbaitek oso hedadura eskasa du, herrixka bat edo bitakoa; beste zenbaitek Bonaparte eta Azkuez gerotzik euskalki horren lurraldetzetan dugun eremu guztia estaltzen du; batzu lurralte horren mugetarik ere ateratzen dira; baten bat galdurik edo galtze-

ar dugu... «Xehetasun» hauetako guztiok eta gehiago kontuan hartu behar dira gonbaraketarako edota historiari buruzko erabateko iritzia emateko orduan, eta ez ahaztu cuskalki bat ez dela gauza absolutoa (isoglosak edo, beste era batera, hizkuntza bat legez), oso izaki erlatiboa baizen, hitzarmen baten fruitua, azken finean. Hara bestela Coseriuren azalpen argigatari hau:

En efecto, la existencia de los dialectos no implica la existencia de límites dialectales, así como negar estos límites no implica afirmar la no existencia de los dialectos. Los dialectos no existen *antes*, sino *después* de la comprobación de las áreas en las que se registran los fenómenos concretos del hablar; no son cosas sino *abstracciones*, sistemas de isoglosas que se establecen por encima de la multiformidad del hablar. Y entre los dialectos puede haber, naturalmente, interferencias y caracteres comunes; es decir, que ciertas isoglosas abarcan más de un dialecto: todo depende de las isoglosas que, por convención, se adopten como límites dialectales (1957: 137).

Gertakari honek sor ditzakeen arazo, oztopo eta istiluez jabetzeko eta katalanaren erromantzeen arteko sailkapenarekiko eztabaidea famatuera jo gabe (cf. Blasco Ferrer 1986 aspaldiko Amado Alonsorenez geroz), gogotan izan bitez Bonaparteren iritzi aldaketak euskalkien sailkapenaz (ikus Yrizar 1981, Gomez 1989 eta Elordui 1994) eta halaber Azkue eta Mitxelenak egin zuzenketa eta egokitzapenak (Hiztegia: xiii-xix, *FHV*: 41-2); egungo egunean ere Elgoibar, Baztan eta Burundako hizkerak behin eta betikoz non diren erabakia ote? (cf., adibidez, Etxebarria 1983: 43 eta orain, Zuazo 1994a-b, eta 1996b).

Norbaitek pentsa baleza, oker ordea, «testu konkretuetan» ez dela honelakockin behaztopatuko, adibide soil batek iritziz aldaraz lezake, menturaz. Bada 1658ko bat Martin Iturbekok sinatua eta *Quartetac gure principe iauñeanren [sic] D. Phelipe Prospero gaiocে dichosoan* deritzona, Koldo Mitxelenak (*FLV* 18, 1974) eta Ibon Sarasolak argitara eta aztertu zutena; hara, bigarrenaren iruzkina:

El tipo de lengua de la composición es más bien occidental, con rasgos como *ea < a+a* en 1 *famea*, *u-* en 4 *uriar*, 17 *jausi* en vez de *erori* «caído», 29 *dau* «lo ha», 35 (eguin) *deusa* (pero 44 *eman dio*), 71 *dacaz* «los trae», etc., más o menos vizcainas. No faltan con todo formas típicamente guipuzcoanas como 5 *fera*, 55 *det*, 13 *emen*, variante de *omen*, vizcaíno *ei*, o que sin dejar de ser guipuzcoanas se dan también por zonas más orientales: 79 *dande*, el antes citado *dio*, etc. («Contribución» 97).¹²

¹² Lakarra 1993-n Sarasolaren iruzkina eztabaidean nuen laburki, beste aukera bat —arteko hizkera, Araba aldekoa, esaterako— proposatuaz.

Holako kasuetan ezinbestean eman behar lehentasuna ezaugarri batzuri aurrerako bada.

Interesgarri gerta daiteke, halaber, esandakoaren osagarri, zirriborroan eta llaburkiro baino ez bada ere, azpieuskalkiezko saio bat hemen aurkeztea.¹³ Har bitez, alde batetik, BZ-eko zenbait testu eta BZ-eko ezaugarri batzu, bestetik; nik oraingoan zortzi eta zortzi hartuko dut, gero (ikus §§ II-III) oinarriak datu eta ezaugarri gehiagoz sendotzeko aukera izango baitugu:

	Gar	RS	VJ	Mik	Kap	BB	Bar	Arz
1. <i>dot</i>	+	+	+	+	+	+	+	+
2. Aoristoak	+	+	+	+	+	-	-	-
3. Kom. ob. pl.	+	+	+	+	+	+	-	+
4. <i>-ijV, -ubV</i>	-	-	+	-	-	-	-	-
5. <i>dauðe</i> «dute»	-	+	+	+	-	-	-	-
6. <i>-n > -ø</i> irag.	-	+	-	+	-	-	+	+
7. <i>-reanik</i>	-	-	+	+	+	+	+	+
8. <i>*ezan</i>	+	+	-	+	+	-	+	-

Lehen emaitzok ezinutzizkoak eta aski argiak iruditzen zaizkit «BZ»-az hitzegiteko orduan: ezaugarri gutxi batzu aski dira (eta berdintsu agituko litzateke «B berriarekin» ere)¹⁵ hizkera honetako lekukotasunak oro berezi ahal izateko; isoglosak, —eta aski larriak hartu ditudala esango nuke, ez mehar eta ezkutukoak,—, ez doaz bat, dela hedadura eta muga geografikoei dagokienet, dela intentsitate eta iraupen kronologikoan.

II. *Refranes y Sentencias-en hizkeraz*

Segidan *Refranes y Sentencias-en hizkeraren ezaugarri morfosintáktiko garrantzitsuenen aurkezpena* egingo dugu, beti ere BZ-aren barnean

¹³ Berritua eta zabaldua § II.3.can. B modernorako ikus Aurrekoetxea 1995, dialekto-metría ez bada ere, encópula, azken hitza duena arazo hauetan; cf. «Los métodos estadísticos, aplicados ya en 1937, no parecen hasta ahora muy prometedores. Contar, sin pesarlos, el número de acuerdos y desacuerdos en un grupo de lenguas tomadas dos a dos, introduce un elemento objetivo, el de la cuantificación —que, por otra parte, tampoco está libre de los peligros de la interpretación personal—, pero solamente a costa de partir de una elección, que hoy por hoy tiene que ser subjetiva, de rasgos diferenciales, a cada uno de los cuales se le atribuye además el mismo valor.» (Mirxelena 1985: 81). Cf. 83-84. oharretan Watkins-en gogoeta osagarriak ikuspegi atomistaz.

¹⁴ Ez du, baina, forma hori, are berriagoak aurkezten baititu ikusi ahalko denez.

¹⁵ Cf. «Debe valer como axioma que los dialectos antiguos, documentados o reconstruidos parcialmente, tenían que ser muy similares a los que podemos estudiar hoy de oído: los universales lingüísticos valen tanto para el tiempo como para el espacio» (Mirxelena 1985: 76).

kokatuaz eta B-ren eboluzioaz eta euskara osoarenaz hortik datorkeena miatuko dugu, behar denean bestelako euskalki zaharretariko edo hizkera modernoetako alderdi gonbaragarrietako ezaugarrien berri emanaz.

1. Morfoloziazko ezaugarri zenbait

1.1. Ablatiboaz

BZ.ak, deklinabideari dagokionez, duen berezitasun nagusienetarikoa dugu ablatiboko *-rean*-ena; oso bestelako egiten zaigu, ez soilik gainera-ko euskalkieei begiratuaz, baina baita B modernoaren alboan ere. Honela Gar A 12 (= B 18) *Ez oera ez oorean gora*, B 36 *Naarra ondorean corroç*, Mik 182 *Urian dan pastelerea garuienerean*, etab., aurkitzen dugu, B-z orain eta aspaldi *obetik*, *zerutik*, *sutik*, *garbienetik* esaten den lekuau.

Ez dugu *-rean* ablatiborik aurkitzen bizirik diren euskalkietan, ez eta are beren testurik zaharrenetan ere. Alabaina, gureganaino iritsi ez den baina testu zaharren bitartez, zati batean bederen, czagutzen dugun araberan bazen horrelakorik: Land. *urdabilerean gaiça enqui* «ahitarse el estómago», *dolenciareā conualecidu* «conualecer de dolencia», *errena oy-nereā* «coxo de pie», *pelliçururean libra[du]* «librar de peligro», etab.; Albeniz araiarrak (cf. Altuna 1996) ez zuen dagoeneko horrelakorik. Euskalki honetan bazen *-ren* aldaera ere: Land. *oneren* «de aquí», *orreren* «de ay».¹⁶ Gainera, Mitxelenak (1977a: 119 hh) erakutsi zuenez, mendebaldeik kanpo ere aurki daiteke *-rean*-en exemplurik, arkaismu bakanak izan arren; hor dira, adibidez, *albore(a)ngo*, *gaineandu*, *ondore(a)n*, etab.¹⁷ Ezin esan, beraz, lehendabiziko so batean pentsa daitekeen moduan, B-ren ezaugarri aparta denik, beste euskalkiek ere momenturen batean eza-gutu baitute, nahiz eta ez, agian, B eta A-ren neurrian; halere, hauek ere gainerako euskalkiek lehenago betetako prozesu bera burutu zuten, *-rean* ablatiboak largatuaz eta *-rik* / *-tik* hedatuaz.

RS-eten 82 *Tacoc deroat dodana neure echerean cejara*, 147 *Hurruti-rean bolhra dator hura*, 175 *Eschu onerean emay ona*, 176 *Escurean haora*

¹⁶ Mitxelena ohartu legez, aldaera berau edito dezakegu 1619ko Tolosako bertso irain-garri batuetan (*TAV* 127 hh): *Consolatu oy da Profetissarequin, / Escuren duela Alferiz Machin, / ascotan sartu oy qaca abbadesquin; / andre ederroc orduan danzatu oi dira vesterequin*. Alabaina, eta bakarra delarik G-z, ez ote hobe «de la mano»-ren ordez, «el más cercano» edo antzeko zerbaite ulertzear?

¹⁷ Gavon Sarlac 24 secularean (*Arzay pare gabea, / gurequin bearco dezu / beti seculare-an*) Azkuek «(B-l)»tzat duena erants bide dakiode Mitxelenaren zerrendari.

o quelea galdu doa, 219 Olloac biraporean arraucea ta ez ollarrerean,¹⁸ 228 Matrazu orrec hurre ez eban carcaj orretarean, 232 Ezconcea ta aguincea cerurean jatorguz, 276 Gaçean, gaçean ta ez Ybarriengorean, 279 Arecherean artera ecandu gaxtoa arçayten da, 313 Garagarfrilean nesquea ezarc alborean, 327 Onerechiac vrrutireâ dacs, 337 Osoen aorean o quelea bere on, 345 Osoac vere araguirean jan ez euan, 360 Surean quehea jayo doa, 364 Sua dan lecurean queheac burten eban, 368, Hosay-lean burteyten daroa [a]rçac leçereâ, 378 Ydia ada[r]rerean ta guïçona hizerean, 411 Ar eçac mayazean aunz bal[z]aren eznerean, ta aquio veti betseguien eznerean, 428 Ciria da guextoa zur berereangoa, 436 Vgarajoen trisquea leorrerean ezera, 513 Eznea, guria ta odola errorean atera neban.., 536 Hordiaganic ençindu çe eguic arean, 558 Ylbeeran ereyn ce-guic arean.

Lehen prosekutibotzat (= «non zehar») erabiltzen zen *-ti(k)* ablatibora ere zabaltzearen historia laburtuaz (ik. Lakarra 1984b eta 1984c: 116) zera esan daiteke: atzikki hori defektiboa zen lehendabiziko testuetarik, ezin erabil baitzitekeen biziunekin ez eta, baina hau testu gutxiagotan, denborazko kutsua zuenecan edota lekuizen bereziekin. Hots, goiko exempluen aldamenean -(r)ik dute beste hauek: Zumarraga (duen ablatiboaen agerraldi bakarra) *oneric aurrera, orayganic/ aurrera* (Andramendi), Aek *Ez urtun Maloguenic* eta Mik 126 *Flandesic* etorri sarea-k eta baita RS 536 *Hordiaganic* ençindu çeegnuc arean, eta RS 542 *Utrineric ospea, erri-coa obea-k* ere.

Orobat, nagusi ez eze bakar da *-rean* TAV-eko 1600 aurretiko testu laburretan: *etorri san aurqui atetirean* (Andramendi), *Iausi da cerurean arria, cerurean jausi da abea* (Milia Lasturko), *Hermandadea arean doa negarrez* (Sandilia), *neure borôdate gustirean* (3. ordena). Salbuespen bakarra Betolatzaren dorinan aurkitzen dugu: *vioz gustiric* (1), *pecatuen captiverioric* (1), *arerio deungueaganic* (1), *gach gustiric* (2), *Maria Birgi-neaganic* (3), *aric etorrico da* (3) eta soilik hilaren artorean (3, 4), fosildua agi denez. Halabeharrez, soilik dorrina honeian eta Landucciren hiztegian aurki ditzakegu pluraleko formak, eta beren arteko joera ezberdintasuna nabarmena da: *Betolatza pensamentu deunguetaric* (1), *verba deñuetaric* (1), *deseo deñuetaric* (1); *Landucci vietaren ceyn* «cual de los dos», *vieta-ren edoceyn* «cual quiera de los dos», *alde guztietareâ* «de cada parte».

¹⁸ Hau eta RS 544 *Huhunerean* [Mitxelenaren irakurketa, ez ote hobe *huhunenerean* aldatu (edo dagoenean utzi) Oihenarten *huhunenera?*] *hoxtuac bulea* dira, dakidanez, salbuespen bakar beherago testuan ematen dugun biziunen kontrako legearekiko, Gamizen *erorean itzac eroaren* irakurri behar baita; cf. «Gaur -tik atzikkiak biziun izenekin -gan eskatzen du, bainan, itxuraz, ez da betidanik horrela izan. Erronkariko atsotitz batek honela dio: *aurretik eta erotik egia*» (de Rijk 1981: 94, Azkueren *Particularidades del dialecto roncalés* 227 aipatuaz).

Gero, pixkanaka pixkanaka -(r)ik-en testuinguruak hedatuaz joan ziren eta gainera -reanik pleonasmoa sortu zen (beharbada 1.ko agerraldi fetxaduna *Egiaren Kanta*-n agertzen da 1638an) -rean zaharraren lekua hartuaz: forma berria gutxiengoan dago oraindik XVII. mendeko lekuo gehienetan, baina nagusitua da Zubia-Lezamizen (1691-1699) dotrianan: *Iaunen escurean, ene cofrerean, beste Moysen bat cumareanic, Franciaric ecardeçan, achinaric dituz* (*Egiaren Kanta*),¹⁹ *urterean* «de cerca», *onerean* «de aquí», *oerean xayguiteco, Flandesic etorri sirea, dira Italianic etorriac, etorsan Salamanifaric, noric ecarri dous, pastelerea garuienerean, esarsu surirean, betor edaten beste beyñatan calabriadareanic* (*Mikolelta*);²⁰ *iaquin daguanerean, bior guztirean, gacherean libradu, ilaen arteean, arean etorrigo da, ecerbere eçerean, bere graçiarean, erredimietarren pecaturean... gueure pecathaganic, Maria Virguineaganic... pecatu confesadu ditueçan guztiac areanic ona, alper egotereanic* (*Kapanaga*),²¹ *iausi zan arean, infernurean libraetarren, ilaen arterean, ezerbere ezereanic, gubecatureanic, sagradureanic, gorpucereanic, atzorit ona, Maria Virginea ganic, arimeaganic* (Zubia-Lezamiz), azken honetan lehendabizikoz pleonasmmodun formak soilak baino ugariago direlarik. Pluralean, zabalegia ez bada ere aurreko mendean baino corpus zabalagoa erabil genezake: *Vizcaico onetaric, orretaric urten* (*Egiaren Kanta*), *pensamentu deungaetaric, gueure areriocetarean, yru personeetarean, gach gustietaric...* (*Kapanaga*, 11 -etarean, errepikatuak lekat, 4 -etarik-en aurka), *frances oncia euqueala belaetaric billoztu* (*Bertso bizkaitarrak*), *iasi zaitez cerhetarean, lan lecuetaric* (Zubia-Lezamiz).²²

17. menderako gutxieneko kronologia hau dugularik, interesgarri begitzen zait fetxagabe dugun *Viva Jesus*-az zerbait esatea, iritzi kontrajarriak azaldu baititutze hari buruz Urquijok (zaharra, aditzagatik) eta Vinsonek (modernoak, bokalarteko b-engatik).²³ Ablatiboan ondoko formak aurkitzen ditugu: *peligru ascotarean, solbarda ezquerrecorean, ezerean urteiten dogunean, oberean jaiguteyten garenean, esebere eserean, libreetaco pecaturean, arean etorrigo da, vioz gustirean, Marie Virgi-*

¹⁹ Azken biak salbuespen zaharren lege berekoak dira; hirugarrena da berrikuntzaren lehen agerraldia. Arejita 1991-n argitaratu amodio-kantuan [1611-33 bitarteko] bada *vate-reanik*(1).

²⁰ 4-7 bitarteko adibideei ere aurreko oharrean esana dagokie; berrikuntza azkenengoan, oraindik gutxiengoan delarik.

²¹ -reanik-en agerraldi bakar biak eman ditut testuan; -(r)ik-ek beste 9 ditu, guzti guztiak biziunekin; -rean-ek hemen ezin eman ditzakedan (badira Lakarra 1984b-n) zenbait dozena ditu.

²² Lakarra 1984b-n markatzen den bezala, zaharra agian ez da dotrinakoa, zaharragoak bide diren han bildu kopla batzuetakoa baino.

²³ J. I. Aranak ere bota zuen Kapanagaren dotrina baino lehenagokoa iruditzen zitzaila; iritzi guztiok Urquijoren «Las sinodales de Calahorra»-n (335hb) bilduak dira.

neaganic, bileen arteric, Iangoikoaganic, hondo confessadu zanereanic. Pluralean *verba deungueetarean* baten aurtean *mauruetafic, turcuetafic, genero ascotaco genteetaric, gueure arerioenetaric, pensamiento deungueetaric, deseo deungueetaric, gure arerioetaric* dugu, *Viva Jesus-en beran-kortasun erlatiboaren edota bere hizkeraren modernotasunaren alde.*²⁴

1700etik aurrera zaharkiturik dakuskigu nahiz bata nahiz bestea: 1758 da dakidanez -rean-en azken agerraldiaren data (Arzadunen dotrinaren 2. edizioan)²⁵ eta justu mende bat beranduagoko -reanik-ena (1858, Bonapartek argitaratu Laudioko dotrinan). Bitartean -(r)ik ablatibozkoa eta -ti(k) prosekutibozkoaren formak nahasiaz doaz eta XVIII. mendearen erdialdeko prozesua amaitutzat jo daiteke -ti(k)-en alde: Arzadunek 3 -rean fosilen aurka pare bat dozena -(r)ik du singularrean eta soilik (baina 15!) -etarik pluralean;²⁶ Barrutiak singularreko 34 formetatik erdiak -ti-ren bidez egiten ditu, 8 -gainik dira eta 4 -reanik; pluraleko bakarra *Xaun onen eskuetati* dugu. Mendearen bigarren zatian Olaetxeak -rik du singularrako eta -etarik pluralrako salbuespenik gab, forma ugaritasunak ematen digun segurtasunarekin usadio aldaketaz; mendearen azken zatian, Arzadunen bidetik, -rik singularrean eta -etarik pluralean De la Quadra bermiotarraren testuetan, baina oraindik zenbait arkaismo pleonastiko (-reanik) eta hainbat berrikuntza prosekutibotik (-tik) ere bertan ditugularik.

1.2. Prosekutiboaaz

BZ-ean «nondik» eta «non zehar» morfologikoki bereizten ziren, bada, lehendabizikorako -rean erabiltzen baitzen besteetan -ti(k) ezartzen zelarik: *Enojaduric-en*^{26b} bertati, cegayti, BB 2 Zeruti gaitean assi, 14 *Ercules baño obe dogu / geure parteti Bulcano*, 16 *Obe dan egoitea / bere erri aldeti*, Mik Axechu ozbat sarsayten da ventanatic, *Bada selan xayguiten da aen goxeti, Nic obedecietan dot esean ta ateti*, etab.

RS-eten 36 *Ce eyquec maurtutu boeaneâ ederr eztanic calean*, 223 *Ardi bat doan lecuti oro*, 355 *Aoti bero ezac labea ta çarra*, 440 *Beluko esconcea*

²⁴ Zorigaitzez ez dugu, izan bazen, 16. mendeko 1. edizioaren alicrik, grafiaz landako aldaketaik egin zen Vinsonek gorderzen zuen beranduagoko horretan miatu ahal izatcko.

²⁵ Liburu honen 1.ko eta 2. edizioen arteko ezberdinatasun interesgarriez (*arterean > arteric, gacherean > gachetatic, ezer bere ezereanic > ecerbere ganic*) ikus Lakarra 1983c; nik orduan ezagutu ez arren, ukituak zituen lehenago Omaetxebarriak bere 1948ko lanean; erbia altzatu zuena, biok markatu bezala, Urquijo 1907 izan zen.

²⁶ Beste durangarraren usadioa D. L. U[rkizu], *Liburu Virgina Santissimien Errosario Santuenaz* (1737) oso antzekoa dugu.

^{26b} Arejita 1991-n argitaratua; ikus 19. oharra.

deunga, goxeticoa ez oba, 444 Ebili ta ebili ta yrato erçeti, 488 Zarra ta labea aoti berotu. Gero, urtcestan zehar, begien aurrean testuak ugalduaaz doazen neurrian, bi prozesu antzeman ditzakegu: lehendabizi, ablatibo zaharra lekua galduaz doa; gero, ablatibo berriak eta prosekutiboaren formak nahasten dira. Bigarren prozesuari dagokionez, -ti(k) ablatiboa Urkizu durangarrarengan agertzen da behin, lehendabizikoz, -(r)ik baino askozaz portzentaia laburragoan, jakina. Hurrengo hamarkadetan portzentaia igoaz doa, batez ere ekialdeko testuetan: -ti(k) da nagusi Eibarko Ordenantzetan (6. hamarkada) eta are lehenago, Barrutiarenecan, ikusi dugunez; mendebalerago gorantz egin du De la Quadrarengan, baina oraindik gutxiengoan delarik. Gandara gernikarrak (6.-7. hamarkada) behin baino ez darabil —testuak ere ugariegi ez dira, cf. Arana 1984— eta inoiz ere ez Olaetxea Laukarizko apaizak (1763).

Bestalde, Lafon (1948: 141-150, bibliografiarekin) eta Mitxelena (1977: 23) aritu izan dira -ti eta -tik prosekutibo-ablatiboko atzikien arteko erlazioaz. Mitxelenaren ustez zaila da -tik-ek -ti ematea, -k hori ez baita erortzen (cf. -rik ablatiboa). Etorkian -ti(k) eta -(r)ik-ek ez lukete zerikusirik, lehendabizikoak bigarrenaren tokia hartu badu ere alde gehienetan. -ti bide da oraingo ablatiboen forma zaharra, eta horrela mantendu zaigu Zuberoa eta Bizkaiko zenbait lekutan, eta -ka atzikia erantsi zaio gainerakoetan; hortik ateratzen dira Landucciren *gatica* «por», *lecistica* *lecura* «de villa en villa» edota Ftxeparerentz *yxilica*. Gero -tika honet -a galdu du lurralte gehienetan, -tik emanaz.

-ti zuten BZ-eko hainbat testuk eta oraindik mantentzen duten azpieuskalkiek euskara zaharraren ezaugarri bat baino ez dute gordetzen, zubererarekin batera, gainera, ikusi dugunez; soilik neurri horretan har daiteke, beraz, ezaugarri hau B-ren ezaugarritzat. Are gehiago; testu zaharrak ongi miatuz gero, kide berri bat ateratzen baitzaio B-ri XVIII. mendeko Goierriko cuskaran, bibliografian markatu ez bada ere: cf. GP agati, 2 *San Matheoren autic*, 4 *tabernati, jocuetati, festaetati eta gastu alperretati igues eguiten duela*, 5 *desgraciatura alde guztietati*, 10 *ateraco ote zai-tuen infernuti*, 13 *aec bietati ceñen anz gueiagocoa*, 14 *arretaz eta gogoti, gaurdanetic*, 17 *gaurco egunetic*, 18 *biotcetic eta Otxoak erc badu beste pare bat*; 29 *bere sustanciatu edo naturalezati bertati eta 29 berac deban naturalezati edo sustanciatu bertati*.²⁷

BZ-can errefrauen aurretiko dokumentazioa oso urria da: Milia Laster *apucaduagatic*, Abendañoren eresia *Yzarragati*, Zumarraga *mjiocayti*,

²⁷ Baino orri horretatik kanpo ez dur besterik kausitzen eta hortxe bertan ere badira *partetic, eternidadetic eta leenagotic*; cf. orain Ahuna & Lakarra (prestatzen).

*jauxico ez cara dirnacati; -ti agertzen da RS-en goiko adibideetan ikusi bezala, orobat Garibairen B 43 *Erregueri vere aceti pusesa emon doa bakarrean*, eta are Betolatzak ere, haren testu agorrean atera daitekeenaren arabera, forma zaharrari eusten dio gehienhat: 831 *gugaytic bakarraren aurrean* 829 *onegayti, señaleagayti*, 831-833 *aldezcoatati*, 833-834 *ganeti*, 835 *viziac gayti, hilac gayti*; horrela EK-n (20 *Hespanagaitic* bakarra), 21-61-74-174-205-212 *cegayti*, 126 *erreguegayti*, 127 *gustiagaiti*, 128 *ceugaiti*, 162 *bertati*; Mikoleta (197 *ventanatic, goxetic*) baina «detrás» aseti, «porque» *segayti*, Poes. *bertati*, 200 *bassasaçacayti*, 201 *egunacayti*, 202 *goxeti* (2), 202-209 *segayti*, 205 *emasteagayti*, 207 *orti*, 208-209 *Launti, onetati*, 209 *gustietati*, 211 *besteacayti*, Kapanaga hitz. *gauçagati, prouechuagati*, 29 *ce modutati*, 69 *barruti, ateti*, 72 *pensamentuti igaraitea*, 87 *bere gogoti*, 116 *memoriati*. Viva Jesus-en bietarik da, agian zaharretarik gehiago oraindik: 3 *señaleagaitic*, 5, 6(2), 9, 10 *cegaitic*, 6 *gugueitic*, 7, 8 *alde escoatati*, 9 *aec gaiti*, 10 *mandamientuetati*, 11 *onegaitic*, 11 *merecimentuec gaiti*, 14 *becatarioc gaiti*, 15 *neure erruegaiti, neure erruegaiti, neure erru andiegaiti, onegaiti, nigaiti*, 16 *segaitic*; BB-n, aldiz, guztiak dira oraindik modu zaharrekoak: 1 *zeugaiti*, 2 *zeruti, yzango naç goiti, gareala beiti*, 3 *obedecidu ezagaiti*, 14 *geure parteti*, 16 *erri aldeti*, 33-36 *agaiti*. Amilletaren lekukotasuna ez da berez batere erabakiorra, erdi ta erdi baititu, baina beti ere *-gati(k)*: 1 *vioz osotiq, merecimentuegatic, Josephegatic curucetic irisita, ceure erioceagatic sepultureagatic eroanac izan gaiteala*, 2(2)-4-6 *señaleagatic, cegatic*, 2-3(2)-6(7) *cegati*, 4 *saluaduceagati*, —ezta Zubia-Lezamizena ere: 150 *zegaiti*, 151 *alde escumatati*, 153 *cergaiti*, 153 *losea gaitic*—; nahiz eta itxura batean erdialdeko BZ-ean garairako kontsonantez amaituaren hedapenaren seinale liratekeela dirudien, hurrengo mendean kontrako lekukotasuna dugu: Arzadun (1731) 13, 21 *señaleagayti*, 14, 15, 31(2) *alde escumatati*, 19 *gueugaiti*, 21, 23(2), 55 *cegayti*, 46, 48 *merecimentu andiacgayti*, 48 *memoria laburragayti*, 47 *damuari guichia-gayti*, 53 *misericordia andiagayti*, 54 *onegayti*, 55 *neugayti*; Barrutiak, azkenik, 175 *jaiovagaitic* eta 313 *esanagaitic* lekat, forma zaharrekoak ditu: 85 *diruagati*, 86 *danzeagati*, 158 *uriaz ateti*, 207 *mundu guztii*, 314 *bategaiti*, 362 *bateti ene viora poz da besteti davil icara*, 400 *magestadea bateti dacust, besteti umildadea*, 408 *angueruen aoti*, 433 *guchiagati*, 454 *dicha guztia zeruti / xauñ onen escuetati*, 479 *zeugati*.*

1.3. Soziatiboaz

BZ eta berriaren deklinabidean atzizki markagarritirik bada, honako hau horrelakotarik dugu seguruenik:

La única particularidad occidental exclusiva (ya que *-rean* «de, desde» es a todas luces un arcaísmo cuyas huellas se descubren también en otras partes) es el suf. *-gaz* de comitativo que, como ya se ha dicho, no reina solo en todo el vizcaíno: Landucci, por otra parte, no tiene más que *-kin*.

dio Mitxelenak, «lo que es propio y exclusivo no es, en todo caso, la desinencia *-z* que es la común del instrumental, sino el elemento *-ga-*» zehaztuaz (1981: 301).

Azalpenak ez du behar argitasun haboro, ene ustez hori baita azalbide zuzena, baina gehi dakizkioke Mitxelenak, laburzurrez, erantsi ez zizkionak:

1) RS-eten 106 *astoagaz*, 185 *yrolagaz*, 246 *oguiagaz*, *oragaz*, 270 *are-riovacaz*, 469 *ydeaz*, 500 *oguiagaz*, 560 *seyacaz* da aurkitzen dugun uzta; bere laburrean adierazgarria, halere: singularreko forma guziak *-gaz* eta, espero bezala, pluraleko biak *-akaz*. Distribuzio honetan bat datoaz Mikeleta bilbotarra, Egiaren Kanta arratiarra, hegomendebaleko *Viva Jesus*, ipar-mendebaleko *Enojaduric*, erdialdeko BB, eta, interesgarriena bere corpusaren tamainagatik, Kapanaga Durangaldekoa;²⁸ orobat Betolatza arabarra.²⁹

-gaz bada ere nagusi, aurki daiteke *-kin* BZ-eko testu zaharretan, batez ere Gipuzkoatikotan: Bar 61 *zeugaz*, 78 *nigaz*, 496 *guengaz*, baina 143 *oearequin*, 147 *molsarequin*, 150-275 *zurequin*, 151 *zerequin*, 217 *neurequin*, 325 *urarequin*, 369 *Xaunonequin*, Amileta 1 *omnipotentearequin*, 1 *Espiritu Santuarequin*, 2 *cegaz*, 3 *gaucequin*, 3 *Jaungoicoagaz*, 4 *preciosoagaz*, 5 *mandamentuequin*, 5 *gorpuzarequin*, 5 *merecimentuequin*, 6 *gorpuzoequin eroequin*.

2) *-gaz* ez zen soilik B-z erabiltzen zeren eta A-z Portalek singularreko biak *-kin* baditu ere (*ascorequin*, *penarequin*), Landuccik *-kin* ez ezik badu *-(g)az* ere Zuazok (1989, 1996b) agertu bezala, eta Gamizek eta Albenizek biak darabiltzate: Gamiz 199-202 *orrequin*, 200-202 *onequin*, 200 *iltzequin*, 201 *bategaz*, 201 *tortilla on bat urdaiaz*, 202 *esperanzas vizigara*, 202 *alcarregaz*, 202 *osasunaquin*, Albeniz *criadoreaquein*, *ceegaz*, *onegaz*.

3) Egungo B-ko hainbat lurraldetan (eta lehenago Prai Bartolomek, adihidez) singularrean *-gaz* baino izan ez arren, *-kin* ere ba dute pluralean.

4) Azkuek G-ren ekialdeko ertzean den Orekan ere aurkitu zuen:

²⁸ Baita Zubia-Lczamiz eta Arzadun ere, noski.

²⁹ Honek sistema aski aldebesa badu ere bere corpus murritzerako: *-gaz* eta (gutxiago, soilik aditz izenetan?) *-akaz* ditu singularrean, eta *-akaz* pluralean; cf. Zuazo 1996a.

guregaz ai die «se ocupan de nosotros», *Jaunarengaz* «acerca del Señor», *Kristorengaz* «acerca de Cristo». En ellos el hoy bizcaíno *gaz* se agrega al tema mediante el posesivo, exactamente como se agrega su hoy sinónimo *kin*: *Jaunarekin*, *Kristorekin*.

dio Azkuek iruzkinean (1923-5; I, 321-322). Ikusitakoaren arabera «bizcaíno», «demás» eta «confunden» zehaztuko banitu ere, funtsezko ideian bat etor gaitezkeela deritzot Azkuerekin oraingoan bere azalpen diakronikoan:

El sociativo bizkaino *gaz* y el *kin* de los demás dialectos, que hoy se confunden, debieron de ser distintos en un tiempo, expresando el primero la idea «por medio de personas o seres animados», exactamente como se distinguen en georgiano *Mam’it* nuestro *Aitagaz* «hacer algo con el padre, valiéndose de él» y *Mama-t’an* nuestro *Aitarekin*, por ejemplo «venir en compañía del padre» (*ibidem*).^{29b}

1.4. -a- / -e- oposaketa aditzean

Azkuek (*Morfología II*: 604-605) orainaldia / lehenaldia bereizten ziuela uste arren, BZ-ean eta baita modernoan ere aditz erroaren aurreko bokal alternantziak (*a* / *e*) adizki bipersonalak (*a*) eta hirupersonalak (*e*) berezten zituen eta ditu, Altubek (*Observaciones* 115-118), Irigoienek (1958) eta Mitxelenak (1954a) erakutsi bezala: BB 1 *esango dau baina BB 2 entzun deusagu*, BB 3 *conseju ei eusten emon*, BB 7 *sarri gorde deuste*; RS 340 *Gueyago dio daquiana baño* «más dize de lo que sabe», BB 11 *besteoc ezer estaquigula baina RS 431 Yre auçoac eztequiā gacha ona da* «Daño que no te sabe tu vecino bueno es»; Mik 73 *Artean yndasu espillua ta artasiac, daguida ondo ymini bissarrau* «dame entretanto el expejo y unas tixeras, que quiero adrezarme la barba», Kap *Erraçoena cerdan jaquin daguijanerean*, Mik 229 *Componidu daguiala guelau* «componga este aposento» baina Kap *Iaungoicoari arimea emon degunior artean*, Mik 117 *Edandaysu ostera, se esteysu gachic* «Beberá VM otra que no le hará mal»; EK *Estuan daroazu ceure colcoa, Zumarraga 30 exilic daroaez maestruoc yrureun bana* «en secreto llevan los maestros cada trecientos» baina BB 17 *Ventaja romanoay deroessu Ysassi*, RS 82 *Tacoc deroat dodana neure echerean cejara* «Para mí lleva lo que tengo de casa al mercado»; RS 325 *Demanac bician verea besteri* «Quien diere en vida lo suyo a otro», RS 425 *Peco gassoa deucot* «Mala sospecha le tengo», etab.^{30c}

^{29b} Koldo Zuazok lekukotasun hau susmagarritzat du, diostanez.

^{30c} Irigoienek (1958) aspaldi aztertu zuen bezala, 19. mendearen hasiera arte emanen da B-z -a-/e- bereizkuntza egim-en formetan eta beranduago arte oraindik "edun-enetan".

Gainerako euskalkietan bereizketa ez da horren garbi mantendu Mitxelenak (1954a: 30) dioen legez; halere, bada *i* bat, inoiz alboko kontsonantearekin baturik, euskalki guztietako alokutiboa: *doa baina ziboak (joak), darama baina zeramak* ("dieramak"), etab. Frogarik garrantzitsuena beste euskalkietan aurkitu ahal daitezkeen goiko formen ahaideak dira: Oih. 153 *Esacussan begnuc nigar estegnuc*, «L'oeil qui ne te void pas, ne te pleurera pas», 538 *Adaussi deguidala bana aussic enesala*, «Qu'il abbaye contre moy, Mais qu'il ne me morde pas», OA 170 *Cerren baldin nere proximoac ez badiaquit niri*, AzpGut II 31 *Dotoreac esan dit escribi deguiçudala çuri*, BK 16 *Herreguten deguiola eman conde laztanari vitoria andia*, etab.

1.5. -de iragankorretan

NORK zutabeko hirugarren pertsonako ezaugariak -ø (singularrako) eta -e (pluralerako) zirela uste badugu euskara zaharrerako, *dute, duten, zuten, diote, digute* eta era horretako formek historikoki pleonasmoa bat (-t-e) lukete. Ezaguna da, gainera, G-ren lurralte gehienetan oraindik -ø / -e-ren (edota -a(n) / -en erlatibo eta lehenaldian) oposaketen bitartez gauzatzen dela NORK-en 3. pertsona.

Aipatu pleonasmoen suposatzen duen berrikuntzak azalduko luke BZ-eko zenbait testutan (eta baita egungo azpieuskalki batzutan ere, cf. Euskaltzaindia 1984) *dabe* eta *eben-en* alboan *daude* eta *euden* bezalako formak azaltzea: BB 20 *espa ecusico daue*, ZubLez 54 *Emaiten deustela bera servietan dabenai*, Zumarraga 14 *gueyago dala dan vaño esango da-bee*, etab., baina VJ 9 *Iangoicoen gracian dagoçanac participetan daudela*, VJ 11 *Christinauec erreccibietan daudena*, RS 3 *Aberassoc jaya daude, chiro gajooc veti neque, auçooce vere ygny daude veti dabilena esque*, 54 *Iaunbe bat daude asco baraçeac eta emazteac ce gueyago leuquee gasso, Enojaduric 4 naudea, 8 eudea, Mik 9 Nolan esan dofsju bostac xo daudela, 111 Selan alan estaude despachetan orren meçede ori, Aek Urten daude beralan, Joanicoc eta beste ascoc eudela parte bertan*, etab.³¹

1.6. -n > -ø erorketaz

RS-en Darmstadteko alea aurkitu zenean Vinsonek (*Additions et corrections* 6-7a) -n-aren erorketa honegatik esaten zuen bilduma horretan mendebaleko GN-ko errefrauak ere bazirela, euskalki hori baitzen

³¹ B modernorako ikus Euskaltzaindia 1984 (gerraurreko) eta Gaminde 1984 (gaur egungo egoera).

fenomeno hau czagutzen omen zuen bakarra. Dakigunez, N-ko hizkera batzutan erori egiten da -n lehenaldiko ezaugarria, *ekarri zue, joan ze, handiak gine, eraman ginue* eta antzekoak erabiliaz eredu hedatuagoetako *ekarri zuen, joan zen, handiak ginen eta eraman genuen-en ordez*. Lehenaldiko erlatiboetan (*eraman zuen gizonak ebatzi zue*) bada, aldiz, -n, baina hor bi n «dira» izan: erlatiboarena eta lehenaldikoa, eta soilik hau erortzen da.

Joan zen mendean, Vinson eta haren iturri Bonaparte baino mende erdi Ichenago, Zabala (VRB 57) genuen fenomeno honen lekuko, hegoaldeko goinafarrera eta aezkeratik urrutí, ordea:

Por 3.³ defecto cuenta la supresión de la n final de los artículos [= adizkiak], practicado en los pueblos de la costa del mar cercanos a Bilbao, v.g. *yan egua* por *eguian* o *evan*, él lo comió: *etorri cidi* o *za* por *cidiñ* o *zan*, se vino: *yoan ekio* por *ekion* o *yacon*, se le fue.³²

eta oraindik 1930 inguruau Azkuek (1935: 85) *Alaba bi eukaza, bat ez-kondu egin zidi, gazterik il ze eta joan zidi ta etorri zidi emakumea bezalakoak aditu ahal izan zituen B-ren ipar-mendebaleko muturrean.*

Gaminde 1988-n ez da horren arrastorik «Uribe Itsasaldea» deitzen duen eremurako (Gorliz, Barrika, Getxo, Leioa, Plentzia, Urduliz, Berango);³³ 6 urte beranduago, aldiz, «Barrikan oraindik erabiltzen dira era honetako adizkiak» diosku (Gaminde 1994: 548), eta eransten «esan beharra dago Barrikan ez dutela euskaldun guztiek berdin erabiltzen; fenomeno hau gehien bat Urdulizerantz dagozen baserrietan ematen da zaharren artean; Urdulitzeren bertan inoiz edo behin entzuten da honclakoren bat. Hona hemen adibide batzu: *nintze, sa, gintze, sintze, sintze, sire; neu, eu, gendu, sendu, sendu, eude, neuse, euse, genduse, senduse, senduesa, eude-sa*.

Erorketa,³⁴ ez da duela mende t'erdi hasia euskalki honetan, Zabalak eman eremu laburra mantendu dela dirudien arren; BZ-ean Mikoleta bilbotarrak «Pretérito imperfecto» deitzen duenaren paradigmam *eguiten nendua, sendua, euea, guendua, sendua, eudea* dakarkigu (150. or., id 153) baina orri berean «Pretérito plusquamperfecto» delakoan, *eguin eguiar, senguiar, egua, guenguiar, senguiar, eguien dugu*; «Optatiuo subjunctiuo» *eguin daguida, daguisua, begui, daygua, eguisue, beguie* (152);

³² Ez bedi nahasi usadio hau Orxandio eta inguruetan Bizkai aldean eta ekialdean bestetik (cf. Zuazo 1989b) agitzen den hikako formetako -n-aren erorketarekin: hauetako lehendabizikoz Larramendiren Arte-ko bizkaierazko paradigmietan islatzen dira.

³³ Zehazki, aipatzetan dituen formak Leioa, Sopela eta Urdulizkotzat ematen ditu (1988: 91-98).

³⁴ Eransketa balitz ez lirateke erro ondorengoko bokalak azaldu ahalko, eta beraietan —lehen ondoren zen kontsonantearen eraginez— sortu aldaketak ere.

izan aditzaren lehenaldia *ninsa, sinea, sa, guinean, sinean, syrean* (155, *ninsan, sinea, san* 156.ean); *naxa, sarea, vis, garea, sara, vira* «subjunctiuo tiempo presente» (157), *ysanysatequea, ysansinteqea, ysan satequea, ysan guinsatequea, ysan sinatquea, ysan sitequean* «preterito plusquamperfecto» (157). Testuan *on oy nerechu, mudadu nindia, vior equida, emon senguidan* (192), *esan senguida* (193), *astu sengua* (194) poesietan, eta *vostac containinçean* (196), *ara emen non datorre ycuslea* (198), *artasiac daguida ondo ymini bissarau* (200), *aramen estuchea, non dago dustia* (201), *seymbat lle vrdin daucasa, ya noa sarrtuas* (201), edan daysu ostera se esteysu gachic (203), *Flandesit etorri sirea* (204), *seynteban eve bero-rec escritoriau?* (204) *baliodaue baxin gueyago* (204), *Non eguin sidi?* (205), *sillac etorsan* (205), *ona ysan din bat* (206), *seyn ni naxa* (208), *ser edaten doda* (209), 212 *ori eguin day* (212), *erregaduta garbitu daygna guelau* (212), *eser falta den* (212), *eroan eguisanena* (212), *baya dubbladu daygna ta caxan gordebite* (214), *selan gueyemoyten deustasu onetan urgasteco, esseyn gueyemon urgasteco* (214).

Ikusten denez, eta lehenaldikoetarara mugatuko naiz, horrela egin dutenez gero aurreko ikertzaile guztiak, Mikoletaren lekukotasunaren arabera, 17. mendean ere fenomenoa antzeko cremuian ematen zela eta erorketa, nagusi bazen ere, ez zela sistematikoa antzeman dezakegu. Handik aitzina ez da horrelakorik Kapanagarengan, ez *Viva Jesus-en*, ezta Amileta ez Barrutiarengan, lehenago ere ez zen bezala Garibairengan.³⁵ Badira, aldziz, hiru testu zahar -n gabeko formekin lehenaldian: bata Oihenarten bitartez, czagutzen dugun amodiozko poema bat, *Enojaduric* bestea (mendebaleko B-koak biak bestelako czaugarriengatik ere)³⁶ eta *Refranes y Sentencias*, hain zuzen.

Hara RS-ean aurkitu dudan egoera: 52 *Vnayoc arri citean gastaeoc aguir citean*, 75 *Oparinac nengua bearquin*, 167 *Erioac ereçan Butroeco alabea Plencian*, 263 *Lotsaga nindin, oguiz ase nindin*, 294 *Jaygui cidi naguia, erra cizan vria*, 307 *Maemana daqui emayten*, 319, *Iaraunsi edo yrabaci egua*, 332 *Adiunça onean nentorre vaya ezer ez necarre*, 344

³⁵ Edo beranduago, joan den mendean, Bonapartek agindutako Arrigorriaga, Orozko eta Laudioko dotrinen itzulpenetan; ezta ordea Plentziakoan ere (ik. Pagola et alii 1992).

³⁶ 4. kapituluan esan dut zerbaiz hauetzaz, Bilbo aldeko literatura zorigaitzez ebezagunaz mintzo baitira, nire utez. Egia osoa esan behar bada, eriden dut argitaratzailcak alde honeztatik aipamenik gabe utzi duen *Urrien çazpigarren egun gustia /Hespañençat aurtien çan cidia* ere (EK, 199); errimak izan rezakeen eraginaz landa, bakarra da bertan, ordea; cf. 6 *egoçan aldi baten*, 55 *eldu eguiçun*, 72 *eracussico neusten*, 82 *negarrez egoçan*, 100 *erraz ciratean*, 104 *echi cituen*, 108 *gureac ecardeçan*, 116 *Franciaric ecardeçan*, 118 *an galdu cituen*, 120 *sar cidiñ*, 124 *çan citean*, 141 *eguin cenduquean*, 159 *essan neñquean*, 180 *yfimi eguiçan*, (erlatibo eta menpeko esaldietako adibideak kanpo).

jarrequin ezequida erricoa laso, 345 jan ez euan, 358 euriaz loyza cidi, 364 burten eban, 386 Arzayoc arri citea, gaztaeoc aguir citea, 419 Perrau neuen gogoa, 438 guichitara nencarre, 440 aroari jarrain gaquioza, 486 cartegua bior cidi, 513 atera neban, yrabaci ez neçan, gal nezan, 526 jayo jacazà, 535 yl egua mayaça, ni ase nenza, 555 gastelauna negua senar, 557 jausico zan. Parcan dabiltza (13 -o / 12 -n)³⁷ bi usadioak baina mendebaleko ipartalde horretarantz (direlako «pueblos de la costa del mar cercanos a Bilbao» horietara) begira jartzen gaitu exaugarri honek, batez ere lehen eta orain ere testu batean nahiz hiztun batengan polimorfismoa dakusagunean.

1.7. Futuro zaharraz

Mitxelena aspaldi ohartu zen -a morfema bat bazela BZ-ean —nahiz eta oso agerraldi gutxirekin eta ia galtzean— futuroa markatzeko: *RS 31 Ax adinhon ta axa bon* «sé acomodado y serás bueno», 174 *Yndac mica bat orban baga, diada nesquea gajpaga* «Dame una picaza sin mancha, dar te he la moça sin mal», 233 *Y quedac ta diqueada* «Darásme y darte he» eta 422 *Ausso Chordon arz orri ta nic yñes dayda* «Ten Hordoño a esse osso y yo haré huyda», non *axa, diada, diqueada eta dayda-k* balio hori duten (Mitxelena 1954a: 30-33).³⁸

Ez da, dakinanez, horrelako adizkirkirik agertzen gainerako euskalkitan; alabaina, Mitxelenak frogatu zuen -a hori ez zela morfema asko eta berezia baina -a(n) subjuntibokoa: cf. Gar 26 *Ausho Peruchó vrdeorri, eta neuc ies daguidan*, eta gogora beste aldetik RS eta Mikuletaren testuko -n gabeko adizkiak, bai indikatibo lehenaldian eta baita imperatibo eta subjuntiboan ere. Gainera, subjuntiboaren eta geroaldiaren hurbiltasun hau ezaguna da beste hizkuntzetan, grekera zaharrean esaterako, (Mitxelena, *ibid.*), eta goiko forma horiek ez genituzke -n orokorra eroritako etorkizko subjuntibo geroaldi bilakatuak baizik. Halaber, Oih 139 *Eneco execa bi harzari, nic demadan ihessari* «Eneco saisistoy de l'ours, afin que i'aye moyen de fuir» ikusirik, galde daiteke Oihenartek ez ote zuen bildu usadio zaharra mantentzen zuen errefrau bat, garaiko Zuberoa eta Baxenafarreko hizkeran galduztako usadioa hain zuzen, eta aldi hartan jadanik *demadan-ek* beretza zuen csanahiarekin (subjuntiboa, ez geroaldia) itzuli (Mitxeleuaren azalpena, *ibid.*).

³⁷ Errima egiten dutenean behin baino ez ditut kontatu; 307 *maemana* ere kanpoan utzi dut erlatiboa baitugu azken finean.

³⁸ Lafonek eta Irigoienek (1985: 47) *axa-z* «orainaldi bilusia» dela esan arren, Mitxelenak erakusi zuen horretan *ax-i* gaineratu -a horrek dakarrela esanahi aldaketa. Besterik da *izan-i "haiza* dagokjola pentsatzea; hemen sinkronia hutsean ari gara —nahiz eta XVI. mendekoaz ari— eta sinkronikoki *axa* ez dago «bilusirik».

Ezaguna da BZ-ean (cf. Lafon 1943) zenbait aditzetan orainaldi biluziak ez duela gainerakoen balioa:

Dechepare et Liçarrague évitent d'employer à l'état nu les formes simples de la plupart des verbes à valeur déterminée. (...) Aucune forme simple de présent nu appartenent à *ekharri*, à *egin*, à *eman*, ne se rencontre chez eux, à cette seule exception près que Dechepare emploie une fois la forme *eztemayo* avec la valeur d'un présent intemporel.

Le biscayen n'en use pas de même avec les verbes à valeur déterminée. Dans les *Refranes*, *dacar*, *dacaz*, de *ekarri*, ont le sens d'un présent intemporel à valeur indéterminée. Mais le présent nu de *egin* et de *i-«être donné à»* a dans tous les exemples attestés valeur de futur (Lafon 1943: 435).

Hemendik *egin-en* orainaldi atzizkigabea erabiltzea aditz iragankoren geroaldia egiteko.³⁹ RS 18 *Çagoquez exilic ta ençun eztayçun guextoric* «Callando estareys y mal no oyreis», 40 *Nayago dot to bat ce amau emon deyat* «Más quiero toma uno que doze te dare», 136 *Az ezac erfroya diratâ beguia ta mutil guextoac quendu deyque arguia* «Cría el cueruo, sacar te ha el ojo, y quitar te ha la luz el mal moço», 178 *Zarrari ajea eguioc aldatu ta dayc galdu* «Al viejo mûdale el ayre y perder le has», 227 *Yl eyquec ta yl aye, ta yre erallea yl daye* «Matar le has y matar te han, y a tu matador matarán», 336 *ydoro dayc naya* «hallarás el desco», 385 *ypirdian atera day mina* «en el culo sacará dolor», 452 *Ni yl azquero vere ydioc exar daye* «Después de yo muerto también los bueyes ararán».

Gainerako testuetan 191 *Baçaquioz virtuteari beti jarraitu / santuçat Iaungoicoa ecussi daiçu* (Egiaren Kanta), Niças eras daiçu 1650 inguruko poesia batean (Sarasola 1983: 88), Kapanaga 140 *Echoçu eta iaquin daiçu* «esperad y sabreis», 154 *Au alan içanic erraz esan daiçu* (ordinak gabe gaztelerazkotz testuan), Mikoletak *edan daysu ostera se esteysu gachic* (203), *ori eguin day* (212), BB 22 *mortandadea / zuen alde eguin day / dozun anae maitea / beretuteco msteagaz*, 23 *Arabac ecarrico dau / Gipuzcoa onestera, / lagun esteoyo guerrara*, 37 *Ezin daizu ucatu / nolan*

³⁹ Sintetikotan 33 *verba day* «hablarás», 116 *deyc burtanaz biçarrean* «darte ha en la barba con el rabo», 129 *Opeyl bustiac dacaz oguiac* «Abril mojado trae panes», 174 *diada nesquea gaipaga* «dar te he la moça sin mal», 181 *Eztay iztanda puzchoan eztana* «Rebentar no se hará quien no se hincha», 231 *Digaran artean* «hasta que sea pasado», 293 *Ecachac dacar aro ona* «La tempestad trae buen temporal», 317 *Dome Vicen arguia, guztioençat dacar oguia* «San Vicente reluziente para todos trae pan», 334 *Daygo Galiz auzi ta garea vaquez bizi* «Hagamos pleyo de Goliz y seamos con paz biuir», 410 *Beyçut nay bañu* «Haréoslo si querçys», 429 *Gextoagoac obea nay* «El porc me hará mejor», 492 *Yzozac ta euriac dacaz escura gariac* «El yelo y la lluvia traé a la mano los trigos», 552 *Maiaz ozac dacaz pozac*; Garibaik ere badu B 48 *euri daidi*.

ascoc aduertidu / zaytuçan, azken hau dagoeneko orainaldiko potentzial esanahiaren bidetik. Ez dut ondokoetan antzekorik aurkitu eta Amiletak, esaterako, ez du *egin* biluzirik, baizik eta -*la*, -*n*-rekin lotuta, bizkaiera modernoan ohi bezala.

BZ-eko usadioak ba ote nonbait kiderik? Baiezkotan nago eta Oih-narten errefrauetan bertan gainera (cf. Lafon 1943: ibid.); gonbara bitez goiko forma horiek eta Oih 126 *Egurra daguienac leku gaizean, Ekarri beharco du soinean* «Celui qui fait son bois de chauffage en un mauvais endroit, est obligé de le charrier sur les espaliers» eta —itzulpen zehatzagoarekin— Oih 153 *Esacussan beguic nigar esteguic* «L'œil qui ne te void pas, ne te pleurera pas». Ezin uka, beraz, guzti honen aitzincan euskara zaharrean subjuntiboak eta futuroak zuten beren arteko lotura, ez eta lotura hau orokorra zela B-ko zenbait azpieuskalkitan estaliago geratu bazen ere -*n*-aren erorketaz.⁴⁰

1.8. Futurozko imperatiboa

Esku-liburua-ren 1821eko bigarren edizioaren «sart-aurrean» honako oharra ezartzen zuen Añibarrok lehendabiziko ediziotik egin zituen zenbait hobekuntza eta aldaketa azaldu asmoz:

Azkenez esan bear deutsut ecc liburu onetan icusico dozula batzuetan esaten dala *eguizu*, *eguidazu*, *egiozu*, *deguizula* eta beste batzuetan *eikezu*, *eikedazu*, *eikiozu*, *deikezula*, &c. Lelengoac esaten dira gaucea ordu bercan eguin bearra danean: bigarrenac, barriz, gueroago garrenean eguin bearco danean. Alanche esan daroc, baita ondo baño obeto, gure Bizcaitar baserritarrac (8. or.).⁴¹

Eta orobat Zabala bere garaikide eta adiskideak:

Con el futuro [de imperativo] se manda para más adelante, y en castellano suele regularmente expresarse por el futuro imperfecto de su indicativo. Fórmase en vascuence con los artículos activos *beguike*, *eguikezu*... y los mixtos *beiteke* o *bedike*, *zaiteker*... (VRB 26, Astarloa eta Añibarroren aipamenekin).

⁴⁰ Orokorra bide zen orobat -*kidi-* atzikziaren bitartez euskara zaharrean sortzen zen geroaldiko eta ahalerako saila: cf. Etxeparenen *ny erboa, cu taquynxu, veħha enaqidiku* eta Leizaragaren *ez laquidigu deus probetbu* (Lafon 1943 II: 34-35). Lafonek ez zuen hortelako formarik eriden berak aztertu XVI. mendeku bizkaierazko testuetan; alabaina, bada bat bederen XVII.aren bukaerako batean, euskalki guztiak legez, B-k ere atzendu baino lehentxe-agokoa: BB 37 *Ezin daizu ucatu / nolan ascoc aduertidu / zaytuzan eguin bear yacala / Viscayari errege;* / *santua bere eztaquidizu / orregaz baliadu, / baya su obstinadu* (ik. Lakarra 1984c).

⁴¹ Iku Urgell 1985, 1987a eta 1987b edizio hauen arteko aldaketa larri bezain interesgarrietzarako.

Usadio hori, jakina, goragotik zetorren: hara RS-etik atera gabe: 18 Çagoquez exilic ta ençun eztayçu guextoric, 36 Çe eyquec maurtutu hoeanea ederr eztanic calean, 234 Yre esayan emazte euquec yc adisquide, 290 Eyquec senar maquerra ta aucaque andera.⁴²

Honelako adizkirik ez da agertzen XVI. mendeko gainerako euskalkietako testuetan, baina Mitxelenak (1964b: 64-65)⁴³ dioen legez hori ez da aski bizkaieraren ezaugarri berezitzat hartzeko, XVII. mendearen Etxeberri Ziburukoaren Eliçara erabiltceco liburua-n agertzen baitira: *Aditcen tutçunean / Ene ahoco hitçac, / Beguirauqueçue çenən / gogortcetic bibotçac; Beguirauqueçue direnean, / Orduan othoi idequi / Tçaquetçu ene ezpañac.* Mitxelenaren exempluok aski izan arren hemen B-k euskara zaharraren ezaugarri bat gorde baizik ez duela egin frogatzeko, areago indartu nahi nuke azalpen hau, Mitxelenak aurkeztu ez zituen hiru aipamenez baliatuz. Hirurak dira, gainera, Etxeberrirenak baino hurbilagoak, XVII eta XVIII. mendeetako gipuzkerazkoak, hain zuzen: Tolosako bertso iraingarriean (*TAV* 127-128) *Y eçar eyt'or edatera / Chapveoquin barazcaritara / Adarroqui gosaritara / Arrasean oaue olloquin asaritara irakur daiteke;*⁴⁴ OA-ek (1713) ere badakar beste exemplu bat: *Crutce santua adoratcen dezunnean esan eiquezu: adoratcen eta bedeincatcen zaitugu,* etab. (14. or.). Peñafloridaren *Borracho Burlado-n* (1764) honela dio: *-Andrechoa orain presa degu, beste ordu baten atozque, -Jauna aguindu biezagu, cer orduco naico du? -Atozque bazcal orduan* (35. or.). Itzulpena Peñafloridarena berarena da eta interesgarria izan dakiguke ohartzea lehendabizikoan «puedes bolver» badio ere, bigarrenean ordena garbitzat («bolved») itzultzen duela. Erabilera hau, eta neke zaio nornahiri bestelakoik pentsatzea, ez zen B-aren berezitasun bat. Gehienik ere, B-ren berezitasuna denbora zahar honi beste euskalkiek baino gehiago (mende bat?) eustea litzateke.

⁴² Indikatiboko geroaldiak: 87 *Onac leorr haoa eze, sendari doque* «Los pies secos y la boca húmeda, tendrás gallardía», 165 *yłteco edo vicio gudura goaquez* «para morir o buir yremos a la guerra», 187 *Daqianac arçayten daquique emayten* «Quien sabe tomar sabrá dar», 215 *ona doquec heriocea* «tendrás buena muerte», 265 *layncoac diquec donari* «dar te ha Dios galardón», 290 *ac aucaque andera* «aquel te tendrá estimada señora», 325 *doquec negarra veti* «tendrá lloro siempre», 375 *daquique guïcon yzayten* «sabrá ser hombre», 439 *doquec goxera gassoa* «tendrás mala mañana», 505 *ez daquit nox doqueta* «no se quando la tendrás».

⁴³ Rebuschik ez bide zuen ezagutzen lan hau bere aditz denboren sailkapena egiterakoan Lafoni jarraituz «*begoke*, quoique inettesté donc, est reconstructible à partir des données du biscayen ancien, qui distinguait entre un impératif présent ou proche et un impératif futur, ce dernier se distinguant du premier par l'apparition du suffixe *-ke*» baitio (1982: 194).

⁴⁴ Iruzkinean bai esaten du geroaldiko agintearaztat duela, *Sobre el pasado-n* aipatu ez arren.

17. mendean Egiaren kantako 193 *Secula gorde eiqueñu ondar ybaya eta Kapanagaren 125 Bere conuersaciño edo platicueetan esan ce beique burlaco berbaric* (goraxeago *edugui beguio reuerēcia...* eta *eguin vegui berba erespeto andiagaz*) dira aurkitu ditudan bakarrak; beharbada bizirik zen —Garibaik erakutsi ez arren, Arrasaten 16. mendearren akabuan bide zen bezala— baina ez dator alerik *Viva Jesus-en*, ez Mikoletaren liburuan, ez *Bertso Bizkaitar-eten*, eta ez Amiletarengan, ezta 18. mendearren hasierako bi durangarren testuetan, baina bai Barrutiaren *Acto-an*: 330 *Anteoxoac ybini eizq Charlesicocho laztana.*

1.9. -zu «zuek»

Dakigunez, euskara zaharraren aditz sistemaren bigarren pertsonan oraingo oposizio hirukoitza (*hi* «singular familiar» / *zu* «sing. errespetozkoa» / *zuek* «plurala») lehen bikoitza genuen (*hi singularra* / *zu plurala*). Inguruko hizkuntzen eraginez tratamenduekin batera aditza ere zaildu egin zen eta lehen plurala zena singular bilakatu, haren ordezko berria sortuaz. Azken hau historikoki pleonasmoduna dugu, bigarren pluralgile bat ezarri baitzitzaiton.⁴⁵

B-ak goragotik zetorren usadio jator bati eutsi izan dio, beraz, nahiz eta Zabala zelatariak ez ikusi horrela gauzak:

Sea el 2º defecto que debe evitarse el de usar el mismo modo de los de 2ª persona de singular agente, paciente y recipiente en lugar de los de plural. Este defecto es bastante común en los pueblos del Señorío inmediatos a dicha provincia [Gipuzkoa], y por la costa se interna algo más: ni de él se han sabido prever algunos de nuestros escritores, llevados de la costumbre de su patria (VRB 57, Fr. Bartolome eta Astarloaren aipamenekin).

Bestalde, Omaetxebarriak eta, ondoren, Mitxelenak argitaratu duten 1648ko GZ-eko testu batean ere berdintsu agertzen zaigu:

Ene seme alaba chipi *laztanchoac*, oficio citalori eutci *eguiñu*, biurtu zaitez Jaungoico poderosoagana christau onac beçela, sinisten *deçula* Jesu Christo Criadore Redento[re]agan... (TAV 167, bibliografiarekin).

eta araberazko izan daitekeen (cf. Mitxelena 1984b) 1610eko Portalen poesian orobat: *Fantasiariec estaguiçula, / Seraphin escogituac* (TAV 120).

⁴⁵ Tratamenduen historia eta azterketarako ikus orain Alberdi 1986a, 1986b, 1994, 1995, 1996.

BZ-ean aintzinako sistima mantentzen da, oro har, hara 1638an Egia-ren Kantan aurkitzen ditugun adibide gardenak:

chacurren oghia emongo deussu / Domingo Heguicoc, baça-guiz artu, / martigen susperroa eldu equiçun / Pheliperi eguiteco gustioc onean mun / chacurren amessagaz paluac asco eroango doçuz Franciaraco (53-58), misericordia bear içan doçu (60), cematu cenguiçanean erioçeagaz / emon cenguiçala gazteluen gil-çac / parcatu leiçula gustior viciçac (176-178), Domingo Vizcay-coari çorra deussaçu / ezpa ya cinean gustioc gabachu (194), Daguigun gustioc asseguiñ artu / assoac, albiste neuri yndaçu / cegaiti deusudan negu gustico / cer essan yfini sugateraco. / Gasteac eguiçu dança eta saltu / Paris bear dogu urtera artu (202-207).

1688an BB-etan oraindik ez da (cf. Lakarra 1984c) gaurko zuek-i dagokion formarik agertzen, nahiz eta pluraleko esanahia izan adizkiek:

Uste al dosu [zuok, giputzok] Viscayan / ain gente biguna dala / nola zezen alardeen / vildurrac dagoezala. / Con todo mosugorac dira / guiçonac emen bere / espadosu bere uste.

Berrogei bat urte beranduago, Barrutiaren *Acto para la Nochebuena*⁴⁶ gaur singularreko formatzat joko genituzkeen 63 adizkitatik 42k (bi heren) pl.eko esanahia du oraindik. Alabaina, badira jadanik sing.ekoa duten beste 21 eta, batez ere, bada dagoenekoz -zu-ri-e bat erantsi diona, jagoitik emango den erabileraren aitzindari: 471 *Veguicoric eztegiçuen bularchorean isegi*.

Hurrengo mendeetan P. Bartolomek, J. J. Mogeletek eta bestek (dakidanez ikertzeke dago zehazki usadioaren hedadura eta iraupena B-ko testuetan) -zu-ren formak pl.eko esanahiarekin erabili eta Eibar eta beste nonbait horrela mentendu arren, esan daiteke zuek-en formak nagusitu direla ia osotoro. Honetan ere B modernoa beste euskalkiekin batera joan da BZ-ean mantendu arkaismua ezabatuaz.

RS-en hika eta zukako formak azaltzen badira ere, ez dator zuek-i dagokionik, azkenak beti errespetuzkoak baitira:

1. Adi adi ce Jaungoycoa dagoc adi. 9. Agerrian lurra garraz, hoña ybini egitic baraz. 13. Badeguioc yñori, eyngo deusc bestec yri, 18. Çagoquez exilic ta ençun ertzayçu guextoric «Callando

⁴⁶ Ezaguna denez, testu honek ez darama fetxarik; nire ustez, hizkuntzazko argudioetan oinarriturik (cf. Lakarra 1984a) suposa daiteke, halere, 1730 baino lehenagoko dela ziur aski; aztertu gogo dut arazo hau beste lan batean.

estareys, y mal no oyreys», 21. *Ziel zirola, noc gudura aroa*, 25. *Arloteari emayoc ar[r]ança, escatuco dyc zoça*, 31. *Ax adinhon ta axa hon*, 33. *Badaguic suateâ ypirdia vzcarti cejan verba day engayti*, 36. *Çe eyquec maurtuti hoeaneá ederr eztanic calean*, 40. *Nayago dot to bat, çe amai emon deyat*, 49. *Trancart eguiten deustac ta vlerretan deustat*, 73. *Ceguic ezer hendoreoa, ençun artean bestea*, 78. *Tamal eucoc chiroari ta sorosi aen opafrinari*, 87. *Onac leorr, haoa eze, sendari doque*, 88. *Olaso, guichi bazuc y laso*, 91. *Neurez ez dot, balinde baniqueçu «De mí no tengo, si me diessen daros eya»*, 98. *Egun ona sar esac essean*, 101. *Ez azauenac eros aala*, 113. *Ama onac ez dio nazu «La buena madre no dice quereys»*, 116. *Astoagaz adi quirolan ta deyc buztanaz biçarrean*. 132. *Arroz ygui baguea çara «Huéspede soys sin enfado»*, 136. *Az ezac erfrjoya diratâ beguia ta mutil guextoac quendu deyque argua*, 144. *Ostenduko zara ta aldi ygaroa oraetan gajia «Atrasaros eys, y el tiempo passado es difícil de trabar»*, 152. *Ydi çarrari çe eguioc alauneric sorosi*, 158. *Ezavn adi ta ajate ondo bici*, 162. *Gaytua çe eguioc gaytu*, 173. *Hoa laster baracheje*, 174. *Yndac mica bat orban baga, diada nesquea gaçpaga*, 178. *Zarrari ajea eguioc aldatu ta dayc galdu*, 183. *Ynurriari arrayo*, 189. *Yraunic çe emac yori*, 192. *Dienean erertzuna yfinc chiricandeza*, 194. *Vler ezac lenago ta yz eguioc gue-roengo*, 203. *Laputtag on dau vcoa, vca eyquec gaxtoa*, 215. *Badaguic equipidea ona doquec erioçeä*, 217. *Otu ceghioc oean andreari, ez hurtan çaldiari*, 227. *Yl eyquec ta yl aye, ta yre erailea yl daye*, 233. *Yquedac ta diqueada*, 234. *Yre esayen emazte eu-quec yc adisquide*, 240. *Yre ydeaz ezco adi ta aja ondo veti*, 251. *Vzqur baquio ecachari sendaquiique eguzquiari*, 257. *Ezca çe aquio daucanari ta vay onderextanari*, 265. *Ondo eguioc landerrari, Iayncoac diquec donari*, 269. *Mayaza yre laza lora asco doala*, 272. *Iac, emac, erac ta çeghioc trancart*, 290. *Eyquec senar maquerra ta ac ancaque andera*, 293. *Ecachac dacar aro ona gaxtoa vaynzate oba*, 296. *Gach eguiten boc aynbesteri ychadoc*, 312. *Gach çe erexqueoc yori, ta emac verea edoceyni*, 313. *Gara-gar[r]ylean nesquea ezarc alborean*, 316. *Andra guztioc erçeti erabiliko aude veti*, 336. *Galdu çe eguioc aldia ta ydoro dayc naya*, 355. *Aoti bero ezac labea ta çarta*, 361. *Sayra noçu, asper çaquidaz «En la buytrera me teneys, uêgaosme»*, 362. *Sayra noçu asperfrjetan gach eztoçu «En la buytrera me teneys no os será difícil el vengaros»*, 366. *Biaotan eguioc lo ynsaur petan*, 382. *Ezcô ezac semea nay doaneá ta alabea al daguianean*, 389. *Edo ydia edo beguia, emongo deustac ene eguiia*, 394. *Echun ayte afatzaga, ta jagui aite zorbaga*, 396. *Choria, gaztetegui ezpadaguic abia zaarza gachen eldu doc hire biçia*, 401. *Lagunen gacha*

aguir ce ezana, 402. *Ardura, enoc yre gura*, 409. *Baçint banique-çu* «Si me dieseys, daros eya», 410. *Beyçut nay baoçu gaur, biar, ezi, eziluma, ezicaramu* «Ilaréoslo si quereys hoy, mañana, después de mañana», 411. *Ar eçac mayazean aunnz balzaren ezne-rean, ta aquio veti betseguien eznerean*, 422. *Ausso Chordon arz orri ta nic yñes dayda*, 429. *Ydiac eta vejac yl ezauz ta loben baten biriac yndauz* «Mata bueyes y vacas y dadme vn cornado de liuanos», 431. *Yre auçoac eztequid gacha ona da*, 439. *Arr ezac leyen ganeco lañoa ta doquec goxera gassoa*, 451. *Ene alabea ax on, ama marcaac dabilz ysasoan*, 462. *Eguin ta aguindu ta ez ayte galdu*, 470. *Yrezat naztoana besteri ez opaesi*, 490. *Emongo badeustaçu lutzatu ce eguidaçu* «Si me lo aueys de dar no me lo alargueys», 501. *Ce eguiç gachic ta ce euc bildurric*, 514. *Etorri vadaquic billaetá doan gacha gondu daquiala*, 516. *Lagunen gacha aguir ce ezana*, 525. *Eshseco mirabeari echí, ce daquia andra andi*, 530. *Eyngó doana ez biarco echí*, 536. *Hordiaganic ençindu ce eguiç arean*, 540. *Ynardun badagnic, ez doquec besterenic*, 548. *Barria eder eguiç*, 553. *Garrastu adi icasterren ta neca adi euterren*, 556. *Esquerrac yndauz ce on derexta ene gaucary*, 558. *Ylbeeran ereyn ceguiç arean*.

Mikoletak badu vosotros bere paradigmata (ez elkarritzetan eta Poesietan): «vosotros hazeis» *suec eguiten dosu* (= «tú»), «vosotros hazías» *suec eguiten sendua* (= «tu»), «vosotros auíades hecho» *suec eguin senguián*, «vosotros hagais» *suec eguin eguisue* (~ *eguisu*), «si vosotros hizíedes» *suec eguin vasenghie* (~ *basengui*), «vosotros soys» *suec sara* (= «tú»), «vosotros estais» *suec sagos* (= «tú»).

Badirudi oraindik formalki bat direla zu eta zuek-i dagozkien formak eta soilik testuinguruak bereiz ditzakeela; alabaina, ez dira ahaztu behar diren salbuespenak eta ez litzateke harritzeko bien arteko bereizkuntza mendebaleetik ekialderantz zabaldua izatea bizkaieraz: bi mende beranduagorako Zabalak zioskunarekin bat etortzeaz landa, ez lihoake 17. eta 18. mendetan testuetan aurkitu dugunaren aurka ere.⁴⁷

⁴⁷ Mendebalekotzat jo daitezkeenen artean 17an bakarrik *Viva Jesus-en* aurkitzen dut 7 *bear da jaquin cetaraco eguin guenduçen* bere *Divina Magestadec*. *Yte. Cetaraco senguisen Iangoicoac?*, 11. *Adoretan zatudes neure Iesu Christo Iauneen odol preciosissimum*. Bigarrenak ez bide du ezer adierazten; lehenak, beharbada oraindik usadio zaharrari atxikitzen zitzaiola. Ohar bedi, testuan gorago esan bezala, doctrina hau aurreko mendeko baten bertrigalpentzat ere jo izan dela (Urquijok) batetik, eta mendebaleko izan arren, beharbada ez zela Bilbo ingurukoa ere; Mikoletaren liburuaren garaikide edota are zaharrago izanik, gainera, ezin espero daiteke oso aitzinatua izatea zu / zuek bereizkuntza formala adizkietan.

2. Oharrak syntaxiaz

2.1. Aoristoaz

Egungo euskaran indikatiboaz atetiko moduetako laguntzaile gisa erabiltzen dira *egin*, «*ezan* («*iro ere bai ekialdean*) eta «*edin*; euskara zaharrean, ordea, bestelako baliorik ere bazuten lehenaldian Lafonek ikertu zuenaren arabera:

Le type *sar zedin* sert à exprimer qu'un fait a eu lieu, qu'un procès s'est accompli. Cette forme signifie littéralement «il devint entré»; *gosse* étant l'adjectif qui signifie «affamé», *gosse cedin* signifie littéralement «il devint affamé», dont «il eut faim». Le type correspondant à patient et agent est *ikus zezan*, litt. «il fut fait par lui vu», qui correspond à frç. «il le vit» (Lafon 1943: II, 46).

Hara, adibidez, Etxeparereren *Iaun erregeuec meçu nenzan ioan nengion bertaric*, hots, «errege jaunak gaztigatu zidan beregana joateko» edo *ioan nendin* «joan nintzen»; Leizarragak «d'innombrables exemples» dituela markatzen du Lafonek eta hala daki beraskoitzearraren testurik ikusi duen orok.

Badira usadio honen agerraldiak BZ-eko testurik garrantzitsuenetan, ez soilik Lafonek (*ibid.*) ikertu XVI. mendekoetan, baina baita XVII.eko zenhaitetan ere oraindik: Gar A 2 = B 1 *Jagui cidin naguia erra çican uria* «Levantóse el perezoso, quemó la villa», A 11 *Arçanic aserra çiteçen, gastaç aguri çiteçen* «Los pastores riñieron y los quesos parecieron», RS 52 *Vnayoc arri citean gastaec aguirr citean* «Los pastores riñieron, los quesos parecieron», 167 *Erioac ereçan Butroeco alabea Plencian* «El tártago mató a la hija de Butrón en Plencia», 263 *Lotsaga nindin, oguiz ase nindin* «Sin vergüenza me hize y arté me de pan», 294 *İaygui cidi naguia, erra cizan uria* «Levantóse el perezoso y quemó la villa», VJ 2 *Salvaetaco etorri cidina, 6 Celan erredimidu eta libredu guenguicé, 6 Virgine Marie Santissimea guera cidin Virgine Iesu Christo gure Iaune egui azquero*?, Mikoleta 10 *Xauna nic vostac conta ninçean* «Señor las cinco yo las conté», 141 *Non eguiñ sidi?* «¿A dónde fue hecho?», 263 *Memoria ene gasaben trapuycusleac eroan eguisanena* «Memoria de la ropa de mi amo que llevó la lavandera», Enojaduric 6 *nigana bior citean*, EK 55 *Martiçen susperroa eldu equiçun*, 115 *sartu citeanean ondar ybayan*, 120-121 *sar cidin orduan, animosoa, / ecusi eguianean Domingo Heguico, etab.; Kap [guztijak Kredoan] 6 iaio cidin* «nación», 6 *jachi cidin* «descendió», 6 *erresuzitatu cidin* «resucitó».

Forma perifrastikooz gainera bazireu trinkoak ere: Gar A 19 = B 8 *Gure mandoa, urac engarren eta urac aroa* «Nuestro macho, el agua te traxo y el agua te lleva», Fray Vicente esala Fedea cina liçala «que

fray Vicente había dicho ser juramento la fe», RS 75 *Oparinac nenguiā bearquin ta alperqueriac auzquin* «La necesidad me hizo obrero, y la vagamundez pleytista», 307 *Maemana daqui emayten* «Lo que no se excusa de dar (hots, “lo que dio”) sabe dar», 332 *Adiunça onean nentorre vaya ezer ez nencarre* «En buena sazón vine mas no truje nada», 438 *Lar janac eta edanac guichitara nencarre* «Demasiado comer y beber me ha traydo a poco», Andramendi (*TAV* 160 bibliografiarekin) *baesan ece bere arma carrac ansi ta letorrela* «les dixo que sus armas antiguas abí(a) ronrido», Kapanaga [aitorreal] 20 *Cerren bay neguian pecatu gravemente* «que pequé gravemente», Mikoleta 142 *Au ta sillac etorsan Salamancaric* «El y las sillas vinieron de Salamanca», etab.

«Ces formes à valeur d'aorist s'emploient couramment au xv^e siècle» badio ere Lafonek (loc. cit.), ene ustez eta ikerketa zehatzagoren faltan, adizkiok aski zaharkituak bide ziren dagoenekoz lehendabiziko testuetan. BZ-ean aurkitu ditudan azken agerraldiak aipatutako Kapanagarenak dira, 1656koak. Markatu dudan legez, Krehoa bezalako testu fosildu batetan ematen direla honakoak gogoan izanez gero, mendearen lehen zati-koak (EK, 1638) dira benetako azkenak, mendebaleko muturreko Mikoletaren⁴⁸ oraingoan kontuan hartzen ez badugu. Geroztik ez da agertzen, dakidanez, beste inongo testutari (batez ere erdialde eta ekialdekoetan: BB, Amileta, Arzadun, Urkizu, Barrutia),⁴⁹ nahiz eta Azkuek dioenez mende honen hasieran bizirik izan Barrikan:

En la variedad bizkaina antes citada de Barrika (Plencia) he oido estos dos ejemplos: *alaba bi eukaza, bat ezkondu egiz zidi* «tenía dos hijas, una se casó», *gazterik il ze* «murió siendo joven». Aquí no dijeron *zidi*. *Joan zidi ta etorri zidi emakumea* «la mujer se fué y se vino» (1935: 85).⁵⁰

Ia mende bat lehenago Zabala ere konturatua zen fenomeno honetaz, eta —nahiz eta testuen lekukotasunaren aurkako hedadura eman garaiko B-n— baita zuhurki erakutsi ere usadio orokorra dugula:

⁴⁸ Eta § 2.7.eko ohartean eta bertako testuan aipatu bertsoko hau: *Glorias beteric iayo nindia / icussias guero seu, ene egusquia*. Gogora bedi han ere Mikoletarekin (eta RS-rekin) salbuespen-kide genuela honako hau.

⁴⁹ Hots, testu fetxuratuan, zeren eta bai baita agerraldi bat Foruko «Marijesi» batzutan (Arana 1979an aipatuak baina ez argitaratuak): 34 *Eseantu ebenian / sala Jaungoicoa / ofrecidu eutzen / telengo incensoa, // 35 adoradu eta / contentu andiegas / biurru sutesian / ceruco arguegas*. Alabaina, ez du testu hau hemen kontuan hartuko aurkezten dituen fetxa eta etorkiazko istiluak ez baitira bizkaierazko (eta euskal) literatura zaharrerako duen interes eta garantzia baino txikiago. Ez ditut ere kontuan izango Añibarro (edo Mendiburu) batengan agertu *ekion, ekien* [— «zitzaión», «zitzaien»] bezalako datibozko forma fosildu apurrak.

⁵⁰ Lehenago berdintsu Bonapartek, baina Zabalaren oinarriturik, aitorri legez. Azken hamarkadan Gamindeko ere bildu ditu zenbait adibide eremu berean: cf. Gaminde 1994 eta hango erreferentziak.

En Plencia, Guecho y pueblos comarcanos usan como de artículos regulares y ordinarios para el pretérito remoto de indicativo de *leguijan*, *cenguijan*, *nenguijan*, etc., de la columna número 14, que son los regulares del pretérito imperfecto de subjuntivo, ciñiendo el uso del *evan*, *cenduan*, *nevan* o *nendun* [de la 2^a formación del pretérito imperfecto. El mismo uso del *leguijan*, *nenguijan...*] hacen en Llodio, Orozco, Barrambio, etc., aunque sin excluir el *evan*, *nevan...* y podemos decir que en todo Vizcaya se practica poco o mucho esto mismo. Y he aquí la clase de conjugación que usó Mr. Lizarraga en su traducción del Nuevo Testamento, y de la que han hecho misterio el P. Larramendi prolog. al *Dicc.* pag. xxxiv y Mr. Lecluse *Man.* § 3 y 10 (VRB, 56).

Iparraldean ere azken aleak Kapanaga baino lehenagoko testuren batetan izanik (Axularrek ez du alerik eta Materrerengan fosilduak dira), ezin harritu XVIII. mendea baino lehen hain urri diren N-erazko, G-zko eta areago A-zko testuetan exenpluak ugari ez aurkitzean; halere, honako hauek irakurtzen dira Isastiren errefraueta: 30 *Eliza ceguienac aldarea*, *aldarea ceguienac abadea* «El que hizo la iglesia, el altar; y el que hizo el altar, el abad», 44 *Guezurra nesan Guetarian, ni ychean ta ura atarian* «Mentira dixe en Guetaria, yo en casa y ella a la puerta», 50 *Illac aguin ceguijan, viciac bere naya* «El muerto mandó, y el vivo hizo lo que quiso».

Zalantzarak gabe Isastiren errefrauotan jadanik bere liburua idatzi zuen garaiko (c. 1625) hizkera arruntean mantentzen ez zen ezaugarriren bat islatzen da —ez da ez gipuzkerako Misererean (16.m.?, ez Irúnear 1609-10ean argitaratutako eliz-bertsoetan, ez Tolosako iraingarrietan (1619), ez Azpeitiko gutunetan (1622), ez Beriainen *Tratado-an* (1621)—, aoristoaren hau esate baterako, errefrauakin (gogora RS-en ikusia daroaguna) usu gertatu bezala; hemen axola zaiguna, ordea, besterik da: aspaldiko usadioaren arrastoak gordetzen dituela, alegia, eta sendotzera datorrela goian azaldu ustea, hots, euskalki guztiak zuzenbide berarekin eta kronología bertsuarekin pairatu duten aldaketa bat dcla aoristoaren galerrarena.

2.2. *Eroan eta joan laguntzaile gisa*

Bi aditz hauek, lurralte enparatuetan⁵¹ duten erabilera eta esanahiaz gainera, ohizkotasuna adierazteko laguntzailetzat erabiltzen ziren B

⁵¹ Ohar bedi (Azkuek «Bc» baino ez dakar) *er(o)an* bai GZ-ean eta baita A-n eta iparraldeko euskalkietan ere agertzen dela; cf. OA 76 *Ematen ere die indarrac matrimonioco carga andiac eroateco*, 139 *cerren izanican* (*Concilio Tridentinoarequin suponituric darioagun bezela*), Oih 530 *Seroretara sautan gogoa, / esteietara aiseac narua*, Gamiz 201 *Gustoz ibilco gara. // Almorzu ona erango dega / tortillaonbat urdaiaz*.

zahar eta klasikoan, nahiz eta gaur egun desagerturik edo desagertzean izan usadio hori: Gar A 30 = B 44 *Essanoc oy dira eçe etregue vere ogniz ase eçtoa*,⁵² A36 = B 30 *Valizco oleac, burniaric egin eçtaroa*, B 43 *Erre-gueri vere aceti pusesa emon doa*, RS 79 *Triscan badabil asoa aus asco erigui daroa* «mucho poluo leuantar suele», 210 *Andra urenac esea lança-tuguino daroa betatu* «suele hinchar hasta el tejado», 61 *Guichia guichia asco egun doa* «poco a poco se haze mucho», 94 *Dindica murcoa betatu doa* «gota a gota se hinche el cántaro», Mik 56 *Ori da bat yru gaunsetaric esan eroena Ganasac* «Esta es una de las tres cosas que Ganaza dezía», Kapanaga 93 *iuramentu modu egun daroê*, Olaetxea (1763) 113 *Castigau daroa aen magestadeac*, 82 *gueienean jazo doeana da*, etab.

Zabalak iragan mendearen erdi aldera oraindik dotrina hau azaltzen zuen.⁵³

La formación de que ahora hablamos es usadísima en Vizcaya con toda clase de verbos, y se hace con el participio de presente o pretérito, aunque más comúnmente con éste en los verbos propios, y con los artículos respectivos de los verbos auxiliares *eroan* en activa y *yoan* en la mista (VRB 23).

Azkue ohartu zen (1923-5: 634) fenomeno honen zabaltasunaz:

El verbo *yoan* conjugado tiene en este dialecto B y por lo menos tuvo en BN la significación de «soler» cuando se refiere a un verbo intransitivo... Oihenart se valió de él en sus proverbios... Dechepare dice *enganatu doa*, se suele engañar.

Patxi Altunaren Etxeparerri buruzko lanei eskerrak (hiztegi eta edizioari, batez ere) I 157ari dagokion pasarte horri beste hiru gehiago ere erants dakizkioke: X 43 *Pitxer ebilia hautsi dihoazu*, VI 6 *Harçaz orhit nadinian vioza doat ebaqui eta IV 27 Beriarequi eghustiaz hayn hayn noha penatu*. Leizarragak ere ezagutzen zuen erabilera hau: *Gauça hauc gucioc usança berez galdu doaça* (Col 2, 22) «toutes lesquelles choses perissent par l'usage», *creatürä sanctificatu dihoac Iaincoaren hitzaz eta orationez* (1 Tim 4, 5) «elle est sanctifiée par la parole de Dieu et par oraison», *mundu hunen figura iragan doa* «la figure de ce monde passé», etab. (Lafon 1943: II, 148).

⁵² Zubiaur-Arzamendi-ren *getoa* ezinezkoa da aspaldi Azkuek ikusi bezala.

⁵³ Alabaina, ez deritzot hain erabiliak bide zirenik VRB 24ean aurkeztu (*ba)leroake / (ba)lioake*-ren bitartez osatu egiturak; Zabalak ez du idatzizko lekukotasunik ematen, ohi bezala, eta ez dakit ahalko zukeen ere. Bidebatez, Bonapartek agindutako itzulpenetan oraindik badira horrelakoak baina ez dakit beti horrela ahozko euskaran Uriarteek entzunda ala liburuetatik hobe beharrez ezarriak.

Berdintsu Azkuek aipatu Oihenartek ere; hara zenbait errefrau, egileak berak eman itzulpenarekin: 293 *Lan aizineti pagatua ibesi doa* «Le trauail payé par auance, s'en fuit», 332 *Nesca harzen ari dena saldu doa, galdazen ari dena da galdua* «Fille qui prend elle se vend, fille qui demande est perdue», 466 *Urhe-gacoas ate gustiac irequi doas* «Une clef d'or ouvre quelque porte que ce soit», 511 *Betheguis sorroa lehertu doa* «Par trop remplir, le sac vient à crever», 565 *Burla gaxtoa bere sor-lekura izuli doa* «Une méchante raillerie, retourne vers le lieu d'où elle est sortie».

Lafonek bai aditz iragangaitzetan eta baita iragankorretan ere ematen dela dio egitura hau; ohar bedi, gainera, orokortzat duela euskara zaharrean, ez honako edo horrako dialektutako: «Il est notoire que, en basque, le présent simple de *ioan* et de son causatif *eroan* s'emploie avec un participe passé pour exprimer un procès habituel» (*ibid.*). Ez du *eroan*-en exemplurik ematen Iparralderako baina bait horren aldaera *eraman*-enak:

Lorsque le procès comporte patient et agent, Dechepare emploie le verbe *eraman*, qui repose sur **eroan* et qui est la forme prise dans une partie du domaine basque par le causatif de *ioan*: *Mundu honec anhiz gendee enganatu darama* (D 2r 7) «ce monde trompe beaucoup de gens». Et deux vers plus loin: *Guti uste duyenian ehor uci darama* «quand on ne s'y attend guère, on est abandonné par lui».⁵⁴

2.3. *ezan / egin

Hara zer dioskun Azkuek bere *El verbo guipuzcoano-n* abalera eta aginteerako laguntzaile iragankorraz:

Una vez expuesto y analizado el Paradigma correspondiente a las flexiones objetivas de imperativo, del auxiliar transitivo, tales como *ikus nazak veme tú y yan dezagun* comámoslo, sería de muy poco interés presentar al lector, con la cuadriculación habitual, todos los paradigmas correspondientes a los paradigmas bizkainos que figuran a continuación en el Tratado de Morfolología Vasca. De algunos bastará dar alguna ligera indicación. El paradigma que sigue al antes citado es el número xxxix. En él se exponen las flexiones receptivas de imperativo del auxiliar transitivo. Muchas de sus flexiones no las usa ya el pueblo, y en muchísimas otras se vale, casi en todas partes, del núcleo del auxiliar vizcaíno *egin*, habiendo desaparecido el de su propio auxiliar *ezan* (Azkue 1923-5: 144).

⁵⁴ *Ibidem*, «Liçarrague n'emploie aucun verbe de la 2.^e classe [iragankorrek] accompagné d'un participe, pour exprimer un procès habituel» erantsiaz. Oihenarten errefrauetan ere ez dut horren exemplurik idoro.

Soilik Oiartzun eta Amezketa bildu ahal izan zituela *eman zidak* eta antzerakoak aitortu ondoren, hemen bere ondorioak:

en las flexiones meramente objetivas vive el auxiliar *ezan* y en las flexiones de recipiente ha sido generalísicamente sustituido por el auxiliar *egin* del dialecto bizkano (*ibidem*).

Iritzi bera agertu zuen Jon Etxaidek 60 urte beranduago argitaratutako «(e)za aditzerroa datiboko aditz-jokoetan autoreetan zehar» lanean:

Nere lanerako zenbait egile edo autore giputz, nafar eta ifarraldeko hautatu ditut. Bizkaian ez da aditz-erro hau erabiltzen, inoiz erabiltzen baldin baten ere [oharrean exenpluak emanaz] eta Gipuzkoan ere ia galdurik dago datiboan, bere ordez Bizkaiko «egi» aditz-erroa sartu delarik, dirudienez «egin» aditzetik hartuta. Hau dela-eta, Gipuzkoako autoracetan bi aditz-erroak bildu ditugu, -*za-* eta -*egi-* alegia, elkarren arteko borroka nabari dadin. Irakurleak konproba dezakeenez, borroka honetan, nahiz eta beti atzeraka, inperatiboan eutsi zaio sendoenik -*za-* aditz-erroari (Etxaide 1984: 601).

Egungo erabileraaz Azkueren datuak zuzentzen ditu **ezan*-etiko formei hedadura handiago emanaz:

Astigarraga eta Oiartzun'ez gaiñera besteok gaiñeratuko nituzke: Amezketa (aipatua), Abalizketa, Orendain, Altzo, Lizartza, Gaztelu, Orexa, Leaburu, Ibarra, Belauntza, Berrobi, Elduain, Berastegi, Urnieta, Errenteria, Lezo, Pasaia, Irun eta Ondarribia. Uste dut Naparro-mugaldeko herriotan gehiago edo gutxiago (baiñan gero eta gutxiago) oraindik zenbait kasutan kontserbatzen dutela --*za-*-- aditzerroa. Hontaz gaiñera esango nuke aginkorreko forma batzuek (*za(i)dazu* / *za(i)dak*, *zaiozu* / *zaiok*, *zaizkidazu* / *zaizkidak*, *zaizkiozu* / *zaizkiok*...) naitza galurrean, Oria'ko ibarluzera guzian erabiltzen direla oraindik Alegi'tik Orio'rainera eta erabiltzen eztuenari ere oso ezagun edo etxeko egiten zaizkio. Baiñan, Azkue'k dion bezala, aztarrenak besterik ez dira gelditzen. Beraz, bildurrik gabe esan diteke gaur Gipuzkoan erabiltzen diren datiboko aditzerroak «egin»-etik atereak direla (op. cit. 622, 1.ko oharra).

Baina zergatik dateke «bizkaíno» edo «Bizkaiko» (hitzen adiera herrikoia) *egin*, G-zko lehendabiziko testuetarik **ezan* baino ugariago eta erabilera zabalago batean edireiten badugu? Nola «kutsatu» diente bizkaitarrek gipuzkoarrei aditz laguntzaile oso bat? Ez ote da zuzenago *egin* laguntzailea ere **ezan* adinbat G-zkoa dela czagutzea?⁵⁵

⁵⁵ Cf. Mitxelena 1960b G-tik kanpo norbaitek arrotz ikusi *dio-ri buruz*, Axular ez ezezo Iparralde osoko adibide zahar eta berriekin. Lakarra 1985b, 1986b-n horren beste alderdia agertzen da, hots GZ-ean **edun-en* datiboko plural ia bakarra **eradun-ekin* egiten dela; hara esaterako OA 16 eutzi cizcan sacramentuac baina OA 52 eman cizauzcan eleiza ama santuari, OA 6 Eleizan eutzi cizauzun sacramentuac, Mis. Çeure graciæ quenduco diraust culpa gustiac, OA 71 cer ondasun comunicatzen edo ematen dirautza..., OA 145 Ofrecitzen dirautçut neure vicia, neure anima, neure obrac eta trabaju guciatic, etab.

Ez da hori, ordea, —edo oraintsu artean bederen ez da izan— azalbiderik nagusiena. Ikus, esate baterako, F. Ondarraren iruzkina Etxaiderenaren urte berean argitaratutako Zegamako 1741eko dotrinaren aditzaz:

Aditz laguntzailea. Agintaldian eta subjuntibozko orainaldian, *nor nori nork* adizkietan, *egin* erabiltzen da laguntzaile bezala: «barca eguiuzezu» (1) eta «barca eguizuguzu» (41at.); «barca deguigula» (41at.). Bizkaierazko forma propioak dira horiek (Ondarra 1984: 10).

Alabaina, azalpen hau G-ren historiaz dakigun apurrenen kontra doa eta GZ-eko testuen lekukotasunaren mezprezu nabarmena dugu. Ez dago euskalki horretako testuak arreta apur batekin irakurtzea baino —eta, jakina denez, egiteko horrek ez du asti gehiegi eskatzen— subjuntibo, imperativo eta ahaleran zen asimetriaz jabetzeko; hots, adizkiak bi osagai (*nork-zer*) ala hiru (*nork-nori-zer*) izan, kontuak aski ezberdin zihoaZen; halaber, adizkia singularreko edo anitzekoa zen erro berezia hartu ohi zuen. Zehatzago, bi osagaiko adizkietarako *egin* zein **ezan*-en formak hauta zitezkeen *nor* singularra bazen; *nor* anitza bazen **ezan*-enak erabili ohi ziren, eta *egin*-enak hiru osagaikoetan:

1. *Eguin beza essan degun moduan* (Otxoa Arin 134), *serbitu ceguijan* (OA 11), *essan bece* (OA 133), *aitaric izan ceguijan* (OA 26), *pagatu ceiquealaric* (OA 164), *galdu cezaqueten* (OA 165), *ezagutu daguijan* (OA 132), *reverenciatu dezagun* (Irazuzta 27), *bedeincatu deceen* (Ir 27), *reyna dezala* (Ir 23), *ecarri beça* (Azp-Gut), etab.

2. *Contadu bitça* (OA 135), *eutzi ditçaqueanac* (OA 139), *criatu ditceen* (Ir 41), *aditu ditzan* (OA 58), *itzuli ditzaque* (OA 24), *itzuli itzatzu* (Ir 5), *socorridu cizaquela* (OA 155), *laja ditzagun* (Ir 2); *salbuespen bakarrak itzuli egnitzatzu* (OA 8) eta *esan eguzitzu* (OA 63) bide dira.

3. *Itaundu beguio* (OA 168), *escribi deguiçudala* (AzpGut), *ez deguigula utci* (Ir 24), *erregutu deguizula* (Ir 49), *eman deigun* (OA 58), *deguiola eman* (BK), *quendu egnidaçu* (Misererea); *jaso ez diazagula* (OA 4), *esan niazcaquec* (TBI), *eman diazagula* (Ir 23) eta beste 3-4 salbuespen direlarik.

Egin laguntzailea B-tik kanpo ere ezaguna zen eta oraindik ere horrela da ikusi berri dugunez. Badirudi, beraz, euskara zaharrean, hizkuntzaren historiaurrean bada ere, eremu zabal batean bi laguntzaile —*egin* eta **ezan*— zirela funtzio berarekin edota oso antzekoekin bederen, eta dialektu bereizketa batez, euskalki batzuek bata hautatu zutela eta bestea

gainerakoek (cf. Mitxelena 1960b), hautatzera iritsi ziren neurrian, jakinna.⁵⁶

Uste hau sendotzera dator BZ-eko egoera ere. Euskalki honen lehen-dabiziko testuetarik *egin* da nagusi aditz iragankorreko indikatiboaz kanporako denboretan; nagusi, baina ez bakar, ordea, gaur egun bezala, *ezan-en formak aurki baitaitezke oraindik lchenagoko usadio orokor horren lekuko:

Aek 3 [Ar]amayo suac erre açala, 5 cerren ceuren jauna ez
cençan empara, 25 erre deçagun Mondragoe, 4 [T]a sumi a[ç]alla
Gurayarra,

RS 95 Daghianac aguindua jan deçala, 98 Egun ona sar essac
essean, 101 Ez azauenac eros aala, 136 Az ezac eroya, 165 Azar-
cûceac bildurra uza bez, 166 Hurdinetan assi azquero prestu esta
seyzaroa, ynoc çe bez aurqui guero çe aldia eldu doa, 167 Erioac
erecan Butroeco alabea Plencian, 194 Vler ezac lenago ta yz
eguic gueroengo, 294 Laygui cidi naguia erra cizan vria, 355 Aoti
bero ezac labea ta çarra, 363 Samarien osticoa da gestoa, noc
verac ar bez vere ydecoa, 382 Ezco ezac semea nay doaneâ, 401
(eta 516) Lagunen gacha aguir çe ezana, 411 Ar eçac Mayazean
aunz balçjaren eznerean, 429 Ydiac eta veyac yl ezaun, 439 Arr
ezac leyen ganeco lañoa, 513 Eznea, guria ta odola erroorean ate-
ra neban ta ezer yrabaci ez neçan ta ene beychua gal nezan, 532
Sagnac jango dauena catuac jan deçala, 535 Oçac yl egquia Maya-
ça, ta ni ase nenza,

Kap 153 amasa eta animo arr eçaçu,

Mik 10 Xauna nic vostac conta ninçean baya goxa ta herlo-
xua estabilas batera, 232 garvi essasus ene erropa dustiac, (poe-
sia) 51 Nic nola beti susri essasu seuc bere seure penean,

Amileta 2 gueure esaietatic libra gaiçacu,

Bar 26 arren adi ezazu gure negarra, 90 mutilac libre, nesca-
chac eurac paga deceela danzea, 170 asco da loric, esnaa zaitez;
viozoc garvi ezazuz, 249 Adi ezac Verzebu onen viziza modu,
286 adi ezazu mundua, 366 Aseguin arr ezazu Belengo pastore-
ac, 469 adi, adi, adi, adi ezazuz berba bi, 480 adi, adi, adi
ezazuz berba bi, 489 biurr ezazuz orain gueugana.⁵⁷

Ohar bedi, batetik, exenplu guztiok —Barrutiaren 512 Veroni sal ezo-
zu vioz guztia bide da salbuespen bakar— *nork-zer* eredukoak direla, ez
baitut (ezta Etxaide 1984-n, ere) *nork-nori-zer* sailekorik eriden (gogora
atal honetan bertan GZ-az esana); bestetik EK, BB, Zubia-Lezamiz, Ar-

⁵⁶ Aurreko oharraren haritik, gonbara bedi G-ren eremu zabalena *egin* eta *ezan-ekin
eta iparraldeko hainbat hizkerarena *eradun eta *i-rekin.

⁵⁷ Garibaik ez du bakar bat... testuak urri badira ere!

zadun, Urkizuk eta, batez ere, *Viva Jesus*-ek ez dute **ezan*-en agerraldirik. Testuen kokapen seguru edo gutxi-gora-beherakoa kontuan izanik, iruditzen zait galera hegoaldetik ifarrerantz eta ekialderantz heda zitekeela: hara nola gutxitzen diren agerraldiak Kapanaga eta Durangaldeko ondorengoen eta, bereziki, RS eta Mikoletaren artean. Hipotesi honen alde, erdialdekotzat dugun BB-k ez du agerraldi bakar bat, eta batez ere, luzeago, zaharrago eta beste ezaugarri batzutan arkaiko gisa agertzen zaizki-gun hegoaldeko VJ eta EK-ek ere ez, galera hortik abiatuaren seinale, enc ustez.⁵⁸

2.4. -Ø / -tu

Egungo euskaran ezberdintasun nabarmena dago ekialdeko eta hegoaldeko euskalkien artean indikatiboaz atetiko denboretan aditz nagusiari dagokionez. Ekialdeko hizkeretan mendebal aldekoetan bezala partizipioari eransten zaio laguntzailea indikatiboa, baina gainerakoetan aditz erroarekin doa: *etorri zen, onartu zuen baina etor zedin, onar lezan*. Mendebalean, aldiz, bi kasuetan partizipioa erabili ohi dugu: *etorri zedin, onartu lezan (egian)*.

Usadio zaharra, jakina, ekialdekoek mantendu dute. Azkue eta Lafon aritu dira honetaz eta beren lanetan hainbat frogatzen dute hori baiez-tatzeko:

- 1) Oraindik mantentzen dira B-z *ken hortik* edo *hor konpon* *Mari Anton* bezalako arkaismuak (Azkue 1935: 67),
- 2) zenbait hitz konposaturen lehen osagaiak aditz erroa da: *sorlekua, Jaunaren crucifica lekua* (Leizarraga),
- 3) -gai, -gei aditz erroei (*irakurgai*) eransten zaie, eta
- 4) *erazo / arrazi* ere aditz erroei eransten zaie (*galerazo, harrazo*); ik. Lafon 1943 II: 20 azken hiru arrazoietarako.

Datu hauen arabera honako ondorioetara iritsi zen Lafon:

La distinction du radical et du participe doit donc avoir eu autrefois une aire d'extension plus grande qu'aujourd'hui; il est même vraisemblable que tous les dialectes l'ont connue et l'ont, plus ou moins systématiquement, utilisée (ibid.).

⁵⁸ Zuazo 1996a-ko datuak Betolatzaz bat datoaz B hegoaldekoetan esanetan; Zuazo 1996b-ko ondorioetan **ezan* erroa Araban Bizkaian baino lehenago galdu izana proposatzen da, bi eremu horietako hizkeren arteko ezberdintasunen artean, nahiz eta «dena dela, ez daukagu "bizkaieraren" eremu osoko albiste zurrak eta ezin baieztapen biribilegirik egin» crantsi. Lehentasunik ez dakit, baina Betolatzak ordezkatu hizkera eta VJ-ek ordezkatua, demagun, aldaketa horren gune eta hedatzairen izateko —nor iparrerantz, nor hegoalde eta ekialdeantz— ez dut oztopo nabarmenik ikusten.

Lakarra 1985d-n erakusten saiatu nintzenez, morfologi bereizkuntza hau ez da «zitekeena» baina segurua (cf. Omaetxebarria 1948: 314), bai aitzineuskararako eta baita BZ-eko lehendabiziko testuetarako. Zorionez, badira aldaketa batzu euskararen eboluzioan *historiaren* barnean (ez historiaurrean) gertatzen direnak eta besterik gabe testuetara joaz iker daitezkeenak; hau dugu horietarik.

xvi. mendeko testuen bitartez ezagutu arren xv. mendeko diren kanta zaharrak (Milia Lastur eta Abendañoren eresiak, Olaso, Arrasateko erreketaren eta Sandailiaren kantoreak) har bagenitza, honelako emaitzak genituzke: *Ezcon bequio, Al banegui empara, Gal didila Unxeta, Sumi a/çajla, Jauna ez cençan empara, sar gaytezafn], Nay ez daquiola valia.* Hots, 7 kasuetarik zazpiak mantentzen dute forma zaharra, berriaren ale bat ere gabe.

Hurrengo mendean, xvi.ean, hasten dira jadanik indikatiboaaz kanpo-ko partizipioaren leben agerraldiak: *Onec galdu badagui, choria escôdu ney, ucatu vadidi,* etab. Alabaina, oraindik mende horretan ere gehiago dira aditz erroarekin doazen modu hipotetikoetako adizkiak (34, 27ren kontra) eta nagusi da RS, Garibai edo Zumarragarengan, nahiz eta partizipiodunik ere izan. Zumarraga *aporta bayte, goarda ditean, acudidu deguijuela, alegra vidi, gujadu bite, esforça bidy* (4 / 2); Garibai *aserra citecen, urta aquio* (2 / 0); RS *garrastu adi, neca adi, aspertu banequio, asper lequiquet, arri citean, aguir citean, quendu deyque, lora ditean, uza bez, ce bez aurqui, eguioc aldatu, dayc galdu, uler ezac, gal bidi, ora nequiqueo, ezcô adi, uzqur baquio, senda quique, ezca ceaquio, lotsaga nindin, ase nindin, galdu ce eguiic, galdu badagui, bero ezac, asper çaquidaz, ar bez, ezcô ezac, ar eçac, escôdu ney, ez ayte galdu, bior cidi, luzatu ce eguidazu, ucatu vadidi, aztidila artu leydi, gal nezan, gondu daquiaia, berri dan artean aytia, ase nenza, ençindu ce eguiic* (26 / 14).⁵⁹

xvii. mendetik aurrera jadanik partizipioa izango da erabiliena, aditz erroa arkaismu solte bezala baino gordetzen ez delarik.⁶⁰

⁵⁹ Jakingaria da (cf. Lakarra 1985d) Betolatzaren kasua, 7 adibide differentetarik 7ak baiotaz partizipioarekin: *libradu gaguzâ, libradu gaguzuz, parcatu eguiñuz, erregutu eguiñu, biurtu eguzuz, erregutu deguiñçula, salvadu leyequean.* Zuazo 1996a eta 1996b-n ere ohartzen da Betolatzaren usadio berritzale honctaz eta lchen bezala (cf. aurreko oharra) erroaren eta partizipioaren arteko bereizkuntzaren galeria Araban burutu zela lehenago proposatzen. Hango iruzkinak balio lezake hemen ere, beharbada.

⁶⁰ Ondoko taula Lakarra 1985d-n emanakoaren egokitzapena baino ez da; han aurkituko dira gorago labur beharrez moztu ditudan agerraldien testuinguru luzeagoak eta pasarteen zehaztasunak ere. Gehi bedi *Enojaduric* [c. 1611-33] 6 *bior citean*, testu horretako *irrealis* bakarra.

		-θ	-tu
Mendietak ⁶¹	(1607)	0	1
Poesia ⁶²	(1609 b.l.)	1	1
EK	(1638)	2	9
Mikoleta	(1653)	6	11
Kapanaga	(1656)	2	67
Viva Jesus	(xvii. m.)	2	19
Amileta	(1678)	1	8
BB	(1688)	5	4
Zubia-Lez.	(1691-9)	1	7
Bulda	(1701 b.l.)	0	3
Barrutia	(~1720)	25	14
Arzadun	(1731)	0	21
Urkizu	(1737)	0	22

1600 ingururako prosan nagusi dira *-tu*-ak irrealekin ere eta 1700etik aurrerako testuetan (Arzadun, Urkizu) ez da besteren arrastorik. Ohartu behar da, halere, forma zaharkituak ez zirela egun bezain ezerzagunak ez eta agramatikalak ere 17. mendeau zehar, bertsotan EK, BBetan —are *Acto para la Nochebuena-n* bertan— erabiltzen baitira, azken honetan kopuru markagarrian (25 / 39tatik) gainera. Mikoletak prosa eta poesia gongbinatzen dituelarik, ez da diferentzia nabarmenik bateko eta besteko proportzioen artean (bietan *-tu*-dunak besteen bi halako) eta, beraz, badi-rudi, bere garaikideek baino hobeki mantendu zuela usadio zaharra.

Fenomeno berau —nahiz eta bere kasuan lekuko urriagoak izan— gertatu zen beranduxcago G-z ere: AzpGut (1622) *solfi yçaçu, escribi deguiçudala, gaztiga deguiçudala, serbi deçadala*, Isasti (~1625) 50 *Illac aguin ceguiian*, 81 *Unaiac aserra citean gaztac aguer citean*, Salbes *erregu ezazu* (id. Etxabek 1609), guztiak salbuespenik gabe; Mis.ean nagusi dira (10/4) *-tu* gabeak: 1c *borra eçaçu*, 2b *quendu eguidaçu*, 3d *vençutu çinçan*, 7a *apartadu eçaçu*, 7d *borra biza*, 8a *garbi eçaçu*, 9b *quendu ez çaitela*, 11b *viurtu eguidaçu*, 11c *fortaleci naça*, 12b *libra naçaçu*, 12c *alabaçayçan*, 12d *ensalça dazan*, 13b *alaba çayçadan* baina ez bedi ahantzi neurriareki-ko menpekotasuna. 1648ko testu batean (*TAV* 167) *biurtu zaitez irakur-tzen* dugu baina adibide bakarra da, eta gainera 1655eko beste batean («Contribución» 129) oraindik *uidal ezazu dakusagu patente bat bidal-du*-ren ondoren.

⁶¹ in «Contribución» § 5.2.7.

⁶² in *TAV*, § 3.1.22.

Nolanahi ere, bereizkuntza galdua edo galtzean zen XVIII. mendearren hasierarako hegomorebaleko zati batean: OA 1 *barcatu eguzicutzu*, 4 *bonratu daigula*, 4 *santificatu ditzagula*, 8 *regutu egizu*, 11 *serbitu cegian*, 13 *libratu gaitzatzu*, 14 *artu egizu*, 23 *deseguindu ditçaque*, 33 *salvatu guindecen*, 49 *quendu leiqueo*, etab.; 50. orri arte aurkitu ditu-
dan salbuespen bakarrak 1 *libra gaitzatzu*, 2 *regu egizu* eta 11 *goza cegian* dira, eta hauetarik lehen biak bederen Aita Gurea eta Agur Marian fosildurik kausitzen ditugu.

Egia da Zegamako dotrinan (1741) 25 adibideetarik soilik 9tan dugula *-tu* eta Irazuztarenean (1739) soilik 29tarik 9tan, baina ene ustez *Oren* adibide gehienak erlijio hizkuntzako fosiltzat jo behar ditugu; Oikiako Agirreren lekukotasunak (1749, ikus Lakarra 1987), aldiz, garbi diosku oso bestela zeudela gauzak ekialderago: lehendabiziko 25 orrietan aurkitzen diren 16 adibideetarik *erregutu deguizula* (9) da *-tu* daraman bakarra.

Euskalkiek beren aldaketan ere zenbat antzekotasun erakusten duten gogoratzeko, ez dut aztertzen ari garen arazo honetaz beste datu bakar bat baino emango: partizipioaren hedakundeak kronologia ezberdina du *-tu* aditzentzai eta *-i* aditzentzat; baina, halere, zein BZ-ean zein GZ-ean *-i* aditzetan jazotzen da lehendabizi, euskalki horien historiaurrean, hain zuzen.⁶³

2.5. Komuntzadura falta

Azkuek zioenez «en varias zonas territorialmente guipuzcoanas y alabesas del dialecto B rechazan por lo general toda característica de pluralidad objetiva. Dicen *dauko y emon dotsagu* aun tratándose de varias cosas en vez de *daukaz y emon dotsaguz*» (1923-5 II: 775).⁶⁴ Beste zenbaitetan bezala, Azkue baino lehen ohartua zen jadanik honetaz Zabala; begi zolia berea ahozko zein izkribuzko B-ren ezaugarri eta akatsak miatu eta epaitzeko:

La sinceridad que nos hemos propuesto en esta obra demanda, que así como las perfecciones, digamos también los defectos que en algunos pueblos se cometen en los artículos a fin de que puedan evitarse. Sea pues el 1º de estos el usar de los artículos de paciente de 3ª persona de singular para los pacientes de 3ª de plural como lo hacen en varios pueblos de Guipúzcoa que hablan nuestro dialecto, v.g. *nic zuri gauza

⁶³ Cf. Sarasola 1983: 129; horregatik ez ziren kontuan hartu hauetako Lakarra 1985d-n, non falta baitira GZ-eko datuok ere. Salbuespen bakarrak 101 *eros aada* eta 136 *az ezac* bide dira.

⁶⁴ Bego hau definizio gisa nahiz eta zehazketaren bat falta laguntzaileaz kanporakoenan. Azkue ondoren berriro ukitu du gaia Arejitak (1984: 13-14) Amileta, Oinatiko eskuizkribua eta Aek (zalantzakoa niretzat) gehituaz. Azkueren adibideei, baina ezer erantsi gabe hark eman hedaduraz.

ederrac emongo deutsut por deutsudaz: yo os daré a vos cosas hermosas» (VRB 57).

Komunzaduracza aski zaharra bide da lurrarde horietan, jadanik Barrutiaren testuan eta Antzuola aldeko Amiletaren dotrinan (1678) ere azalduaz: Bar 179 *Abrasazen deust errai guztiaç, 301 Lastazarubainin-zan ala quendu jeuste zayac, 347 sein demporan atera yeusan guztiaq pica mantarrac, 347 Ona non ofrezizen deusut munduko bioz guztiaq, Amileta 1 Ofrecicen deusut neure viciea, obraac, trabaju guztiaç, ibid Jauna ai ici ceuscuna ceure pasiño santuco señaleac, 4 Amudiozco obraac dira Espíritu Santuari aplicacen jaaconaç, 5 guizonari ezpatea ta maguinea biac dausa ta ez eraq alcarri, ala arimea ta gorpuza bere Jaungoicoari eusan, 6 Christoc ici euscula elizaan remedioac becatuac parcaceco.* Badugu oraindik 1825eko beste lekukotasun bat Antzuolarako urte horretako dotrina eskuizkribatu batean honclakoak irakur baitaitezke: *barcatzen jaco becatuac confesau baño lenago... ez jaco barcatzen becatuac confesinoco sacramentua recibidu artian, penitencia gueijago santu guztiaç eguin dituenac baño, barcatu deigula Jaungoicuac gure becatuac, etab.*

Erabilera hau ez da, beraz, B osora hedatzen egun eta, dakigunez, lehenago ere horrelatsu zeuden gauzak.⁶⁵ Alabaina, markatzekoa da B-tik kanpo ere ezaguna zela eta dela. Azkuek B-ko ekialdeko zenbait lurraldrentzat ohartu eta bertan, orobat egin zuen Bährrek (1925: 98-99) Legazpi eta G-ren hegomendebalekoentzat:

Al primer vistazo dado al cuadro de las flexiones se da uno cuenta de la carencia de ciertas categorías; es decir, las receptivas con el objeto en plural (y las correspondientes intransitivas), resultando de ahí una notable simplificación. Este fenómeno es también propio de los subdialectos guipuzcoanos inmediatos; es decir, los de Cegama, Segura, Gaviria, Mutiloa, Ormaiztegi e Idiazabal (en Beasain se empieza a hacer uso, aunque no uniforme, de flexiones como *zaizkio, dizkizut, dizkio-gu*, etc., y más allá de Villafranca su empleo es corriente y exacto), y hasta en las variedades vecinas de la parte vizcaína en Oñate, Mondragón, Vergara y Anzuola se observa la misma restricción. Dada la absoluta falta de tradición literaria en estos dialectos, parece imposible, hoy por hoy, averiguar las causas y la evolución de tan peregrina simplificación, pues ni las personas de edad más avanzada recuerdan las flexiones perdidas [oharrean «El príncipe Bonaparte encontró el verbo en Cegama hace más de medio siglo igual que hoy día» gehituaz]. Lo que si puede

⁶⁵ Komunzaduraren frogak ugariegjak dira adibideak emateko; merezi du, agian, gaztigatzeak inoiz edo bchin Kapanagaren *daucana esagúcaac aimbat montaña eta aib artean bezalakoren bat aurkitu ahal dela baina gertakari honek egilearen hizkeraz ondorio sakonik ateratzeko eskurik ematen ez digularik.*

darse por cierto es su primitiva existencia, deducida, claramente, de su empleo irregular y poco frecuente en el potencial.

Aberatsegi egin dela ezin esan badezakegu ere, azken urteotan Bährek lerrook idatzi zituenean baino aberatsago bada azpieuskalki horretako literatur tradiziona, edota, zehatzago, badugu dagoenekoz (ikus *ASJU* 18/2, 1984) F. Ondarrak eta L. Murugarrenak *Zegamako dotrina* (1741) eta *Goierriko platika* (xviii, m.) argitara ondoren hango euskararen lekuko zahar edo aspaldikorik. Bada, bietan eriden ahal da komunzaduraezaren adibiderik: ZeDot 10 at. eta 63 at. *Barcatuco dirazula neure pecatuac*, 10 *Nic ofritcen-dizut neure vicia, obrac eta trabajuac*, 41 at. *Jaungoicoac barca dagwigula gueure peccatuac, guc ere barcatzen diegun betcela*, GP 6-7 *esqueñico balizute munduan diran honra, hacienda ta gusto guztiac, ta mundu guztiico errengue izatea, ez cenduque estimatuco*, 7 *eguin diguen agrabio ta ausencia gaiztoac*, 10 *cerbait arinduko ote dizuen cere tormentuac!* Betoz zuri agur andiac, ta cortejo guztiac eguiten zizutenac, 11 *zuc daquizun ichusiquetia guztiac*, 14 *ematen didazu aviso gozo oec*.

GZ eta modernoaren azpieuskalki hauetan ez eze fenomeno hau oraindik beste lurraldetan ere hedatzen da, horietarik hegoalderantz hurbilen zen A-n hain zuzen, euskalki honen hiru lekukotan aurki baitezakegu: Land *miembro andiac daucana* «membrudo», *surr onac daucana* «oledor», Gamiz 199 *Zugatic gauza gustiac izten dut oso*, id. 200 *Duzu begnicho bazuc / ta aurpeguiacobat*, ibid *Escuac duzu leun*, ibid *Or vildu duzu / munduko perfeccioac*, ibid *Asqui esan dudanac / disparateac / barcatu bearco duzu / eroaren itzac*, id. 201 *erresuesta ezta gaizto / bodac daucagu*, id. 202 *Ene gorainciac emozute / ene adisquide gustiai*.^{65b}

Berrikuntza honen hedadura ezin interesgarriagoa da hiru euskalkitan emanik ez baitator bakar baten mugakin ere ados (nahiz eta A-ren lekukotasunak urriak izan baieztapen sendoetarako) goian aipatu dudan horien izaeraren tasun bat, zabalera ezberdineko isoglosa multzo arbitrario batean (gogora Coseriu) oinarriztea alegia, indartuz.

Bestalde, eta esandakoaren ondorioz, behar diren datu guztiak kontuan hariten ez dituen azterketa atomistaren arriskuak argiro agertzen zaizkigu: euskalki bakoitza zein bere aldetik erabilirik eta orobat sinkronia eta historia ere, ia aipatzea merezi ez duen bitxikeria edo huts baztergarria genuke; azterketa orokorrako batean, aldiz, arreta gehixeago merezi bide dute honclako datuek.

^{65b} Zenbakiak Goikoetxea-Maizaren edizioko (1984) orrienak dira ohi bezala; ik. halaber Knörr 1974 zeinen iruzkina ez baitator nirearekin bat puntu honetan; dagoenekoz Mitxelena 1958an gazzigatzen da usadio hau Landucci dela eta, baita Azkue aipatzen ere. Testuan aipatu 3. lekukotasuna Albeniz araiatzenarena da, cf. Altuna (1996); Betolatzak, aldiz, komunzadura gehienetan, cf. Zuazo 1996a.

2.6. *bai(s)t-*

Atzizki bezala *-bai(s)t* oraindik ere orokorra da nahiz eta aurrizki juntagailu gisa egun erdi-ekialdekoa egin.⁶⁶ Alabaina, hau ez da beti honela izan: cf. RS 20 *Celan baysta ojala alacoa mendela* «Qual es el paño, tal es el orillo», RS 35 *Celangoa baysta amea alangoa oyda alabea* «Qual suele ser la madre, tal suele ser la hija» eta RS 478 *Celan baynabil janciric alan oza daucat nic* «Assí como ando vestido de aquella suerte tengo el frío»; Barrutiak ere badu oraindik XVIII. mendearen lehen zatian 299 *Lastasacua baininçan ala bat*.⁶⁷

Kontuan izanik erdialde eta ekialderako dugun lekukotasun falta eta Mikoletak 17an ez duela horrelakorik agertzen, halaber BZ.ak ez duela euskara osoaren forma zahar bat mantendu baino egin eta B modernoa, ezabatu duenean, ez dela horretan bakarra izan —galera bera izan baitu G-ren zati handi batek—, mendebaldetik ekialderantz hedatu ote oraingoan ere galera?

2.7. Objetu zuzena genitiboan / nominatiboan

Mendebaldeko euskaldunok ekialdekoen testuekin edo hizkerekin topo egiten dugunean, aditzeko eta hiztegiko ezberdintasunez at, konturazten gara sintasiarekiko beste zenbaitez ere; menpeko esaldietako objetu zuzena genitiboan jartzeko haien duten ohitura, estate baterako; genitibatze bonen bitartez gure *Joan nintzen adiskideak agurtzera* haientzat *Joan nintzen adiskideen agurtzera* dugu; ik. Heath 1972: 46-66.

Honelako esaldiak orain arrotz egiten bazaizkigu ere, aurki daitezke inoiz edo behin BZ-eko testuetan, nahiz eta lehendabiziko egitura izan orduan ere, eta askorekin, arruntena: *Argui içarrac urten dau / Çeruan goyan ostançean; / Bergararroc asi dira / Trajoe baten asmaçean* (Ack, TAV 83), RS 499 *Guiçon vicia bereen ezcatu doa* «Hombre biuo suele demandar lo que es suyo», Kapanaga 6 *Arean etorricoda ilaen eta vicien juzgaetara, 37 P. Zegati esqueetan ezçachacoz egungo oguien baxen* ? R. Yru gauçataraco: *graciaac emayteco, satisfacietaeo, eta ondasuneeen esqueetaco, 151 Iaungoicoari misericordien escatuko iaco, 155 eroan naguicu ceure vistara eta gloria celestiaien goçaetan ceure misericordiagatic,* (Iturbe, «Contribución» 83) *Goacen mairu errira / Mairuen zaticen, / Mendi Adlanterano / Guztia errezen, Barrutia 411 Escatū zaquioz doa ascoren.*

⁶⁶ Mitxelenak «todo el mundo lo daria hoy por occidental (sic, irakur oriental): se diría casi que es uno de los rasgos que separan el guipuzcoano del alto-navarro» diosku (1981c: 303); Koldo Zuazok oraindik Beterri eta Toloserrian ere badela diost.

⁶⁷ Atal honetarako ik. Mitxelena 1981c: 303; RS-eko bi adibide ere bereak dira eta Barrutiaren gehi RS-eko hirugarrena bazezarren dagoenekoaz Azkuek *Morfología-n* (§ 529).

GZ-ean ere eriden daiteke *Irekiko dezu ene aoa / alaba zaizadan Jaun zerukoia / zure alabanzaen beti esaten / egongo naiz zein andiak diraden* (Misererea, 16.m?), *Estu egongo aiz oen glosacen; / Ançarac vasea quic deadarr eguiten; / Salamancaco çuloan egondur inçan icasten; / Hicaragoa aiz oen egu<i>ten* (Tolosa 1619, TAV 127), ez da bear escatu barcacione. *Honra restituicoco da solamente barcacioaren escatcea* (OA 171).⁶⁸

Datu hauen arabera badirudi mementuren batean erregela orokor eta optatiboa zen honek bi aterabide izan dituela: 1) hedatu eta mantendu zenbait euskalkitan (erdi-ekialdekoetan) eta 2) ezabatu gainerakoetan, hots, B, G eta HGN-ko mendebalean.⁶⁹

2.8. Genitiboa gonbarazioan

Ator/rjen baxen ur/rjago nartua «El cuero más cerca que la camisa» irakurtzen da RS 281.ean. Urquijok zegoen zegocnean utzi zuen, nahiz eta Azkuek, hutsa iruditurik, *atorra* zuzendu. Mitxelenak Urquijoren lanaren berrargitalpenari (Mitxelena 1964c) jarri hitzaurrean erakutsi zueñez, gonbarazioan nahiz eta nominatiboa esperoko genukeen erideten dugun genitiboaren ordez, ez da *erratum* edo antzcko ezer. Entzun edo erabili ohi dugun euskara moetan (eta are BZ eta berriko gainerako testuetan ere) horrelako egiturak eriden ez arren, erruz ditugu erronkarieraz: Hualde Mayoren S. Mateoren itzulpeneko *aren beino andiago izanic* (11,11), *beraren beino gasstuago* (12, 45) edota Mendigatzak Azkueri berrari zuzendu gutunetako *iñante eguna izan da goressima egun baten bi-kain triste* (Mitxelena 1964c-ko adibideak).

Bestalde, *are* (*gehiago*) gonbarazioko partikula ezagunean 3. pertsonari dagokion erakuslea gehi -re genitiboaren forma zaharra (cf. *gu-re*, *zue-re*, *lagun-a-re-kin*) izanik, arkaismu baten aurrean gaude, oraingo euskalkietako fosil batean edo bestean (baina ez ahantz arestian mututu erron-

⁶⁸ Cf. atal honi buruz Lakarra 1983b: 58-60. Ez ditut hemen erabili, han egin bezala, zenbait herri kanta ez eta ondoko hamarkadetako adibideak; cf. I. oharreko azken ahapaldia.

⁶⁹ Kontrakorik uste badu ere Orpustanek; ez deritzot joskera honen galera mendebaldean literatur hizkerako fenomenoren bat denik, eta egingo nuke ez ditucla datuak bere osotan sunean ikusi, bestela ez luke «suivent quelques exemples tous versifiés, ce qui n'est pas indifférent à notre propos» (1992: 537) esango ene datuez (Lakarra 1986b aipatzen du, horkoa 1983b-koaren laburpen huts izan arren, gaztigatu legez); bestalde Betolatzak genitiborik ez erabiltzea ez doa batere gaizki gure azalpenerako, kapitulu honetan bertan —lehenago Azkuek eta Mitxelenak ere ikusi zuten bezala aurrekoan erakutsi dudan legez—, haren jocra berritzale haboro aurkitu ahalko baitu.

kariera) baino islatu ez arren, garai bateko euskara osoaren baliapide batzen aurrean (Mitxelena 1964c).⁷⁰

2.9. Koordinazio zahar bat

Ene veguiacaz viocean artean irakurtzen da amodiozko bertso zahar batean (TAV 122). Egitura «arraro» (Mitxelenaren iruzkineko hitzak dira) bera («X-ekin Y = X eta Y») agertzen da B zaharreko eta klasikoko testu gehiagotan ere: Aek Gomiz Gonsaluscjh bertan çan / Beragaz Presebalen caltean «con él (Gómez González) teniendo allí parte (...) en daño de P., Joanico y otros muchos», Mikoleta Peru Xauna derechan bategas vere osseyñ Alonsoen artean (elkarrizketen hasieran), Kapanaga 20 Iando-neanez Batisteari, aprostuay, Iaundone Periagaz san Pablori eta ceruco santu guztiaiy (2tan aitorrean), BB 29 Vizcayagaz Motricu / noc euquean sinistu / frances oncia eugueala / belaetaric billostu, Barrutia 325 Desiertura xuango naiz ni eguiten penitencia / Ene xana ta ene edana urarequin ogua, Gandara (1768) Izan dedilla gueure / arnasa azquena / Jesus onarequin / Ceutorren icena, De la Quadra (1784) Eguingo dozuszala baqueac neugaz justicia divinoaren artian, etab. (ik. Lakarra 1983h); RS-eten ere badugu bat, edota, agian hobe, bi batean: 246 Ogniagaz hura, oragaz heroen elicatura, «Pan con agua, mantenimiento de loco y mastín».

Egitura arkaiko honetan ere B ez da bakarra, G-z era horretako hainbat exenplu bildu baititut: XVI. mendeko «Miserere» batean *Biz gloria Aitearequin semearençat*, BK Gamboarroquin / Onaztarroc conforme / Vizcaítican vere acompañacen debe, 1705eko gabon kanta batean *Bere aldean omen zeatuk / astoarekin idia*, Lasarteko 1716ko bertso iraingarriean Agustinacho Ybillico nais surequin ene gaisean (= «Andaré en perjuicio tuio y mío»), Larramendiren Hiztegian (1745) «Siroco: viento de entre Levante y mediodía = sortaldearequin eguardiaren bitarteko aice bat, etab., ehun eta piku agerraldi (fosildu gehienbat) dituen Iztuetaganaino iritsi arte, Agirre Oikiako, Lariz, Iturriaga, Lardizabal eta zenbait kanta herrikoi barne direlarik».⁷¹

⁷⁰ Hemen ez dagokigu guzti honek ablatibo zaharrarekin izan dezakeen erlazioa nahiz eta hori ere jorratu Mitxelenak. Bidenabar, ez dut sinisten orain Salaberrik (FLV 1996koan) eta lehen Altunak (edizioan) bezala, Etxeparek bere buruaz ondutako poemaren tituluan -re genitibo zaharraren adibiderik dugunik, eta bai, aldiz, duplografia ulerterraz bat (cf. antzezoak in Blecua 1983 eta Lakarra 1988b); urrutilegi dira erdiaroko adibide urriak eta ez da bakar bat gehiago, ez bere obran ez handik kanpo: horrakoxo gorde ote zigun bada?

⁷¹ Geroztik bibliografian ugaldu egin dira 19. mendeko adibideak; cf. J. A. Mujika «Gramatika egitura jakingarri batzuk» in Lakarra (arg.), 1991b, 1029-1052 (1030-1032 auzi dugun egitura); batari eta besteari itzuri zitzagun dirudienez P. Salaberrik FLV 1996, 225, ailtzatu Kardaberatzen adibide bakarren bat.

III. Zenbait ondorio RS-en kokaguneaz BZ-aren barnean

Ondoren goiko ezaugarrien azterketa laburtzen dut taula (bikoitz) batean; hobeki uler dadin ezezkoa (-1etik -3ra) jarri zaie mantendu arkaismoei eta baiezkoa (+1etik +3ra) berrikuntzei: «1» adibideren bat deunan, «2» kontuan harteko proportzioan, «3» agerraldi erdiak baino gehiago. Oharreu bitartez bestelako xehetasunen bat eman da baina goiko azterketa partikularrean begiratu beharko datu zehatzak izateko.

	15.m	16.m	Gar	RS	Bet	EK	Mik
1. ABL	-3	-3	-3	-3	+2 ⁷²	-2	-2
2. PROS	()	()	-3	-3	-3	-3	-2
3. SOZ	+3 ⁷³	+3	()	+3	+3	+3	+3
4. -a/-e-	()	-3	-3	-3	-3	-3	-3
5. -de	()	()	-3	+3	-3	+3	+3
6. -n >-ø	-3	-3	-3	+2	-3	-2 ⁷⁴	+2
7. Fut.Z	()	()	-2	-2	+3	-1	-1
8. Fut. Iu.	()	-3	()	-2	+3	-1	()
9. -zu	-3	()	()	-3	()	-3	-2
10. AOR	-3	-3	-2	-2	+3	-2	-2
11. eroan/joan	()	()	-3	-3	()	()	-2
12. *ezan/egin	()	()	()	-1 ⁷⁵	+3	+3	+1
13. -ø/-tu	-3	-2	-3	-2	+3	+1	+1
14. KOM	()	()	()	-3	-3	-3	-3
15. bai(s)t-	()	()	()	-2	+3	+3	+3
16. Togen	()	()	+3	+2	+3	+3	+3
17. Ge.Gon.	(..)	()	+3	-1 ⁷⁶	+3	+3	+3
18. Ko.Zah.	+2	+3	+3	-1	+3	+3	-1
GUZTIRA ⁷⁷	-10	-11	-16	-21	+16	+2	+2
BATAZ BESTE ⁷⁸	-1,4	-1,3	-1,3	-1,1	+1	+0,1	+0,1

⁷² -ean fosilduren bat gelditzen zaio, ez besterik, dagokion atalean ikusi bezala.

⁷³ Ez dugu -kin-ik aurkitu TAV eta «Contribución»-en, eta, beraz, berrikuntza erabat burutu dela suposatzen dugu hor isolatzen diren (erdi-mendebaleko) testuentzat.

⁷⁴ -n gabe forma bakar bat, aipatu da goian.

⁷⁵ Nagusi izan arren *egin*, *ezan*-en forma ugari.

⁷⁶ Adibide bakarra testuan eta ia euskara osoan, goian eman salbuespenekin.

⁷⁷ Zutabeko kopuruen gehiketa hutsa.

⁷⁸ Aurreko gehiketa zati erantzundun ezaugariak.

	Kap	VJ	Am	BB	Zub	Arz	Bar
1. ABL	-2	-1 ⁷⁹	-1	+1 ⁸⁰	+1	+2	+2
2. PROS	-3	-1	0	-3	0	-2	-2
3. SOZ	+3	+3	-2 ⁸¹	+3	+3	+3	-2
4. -a/-e-	-3	-3	-3	-3	-3	-3	-3
5. -de	-3	+3	-3	-3	-3	-3	-3
6. -n > -ø	-3	-3	-3	-3	-3	-3	-3
7. Fut.Z	+2	()	+3	-2	+3	+3	+3
8. Fut. In.	+2	()	+3	+3	+3	+3	+2
9. -zu	()	()	()	-3	()	()	-2
10. AOR	+2	-2	+3	+3	+3	+3	+3
11. eroan/joan	-1	()	()	()	()	()	()
12. *ezan/egin	+2	+3	-2	+3	+3	+3	+1
13. -ø/-tu	+2	+2	+2	-1	+2	+3	-2
14. KOM	-3	-3	+2 ⁸²	-3	-3	-3	+2
15. bai(s)t-	+3	+3	+3	+3	+3	+3	+2
16. Togen	+2	+3	+3	+3	+3	+3	+2
17. Ge.Gon.	+3	+3	+3	+3	+3	+3	+3
18. Ko.Zah.	+2	+3	+3	+2	+3	+3	+2
GUZTIRA	+7	+10	+11	+3	+15	+15	+5
BATEZ BESTE	+0,4	+0,6	+0,7	+0,1	+1	+1	+0,3

Edozein ondoriok RS-en arkaikotasun ezaguna islatu behar du, bai BZ-eko gainerako fetxadun testuez, bai euskal dialekto guztietaiko leku-kotasunak kontuan harturik ere. Urte berean argitaratu zen Betolatzaren dotrinarekin erkatzea genuke, noski, frogarik errazena: berrikuntza batean (3.a, soilik -gaz), eta hiru arkaismotan (2. -ti, 4.a -a/-e- eta 14.a komunzadura) dator bat; beste guztian, RS-ek gordetzen dituen 12 arkaismo (1. ablat., 7. fut. zaharra, 8. fut. imperatiboa, 9. -zu pl., 10. aoristoa, 11. eroan/joan laguntzaile, 12. *ezan/egin, 13. -ø/-tu, 15. bai(s)t-, 16. Togen, 17. Genitiboa gonbarazioan, 18. Koordinazio zaharra) ez ditu egiten Betolatzak, eta soilik 6. -n > -ø fenomenoan jotzen du arabarrak zaharraren alde besteak berritzen duen bitartean. Bestalde, ez da arkismo ez berrikuntzarik non Betolatzak soilik RS-ekin batera irakur dezan: soziatiboa -gaz bakarra dute biek baina beste hainbatekin batera eta goian aipatu hiru arkismo amankomunetan ia ia BZ osoarekin, eta are B osoko testu gehienekin.

⁷⁹ Ikusi denez forma zaharrak singularrean eta berriak pluralean.

⁸⁰ Ablatibo bakarra, baina berritzailagoa zen pluralekoa (*belaetaric*).

⁸¹ Pluralean soilik -kim; orobat Barrutiaik.

⁸² Badira komunzadura adibideak?

Morfologia eta sintasiko ezaugarri hauetan ez da horrenbesteko differentziariak *RS* eta Garibairen artean, nahiz eta honen korpus laburrak gonbaraketa zaldutako 18tik 6tan dute ezaugarriren bat amankomunean eta gradu bertsuan (cf. (1), (2), (4), (7), (10) eta (11)), beste 4tan gradua da ezberdina (13, 16, 17, 18), 6tan ez dira parekagarri aipatu korpus laburta-sunagatik eta soilik 3tan da differentzia ezaugarri baten aurrean batak arkaismua eta bestek berrikuntza: (5), (6), bata bataren eta bestea bestearen alde, bidenabar. Pentsatzeko da gonbaraketa honetan bereziki lexikoa sar bageneza kontuak oso bestela liratzekeela (gogora 1. kapituluko gonbaraketa laburra) baina ez dira gorago aipatu Menéndez Pidalen eta Mitxelenaren irizpide honen ahultasunarekikoak ere atzendu behar.

Garibai eta Betolatza —artean ez bezala— beren aldetik gonbaratzeko erantzun bataren arkaismu nabarmen *RS*-ek estaliaz eta bestearen berritzailera izaeraz ohartzeko onik ekar lezake: Gar-en berrikuntza guztietan ((16), (17), (18)) berrikuntza du Betolatzak eta baita hark arkaismua mantendu (1), (7), (10) eta (13) ezaugarrietan ere.

Hizkuntzak eta dialektoak banatu eta sailkatzean hainbateko garrantzia eman zaion⁸³ berrikuntza amankomun bereizleetara jotzen badugu, *RS*-ek Mikoletarekin du horrelakoetan bakarra: 6. -n > -ø. Gainera, testu hauen arteko lotura (cf. 4. kapitulua) antzeman daiteke amankomuneko arkaismuetan ere:⁸⁴ 1. ablat., 2. prosekut., 5. -de, 7. fut. zaharra, 10. aoristoa, 12. *ezan/egin* (beste muturreko Amilleta eta Barrutia dituztela kide); berrikuntzetan, aipatuaz landa talde mugatu batekin (*Enojaduric, Atseyñ andia, EK eta VJ-ekin*) dute -de berrikuntza (mendebalekoa) eta horiek dute amankomuneau aoristoa iretauea ere.

